

OROMENDERRIETA. Mende eta herri guztiak batera biltzen direna. Hemen ez dira apatxeak hiltzen, hemen ez dira soldadu gizajoak hiltzen, ez bandoleroak, ez piratak, ezta agenteak edo hauen bidaltzaileak ere. Hemen hil behar dutenak bakarrik eta hil behar duten guztiak hiltzen dira. Noizbait gorengoak harrapatu ditugu. Bazuan garaia, hainbeste menderen ondoren! Bana banaka eta era etengabe berdinez erortzen dira. Nola eroriko zituan, ba, berak ere aspergarrero berdin eratuak baitziren mendeen hasieratik? Gorengoak harrapatzea utopia izan da beti. Oromenderrieta hortik hasten eta hortxe amaitzen da. Gizateriaren azkenengo gerra, betiko irabazia. Fikzioa? Bai fikzio ederra! Baina geldi. Eta fikzioa ez balitz? Edo egizko fikzioa balitz? Ehunetik batek galdera hori egitea nahikoa da eta milatik batek egizkotzat hartzea pentsatuko balu, gehiegi, hi! Horren besterik ez diagu behar.



elkar_{s.a.}

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITZDARIA, S. A.

Esterlines, 10
Tf. 426319
Donostia

Pannecau, 52
Tf. 254390
64100 Baiona

Xabier Amuriza




OROMENDERRIETA



OROMENDERRIETA

Xabier
Amuriza




euskal literatura-elaberria

ELKAR

OROMENDERRIETA

*Lan honek, Bilboko Aurrezki Kutxak
antolatutako IX Azkue Sariketa
irabazi zuen elaberri sailean,
1983. urtean.*



DENA EGINA

Ez dakit hankaz gora ala buruz behera nabilen. Ez dakit sano ala zoro nagoen. Zuhaitzak alderantziz ikusten ditut eta, zutik baldin banago, berak daude zoro. Lurra goian ikusten dut eta, buruz behera baldin banago, neu nago sano. Ez dakit nagoen ala nabilen, baina, ni geldi baldin banago, beste gauza guztiak martxan dabilta, honelako abiadurarik ez baitut sekula somatu. Nola azaldu baneki! Zer egingo zenuke, bat batean dena egina dagoela esango balizute? Esatea da gutxienean, sinestea haundiena. Ezin dut sinestu, baina sinestu beharra daukat. Esteak eta hezurak aurka dauzkat, elkar zulatzen ari zaizkit eta ez da mina ere, burua zorabiatu baitaukat. Baina hezurrek eta esteek ez didate sinestu nahi eta buruak diosta erraiak oka egin behar ditudala, honek ez baitauka bueltarik.

Zer egingo zenuke bat batean gizateriaren historiak bazterra jo duela irentsiko bazenu? Minak bukatu direla irentsiko bazenu? Sufrimenduak joanak direla? Gizakumeak

milaka urtez bildutako ezinak krask egin duela? Gure bi-hotzak milaka urtez odoleratutako tristurak lumak haitzetan bezala barreiatu direla? Zementuzko habeak baino tristura sakonagoak! Arnasa bezain antzinakoak! Eta bat batean luma bihurtuak! Hau arintasun ezin jasana! Hau jareintasun menderatua! Zer egingo zenuke, hitz batez, historia eta historiaurrea bat batean ezabatuak direla eta mugagabetasuna hasia dela sinestuko bazenu?

Esan bai askok esana da hori, baina apenas inork sinestua duen, eta hona ni zer egin ez dakidala, ez bainuen une hau niri tokatu behar zitzaidanik inoiz usteko. Nahiago nuke sinestuko ez banu, neure burua ezagutuko bainuke. Orain arte neure buruarekin ibilia naiz eta pozak eta minak txandatu, —pozak baino gehiago minak—, nor nintzen ba nenkien, edo neure burua sentitzen nuen behintzat. Orain ez dakit eskuak nora bota, ez dakit burua non dudan. Nola jakingo dut, ba, ez baitut hankarik sentitzen, ez ingururik nabaritzen? Sinestu beharra daukadala besterik ez dakit eta honek ez daukala bueltarik.

Zer pentsatzen ari zaren ba dakit. Ametsaren bukaera espero duzu. Ez, maitea! Zuk baino lehenago pentsatu dut hori, baina benetako orduan ametsak berezten ba dakit. Hemen ez dago tranparik. Eguerdiko eguzkia baino itzarrago nauzu. Gertatzen dena hain bat bateko jareintasun hau historia osoa baino zama haundiagoa zaidala. Ez daukat huts egiteko zirriturik ere. Irentsia dut, eta, alderantzituko banintz ere, ez dauka bueltarik eta hori pentsatzeak sorrerazten didan lilurak argiaren abiadura ere atzean uzten du. Argi gaizoa! Hainbeste mende eta milurte argi eske iragan ondoren, orain argia bera ere historiaurrean gelditua.

Neure gorputzari begira nago. Hementxe ditut eskuak, idazten ari direnak hain zuzen, hementxe ditut begiak, le-

tra iladak begininietan islatzen zaizkienak, hementxe ditut hankak, lehen non ziren ez nenkienak, eta hementxe daukat —zergatik ez esan?— ipurdia ere, burtzoraldi azkengabe honetan oreka apur bat ematen didana.

Bukatuak dira minak, bukatuak dira oinazeak, bukatuak dira tristurak, bukatuak dira zapalkuntzak, bukatuak esplotazioak, bukatuak morrontzak, bukatuak miseriak. Betidaniko miseriak, betirako bukatuak. Egingo da negar, baina ez eragina, egingo da barre, baina ez penen hilgarri, egingo da lan, baina ez larrua bertan uzteko, egingo da lo, baina ez itzar aldia ehorzteko. Banakako miseriak eta elkarrekiko miseriak, norberek eta denenak, ezkutuak eta ageriak. Betidanik eta betirako.

Ez naiz harritzen zuk hori ezin sinesteaz. Nola harrituko naiz, ba, neuri zer gertatu zaidan jakinik? Baina zuk ez daukazu sinestu beharrik eta nik bai. Ezina baino beharra haundiagoa zait, askoz haundiagoa. Nork pentsatuko zuen ezina baino indartsuagorik izan zitekeenik? Ez da neuk sortutako beharra, beharturik nagoela baizik. Nork edo zerk? Nola adierazi baneki! Apurka apurka argituko gara. Zure sinestezinari ere denbora gutxi gelditzen zaio.

Ingurura begiratu eta ez diot antzik hartzen. Lehengo ia denak min ematen zidan. Ez begiratzea nahiago nuen, hainbeste gaitz ikusten bainuen. Orain ere bai, baina denbora gutxirako. Jolasean dabiltzan haur horiek ez dakite nire baitan zer gertatu den, lantegietako tximini haiek ere ez dakite azken ordua gainean dutela, jaiotzeaz damuturik hiltzen ari direnek ez dakite zer pozik hilko liratekeen, pixka bat itxarongo balute. Hiltzetik ez gara apartatuko, zoriez. Eskerrak hilkorak garela, hilezkorak bagina, ez bailegoke irtenbiderik.

Ingurura bakarrik ez, mundu osora baizik. Zer da in-

gurutxo hau mundu osoaren ondoan? Eta mundu osoa gainean dut. Horrexegatik da hau sinestu ezinekoa, baina horrexegatik sinestu beharrekoa ere, mundu osoa delako. Ez dago eskapurik, orain arte gaizkiarentzat ere eskapurik ez zegoen bezala. Ez da sinestearen ala ez sinestearen gorabehera ere. Bueltarik ez daukanak ez du sinestunik ez sinestegaberik behar. Berdin zaio. Horregatik ez zuk ere sinesten ahaleginik egin. Aurka jartzen bazara ere, mundu guztia aurka jartzen baduzu ere, alperrik da. Lumak haizeteari baino euspen gutxiago izango duzu.

Gizakia tximinoengandik berezten hasi zenetik hona, pentsa zenbat denbora eta gorabehera izan den. Gizakiok geure buruaz jabetzen eta besteenaz ohartzten hasi ginetik, pentsa zenbat ezbehar eta halabehar. Ez uste hala ere ordutik hona alderik dagoenik. Zertzelada batzuk gorabehera, historia bat bera da. Orain arteko mende guztiak haro berbera dira, historiaurrea ezagutzen ez dugun historia besterik ez baita. Baina historia bera direla jakiteko aina ezagutzen dugu, bai. Ez dago hasierako parabiserik ez ondoko hondamenik. Dena da bat. Ez uste lagunari kendutako platanoa, biharamonean berak jateko, gordetzean ikasi zuen lehen gizakume xoil harengandik unti atomikoetan planeta berri bila doazen astronautengana alderik dagoenik.

Pasa itzazu histori liburuak eta herri bakar bateko hamarkada bakar bati eskainitako aleak ehundaka dira. Bil itzazu herri guztiak batean, bil itzazu mende guztiak batera, bil itzazu xehetasun guztiak bat batera eta zenbat liburu ale? Bil itzazu arte guztiak, lehen gizakiak haitza marrazten ikasi zuenetik honakoak, bil itzazu literatura guztiak, bil jakintza guztiak, bil artxibo guztiak eta itxasoa hustu behar haiek kabitzeko, eta betikotasun osoa behar haiei begiratzeko. Guzti hori, hala ere, hutsa da izanda-

ko guztiaren ondoan, hotsik eta hitzik gehienak jaso gabe gelditu baitira, eta jaso gabe gelditu diren guztiak baino askoz gehiago egin ere egin gabe geldituak. Hotsetatik eta hitzetatik sentimenduetara jotzen baduzu berriz, horiek bai gehienak inon erregistratu gabe galduak direla. Baina ea! Irudimenaren ahalegin ikaragarritz, bil itzazu bilitzeko guztiak eta itxasoa ez ezik, espazio guztia behar duzu, denak sartzeko. Horixe duzu orain arteko historia.

Orain esaidazu guzti hori bat batean bukatua dela sinestu beharra zer den. Ez da oraintxe bertan bukatua, baina bai berehalaxe bukatzekoa. Amen batean hiltzen ez bazara, zuk ere ez daukazu iharrosaldi guztizko horretatik apartatzerik. Hilko banintz, orduantxe akabo. Emaidazu bizia, hasitakoa amaitu arte behintzat. Orduan edozer, jadanik ez baituke bueltarik.

Abiadura ezin gehiagoan nobilelakoan, geldi geldi nago. Odola ote zen? Neuronak ote ziren? Zerbait ba zen, argia bera ere atzean uzterainoko abiada ezartzen zidana, baina geldi nago, harri eta zur. Dena egina! Dena bukatua! Ez duk, ba, ez dugulako sufritu. Itxaropena azken galtzen dena dela, baina uste dut inork ez zeukala itxaropenik. Gertatzen dena noiz galdu genuen ez garelako gogoratzen, haurrak, sortuz batera, lehenen galtzen duena itxaropena baita. Horrexegatik heltzen dio negarrari. Nola gogoratu sortzean bertan galdu genuenaz?

Itxaropentxoak ba dira, bai: hurrengo urtea hobea izango ote den, soldata jasoko ote diguten, norbaitek maitasun pixka bat emango ote digun, hurrengo jaietan aurrekoan baino gutxiago aspertuko ote garen. Itxaropen haundiagoak ere bai: diktadura bat botako ote dugun, herri bati iraun eraziko ote diogun, laster beharbada libreak izango ote garen, hain heriotza tristerik tokatuko ez ote zaigun, eta horrelakoak. Baina itxaropena esaten dena,

hazia obuloan sartzean, kanpoan gelditu zen. Ez dago irtenbiderik, ez baitzen sartu ere. Ongia eta gaizkia itxaropenetik kanpo dira.

Nahi al duzu zer amaituko den zehazki jakin, behar ez den ilusiorik egin ez dezazun? Gaizkia amaituko da, ez gaitza. Ona eta gaitza naturaren egintzak dira, gizakien-gandik apartekoak. Ongia eta gaizkia, ordea, gizakiak sorrerazitako on-gaitzak dira, adimendutik harakoak, ez naturak eraginak. Natura ez da ez on ez txar. Natura natura da, guretzat ona ala txarra gerta liteke baina. Jaiotza ona bada, hiltzea gaitza da, biak gure eskumendetik kanpo daudenak. Ba dira eritasunak ere, naturatik harakoak, gure gainetik eta gure gainera datozenak. Ahalegin guztiak eginik ere, gaitzik ez dugu menderatuko.

Gaizkia, ordea, gizakiek elkarri egiten dioten kaltea eta mina da, adimendutik harakoa. Lotan zaudela zapaltzen banauzu, hori ez da zure gaizkia, naturaren gaitza baizik. Baina itzarrik zaudela, zeure adimenduko giltzen bidez, norbait zapaltzen baduzu, horixe da gaizkia.

Gaizkia elkarri egindako kaltea ez ezik, naturari berari egiten dioguna ere ba da. Airea hondatzea, ibaiak ustel eraztea naturari geuk egiten diogun okerra da, gero elkarrentzat ere hondagarri gertatzen dena. Ongia eta gaizkia kontzientziaren emaitzak dira, nahiz eta beti kontzienteak ez izan. Ongia eta gaizkia ezagueratik edo adimendutik datoz. Lur honetan behintzat gizakiak bakarrik egin lezake ongirik eta gaizkirik, beste guztia on-gaitzak direlarik.

Zerk eragiten du minik gehien? Zerk egin erazten du negarrik gehien munduan? Gaizkiak. Horixe duzu sufri-menduaren sorburu agorkaitza. Horixe duzu tristura guztien eragilea. Ken itzazu zapalkuntzak, ken itzazu gerrak, ken esplotazioak, ken goseak, ken hilketak, ken miseriak, eta zer gelditzen da historiatik? Ezer ere ez. Guzti hori ken-

durik, ez dago historiarik egin beharrik ere.

Horiek guztiak kendurik ere, min batzuk hantxe izango dira, eritasunak hantxe izango dira, oinaztuak jotzen bazaitu, hil beharra izango duzu, ezerk jotzen ez bazaitu ere, zahartzak hilko zaitu. Heriotza bidean duzu. Baina gaitz horiek ez dute beste gaizkien ondoan minik ematen. Gaitz horiek asumituak ditugu, gaitzak direla emanik. Naturatik harakoak baldin bagara, naturatik harako gaitzak ez zaizkigu mingarri izango. Nola, ordea, gaizkia asumitu? Nola gizakiok elkar hondatzeaz, zapaltzeaz, esplotatzeaz eta hiltzeaz etsi? Hortxe dago mina eta horixe da sentimen apurrik izan duten guztiek noizbait bukatzeko amets egin zutena. Horixe da lehenean edo geroan parabisua jarri zutenek bukatzeko amets egin zutena. Parabisurik ez dago, ordea, ez lehengorik ez gerokorik. Oraintxe da gaizkiaren hondamena, oraintxe da afusilatua izan diren guztien azken gogoaren betetzea. Egina dago dena.

Eta gero? Ah! Hori geroak esango du. Nola asmatu, gaizkia mundutik erauzirik, gero zer izango den? Dena etengabeko sortzea, dena etengabe berria. Nola asmatu muga gabeko sorkuntzaren eta berrikuntzaren emaitza zer izango den? Horixe da hain zuzen oraingo espektazio luragarria, suspentse zorazarlea.

Bukatuak dira gerrak eta gerrak egin beharrak. Bukatuak dira iraultzak eta iraultzak egin beharrak. Bukatuak dira gizateriak pasiboki eta sogorki jasaten dituen minak eta miseriak. Bukatuak dira mundu gaizkitua ongiratu nahirik bizitzen eta hiltzen direnen penak. Nolako penak, maitea! Nolako penak, sentitzeko bihotzik baldin baduzu! Pentsa ezazu arin, laster ez baitukezu aukerarik. Bil eta senti ezazu amaigabeko gaizki multzo guztia, gero hartatiko liberakuntza zoragarriago gerta dakizun.

Nork pentsatu behar zuen noizbait hau egia izango ze-

nik? Nork pentsatu behar zuen, irrealia zela eta sinestu nahi ez izateagatik, betikotasunaren urruntasunean jartzen genuen egiak muturren aurreko denboran gertatu behar zue-
nik? Ez ezaidazu ametsak kontatzen ari naizela esan, baietz esango baitizut. Noizbait bizitza ameskaitza besterik ez dela pentsatu edo entzun baduzu, oraintxe itzartu nauzu ameskaitz larrimin horretatik. Oraindik begien itxi-irekian ari nauzu, benetan zelai berrian ala betiko zaharrea ote nagoen. Mundu berri honetatik, geroago beste berriago batera itzartzea ere ba liteke, baina oraingoz ez dit axola. Betikotasuna amets zelaiaren segida etengabea izatea ere ba liteke. Baina zelai honetan betirako ere konforme naiz.

Konforme bakarrik ez, zoragarri baizik. Horregatik ez dakit hankaz gora ala buruz behera nagoen. Ez dakit nabilen ala nagoen. Dakidana da ba naizela eta mundu berri hau ba dela. Dakidana da historia bukatua dela. Ba zuan garaia! Hemendik aurrera zer izango den ez dakit, eta axolarik ere ez. Zapalkuntzarik ez den lekuan, edozer. Edozer! Edozer!! Edozeeeeer!!!

Ai ama! Zer gertatu da hemen? Nire burua haizetea duzu. Uhin iheslea nauzu. Izar zoratua nauzu. Lurrikara intrinsekoa nauzu. Ibai supersonikoa nauzu. Oinaztuaren bizkarhezurra. Basapiztien pultsua. Orgasmoen sorburua. Abiaduraren izpiritua nauzu. Gelditasunaren kontzentrapena. Pozaren oldarra. Zoramenaren eztanda. Zorionaren deskontrola nauzu. Zer gertatu da hemen?

Esango dizut, ba, bestela ez baituzu asmatuko. Orain arte ez didazu ezer sinestu, ez? Enfasis literarioetan ari naizela uste duzu. Zer estilo den edo noren antzak ote ditudan ere pentsatzen hasia zaude. Gaizoa! Zuk hartu behar duzu muturretakoa! Kontatuko dizut, behin behintzat oker zaudelako harritu zaitezen, eta oker hori, behin behintzat, ederrena delako, gehiago harritu zaitezen. Esan-

go dizut nondik eta zertatik natorren honen gainezka. Kontatuko dizut nora eta zertara noan honen buelta gabeki. Esango dizut eta kontatuko dizut.

AZKEN BILTZARREA

Lezaundietako haitzulo ikaragarriak lau aho dauzka lau haizeetara, iparrekoak itxasoaren gain gainera ematen duela. Lau ahoek erdiko areto neurrigabera daramate, historiaurreko lehen gizakiak sortzen eta ibiltzen ziren aterpera. Gero han, lurraren sabeleruntz, beste anitz bide eta bidexka dira, iluntasunaren nerbio sarea osatuz. Lau ahoak artezak izanik, lau aldeetako argitasunek erdian bat egiten dute, halako ilunabar etengabea eginez, egun garbietan nahiko argi eta egun estalietan nahiko ilun. Denborale haundietan berriz ilunpe osoa. Lezaundietak haitzezko menditzar konkaboa dirudi katilu izugarri baten gainean. Lehen garaietako erraldoi izugarri batek bere gordegutzat ipinia omen da.

Mundua erabat ontzeko itxaropenik inork ez dduka. Afanak eta teoriak bai, historiarik ezagutzen ez dutelako, edo ezina nolabait zuritu behar delako, baina arrazoiz eta hotzean pentsatzen jarririk, inork ez

du sinesten mundua erabat konpon litekeenik. Sinestu duenik baldin bada, gero eta gutxiago, denbora ezetzera pilatuz baitoa. Sinesten dutenen baikortasunak nahiz sinesten ez dutenen ezkortasunak suerte haundia daukate hiltzeaz, batzuek beren espejismoa eta besteek beren etsipena guztiz deusestatzeko astirik ez daukatelako. Bakoitza bere mendetxoan bizi da eta hortixek datoz oker guztiak. Hilezkorrak bagina, itxaropen hondarrak aspaldi erreak genituzke, baina hain bizitza laburra izanik, ez daukagu guztiz erretzeko astirik.

Egun hartan Lezaundietako golkora jenderik desberdinenak eta urrungoenak etorri eta etorri ari ziren, banaka, binaka eta multzoka. Historiaren sorburuetatik honuzko erromesaldiak ziruditen, azkenean denak lau ahoetariko batean batu eta haitzulora errezkada luzean sartzen zirelarik. Itxasalde zabaletik zetozenak iparreko ahotik barruratzen ziren. Kanpoan eguzkiaren ibilerak eguerdia jo zuenean, Lezajaunak hots egin zuen:

— Jaun-andre lagunak! Oraindik jendea etortzen ari bada ere, biltzarrea hasteko moduan gaude. Aurreko biltzarrea noiz izan zen gogoratzen al zarete? Alde batetik hain tristerik eta bestetik hain ilusiotso elkarri agur egin zenioten biltzarre hura. Sortu berria nintzen eta hementxe utzi ninduzuen, urteak eta mendeak kontatzen, agian noizbait itzuliko zinetela eta. Ba nenkien itzuliko zinetela, honenbeste menderen buruan izango zenik uste ez banuen ere. Ba zen garaia, lagunak! Kostatu zaizue, baina hemen zaudete berriz ere. Nola luzatu zarete horrenbeste? Egun hau haundia baino haundiagoa da, luzetasun horrek are emozio gehiago ezartzen baitio. Elkar ezagutzen al duzue? Ikusten dut, bai, oso aldaturik zatoztela. Luzeak eta ez

hain luzeak, haundiak eta txikiagoak, zuriak eta beltzak, urdinak eta moreak, eta oraindik etortzen ari direnak. Egun haundia gaurkoa, hainbeste elkar ikusteko eta hainbeste elkarri esateko baitugu. Eskerrik asko, noizbait bada ere, etorri zaretelako, zuen zain gogaitzen hasirik bainengoen. Ongi etorri, Lezaundietako oihartzun guztien izenean.

Lezajaunari garrafoi biluziak bezalako malakoak abiatu zitzaizkion, emozioaren emozioz. Lehenago ere, bakartate lekutsu hartan, hamaika bider negar egina zen, baina inork ez baitzuen ikusten, alperreko negarrak izan ziren denak. Nork esango zuen halako erraldoiak hain bihozbera izan behar zuenik?

Askok mundu honetan ezin dutena bestean jartzen dute, baina hori ez da mundua konpontzea, ifernutik zerurako itxaropena ateratzea baizik. Fede hori benetakoa ala sasikoa izateak norberarentzat garrantzi psikologiko haundia izan lezake, baina mundu honetako gorabehera obehitiboa lehenean uzten du. Gainera beste munduan itxaropenik dutenek ere apenas benetan sinesten duten, inork ez baitu honen leku gaizto honetatik hain leku on hartara aldatzerik nahi. Heriotza norbere aurreratzen ibili gabe ere, beste munduan hain itxaropen ederra daukatenak indar zapaltzaileen aurka mundu honetan ez daukatenak baino gehiago arriskatzea pentsa zitekeen, baina apenas hori ere hala gertatzen den. Batean nahiz bestean salbuespenek araua baitesten dutelarik, beste munduko itxaropena, gehienean, mundu honetako itxaropenik ezaren ordainordea besterik ez dela esan nahi du horrek. Gogoaren tranpa bat, autodefentsa bat, zerbaiten pozez bizi behar

baita. Tranpa hori benetan hartuko balute, beste erakutsi bat emango lukete.

Lezaundietako zelai biribilkara hartan ba ziren han hemen zoruaren zelaitasuna apurtzen zuten harkaitzak, batzuk lurretik sortuak eta beste batzuk, milaka urteren pazientziaz eta uraren jolas amaigabez, sapaetik beheruntz eratuak, eta gero, beste milaka urteren pazientziaz, erditik etenak. Lezajaunak halakoxe harkaitz gailur zapal baten gaintetik hitz egin zuen, gero bere malkoak gordetze-ra, haitzuloaren ezker aldera bazterturik. Ia betidaniko mintzaleku hartatixe hitz egin zuten Lezaundietako hizlari guztiek, sarreran edo barruan elkar agurtu eta zenbait berriketa izan ondoren.

— Ongi etorriak denok —hasi zen lehenengoa— eta ongi aurkitua zu, Lezajaun berdingabe hori. Ni Lezaundietatik ezker hegoalderuntz abiatu zirenetarikoa nauzue. Ibaiari jarraika irten ginen eta geroztik zer ikusiak garen ez dago oroimen osoan ere sartzerik. Ozta ozta itzuli naiz, denboraren muineraino nekatua. Ez dago zereginik. Zenbat gerra galdutan eta beste zenbat irabazitan ibilia naitzen kontaduria galduta daukat, azkenean galduak nahiz irabaziak berdina zirela ateratzeko. Gure herrian gerrondo ez bazen, geraurrea zen beti. Oraintxe ere airea leher zorian dagoela diote, baina nik ez daukat berriz gerrarik galtzeko gogorik, ez eta irabaztekorik ere. Hemendik abiatu ginenean, eguneroko janaren ardura irten ginen eta hainbeste menderen buruan, ezin izan gara ardura horretatik jaregin. Jan eta lan egiten dugu, jan baino gehiago lan, eta horixe da gure mundualdi tentela, hainbeste odol isuri ondoren. Biltzarre honetatik zerbaite ateratzen ez bada, gure orain arteko mundualditik ez daukagu inolako irtenbiderik eskaintzerik.

— Ongi etorriak denok eta aupa zu, Lezajaun haundi hori —hots egin zuen bigarrenak—. Aurrekoak esan duena gogorra izan bada, nik agertu behar dudana ez da gozoa-go. Gu hemendik itxasoz menturatu ginen, destinoaren eraginez noizbait nonbait lehorra jo genuelarik. Mende batzuk ez genituen hain gaizki iragan, baina gero hemendik hara eta handik hona izan da gure mundualdia, beti iheska, non geunden ere orientapena galdu arte. Lezaundietara bidea nola aurkitu dugun ere ez dakit. Gure mundualdia ez jan ez lan izan da. Jan gabe lanik egiterik ez dago eta gu eguneko jana noiz poliki hornitu dugun ere ahaztuak gaude, norbaitzuek jango zuten baina. Zer egin dugun? Esan dizuet. Iraun ozta ozta, baina ez gutxi kostata. Apenas gerrarik galdu dugun, ez baikenuen egiteko adorerik ere. Inoiz derrigorrean egin behar izan ditugunak denak galdu ditugula esan beharrik ez dago. Gure izatea ihes egin ala hil izan da beti. Behin leku berean gelditu eta gogor egin behar genuela esatera menturatu nintzenean, ez ninduten bertan garbitu, adorerik ez zeukatelako. Hainbeste mende eta mendi ibili ondoren, gure herrian gaur ere ogi zatia da ametsik haundiena, beste leku batzutan botaka daukatela diote baina. Azken hitzak esateko, gehiagorako kemenik ez baitaukat, ni ez noa gehiago hemendik inora, hobe baita gosez baina geldirik hil, gosez eta gainera iheska baino.

Beste munduan sinesten dutenen eta ez dutenen artean, bitzuak benetakoak balira, mundu honetarako ere alde haundiak nabari behar lirateke, eginkizun erritualetan kanpo aisa igartzekoak. Benetan maitemindurik dagoenaren eta frustrazio biribila izan duenaren artean igartzen den bezala. Edo loteria haundia tokatu zaion pobreaken eta lehenean geldituen artean.

tu denaren artean igartzen den bezala. Edo seme-alaba ederrak hazten ari denaren eta denak deskalabruan galdu dituenaren artean igartzen den bezala. Gauza horiek ez dira gizakumearen gogoa eta gogokera aldatu gabe ibiltzekoak. Beste munduko itxaropenaren gorabehera askoz diferentzia haundia izanik, usainean ere igartzekoa izan behar luke. Azken batez, sinestea nahiz ez sinestea ez direla benetakoak eta kito.

— Ongi etorri denok eta gora zu, Lezajaun agurgarri hori —hasi zen hirugarrena—. Nik, ikusten duzue, aurreko biek baino itxura hobea dudala dirudi. Gu Lezaundietatik ekialderuntz abiatu ginen, beti mendi gainik mendi gain eta eguzkiaren sorlekuruntz. Gu mende luzetan nahiko suertetsuak izan ginen. Goserik eta horrelakorik ez behintzat, baina beti gerran. Hori bai, gerrarik gehienak irabazten genituen, baina ez ziren txantxetako irabazteak, herritarrik erdiak bertan galtzen baikenituen. Jaioz batera hasten ginen hurrei armak erakusten. Oinez ikasi aurretik, gure hurrek ba zekiten harrika. Haundi egindakoa, gerrarik aspaldi izan gabe bageunden, asmatu egin behar izaten zen, geure artean besterik ez bazen ere. Eta zer? Gure herrian berez hiltzea zer den ere apenas inork dakien. Adinekoek, gerrarako gauza ez zirela ohartzean, beren buruak ibaira botatzen zituzten. Hori bai, jan eta edan gehienez ondo, beste batzuk guregatik miserian zue dela esaten zuten baina. Azken mendeotan, ordea, guri ere gerrarako gogoa joan zaigu. Baina alperrik. Orain ez daukagu gerratik bizitza besterik, ez baikenuen besterik ikasi, eta bururaino nazkatuak gaude, bai eta nekatuak ere. Gogorik gabe egiten den gerra baino gauza nekagarriagorik ez dago. Baina denek ez dute berdin ikusten eta

hor gabiltza azken aldion, denok elkar jan beharrez. Ez dago zereginik. Martxa honetan denok akabatu behar dugu, edo bestela estabilitatearen zihurgarri bakarra den miseriara goaz.

— Ongi etorri denoi eta agur zuri, Lezajaun betikor horri —esan zuen laugarrenak—. Besteengandik oso mundualdi deberdina dakart nik, azkenean haitzulo berera itzuli banaiz ere. Guk Mendebalderuntz hartu genuen. Mendebala oso bortitza eta gupidagabea dela ba dakizue. Gure herria nahasia eta odol berokoa zen. Harrizko tresnak egiten ikasi aurretik, zazpirehun matxinadatan ibilia nintzen. Geroztik beste hirurogeita hamazazpi iraultzatan tarteko izana nauzue eta, harrigarria bada ere, denetan bizirik atera naiz. Heriotzak ez nau nonbait maite, baina nekatuta nago. Lezaundietan itxaropenik sortzen ez bada, Heriori irents nazala eskatu behar diot, edo bestela ez naiz inortuko, bizirik usteldu arte. Gure herrian iraultza bat amaitzeak beste bat pentsatzen hastea zekarren berehala. Garraipenaz gozatzeko astirik ere ez, hurrengorako motiboak biharamonean bertan sortzen baitziren. Beti esaten genuen huraxe izango zela azkenengoa eta beti huts egiten genuen. Azkenerako, irabazita ere alperrik zela etsiak geunden. Ez uste ez genuenik irabazten. Erdiak baino gehiago geure alde ateratzen ziren. Hori bai, galtzen genituenetan, ez zegoen bururik jasotzerik urteak egun aina gizaldi iragan arte. Irabaztean berriz, berehala zer gertatzen zen esan dizuet, baina irabaztea zer den jakitea ere ez da gutxi, nahiago nuke ez baneki baina, hainbeste aldiz irabazteak itxaropena gal erazi baitit. Doatsuak lehenengo iraultzan hilak, haiek pozik hil baitziren, hura betirako zelakoan. Ez zekiten gaizok alperrik irabaztea zer den. Gure herriak nekez izan du inorengandik defenditzeko gerrarik, ez eta inor menderatu nahi izatekorik ere. Etxe barruan izan dugu

etengabeko gerra. Zurezko armaz eta geroago harrizkoz burrukatzen ginenetik, aurrerapen haundiak izan dira gure artean, gerrak airean jokatzera. Herri bat garenik ere ezin dugu esan, hemendik abiatu ginen garai urrun haie-tatik hona askoz zatikatuago baikaude. Orduan etsaitxoak ginenok gaur etsaitzarrak gara. Orduan minik gehien egiten ahalegindurik ere, zenbat min egingo genion, ba, elkarri? Etsaienak izanik ere, elkarren kidetasun sentiera bat ba genuen. Gaur, ordea, otsotik ardira baino urruntasun ge-hiago sentitzen dugu elkarrengandik. Hurren egin beha-rreko iraultza ez da gizaki artekoa izango, munstro arte-koa baizik, eta haren ondokoa auskalo noren aurka izan-go den, tartean gero eta leze sakonagoak baitaude. Ez dago zereginik. Nik neuk azken iraultza egina dut, Lezaundie-tan ustekabe haundiren bat agertzen ez bada.

«Herri batua inoiz ez zanpatua». «Lehentxoago edo gerotxoago, egia beti nagusi» eta horrelakoak esa-ten dira, baina benetan sentitzen dena agertuko ba-litz, ez da sekula izan herri baturik ez banaturik, zan-patua izan ez denik. Eta mutilak: «Sekula ere ez» hori ez duk atzo goizeko kontua. Zenbat mende eta milurte dira gizakumea munduan zehar dabilela? Ba, inoiz ez inon ez da zanpatu gabeko herririk izan. Go-gorki edo ez hain gogorki, ohartzuz edo ez hain ohar-tuz, egoera hori ez da sekula inon gertatu. Askok parabisua hasieran jartzen dute, beste askok azke-nean. Baina parabisurik ez da ez hasieran ez azke-nean. Lau-hankan eta zuhaitzetik eroriz, bere burua-ren kontzientzia hartzen hainbeste kostatu zitzaion lehen gizakume hari parabisua bizkarreratzea zele-brea da benetan. Hasieran zentzurik ez zeukana nor-baitzuek azkenean jarri dute, baina horrek ere, zen-

tzu gehitxoago daukala eman arren, engainu siko-logikoaren oinarria besterik ez dauka. Eta hasieran eta azkenean, bietan dagoela emanik ere, hemen bi-tartekoaz ari gara. Ez daukat beste munduaz hitz egi-teko gogorik, mundu honetakoa argitu arte.

— Ongi etorriak denok eta gora zu, Lezajauna! —hots egin zuen boskarrenak—. Gu ere Mendebalderuntz abia-tu ginen, baina goi alderuntz, oraingo itxaso nagusiaren leherraldia harrapatzera. Gero urak haruntz bidali gintuen, uretan ibiltzen ikasi eta berriz honuntz etorri arte. Geroztik hortxe ibili gara haruntz eta honuntz, gero eta ekar-eraman haundiagoan. Munduan asko ibilia nauzue eta he-rririk aurreratuen gurea dela esaten dute. Aurreko lagun batek airez ibiltzen ere ikasi zutela esan du. Hori gure ar-tean putz egitea bezala da. Gure oraingo istilu nagusia inon ezin kabitzea da. Lurrak ez gintuen hartzen eta ilargian izanak gara. Hura ere txikia zen eta izarren bila gabiltza. Gure artean ez dago goserik, baina jendea aseztutzen da. Janari gustorik ere ez diote ia hartzen. Neu ere gerrarik gehienetan parte hartua naiz. Gerra izugarriak izan dira. Lehenago batzuk irabazten genituen, baina azken aldion ez dugu bakarrik ere ateratzen. Ilargitik eta goragotik ata-katzen gaituzte eta zer egin behar diegu, ba? Gainera no-ren aurka gabiltzan ere ia ez dakigu, etsaiak gure eskue-ratik oso urrun baitaude. Hain joan-etorri haundia dara-bilte, non guk hauteman aurretik ezkututzen baitira. Gu betiko zuloan harrapatzen gaituzte eta berak non diren ere ez dakigu. Okerrena berriz, beharrekorik ezin harrapatu-rik, elkar hiltzen dugula. Gerratik irtenbiderik ez zegoela ikusirik, gerrilara jo genuen. Zer arraiio! Hara al zoazte? Geuk ere atzetik jarraituko dizuegu. Hiri haundietako jen-detzan zeuen buruak gordetzen al dituzue? Geu ere hantxe

nahastuko gara. Noizbait komunera zoaztela? Hantxe izango duzue norbait. Sistema honek gutxienez alde on haundi bat ba zeukan, ez baitzegoen gerran aina jende hiltzerik. Hortik aurrera ez dakigu zer irabaziko dugun, gerrilan trebatu aurretik, ilargira joanak baitziren. Batzuk diote erruki gabe jarraitu behar diegula, baina zer egin, haraino iristea hainbeste kostatu eta gero, handik beste norabait joanak badira? Ez dago zereginik. Ezin ditugu sekula harrapatu, gero eta alde haundiagoa kentzen baitigute. Lehenago behintzat bi ibairen artean genbiltzan denok. Ez zeukaten urruntzerik, besteak beste, guregandik aparte goseak hiltzen baitzituen. Gero ibaiak bestalderatzen ikasi zuten, baina hori geuk ere aisa ikasi genuen. Gero itxasoz haruntz alde egiten ikasi zuten. Orduan poliki izorrratu gintuzten, itxasoa guretzat zailegia eta garestiegia baitzen. Baina hala ere, sarritan harrapatzen genituen, bueltan besterik ez bazen ere. Gero hegan ikasi zuten eta ai, ama! Haiek izan ziren gerrak! Gudari denak galdu genituen. Hortik atera genuen gerrilara jo behar genuela. Poliki hasi ginen, baina bai denbora gutxirako ere! Mundutik aldeginak dira eta guk ilargia zapaldu orduko, auskalo haiek non diren. Ezlurtarren aurka ari gara. Ez dago zereginik. Baina hona orain haundiena. Hurrengo gerra azkenengoa izango dela diote. Orain artekoak jolasak izan omen dira: nolabait hil behar eta gerran hil. Hurrengo, ordea, ez omen da hiltze soilak izango, jaiotza ere erretzea baizik. Orain arteko guztietan bizirik atera zaretenontzat ere hurrengoan ez omen dago eskapurik. Horrexegatik etorri naiz Lezaundietara, ea azken orduko desesperazioak irtenbideren bat asma erazten digun.

— *Irtenbiderik ez dagoela ez al duk, ba, esan?*

— *Orain arte ez dela izan eta inork ez duela sinestu esan diat.*

Ba dago irtenbiderik. Egon behar du irtenbiderik. Baina egotekotan, ez asmatua, dagoena baizik. Bada, ba dago, eta ez bada, ez dago. Horrek ez dauka bueltarik. Dagoena aurkitu behar dugu, eta konponbide funtsezkoaz ari naiz, ez adabaketaz. Gizajoa! Azkenean adabaketarik ere ez dagoela atera behar, gero eta okerrago goazela baizik. Historia ez da atzo goizekoa eta historiaurrea pentsa noizkoa. Hain denbora amaigabeetan gertatu ez denik gertatuko dela sinesteko barrabilak behar dituk gero! Baina gerta liteke. Animaliatik gizakumera iristen denbora gehiago iragan zen eta noizbait gertatu zen hori ere. Gizakume basakoitik gizakume gizakaira beste hainbeste behar bada, pixka baterako ba diagu. Ez dauka, ordea, hain luzea izan beharrik. Kontzientziaren leherraldia kontzientziaren sorraldia baino laburragoa izan liteke. Horixe da gertatu beharrekoa: kontzientziaren leherkundera, hasieran sorkundera izan zen bezala. Kontzientzia hau hobetzen saiatzetik ez dago irtenbiderik. Leher egin behar du eta horitik beste kontzientzia bat sortu.

— Ederki, lagunak! —hasi zen Lezajauna, azkenengo anizgarren hizlariak amaitutakoan. Ez nituen kontaktu, baina ehundaka izan ziren beren mundualdiko berri ematera igon zirenak. Ilunabarra biltzen hasia zen eta haitzuluan kanpoan baino bi ordu lehenago gautu zuen—. Piztu zuziak eta kandelak, gaurko gauak argitasuna eman dezan. Hori, hori! Horrelakoxe zuziteria zen, azken gau hartan elkar agurtu zenutenean ere. Gaur baino alaiago eta zaratatsuago zeundeten orduan. Gaur ere zerbait izango ahal da egunsentira orduko! Ederki hitz egin duzue denok, batek bakarrik hitz eginda ere aski izango zen bai-

na. Gezurra dirudi hemendik hala irten zinetenok honela itzultzea. Lizarrak bezain artezak eta lardenak bilakatu zarete. Ez dakit zenbat denbora den, baina begira nolakoak zatozten, ia lau-hankan irten zinetela. Gezurra dirudi bu-rua hain goi eta gogoa hain apal ekartzea. Sentitzen dut.

Ni ez naiz batere aldatu. Lehengo lehengoa nauzue. Baina ba nuen izaera nazkagarri hau uzteko gogoa. Ni ez naiz neu, sinesten nautena baizik eta sinesten nautelako naizena. Sinesten nauten bitartean, ez daukat izatea beste erremediorik. Ezin dut neure bururik akabatu ere, sinesten nauten guztiak akabatu ezik. Zuek joanaz batera, ba nintzen ni. Zuek behintzat munduz mundu ibilita zatozte, nik, ordea, denbora amaigabe hori haitzuloan egin behar izan dut, hementxe sinesten izan bainaute. Gogaitzea gutxi-ena da. Desesperaturik nengoen, ez baitzineten sekula etor-zen. Zer arraio egiten nuen nik hemen, munduko gaitz eta gaizki guztiak bizkarrean nituela?

Nik ez dut zuek bezalako goserik pasatu. Janari asko eta onena izan dut beti. Jan ahala baino askoz gehiago ekartzen zidaten. Herriko neska-mutilik ederrenak ekarri izan dizkidate janaritzat. Haur jaio berriak ere bai, hara-girik bigunena eduki nezan. Hamaika gizakume jan be-har izan dut, batere jangalerik gabe. Eta zenbat abere, de-netarikoak? Heurak goserik eta etxean eta herrian zeuz- katen gauzarik onenak ekartzen zizkidaten, eta nik jan egin behar. Zer egingo nuen, ba? Hainbeste kostaturik ekarriari estimaziorik eman ez banio, pentsa nolako atsekabea eta larritasuna, haserre nengoela uste izango baitzuten. Eta hain zuzen horretarakoxe ekarri niri, bare nendin, kalte-rik egin ez nezan, bai eta lagun izan nendin ere, hori ne-kez sinesten zuten baina. Batzutan apropos egin behar iza-ten nituen gaitzak, alperrik sinesten nindutela pentsa ez zezaten. Gehienez on egiten ahalegintzen nintzen, baina

neurri bateraino bakarrik, bestela sinemenaren funtsa apurtzen bainien.

Nik munduko gaitzen eta gaizkien jatorria justifikatu behar nuen. Zuek gerrak eta biziak gaitzen ari zineten bi-tartean, haitzulora etortzen zitzaizkidan, errukitzeko es- katuz, eta irabazten zenutenean, eskerrak ematera etortzen zitzaizkidan. Neure izateaz eta izan beharraz ernegaturik nengoen. Horregatik ongi etorriak bihotzez. Nola sortua izan nintzen ere ia ahaztua nuen, baina batzutan herriko jaunak ere etortzen ziren eta haien egokeratik zerbait sus- matzen hasi nintzen. Herri guztia batera etortzen eta jende apalak benetan belaunikatzen zitzaizkidan, baina herriko jaunak niri baino beste herritarrei adiago zeudela ohartu nintzen. Jendea begira zeukatela jakitean, berek ere agu- rrak eta burumakurtze haundiak egiten zizkidaten, baina behin elkarri begira erreparatu nien, herritarrak errespe- torik astunenez ahospez lurreratzen zirela. Orduan keinuak eta irribarretxoak egiten zizkioten elkarri, «hau itzel zi- hoak!» esanez bezala. Geroztik neuk ere kargu gehiago hartzen nien eta beti gauza bera egiten zuten. Hortixe ha- si nintzen ni haien sorkaria ote nintzen pentsatzen, baina ezin hori ere erabaki, besteek benetan sinesten bainindu- ten, eta hemen nago neure sorreraren berri zehatzik gabe eta amaitzeko ere itxaropenik gabe, zuek etorri arte, jaun- andre lagunak.

Zuen kondairak entzundakoan, ba dakit zer eta zer- gatik naizen. Nire gogorik haundiena zuekin bat egitea li- zateke, zuen etsipenak eta nireak elkar iraul dezaten, ze- ren nik ondo baitakit zuen etsaien berri. Ilargira alde egi- nak badira ere, ba dakit horien berri. Espazioan gora abia- tu aurretik eta ondotik, niregandik pasatzen dira beti. Ba dakit horien berri, beren sorkaria bainaiz. Neu nauzue ho- rien erraiz egina, neu horien arima. Aska nazazue eta as-

katuko zaituztet. Gaurko gaua gogoangarria izango dela uste dut. Orain har ezazue atsedean, aspaldiko kontu zaharrak aspaldiko lagun zaharrei kontatuz. Eguzkiaren gauerdian, haitzulo honen zilborrak milaka milioigarrenez bere erditze burrunba errepika dezanean, biltzarrearen bigarren zatia izango da. Gero arte.

Zer gertatu da hain mende luzeetan? Nola liteke gizakumeak bere kideak menderatzea, hustiratzea, hiltzea, hainbeste sufri eraztea? Horra hor hitz nagusia: sufrimendua. Bi sufrimendu nagusi dira, naturatik honakoa eta gizakumeen artekoa. Bi min emale diren bezala: gaitza eta gaizkia. Gaitza naturak edo naturako elementuek eragina da, haundiena heriotza dela. Gaizkia, ordea, gizakumeak kontzientziaren eremuan eragindako mina da. Min horixe da sufrimendua. Beste mina da, sufritzen ez, baina jasaten duguna. Hitzen gorabehera bada ere, mina naturatik harako gaitzaren sentsazioari esaten diogu eta sufrimendua kontzientzi eremuan sortuari. Hauxe da gako nagusia. Hauxe da ken litekeena, kentzerik baldin bada. Hauxe da beste minak ere astuntzen eta askoz mingarriagotzen dituen. Hauxe da, kenduz gero, mina ere neurri gabe arinduko lukeena. Oraingoz, eta agian betikotasun osoan, ez daukagu min naturala, heriotza azken batez, gairitxerik. Gaitza hor dago eta horrek ez dauka bueltarik. Bueltarik ez daukana jasan egiten da, baina ez du sufri erazten. Min ematen du, baina ez da sufrimendua. Sufrimendua gizakumeen arteko desberdintasuna da, eta hortik eta horretarako datorren zapalkuntza eta esplotazioa.

Gauerdian, Lezaundietako zilborrak bere erditze burrunba jo zuenean, lo sakonetik itzultzean bezalako lehen lanbrotasun kontzientea nabaritu nuen. Inguruan marmario haundia zebilen eta neure burua lokalizatu ezinik ari nintzen. Itzartzea esan dizut, baina ez. Sortzen ari nintzen. Neure sorrera bera zen nabari nuena, lurraren sabelko inguru zuzitsu eta durunditsu hartan. Gero sarritan liluratu nauen lore itxiaren irekiera sentitzen nuen. Lehenngotan hain kontzientzia lainoa zen, non ez bainuen elkar gainka zetozen sentsazio haien sorbururik berezten. Ez nekien «ni» nintzenik ere. Baina gero eta ingurua bortizkiago sentitzen nuen, horrek gehiago irekitzen ninduen eta honek inguruaren oharren zehatzagoa zekarkidan. Eskuak, oinak eta arnasa bereziak nituen, pulstua ere baina nuen, buruaz ere ohartu nintzen eta lehenbiziko hitzak esan nituen:

— Hauek neureak dira.

Hortik irekitasun osora ez zen tarte haundirik izan. Sortua nintzen eta Lezaundietako haitzuloan nengoan, jendetza haundiaren erdierdian. Hauexek izan ziren lehenengoz garbi entzun nituen hitzak:

— Honexek egingo du hori! Horixe da irtenbidea!

Denek neuri begiratzen zidaten eta nik oraindik ez nenkien nolakoa nintzen. Besteak ikusten nituen eta neure bururik ez nuen ikusten. Haiiek ezagutu nituen, neure burua ezagutu aurretik. Azken hitz horiek esan zituena izaki itzela zen. Beste guztiak haren ondoan txikiak eta bizkorrak ziren. Nik ez nenkien nolakoa nintzen, haundi hura bezalakoa ala beste guztietarikoa. Zutitu nintzen eta gorak eta irrintziak entzun nituen, zuziak airean zirela. Giza eta basa usain indartsua hartu nuen bat batean. Zutitzean, zalan-zak egin nituen, lehen aldia baitzen, baina ez neukan erortzerik, jendetza ondo ondoraino hurbildu baitzitzaidan,

aurrez aurre izaki haundi hura neukala. Orduantxe ohar-
tu nintzen hura baino askoz txikiagoa nintzela, baina bes-
teak baino haundiagoa.

— Honexek egingo du hori! Ez dago beste irtenbide-
rik! —hots egin zuen izaki haundiak. Lezajauna omen zen
bera—. Hau poza noizbait honen izate higuingarria utzi
ahal izatea! Horixe da irtenbidea. Ehortz nazazue eta zoaz-
te. Eskerrik asko!

Lezajauna bertan erori zen, Lezaundietako zilborra-
ren erditze burrunba bezalako dardara atereaz.

— Noizbait ere! Horixe da irtenbidea! —hots egin zu-
ten gizaki guztiek—. Egunsentia ba dator. Goazen!

*Gaitzaren eta gaizkiaren alderantzizkoak ona eta on-
gia dira. Ona naturatik harako ontasuna: eguzkia-
ren epela, uraren freskura, janarien gozoa eta abar.
Ongia berriz gizakumeak eragina: maitasuna, artea,
aurrerapena eta horrelakoak. Onak atsegina ema-
ten du eta ongiak zoriona. Berriro ere hitz jokoan
ari gara, baina nolabait berezi behar, zertan gabil-
tzan jakiteko ere. Hitz guztiak sinonimotzat jorik
ere, eragiten diguten alderdi onak bitarikoak direla
esaten ari gara: naturatik harakoak eta kontzien-
tziatik harakoak, gizakumearen izate zati berezi ho-
rretatik harakoak. Beste guztia naturarena da. Ez
hasi orain kontzientzia ere naturaren zatia ez den eta
horrelako tentelkeriak galdezka. Hemen natura oro-
korretik gizatasun espezifikoa berezten ari gara, eta
horra hain zuzen bereztea lortu dugun eremu horre-
tantxe jokatzeko delako mundu honetako gorabehera na-
gusia. Gorabehera bakarra, hobeki esateko, horixe
baita errotik konpongarri den ala ez planteiatzekoa.
Bestea ez dago planteiatzerik ere. Naturak egin gai-*

*tu eta berak irentsiko gaitu, oraindik daukagun eta
beste anitz mendetan edukiko dugun ahaletik behin-
tzat. Sufrimenduaren gorabehera guztia konponga-
rri den ala ez galdetzen dugun arlo horretantxe dago.*

Lezaundietako lau ahoetatik argia barruruntz zetorren
kontuz kontuz. Erdiak Lezajauna bizkarrean harturik eta
beste erdiak bi alboetatik argi eginez, hango gizasemeak
eta gizalabak ba zihozen errezkada luzean, denak ekial-
deko ahotik, argiarekin topo egin ahala zuziak itzaliz. Hai-
tzuloaren erdian bakarrik gelditu nintzenerako, argia ba-
rruraino sartua zen, eguzkiaren usain eta guzti. Neure oine-
tan bira osoa emanik, orduantxe konturatu nintzen bi han-
ka nituela, eta bi esku, eta bi belarri, eta bi sudurtzulo,
eta bi birika, eta bi barrabila, eta bihotz bakarra, sor be-
rri berria, haitzuloari taup-taup eragiten ziona. Mende-
baldeko ahoaren ezkerrean ba zen orma haundi bat, guri
guria eta bustia, Lezajaunak bere ispilutzat edukia. Le-
hen aldiz hantxe ikusi nuen neure burua eta maitagarri iru-
ditu zitzaidan, oihartzun etengabe berrituan entzuten
nuela:

— Horixe duk irtenbidea! Hori-hoxe-riduk-xeduk-
irten-xebi-deho-rixex-dukir-bixex-ride-ho-ri-xe-duk-ir-ten-bi-
de-aaaaa!!!

III

ALEJAUNA

- Egunon, jaun agurgarria.
- Hala ekarri. Zer dugu?
- Zurekin tratutxo bat egin nahi nuke.
- Eseri. Eseri lasai hortxe. Nor zaitut?
- Aletegi bat martxan jarri berria dut eta mila tonelada gari erosiko nituzke, bide batez ehunen bat tonelada arto interesatuko balitzaizkizu.
- Aletegia? Non?
- Lasai, jauna. Ez dago zure monopolioarentzat arris-
kurik. Lubeliarra naiz eta zurekin merkatal harremanean sartu nahi nuke, interesatuko balitzaizu.
- Lubelia? Non dago hori?
- Ez al duzu sekula entzun? Hasiera txarra, tratu onik egiteko.
- Barka. Ez naiz sekula geografilaria izan. Badakizu, ba, neure ale negozioz ere aski lan baitut.
- Ez dago esan beharrik. Oromenderrietara helduz batera, ale kontuan ia jaun bakarra zarela esan didate.

— Ez dizute oker esan, baina ez kostatu gabe gero! Erdizko aletegi batekin hasirik, gaur egun Oromenderrietako alelantzarik gehiena neure eskuetatik dabilela esan liteke. Krisisaldia izan genuen, baina gerra ostean sendotu ginen.

— Negozio hori buka zitekeenik ez al duzu sekula pentsatu?

— Zergatik? Jendeak ederki lan egiten du eta, mundua mundu den arte, alea beharrezkoa izango da, ogia jateko besterik ez bada ere. Gainera orain, ia estatu osoan bakarra naizela, negozioa bukatu?

— Bistan dago pozik eta harro zaudela, baina sarritan onenean gertatzen dira okerrenak.

— Zer esan nahi duzu?

— Ez al duzu inoiz ikara haundirik hartu?

— Hautzarotan bai, baina geroztik gogotan edukitze-ko modukorik ez.

— Oraintxe hartu behar duzu orduan. Ikusten al duzu hau?

— Zer da hori?

— Zure mahaiaren erdiko kaxoian daukazunaren antzekoa. Iso! Geldi eskuak! Hobe biak garondoan jartzen badituzu.

— Zer txantxa mota da hau?

— Hau ez da txantxa, jaun agurgarria. Ez zait gutxi kostatu zure muturretaraino iristea. Zure aletegi bateko langilea nauzu, baina hemen soldata gutxiko gizonik apenas hartzen duzun eta azkenean, negoziogizon jantzirik, aisa pasa erazi naute. Geldi mesedez! Eta zutik badaezpada!

Pentsatzen al duzu sufrimendurik gabeko mundua zer izango litzatekeen? Pentsatzen al duzu sufrimen-

duaren alderantzizko mundua zer izango litzatekeen? Zeren, alde ezkorra eta gaiztoa garbitzean, alde baikorra eta bikaina agertuko baita. Zoriona, hitz batez. Orain arteko zoriona zenbait sufrimendu gauditzetik edo zeharkatzetik datorrena da. Erreferentzia nagusia sufrimendua da. Zenbat eta sofrikario gutxiago izan, hainbat eta zorion gehiago. Ba liteke, bai, sufrimenduarekiko erreferentziarik gabe, bere buruz eta positiboki sentitzen den zorionik izatea, batez ere inkontzientea denean. Baina orduan ez da zoriona, atsegina baizik, animaliek ere sentitzen dakiten atsegina. Animalien oharmenetik gorako zorionik ere ba dela esaten badidazu, ez dizut ukatuko, baina beti ere sufrimenduaren erreferentziatik datozenak baino bakanagoak, eta zenbat eta kontzienteagoak izan, hainbat eta zailagoa sufrimenduaz ahaztea. Horixe da kendu behar duguna. Gizakumeak sortutako gaizkia, kontzientziak bereziki oratutako gaia, naturako gairik txarrena: sufrimendua.

Neu ere Oromenderrietako Alejaunarekin batera zutitu naiz. Pistolaz metro erditik paparrera apuntatzen diot. Aurpegi barregarria dauka, baina izuak janda dagoela uste dut. Gela haundi honetako atea ondo itxita dago. Hala beharko, irekitzen duenak susto galanta hartuko baitu bestela. Leihoak ere ondo itxita daude, kanpoan euria sendo ari baitu. Aurtengo negurik apenas atzean utziko dugun. Kaxoia ireki eta Alejaunaren pistola haundia ateratzen dut, neurerik paparetik kendu gabe, jakina.

— Zer moduz? —galdetzen diot, hitza joana daukan ala ez jakiteko.

— Ez dut ulertzen —erantzuten dit aboskera dardaratiz.

- Ez zaizu, ba, ulertzeko denbora askorik gelditzen.
 — Zer egin behar didazu?
 — Ez al diozu antzik eman?
 — Tiro bat eman?
 — Edo bi, bakarrarekin konforme ez bazara.
 — Nola baina? Nola alde egiteko ustea daukazu gero, jauregi guztia, atetik kaleraino, agentez beterik baitago?
 — Ez daukat alde egiteko usterik. Biok batera joango gara.
 — Orain gutxiago ulertzen dut.
 — Jesus, gizona! Horren zaila al da biok batera joan behar dugula ulertzea? Arriskutsua iruditzen zait zu bakarrik bidaltzea, han ere beste monopolioren bat altxa ez dezazun. Horregatik lagun egitea pentsatu dut. Hau ez da bahiketa ez hilketa, bion arteko tratua baizik. Baina tratu hori beste munduan egin behar dugu.
 Ba dakit Alejauna zer pentsatu ez dakiela dagoela. Ni baino nahiko luzeagoa da gainera, goitik behera begiratzeko ohiturik hazia edo. Morrosko ederra beroki galantaren azpian, neuk ere ez dut nolana hikoia ekarri baina. Atean dauden horiek balekitez!
 — Beno, lagun! —esaten diot—. Ulertzen ez baduzu ere, sinestu ezazu azken ordua duzula. Hortik egin, beraz, hurrengo pentsakizunak.
 — Nola sartu zara hona? —galdetzen dit, arazo nagusitik arreta aldendu nahirik, nik uste.
 — Beste guztiak bezala. Ni al naiz, ba, hona sartu den lehenengoa?
 — Zerbitzari zintzoagoak nituela uste nuen.
 — Ez uste zure morroiek errurik dutenik, eta uste bazenu ere, alperrik da, ez baituzu haiei konturik eskatzeko aukerarik izango.
 — Zergatik hil behar nauzu?

— Ah! Zeuk jakingo duzu hainbeste etxazain eta bizkartzain zergatik daukazu.

Auzia ez da sufrimendua gehitzea ala gutxitzea, edo arintzea ala astuntzea, erauzte baizik. Sufrimenduak ez dauka ezertarako zentzurik. Gaitz gratuito eta funts gabea da. Hura sublimatzea edo zerbaiterako balio duela pentsatzea autodefentsa hutsa besterik ez da. Ordainorde sikologikoa, kontsolamendu gehigarria. Sufrimenduak burrukarako indarra eta hortza ematen duela eta horrelako boluntarismoak ikuspegi partzialak besterik ez dira. Txarretik ona atera nahi. Ez dago gaizki, baina hori ez da arazoa. Zertarako burrukatzen da, sufrimendua kentzeko ez bada? Burruka horrek erabateko garaipenik izango ez badu, gurpil zororik tristeenean ari gara: burrukatzeko sufritu eta burrukatik sufrimendurik erazterik ezin itxaron. Ez dezaiozun bueltarik eman. Sufrimenduaren zentzu bakarra erauzia izatea da. Honen ere bueltarik ez badauka, zernahi pentsatzea libre da. Zernahi asmatzera ere bai. Ahal duenak ahal duena.

Bildur naiz, berriketa luzatuz, ez ote dudan neure burua atzeratuko, baina ez dut uste. Honi orain, bizirik uzteagatik, bakean joaten uzteko eskatuko banio, baietz esango lidake, eskilaretan behera abiatu arte. Kanpoko atetik ez nuke harrapatuko. Horregatik lasai nago, ez baitaukat pentsatua burutzeaz beste erremediorik. Nik ere neure azkena luzatu nahi izatea ez da harriztekoa.

— Begira, lagun. Ea ulertzen duzun. Nik ez zaitut bat batean beste mundura bidali nahi, besteak beste, neuk ere atzetik joan behar dudalako. Emazu hori egintzat eta min-

tza gaitzen azken unearen arabera. Ahatz zaitetz gari, arto, garagar, aletegi, morroi, lur eta beste ondasun neurri-gabe guztiez. Ez pentsa inork saldu zaituenik. Zure defentsa zerbitzuak beti bezain hermetikoak dira, ihes egiteko asmorik banekar. Baina bala batak egingo du zurea eta besteak nirea, segundu laurdenean. Ez al dizut ondo azaldu?

— Zoraturik zaude.

— Zer axola du horrek hiltzeko?

— Utz ezaidazu bederen norbaitekin azken hitzak egiten. Apaizarekin, besterik ez bada.

— Ez, lagun. Norbait hori neu nauzu. Ez ezazu ate hori ireki dadin desiorik izan, orduantxe amaituko baitira berrikerok. Apaizarena Jainkoarekin zuzenki egin beharko duzu.

— Nola nahi duzu Jainkoarekin mintza nadin, nagoen bezala egonik? Utz ezaidazu belaunikatzen bederen.

— Ez, lagun. Zutik ederki zaude eta zirkinik ere ez!

— Zerorrekin konfesatu behar al dut orduan?

— Bai, luzeegia ez bada. Zertarako, ordea? Zure berri ba dakit. Nahi baduzu, neuk egingo diot Jainkoari zure aitortza.

— Egizu zerbait, mesedez. Egizu nahi duzuna, baina ez ezaidazu mesedez arimarik hil.

— Ea, ba. Hara, Jainko haundia! Nire lagunaren egin-tzak ez dakit bekatuak diren, baina hauxe duzu honen historialea. Herririk gehiena gosepean bizi da eta honek ba dakizu zenbat ondasun pilaturik daukan. Herri guztia bildurpean bizi da eta honek ba dakizu nolako legeak ezartzen dituen. Herririk gehiena morrontzapean bizi da eta honek ba dakizu nolako ordaina ematen duen. Segi orain zeuk —agintzen diot Alejaunari.

Behin betiko bukatu beharreko beste gauza bat ongi-gaizkien arteko neurketa da. Auzia ez da platertxo batean ongia eta bestean gaizkia ipini eta zertatik gehiago dugun neurtzea. Auzia ez da kontrako bi faktore horien norgehiagoketa. Ongia ez dakigu zenbat behar den, ez baitago goirik. Dakiguna da gaizkirik ez dela batere behar. Osasuna on-gaitzen ondorioa ez den bezala. Gibela gaitzak jota daukanari hankak sano dituela esaterik ez dago. Gaitz fisikoak, lokalizatua izanik ere, pertsona osoa menderatzen duen bezala, gaizkiak ere berdin. Hura sartzen den gizakumearengan ongi guztia ukiturik gelditzen da. Gaitz eta gaizki batzuk beste batzuk baino okerragoak direla ba dakigu, baina funtsean berdin da. Hagineko mina daukanari esaiok lasai egoteko, belarri ederrak dituela eta. Batzutan gaitzak pilatu egiten dira elkarren gainean. Egoera hori txarragoa da noski, baina gaitz guztien mina ez da banaka luke-tenaren batura. Era batera hagineko mina, burukoa, hankakoa, barrabiletakoa, urdailekoa, eztarikoa eta abarretakoa bakoizki eta hain zorrozki sentitzerik ez dago. Hagineko min zorrotza duenak huraxe dela minena sentitzen du, burukoa daukanak ere berdin, halaber gose bizia daukanak, eta abar. Eta denak batera sentitzen dituenak ere huraxe dela minena sentitzen du. Azken batez mina gaitzaren alde subjeliboa besterik ez da eta sentikortasunak edo gaitza sentitzeko ahalmenak ere bere goia dauka. Une batetik gora, konortea galtzen da eta kito. Bukatu ziren minak, baina ez gaitzak. Sufrimenduaz ere berdintsu gertatzen da. Sufrimendu gogorrek beste txikiagoak baztertu egiten ditu. Ez kendu, haien kontzientzia moteldu baizik. Aldi berean sufrimendu

gogor asko badira, ez dago bakoizka sentituko liratekeen bizitasunez denak batera sentitzerik.

Ea deskuidatzen naizen pentsatu dut bat batean. Honek horixe nahi du, hitza handik eta hitza hemendik, nola edo hala eragin, ea uste gabeko zerbait gertatzen den. Nik, egia esan, alde on haundia daukat, ondo eta luze pentsaturik etorri bainaiz. Ez da harritzekoa Alejauna ahal duena inprobisatzen ari izatea, gizakumeak, estutzean, nola erantzun lezakeen berak ere ez baitaki. Luzatzeaz kalte gehiago egiten diodan ere ez dakit. Etorri eta pin-pun egin banu, kasurako berdin izango zen. Iso! Atea jotzen?

— Esan itxaroteko! — agintzen diot lazki, pistola parrerraino sarturik.

— Itxaron! Berehalaxe bukatuko dugu —hots egiten du Alejaunak.

— Beno! —esaten diot gozoki, pistola pixka bat apartaturik—. Berehalaxe bukatuko dugula esan duzu eta bukatu egin beharko dugu, zain egoten gogaitu ez daitezen.

— Benetan al zabilta, adiskidea? —galdetzen dit erdi negarrez. Begiak oraingoan ederki busti zaizkio. Ate jotze horrek bihotza jo diola uste dut. Horiek dituk malakoak! Ea berez hiltzen zaidan.

— Txantxetan hasi banintz ere, orain ez nuke bueltarik.

— Ez dizute ezer egingo. Zin egiten dizut ez naizela mendekatuko.

— Ez daukazu freskura makala, pistolapean mende-kuaz oroitzeko.

— Hegazkinez nahi duzun lekura joango gara, bahiturizat naramazula.

— Hegazkinean mareatu egiten naiz.

— Autoan orduan. Edo oinez, edo nahi duzun moduan.

— Hara, gizona. Ba dirudi bukatu beharra dugula. Biok hil behar dugula pentsatu eta horretaz hitz egiterik nahi bazenu, segi genezake, baina adarrik adar tximino-kerietan ibiltzekotan, akabatu eta kito. Zuk eta nik hil egin behar dugu eta horixe da hemengo gai bakarra.

— Zergatik hil behar duzu zuk?

— Zuri bakarrik joaten uztea beste mundurako arrisku gehiegi dela esan dizut lehen ere. Neu izango nauzu bizkartzain betikotasun osorako.

— Ene ama! Amatxo laztana!

Zerbaitegatik esaten da, sufrimendu bat kentzeko, beste haundiago batean sartzea bezalakorik ez dagoela. Eta zerbaitegatik gertatzen da alderantziz ere: sufrimendu bat kenduz batera, beste bat agertu. Hau zeharkatzean, beste bat, eta horrelaxe sekulorun sekulotan, sufrimendurik eza zer den inoiz ezin aurkituz. Horren traidoreak ote ziren, ba, sufrimenduok, batzuk kendu ahala beste batzuk etortzeko? Ez. Hortxe zeuden denak, baina ez genituen kontzientki sentitzen, gure sentimenak neurri bat duelako. Gure golkoan era batera zenbat sufrimendu daramagun ohartzeko gauza bagina, harriturik ereriko ginatete, ustez gorputz osasuntsuek ere soinean zenbat gaitz daramaten, agertuak edo agertzeaz, ohartzeko gauza balira bezala. Gizakumea sufrimenduaren osin hondogabea da, bakoitzean gorengoa edo gorengoak sentitzeko bakarrik gauza bada ere. Agian sufrimendu bakar zorrotzik ez duenik bada, hura sufrimenduaren sindromepean bizi da.

Negar isilari eman dio. Ia neuri ere erruki ematen dit. Sekula ez zuen Alejaunak horren negar samurrik egingo.

Neuri ere negarra ari zait, neuk ere hil beharra baitut. Gure amak jakiten duenean! Ea aurrekoa hil eta neure bururik hiltzeko adorerik ez dudan. Ez dut uste. Pentsamentu guzti hauek mila aldiz egina etorri naiz. Mentalizaturik nago, baina hala ere, hain zaila izango zenik ez nuen uste. Denbora gehiegi ematen ari naiz. Besoa ere nekatzen hasita daukat. Trantze honek ez du gehiagorako ematen.

— Zergatik hil behar zaitudan ba al dakizu?

— Nola jakingo dut, ba? —erantzuten dit negar etenka.

— Susmatu ere ez?

— Pentsatzen dut gutxi gora behera.

— Laguntzen ari natzaizu, Jainkoaren aurrean damutu nahi bazenu ere.

— Berak nahi duena izan dadila.

— Orain arte zeuk nahi zenuena izan den bezala.

Pun tiratzen diot bihotz bihotzera. Oromenderrieta-ko Alejauna bere hainbeste militariko gari zakua bezala erori da. Brast atea ireki dute eta pun neure buruari. Erortzen ari naizela, atetik tropa osoa datorrela nabaritzen dut. Ugazaba altxatzen dute, armak hartzen dituzte, ni ere altxatzen naute, marmario haundia dabil, jauregiko alarma tirrinak desesperatuki ari dira, baina alperrik uste dut.

— Oromenderrietako Alejauna hila!! —entzun dut ozta ozta. Ni ere hila naiz, baina gorputzaren beroan, zentzuek zerbait atzematen dute. Oraintxe ez. Hemendik aurrerakorik ezin dizut kontatu.

ARDOJAUNA

— Agur, ene jaun haundia.

— Bai eta hiri ere. Zer diagu?

— Beroren deia hartua dut eta horrelaxe etorri naiz.

— Nire deia? Nik hiri deia?

— Bai, ene jauna. Hona agiria.

— Bai! Arrazoa duk. Egunean hainbeste paper bidali beharra izaten diat! Baina ez ninduan hiri dei eginaz goratzen. Hau neure sinadura duk, bai. Gaia: duela bi urtetako ardoak... Aurtengo uzta...

Horrek ez du esan nahi gizakumeak une alairik eta umorezkorik ez duenik. Ez du esan nahi zorionik ez duenik ere. Horrek esan nahi duen bakarra da ez dagoela neurtzen hasterik. Ez dago dualitatea jarri eta gero konparazioz kontsolatzerik, halako konbinapen hobean edo txarragoan optimismoa edo pesimismoa jarriarik. Gaizkia errotik erauzi behar da. Sufrimenduak ez dauka osoki desagertzeaz beste zen-

tzurik, gorputzeko gaitz bakarra hagineko mina baltz ere, min horrek kendua izateko berdin eskatuko lukeen bezala. Sufrimendua ez da ez gainditzekoa, ez bikaintzekoa, ez konpentsatzekoa. Sufrimendua kentzekoa da eta kito.

Aurreko jaun haundi honi Ardojauna esaten diote mundu guztian. Mahasti neurrigabeak ditu, inork mugarik ezagutzen ez dien lur sailetan. Munduan diren ardo eta edari guztiak honexen sinadurapetik pasatzen dira, mahatsetik zurruterainoko lanketa guztian. Ni ardandegi bateko upeltzaina naiz, baina zihur nago ez nauela ezagutzen. Etortzen denean, isildu ere ez da egiten, hau eta hori esanez, eta hura eta bestea aginduz, baina aurpegira ez digu ia inoiz begiratzen. Honen begiak upeletan eta ardo makinetan dira beti. Gainera gerente, agente eta abar, atze bete jende ekartzen baitu beti, ez da harriztekoa gu ez ezagutzea. Behin, itxasoan hara eta hona dabiltzan bere ardo unziai hondoratuko balira, munduko arrain guztiak mozkortuko lirakeela esan zuen. Azken aldion goiko eta beheko poloetara merkatua nola zabaldu pentsatzen ari da. Hango jendeek, berotzeko, ardoa edaten ikasiko balute, bezerorik emankorrenak izango omen lirakeke.

— Duela bi urtetako ardoak saltzeko al zeudek oraindik?

— Zerorrek uzteko aginduak bakarrik. Haiekin bost urteren buruan ez dakit zein aproba egin behar zenuela azaldu zenigun azken ikustaldian eta horrexegatik harritu naiz neu ere.

— Ni ez nauk, ba, gutxiago harritzen. Benetan nik bidalia al duk dei hau?

— Ez, jauna. Ez ezazu oroimen hori alperrik mortifika. Papertxo horretaz jabetzea ez zait gutxi kostatu.

— Faltsutua? Nola ausartu haiz...?

Ardojauna zutitu egin zait, berak ohi duen goitasunez. Neuk ere horixe nahi nuen, zutitu zedila. Kontuz zutitu naiz, gelaren erdi alderuntz atzeraka, ba nenkielako mahai barrutik irten eta pertsegituko ninduela.

— Barka, ene jaun haundia, ausarkeria gehiegi izan bada, baina denen gainetik berorrekin egon nahi nuen.

— Ez al huen elkarrikustea eskatzeko instantziarik egiten ikasi?

— Bai, ene jauna, baina gutxienez dozena bat aldiz atzera bota didate. Ateetara zuzenean ere hamaika aldiz etorria nauzu, baina beti atzera bidali naute, ondo arakata gero.

— Noren bidez lortu duk paper hori, eskarmentu on bat eman dezaiodan?

— Hori azkenean esango dizut, jauna.

— Ea, ba! Hemen hago. Zer behar duk? Labur gero!

— Oso labur, jauna. Gauzatxo bat erakutsi nahi nizun. Hauxe. Ezagutzen al duzu?

Sufrimendua kontzientzi haro osoari datxekona da. Orain arteko giza kondaira guztia (pentsa zenbat mende!) sufrimenduaren kondaira da. Horixe da haro guztia gehien markatzen duena. Horren ondoan, beste sailkapenak bitxikeriak dira. Lehen haroa, harri haroa, burdin haroa, erdi haroa, industri haroa, nuklear haroa eta horrelako berezketak azalekoak dira beste batasun funtsezko horren ondoan. Haro guzti horietan sufrimenduak agindu du eta, faktore hori deino, ez da funtsean ezer aldatuko. Alde bakarra honela, horrela edo bestela sufritzea da. Naturaren erritmoari buruz, gure bizia oso laburra da. Begien itxi-ireki bat. Horregatik aldakuntzak xehatuago

ikusteko joera daukagu. Goragotik, denboraren eskala haundiagotik ikusten gaituen izakirik balitz, haro horiek oso beste era batea sailkatuko lituzke. Gure herri gaineko haitzak hizketan baleki, gizakumearen orain arteko kondaira guztia haro bakarrean sartuko luke; sufrimendu haroa. Beti ikusi gaitu sufritzen eta sufri erazten. Gainerako kontsiderapenak hutsak dira horren ondoan. Sufritzailea duela mila urtetako gizaki larrugorri ehiztari gaizoa ala azken oihuko unti espazialeko astronauta gailena izan, alde gutxi dago. Biak izaki sufritzaileak eta biak sufrierazleak.

Ardojaunak ahoa eta begiak batera ireki ditu, eskuak aurreko zeinuan mugigaitz gelditurik. Honelako ustekaberik inoiz ez duela hartu lepoa jokatuko nioke.

— Hau ez da faltsutua gero! —esaten diot, paparraren kontra ipinirik. Zenbat denbora eta joanetorri egin ote dut, une hauxe noiz izango ote zen. Hona hemen bera. Pultsuak huts egingo ote zidan bildurrez, esku biek in heldurik erakutsi diot, baina orain bakarrarekin ere ederki eusten diot. Neuk uste baino odol hotzagoa daukat, honi izozturik gelditu zaio baina—. Itxi ahoa, jauna, tentel itxura horrek erruki ematen baitit.

— Zer egin behar duzu? —galdetzen dit zuketan.

— Pistola hauxe estrainatu. Orroerik ez gero! —agintzen diot, bihotzaren parean arma punta sarturik.

— Zergatik? Zer gertatzen zaizu?

— Zure ardoa ez da alperrik munduko onena. Ez nuen adorerik, baina ardo horren gradu trinkoari eskerrak, ausartu naiz. Neure burua hil behar dut.

— Gizona! Horren gaizki bizi al zara?

— Ondo bizi naiz, baina gaizki hiltzeko bildurra daukat.

Ardojauna ez da gutxi lasaitu, neure burua hil behar dudala entzutean. Begiei itxi-ireki batzuk eragin dizkie, premia ere ba zeukan eta. Kontuz kontuz atzeruntz ari zait eta nik ere kontuz kontuz jarraitzen diot paparrari.

— Orma jo behar duzu, jauna.

— Nire paparetik hil nahi al duzu zeure burua?

— Zu beti izan zara papartsua eta errebotea aski izango zait.

— Baina, adiskidea! Zertan ari zara? Nik iii, guk uuu... Zeure burua hiltzea pentsaturik ere... nik iii... ez dakit...

— Nik ba dakit, ba. Neure burua hil behar dut zurearen ondotik, alderantziz zaila baita.

— Hil egin behar nauzula?

— Bai azkar ulertu duzula!

— Zergatik?

— Ez al diozu antzik ematen?

— Nola emango diot, ba?

— Horri antzik ematen ez badiozu, hiltzerik ez duzu merezi, baina gutxiago bizitzerik, eta bizia kentzeko, apenas beste sistimarik asmatu den.

— Baina nik... Baina nik zuengatik...

Sufrimenduaren eremuan sufritzea eta sufrieraztea ez dira berdinak noski, baina bai elkarrekikoak. Sufrimendua diogunean, automatikoki sufrierazleaz ere ari gara, sufrimendua gizakiak bere kideari eragiten diona baita. Bikoiztasun hori gizaki larrugorri haiengan ere ba zen. Hain zuzen, sufrimendua kentzeko bide bakarra sufrierazlea kentzea da. Sufrierazlea da erauzi beharrekoa eta har dezagun hori faktoretzat eta ez, oraingo behintzat, egile pertsonaltzat. Pertsona bakoitzak bi alderdiak ditu: sufritzaile eta sufrierazle. Batzurenengan alderdi sufritzailea bes-

tea baino askoz nabariagoa da eta hain zuzen hauek dira gizakumerik gehienak. Beste batzuren alderdi sufrierazlea askoz indartsuagoa da eta hain zuzen hauek dira gutxienak.

— Bai, jauna. Zuk guregatik zenbat egin duzun mundu guztiak daki eta mundu guztiarentzat zenbat egin duzun ere ba dakigu. Zure izenean nonahi eraikitako monumentuak irakurtzea besterik ez dago. Eskuak garondora, mesedez!

— Ez nazazu horrenbesterik tortura! Mesedez! Arandegi zentraleko buru izendatuko zaitut.

— Jaun agurgarria, ez eman bueltarik. Zure azkena heldu da.

— Mesedez! Zeure buruarengatik besterik ez bada ere! Nola irtetea pentsatzen duzu hemendik?

— Sartzea hainbeste kostatuta gero, ez daukat irteteko gogorik. Esan dizut zure ondoren neure burua hil behar dudala.

— Zergatik hori?

— Zeuk esan duzu. Bestela ez nukeelako hemendik irteterik.

— Joaten utziko dizut. Ez da ezer gertatu.

— Laster gertatuko da. Pistola hau ez dago alperrik dagoen lekuan.

— Ene Jainkoa! Mesedez!

— Jainkoa aipatu duzunez gero, aukera bat emango dizut. Norbaiti zerbait adierazi nahi badiozu, edo azken agurrik eman edo zerbait, utziko dizut.

— Hiltzekoa banaiz, konfesatu egin nahi nuke.

— Bai, gizona! Neuri ere on egingo dit agian. Ez nuke inor bekatu astunean bidali nahi. Baina iso! Neuk esango dizut nola egin. Har telefonoa eta eman abisua. Esan

pistola bat paparrean daukazula eta apaizak eskuak goian eta hatzak zabal zabalik sartu behar duela gelan.

Orain artekoa sufrimenduaren inguruko haro bakarizat jo dezakegula ikusirik, ba al du gizakiak bigarren harora pasatzerik? Ala betirako gurpil zoro mardikatu horretara kondenaturik ote dago? Auzia beste munduko itxaropen edo fedeetatik aparte planteiatu behar da. Ez gara hil ondoko usteetaz ari. Hemen hemengoaz ari gara, eta hilondo dohatsua eta betikoa espero dutenak ere ez dira haserretuko, hilaurrea konpontzen badiegu. Ba direla hilondo dohatsuez konformatzen direnak? Berentzat hobeki, baina hemen hilondoaz sinesten ez dutenei edo horretaz pentsatzeko astirik edo gogorik ez dutenei konpondu behar diegu arazoa.

Ederki doakit guztia. Neure burua hil behar dudala ere ahazturik nabil. Hiru telefonoetariko batera hurreratzen uzten diot. Zer ikusi behar ote diagu hemen? Hiltzea baino lehenago edozer esaten da, baina gure Ardojaunak deabruari ere deituko diola uste dut, uzten baldin badiot. Beti dago egon ere zerbait gerta litekeen itxaropena. Luzatzeak gutxienez aurretik neu hiltzeko arriskua dauka. Litekeena da hori ere, baina biziak oso ustekabeen alde egin behar harko dit, gatiluari tak egiteko astirik ez emateko.

— Zerbitzu saila? —ari da Ardojauna telefonoz—. Esan zerbitzu buruari jartzeko. Zerbitzu burua? Aizu, bai. Ez dakit nola esan ere. Jauregiko kaperaua behar dut berehala. —Pistola puntaz paparra estutzen diot—. Aizu, baina eskuak goian eta hatzak zabal zabalik dituela sartu behar du. Ez, ez!... Bai! Horixe! Baina arin! Eta bera bakarrik! Ez, besterik inor ere ez. Baina lehenbizi atea tan-

tan jo dezala. Bai! Beti bezala.

Nork sinesten du benetan mundu honetako bizitza noizbait sufrimendu gabea izango dela? Utz dezagun bigarren harora pasatzerik ba den ala ez. Ikus dezagun orain lehen haroan, orain arteko haro neurrigabe horretan, zer gertatzen den. Lehenbiziko txokea ez duk nolana hikoia: haro luzeegia, funtsezko aldakuntzarik izan daitekeela ateratzeko. Alde horretatik denbora guztia daukagu aurka. Historia eta historiaurre guztia aurka. Eta horra haro honen aldakuntza probable bakartzat gero eta gehiagok ikusten dutena deuseztapena dela. Ederra egin diagu! Nola arraio generatzen da denen berdintzaile den sufrimendu hori? Zer gertatzen da giza kontzientzian, hasieratik dakarren gaizkiak gaurdaino iraun dezan? Eta ez hori bakarrik, gero eta sufrimendu gehiago eta itxaropide gutxiago dagoela sinestu behar izateraino baizik. Barka gauza gogorregiak esaten ari bagara, baina ez gara ostrukak ere.

Telefonoa utzitakoan, berriro gela erdira ateratzen dut Ardojauna. Hauekin ez dago txantxetan ibiltzerik. Mahaiaren erdiko kaxoian pistola pareta edukitzen omen du beti, baina gaur golkoan badarama ere, alperrik izango zaio. Biok isilik gaude, apaizaren zain egoteari dagokion bezala. Ba dator apaiza, esandako modu moduan, Jesukristo bezala eskuak zabalik eta elizakoak emateko jantzerik. Atea ixteko agindu diot, baina eskurik jaitsi gabe. Ipurdiaz sakatzen dio. Gero bira osoa eman erazten diot, atzean inor gorderik ez dakarrela zihurtatzeko. Ahoa zabalik dauka, agindu gabe. Honek ere ez du, gaizoak, honelako misteriorik sekula ikusi.

— Ea, ba! Gure ugazabak apaiza eskatu du. Hemen zaude. Zeuek jakingo duzue elkarri zer esan behar diozuen.

— Ez dut ulertzen —dio apaizak—. Zer gertatzen da hemen?

— Ez al diozu igartzen? Pistola batek zer egiten duen ba dakizu, ez?

— Baina, semetxoa! Nola egin dezakezu hori?

— Hara, apaiz jauna. Alperreko galderarik egiten ez hasi. Nik ez zaitut eskatu, ugazabak baizik. Konpon zaitzer berarekin.

— Ene jaun haundia! Zer gertatzen da hemen?

— Hil egin behar nauela dio eta konfesatzeko aukera eman dit. Egizu zerbait, kaperau maitea.

Ardojaunak negarrari ematen dio. Negar isila eta zotinkatua. Ea neu ere bihozberatzen naizen. Horixe behar genike!

Sufrimendua gizakumearen asmakuntza da. Sufrimendua kontzientziak sorrerazitako gaia da. Merezki al zuen kontzientziak, emaitz hori ekartzeko? Nola liteke kontzientziak gai izugarri hori asmatzea? Gai horretatixe egina ote dago, ba? Ala, horretaz egina ez badago ere, ez al dauka gai hori gabe izaterik? Bai galdera lazgarriak, ustez kontzientziaren gailurrik gorenean geundenontzat. Kontzientziari sufrimendua funtsezkoa baldin bazaio, zenbat eta kontzientzia gehiago aurreratu, hainbat eta okerrago. Suketari haizea edo goseari jangalea gehitzea bezala. Onak gaudek!

— Baina, semetxoa! Nola egin behar du konfesiorik, pistola paparrean duela?

— «Mea culpa» esateko, ez da txarra izango.

- Baina nola uste duzu...?
- Hara, jauna! —moztu behar izan diot apaiz txo-
txolo honi—. Beste alperreko galdera bakarrik egiten ba-
duzu, zure ugazaba jauna konfesatu gabe joango da.
- Hasi, kaperau maitea —dio dardaraz Ardojaunak.
- Aitaren eta semearen eta...
- Eecep! Eskuak geldi esan dut!
- Nola egin behar dut orduan «aitaren»?
- Gero egingo dituzu denak batera.
- Ene ugazaba! Jainko haundiaren aurrean, ager eza-
zu zeure arima, haren onberatasunak salba zaitzan.
- Hori trantze honetarako zirikada izan bada, alpe-
rrik zabilta, apaiz jauna —esaten diot, gaira zuzen jo
dezan.
- Ba al duzu aitorkizunik Jainkoaren barkamenera-
ko, ugazaba agurgarria?
- Bai, jauna. Agian ez dut Jainkorik beti denen gai-
netik maite izan.
- Ezetz? —galdetzen diot—. Nor besterik egon da,
ba, zure gainetik?

Sufrimendua gizakumeak gizakumeari eragiten diona baldin bada, zer egiten dio? Berdintasuna hautsirik, desberdintasuna ezarri. Edo, hobeki esateko, lehenengotatik desberdintasuna sorrerazi, berdintasunik ez baita sekula izan, kontzientzi haroan behintzat. Beti aipatzen diren lelokeriak alde batera uzteko, berdintasuna ez da identitatea, sailean egindako piezak bezala. Berdintasunak aniztasuna soinean darama, animalietan edo landareetan bezala. Lehoi guztiak edo haritz guztiak ez dira identikoak, baina inori ez zaio bururatzten haiek desberdintasuna deritzan gaitzak jota daudela esaterik. Gizaki batengandik bes-

*tearenganako aldea noiz bilakatzen da desberdintasu-
sun? Alde horri eskerrak, batak bestea menderatzen
duenean. Bien bitarteko diferentziak barietatearen
eremu ederrean sartzen dira. Desberdintasuna, be-
raz, elkarrekiko erlazioa da. Indar gehiago dauka-
na indar gutxiago daukanarekin sartzen ez den bi-
tartean, ongi etorriak indarrok. Bestea menderatzeko
edo hura gutxiagotzeko pentsamenturik datorrenean,
orduante sortzen da desberdintasunaren grina ma-
darikatua. Ba liteke indar gehiago eduki arren, inor
ez zapaltzea eta beste batek, ordea, indar gutxiago
eduki arren, bere kidea menderatzea. Horra orduan
indartsuagoa bestearen berdina eta indar gutxiago-
koa desberdina dela.*

- Ez dut beharbada Jainkorik merezi bezala ohoratu.
- Lasai, ene ugazaba jauna —apaizak—. Esan poli-
ki poliki zeure hutsak.
- Emaztea batzutan hotz samar tratatu dut —Ar-
dojaunak.
- Urez handiko ardanegitik, sekula gehiago ez ager-
tzeko eraman zituztenak nola tratatu zenituen ere konta-
tu —nik.
- Berak esango ditu denak poliki poliki —apaizak.
- Elizarekiko eginkizunak ez ditut beti hain zehazki
eraman —Ardojaunak.
- Hitz erdi egiten zutenen zerrendak zehazki erama-
ten zenituen, ba! —nik.
- Nahi al duzu neuk laguntzea, ene ugazaba? —apai-
zak.
- Orain arte nori lagundu diozu, ba? —nik apaizari.
- Bai, kaperau maitea. Hobe izango da hori —Ar-
dojaunak.

— Jainkoaren aurkako hitz txarrik edo esan al duzu, ene ugazaba?

— Ez, jauna.

— Ez, jauna —nik ere—. Honen hitz txar guztiak gu-re aurka izaten ziren beti.

— Pentsakizun txarrik edo nahikari lizunik edo?

— Inoiz bai, jauna, baina burutik pasatu bakarrik.

— Iazko uztako soldatak noiz ordaindu behar dituen ere galdetu —nik apaizari.

— Zazpigarrenean inorenik eskuratu edo horrelako zer-bait, ene ugazaba?

— Ez, jauna, neuk dakidala behintzat.

— Neuk dakidala ere ez, jauna —nik—, dena baitu berea.

Animalien artean ere horrelako desberdintasunak ba direla esango duzue. Hori bakarrik balitz, bai. Baina desberdintasuna diferentzia sistimatikoa eta antolatua eta batez ere etengabe gehikorra ez bada, ez da desberdintasuna. Animalien artean, natura oso sistimatikoa eta antolatua da noski. Hemen, ordea, ez gara naturaren ihardunaz galdetzen ari, kontzientziaren aportazioa berezten baizik. Horretan naturaren desberdintasunek gailur bat daukate eta handik gora ez dira gehikorrak. Lehoiak agian beste bat menderatuko du, baina neurri bateraino eta premia batzuren arabera bakarrik. Naturak gailurtzat jarri dion neurri hori lehoiak ez du, lehoi deino, sekula gaintituko, ez baitauka etengabeko gehikortasuna sortzeko armarik. Ez baitauka, hitz batez, kontzientziarik. Eta horra animalien neurri horiek oso apalak direla, inoiz eskena izugarririk eskaintzen badigute ere. Mikro-diferentziak, gailur horretatik go-

rako diferentzien ondoan. Gizakia da gailur guztiak hausten dituen animalia bakarra. Kontzientzia da arma bidertzale izugarri hori. Gailur bakarra kontzientziaren ahalmen mugatua da, baina hori, gehikortasunaren barruan, alde txikia da. Kontzientzia aurreratuz eta teknifikatuz joan ahala, gehikortasuna ere bidertu egiten da, baina kualitatiboki haro be-rean gaude, azken batez erreferentzia nagusia sufri-mendua baita.

— Inoren aurkako gaizki esanik edo? —apaizak.

— Inoiz zerbait bai, baina broman, jauna —Ardo-jaunak.

— Gaizki esan behar zenean, administratzaileak bidal-tzen zituen —nik.

— Gezurrik edo inoiz, ene ugazaba?

— Kalterik egitekorik ez dut uste, jauna.

— Neuk ere ez dut uste, jauna —nik—. Norbait gezu-rrean harrapatzen zuten bakoitzean hortz bat limatzeko aginduta zeukan eta hortik atera kontua.

— Beno, zirkunstantzia hauetan izateko, nahikoa da, ugazaba jauna.

— Gainerakoen kontua neuk entregatuko diot Jainkoari —nik.

— In nomine patris eta filii... Bedeinkapenik emateko ere ez al daukat eskurik mugitzerik? Et Spiritus sancti. Amen.

— Bedeinkapena neuk emango diot. Pun!

Oromenderrietako Ardojauna bere milaka zahagieta-riko bat bezala erori zaigu. Apaizak lehen baino gorago jaso ditu eskuak, begiek arraultze bertikalak diruditela.

— Ez, jauna. Zu ez. Zutaz ez naiz fidatzen. Neuk la-gunduko diot.

Pun neure buruari eta zahagi gainera erori naizela iruditzen zait. Ate hotsak eta jende zalaparta nabari dut, baina hila naizela uste dut. Hemendik aurrerako berriak bihar-ko egunkarietan jakin beharko dituzu.

KOTONJAUNA

— Arratsaldeon, Oromenderrietako Kotonjauna.

— Bai eta heuri ere. Zer diagu?

— Kotonditxo bat daukat eta...

— Kotonditxoa non?

— Barka, jauna. Beharbada hasieratik esan behar nizan kotonditxo bat ba dudala zuk utzia, bost urtetan zehar aproba batzuk egiteko. Ulertzekoa da daukazun gutia eta egiten dituzun operazio guztiak gogoan edukitze-rik ez dagoela.

— Barkatua! Barkatua haiz! Segi zer nahi dukan.

— Ba, esaten hasi naizen bezala, zuk utzitako kotonditxo horrek bost urteak laster bete behar ditu eta gero zer egin nezakeen jakin nahi nuen.

— Ez al nian esana utzi bost urte horien ondoren zer egin behar huen?

— Bai, berriro zure eskura pasatu, neu eta guzti. Baina beste zer bat azaldu nahi nizun, jauna. Oromenderrietako azukregintza ere zurea dela entzuna dut, konpainia-

ren izenetik ez dago jakiterik baina. Nik, berorrek utziko balit, azukre landarean lan egin nahi nuke, azukregintza ere berorren esku dagoela egia baldin bada.

— Noren esku egongo zela uste huen, ba?

— Ba dakizu, ba, jauna, guk egun guztia lanean ematen dugunok apenas jakiten baitugu munduko berririk, baina horixe nahi nuen zihur jakin. Azukre lanera aldatu nahi nuela eta, ugazabaren izenaz galdetzean, berorrena eman zidaten eta harritu nintzen. «Hori neure ugazaba da» —esan nien eta «hori denon ugazaba duk!» erantzun zidaten.

— Ez duk horrenbesteraino izango, baina bai. Nire enpresatik pasatzen ez den azukre alerik ez dela esan zitezke. Zer lan nahi huke azukregintzan?

— Norena zen jakin, besterik ez.

— Ez al duk, ba, kotoitik azukrera aldatu nahi dukalako esan?

— Nik mundu honetatik bestera aldatzeko gogoa bakarrik daukat, jauna.

— Gizona! Berez ere etorriko zaik ordua!

— Berezkoari itxaroteko pazientziarik ez daukat.

— Ken ezak burutik bidaia triste hori.

— Ez hain tristea, jauna, berori bezalako bat aurretik dela.

Gizakumetik gizakumerako alde berezkoak barietatean sartzekoak baldin badira, nondik dator, ba, desberdintasuna? Zenbat aldiz esana eta entzuna dugun denok berdina jaiotzen garela eta berriro ere heriotzak berdintzen gaituela! Berdintasun hori ez dugu zuzenbidezko esanahian hartzen, esanahi materiallean baizik. Eritasun fisikorik edo mentalik ez daramaten jaioberriak berdina direla esaten dugu, hori

tik datozen diferentziei barietate zentzua emanik. Izan ere, haur jaioberri batetik bestera zenbat alde dago, ba, naturak emana? Eta baldin badago ere, hori onartu egiten dugu, besteak beste, naturari gehiago egiterik ez daukagulako. Hilda gero ere, denak berdintzen omen dira. Hortxe bai iristen garela ia identitateraino. «Ia» diot, ez baitut aprobatu, baina hori gabe ere ez da gezur haundia izango. Zer gertatzen da orduan jaiotzatik (edo zehazkiago nahi bada, sortzetik) heriotzara bitartean? Nola sortuak dira naturak ezarriak ez diren desberdintasun haundi horiek? Norbaitek beharbada, metafisikara edo horrelako bitxikerietara jorik, desberdintasun horiek ez direla hain funtsezkoak esango du. Hor konpon! Gero ez etorri sufrimendurekin zer egin behar den galdetzka eta erantzun ezinez. Desberdintasun hori ikuspegiren batetik funtsezkoa ez balitz ere, sufrimenduren sorrerazlea da eta faktore horrek gizakumea funts funtsean jotzen du. Ken sufrimendua mundutik, jar zorion etengabe gehikorra martxan eta hor konpon esentziak eta filosofia guztiak.

— Zer duk hori?

— Ez al duzu ezagutzen? Hauxe da beste mundurako tren, txikia baina bueltarik ez duena. Hobe duzu eskuak gora jaso eta zirkinik ez egitea, honek tak egiten badu, zure segurantza zerbitzuak alperrik izango baitira.

Gezurra dirudi, baina pistolatxo hau paparrean jartzean, ia denek erreakzio berdina izaten dute, bat batean sustoz hiltzen direnak izan ezik. Tresnatxo honek zer daukan ez dakit, munduko ondasun eta indar guztien jabeak ere arnasa batetik bestera ezerezean uzteko. Zaude zihur Kotonjauna ahalguztia bera baino menderagaitzago sen-

titzen zela orain arte. Lanbidez militarra izan gabe, Oromenderrietako armadak Kotonjaunaren urtebetetze egunera aldatu zuen bere eguna. Ni ez naiz inor, baina pistola atera besterik ez, Kotonjaunaren inperioa amiltzen ikusidut. Buruak hala esaten bazidan ere, bihotzak ez zidan hain erreza izango zenik ematen. Hain erreza eta batez ere hain erabatekoa. Armatxo honek deabruak dauzka!

— Zer egin behar didazu, adiskidea?

— Orain arte Oromenderrietako Kotonjaunak adiskiderik ez zeukala esaten zen.

— Nork esan du hori?

— Mundu guztiak.

— Hori ez da egia. Oromenderrietako Kotonjaunak zuek uste baino bihotz gehiago dauka.

— Ba dakit, jauna. Horrexegatik jarri dizut pistola paparrean, bihotz haundi horren parean. Bestela buruan jarriko nizun.

— Zertarako jakin nahi zenuen azukregintza ere nire zen?

— Ea bi txori tiro berean harrapatzen nituen jakiteko. Bestela neure burua bi aldiz hil behar nuen eta hori nahiko zail ikusten nuen.

— Zeure burua hil? Zergatik?

— Zu hilda gero, munduan alperrik nagoelako. Beste aldetik, zure agenteei ez diet lanik eman nahi, eta gutxiago erru gehiago pilatzeko aukerarik. Zutik mesedez eta eskuak garondora!

— Nola egin zenezake hori?

— Kotoiari ehuneko berrehun ateratzea baino erreza goa da hau, zuretzat ehuneko ehun mila ateratzea erreza omen zen baina. Gainera, gaizki irtenda ere, azukrea zenuen gozatzeko.

— Azkenean ere lortu duzue zeuen mendekua!

— Iso, jauna! «Duzue» horretan ni ere sartzen banauzu, oso oker zaude. Orain arte izan dituzun atentatuak eta erreboltak egizkoak ala zeuk asmatuak izan diren ez dakit. Oraingo honek ez dauka aurrekoekin inolako zerikusirik.

— Zergatik hil behar nauzu orduan?

— Gorengoa zarelako, eta ez bazina ere, orain berandu da blankoa aldatzeko. Hala ere, huts haundirik ez dudala egin uste dut, lehentxoago zeuk ere harro aitortzen zenuen bezala.

Gizakiak naturatik hona ez dakarren desberdintasun haundi hori pertsonaz beste zer esternoek ematen dute. Bi gizakume larrugorri berdina dira barietatearen barruan, baina bata jantzirik eta bestea biluzik hotzak hiltzen, alde dezentea dago. Jantzita dagoenari eskuan makila eder bat jartzen badiozu, desberdintasuna haundituz doa. Gainera makila hori burdinazkoa bada, are gehiago. Gainera burdina hori fusila bada, are gehiago. Gainera fusil hori automatikoa bada, are gehiago. Gainera fusil automatikoa hori nuklearra bada, are eta are gehiago, eta daki-gunez, fusiletan behintzat, asko gorago jotzerik ez dago oraingoz. Baina fusila armatxo bat besterik ez da. Hala ere, gizakume larrugorri hotzak hilak zer egin lezake ederki jantzitako fusil nukleardun gizakidearen aurrean? Horri ez dago gizakidea esaterik. Gizaki gaizo haren ondoan hori jainkoa edo deabrua edo nahi duzuna izango da, baina ez gizakidea. Eta hori epai estatikoan ikusita. Bikoiztasun hori bizitza guztiko bilakaera etengabe jar ezazu eta ea noraino doan. Gero nahasitasun sozial guztia ezar ezaiozu eta ea noraino goazen. Nahasitasun horri mende

guztien pilakuntza bil ezaiozu eta ea non gauden. Non gaude, ene ama? Oraintxe gauden lekuan hain zuzen. Kontzientzia sortzean hasitako bilakaerak honainoxe ekarri gaitu. Leku ederrera iritsi gaituk!

— Horretarako zeure burua hil?

— Berrero ere galdera tentel bera? Hara, Kotonjauna. Berriketarako gogorik ez daukat, hortik zerbait salbadiderik hel dakizukeela uste baduzu. Nirekikoak bukatuak dituzu.

— Besterik gabe hil behar dudala sinestu behar al dut?

— Nire partetik bai. Hala ere, norbaitekin edo norbaitzuekin aurretik hitz egin nahi baduzu, aukera hori emateko prest nago.

— Norekin hitz egin trantze honetan!

Kotonjaunak negarrari eman dio. Pixka bat kontsolatzen utzi behar diot. Minutu batzuk gora behera, beti kotasunak lasai itxarongo digu.

— Etxekoak agurtzen utziko al didazu?

— Bai, gizona! Etxekoak eta jauregikoak ere bai, baina zeuk pentsa poza ala min gehiago emango diezun.

— Bestela ere berdin min hartuko dute.

— Jauregiko agente eta zerbitzari guztiak agurtzekotan, gela honetan ez dago lekurik.

— Pertsonalaren jantoki nagusian bai. Edo bestela jauregi aurrean.

— Kanpo inola ere ez. Jantokian, nahi baduzu. Hara telefonoa eta abisa jantokian ez dadila inortxo ere egon. Bidean haruntz goazela, norbait errepara baneza, sudur punta bada ere, bertan eroriko zara. Jantokitik geuk delaguingo egingo diegu gero.

Desberdintasun funtsezkoa, guri gehien axola zait

gun desberdintasun sufrierazlea, gauzen eta mendeen pilakuntzatik dator. Pilakuntza horrek bere gorabeherak izan ditu, segun kontrako indarrek zenbat erantzumen eta erasomen zeukaten. Baina pilakuntza aurrera beti. Eta hona pilakuntza etengabe gehikorra dela. Beraz, gaur pilakuntzaren gailurrean gaude eta bihar gorago eta etzi gorago eta horrela sekulorun sekulotan. Gaur inoiz baino desberdintasun gehiago dagoela esan nahi du horrek. Harritu egiten al zara? Ez begirik itxi. Ertzetik ertzerako desberdintasuna askoz zorrotzagoa da gaur. Ertzak inoiz baino urrunago daude. Gizartearen egitura desberdin edo elkargainko horren irudia piramidea duzu. Lurra eta piramide gailurra inoiz baino urrunago daude gaur. Desberdintasun sozialak gutxitu egin direla? Sail edo herri bati buruz, gizarte zati bati buruz, agian zerbait egia izan liteke hori, piramidearen erdialdeko sektoreetan. Baina gizateria osoari begiraturik, inola ere ez. Eta herri bakar bati begiraturik ere ez, nahiz eta aurreratuen izan bera. Gertatzen dena gizarte sail batzuk kontsidero horretatik kanpo uzten ditugula beti. Edo gehienez ere piramidearen oinaldea zerbait gorago dagoela ikustearen gorabehera. Baina aldi berean gailurra noraino igonden neurtu al duzu?

— Jauregiko segurantzà burua? Bai, Kotonjauna. Entzun ondo, mesedez. Gizakume baten pistola paparrean dudala nago. Hil egin behar nauela dio. Zueri azken hitzak esateko aukera eman dit. Jantokira goaz. Baina ez bidean inor agertu gero! Neure biziarengatik eskatzen diuet. Jantokitik neuk deituko dut, jauregiko zerbitzu guztiok etor zaitezten.

— Ederki hitz egin duzu, Kotonjauna —esaten diot nik—. Orain nola obeditzen duten ikusi beharko, jantokiraino iritsi nahi baduzu.

Kotonjaunaren ibilera errukarria da. Ahula eta loka. Bera aurretik, ni atzetik eta pistola garondo zuloan, ba goaz pasabide haundian zehar. Gure oinotsaz beste ez da arnasarik ere entzuten jauregi izugarri honetan. Etorri naitzenean, dena zen jendea hemen, uniformeak, atezainak nonahi, idazmakina hotsa, zaldi irrintziak ere bai, eta tirrin asko. Hau duk isiltasuna orain! Harrizko maila haundi batzuk jaitsi ondoren, igogailuan sartu gara. Orain, atea irekitzean, kontuz ibili behar. Geldi!, agintzen diot. Gorputz erdi bakarrik atera erazten diot, pistola ahoa garondoa ondo sarturik. Kontuz kontuz begi ertzak bi aldeetara ateratzen ditut, Kotonjaunaren gorputzez babesturik. Ez zegok inor. Goian baino isiltasun gehiago behean. Pasabide luze zabala zeharkaturik, barne patiora iritxi gara. Han, arkupean zehar, ate haundia itxita utzirik, jantoki haundian sartzen gara.

— Ederki, Kotonjauna! Ez daukazu errespeto gutxi, eulirik ere ez baita deskuidatu. Orain har telefonoa eta esan etortzen hasteko. Baina banan banan, elkarrengandik tartetxoa utziz eta eskuak goian dituztela.

Laster hasi da jauregi guztia mugitzen. Ni jantokiko ertz batean babesturik nago, aurrean Kotonjauna dudala, eta pistola bere lekuan, jakina. Jostailutxo hau gabe, mugialdi ikaragarri guzti honek leher egingo luke. Hona, ordea, mendez mendeko jauregi ahalguztiduna diziplinarik zehatzenera makur erazia. Armatxo batek zenbat indar bil lezakeen! Etortzen hasi dira, ari dira sartzen, kartujoak beren otoitz korura bezala. Sartu ahala, jendearen aurpegia itxuraldatu egiten da, harriduratik izura, izutik hutsera eta hutsetik orma bazterrera. Bai direla barre-

garriak hain uniforme askotarikoak eta harroak, eskuak goian dituztela! Denbora luzea daramagula esango nuke, baina ez daukat erlojurik eta gutxiago begiratzeko astirik. Kontatzen eta bakoitzak nolako aurpegia jartzen duen ikusten ari naiz. Ehunen bat lagun sartuak dira eta oraindik sartzen ari. Halako batean kapote luze belzdun bat sartu eta ate haundia itxi du. Jantoki ertzera eta inguru guztira begiraturik, hau zer den tutik ez ulertzekoa egiten du eta esaten:

— Etortzekoak etorriak dira, ugazaba jauna. Zaldiak eta zakurrak heztera joandakoak bakarrik falta dira. Besteok hemen gaituzu.

— Ederki! —erantzuten diot nik—. Zuen ugazaba jaunak zuek ikustea nahi zuen, oso une polita ez bada ere. Neuk ere ba nuen zuek ikusteko gogoia, ea Kotonjaunak, bere jauregian bakarrik, esaten zuten ainako zerbitzu sailak dauzkan. Pila ederra zaudete, hainbesterik ez nuen espero baina. Orain, Kotonjaun agurgarria, hor dituzu zeure zerbitzariak. Zeuk jakingo duzu zer esan behar diezun, zeuk dei egin baitiezu.

Gizateria osoari begiraturik, har ditzagun bi ertzak, beherengoa eta gorengoa. Beherengoaren eredutzat gizakume goseti bat. Gizakumearen beherengo maila gosea dela esan genezake. Gose etengabea baino beheragokorik ez dago, heriotza izan ezik. Gose haundiak dena ezabatzen du. Horixe da sentsaziorik irenkorrena, beste grina guztiak ezereztzen dituen. Gosearen ondoan, grina sexuala hutsa da.

Denbora mugatu eta konkretu batean tortura bizia gose haundia baino euts ezinagoa izatea ba liteke. Baina hori norberaz kanpotik datorren mina eta sufrimendua da. Naturak ez du torturatzaile bako-

tzaren baitan ipini. Gosea bai. Gosea organismoaren eta izate osoaren muinean dago. Ez du gu adarrik apurtuko, minik errozkoena gosea den ala ez. Gose luzea zorigaitz lazgarria eta guztiz identifikagarria dela jakitea aski da.

— Ene zerbitzari maiteok —erdi zotinka Kotonjaunak—. Hil beharra daukat. Zueri dei egin dizuet, alde batetik hain maite zaituztedanok azken aldiz ikusteko, eta bestetik ea, zuek ikusirik bederen, atzean dudan hau bihozberatzen den. Zin egiten al duzue, bizirik uzten baldin banau, ez diozuela ezer egingo?

— Bai, jauna! Zin egiten dugu.

— Nik esan diot inolako mendekurik ez dudala hartuko eta guzti guztiaz ahaztuko naizela, amets txar bat izan balitz bezalaxe.

— Bai, jauna! Zin egiten dugu.

— Nik ba dakit honek ere ba daukala bihotza eta niregatik ez bada ere, zuengatik behintzat...

— Aizu, Kotonjaun agurgarria eta aizue zuek, kotonkume agurgarriagoak —hasten naiz ni—. Zuen ugazabak oso oker dago, bera gabe zuek ezer ez zaretela uste baldin badu, eta zuek ere oso oker zaudete, zuen ugazabarenganako errukirik sartuko didazuela uste baldin baduzue. Hiltzeaz estea ezinezkoa dela ba dakit, honelako jaunentzat batez ere, baina ez dago giza ahalguztirik, usterik gutxienean hutsera ez datorrenik. Honenak hementxe egingo du eta zergatik jakin nahi baduzue, galde berari. Bizirik egonik, itxaropen zirrituren bat ez da sekula galtzen eta ba dakit zuen ugazabak horrexegatik dei egin dizuela, ez zuek ikusteagatik, ea zerbait salbagarririk gertatzen den baizik. Ez da ezer gertatu eta hemen gaude, lehenengo unean pistola paparrean jarri diodanean bezalaxe. Aldakuntza ba

karra paparretik garondora pasatzea izan da. Zergatik honen zihur nagoen jakin nahi baduzue, esango dizuet. Neuk ere neure burua hil behar dut eta heriotza irentsirik daukat. Zuek eta zuen ugazaba jaunak, ordea, ez duzue hil nahi eta hortxe menderatzen zaituztet guztiok. Niri ezin didazue neuk egitea pentsaturik daukadana baino gehiago ezer egin eta nik berriz zuen ugazabaren azkena eskuan daukat. Baina ikusi arte ezin duzue sinestu. Nik, zuen ugazaba banintz, galdugordean ihes egitea pentsatuko nuke, alperrik bada ere. Baina hori hiltze zihurra litzatekeen bildurraz gainera, bestea benetakoa izango denik ezin du sinestu. Ez zaudete honelako atentatueterako prestatuak. Zergatik neure burua hil behar dudan jakin nahi baduzue, erreza da hori. Zueri buruhausterik ez uzteko. Honela, gehienez ere, ehorzteaz edo zakurrei emateaz beste lanik ez daukazue nirekin, ugazabari zeruan sartzen laguntzen diozuen bitartean.

Zer alde dago gaurko gizakume goseti batengandik duela milaka urtetako gizakume gosetiarengana? Gosearen faktore objektibo horren aldetik berdintasun osoa. Gose hura eta gaurkoa berdin berdina dira. Gaur gosepean bizi den gizakia eta hala aurkitzen zen lehen gizaki hura berdin berdin daude. Piramidearen oina gaur ere gosea da, beheagoko beste zerbait okerragorik ez bada. Horretan, beraz, mende amaigabe horietako aurrerapenak piramidearen beheko ertzik ez du aldatu.

Kotonjaunari garondotik tiro bat sartzen diot eta zerraldo erori da. Agente armatuek eskuak berehalaxe armetara jaitsi dituzte, baina ez diet astirik emango. Pun neure buruari eta Kotonjaunaren gainera erori naiz. Be-

rehalaxe tiroak entzun ditut, baina azartatu ez nautenaz gainera, berandu dabilta. Jende pila inguruan bildu zai-gula nabari dut. Hortik gorakorik ez guri galdetu. Oromenderrietako Kotonjauna eta biok hilak gaituzue. Beste mundura behintzat ugazabaren gainean sartu naiz.

ZURJAUNA

- Eguerdion, Oromenderrietako Zurjaun haundia.
- Hala ekarri. Nor zaitut zu, ez bainaiz ezagutzen zai-tudanik ere oroitzen?
- Mendebaldeko oihanetako administratzaile nagu-siaren orde z natorkizu, hark ondoez bat izan baitu, bai-na ez dut uste hain grabea izango denik.
- Zer moduz doaz oihan horietako zur lantzak?
- Inoiz baino indartsuago, jauna. Jende berria behar-ko dugula uste dut, atzerrietatik ere zur eskari haundiak baitatoz.
- Jende gehiago sartzeko zurgairik ba al da oihanetan?
- Zurgaia? Galdetzea ere! Oraindik haizkorarik eza-gutzen ez duten oihan mugagabeak ditugu ibai nagusiaz handik.
- Zer proposamen dakarzu zehazki?

Eta beste ertza? Non dago beste ertza? Dударик ga-be, gaur beste ertza edo gailurra sekula baino gora-

go dago. Gaur goren dagoena duela ehun, berrehun, hirurehun, mila, bi mila... urte zegoena baino askoz gorago dago. Askoz indartsuagoa, edukitsuagoa eta inbatibleagoa da. Historian zehar indar pertsonala izatetik pixkanaka despertsonalago bihurtuz joateak ez dio ezer kentzen. Gorengo horrek ale bakarria izan behar duenik ere ez dizut esango. Ba liteke bakarria edo taldea edo talde multzoa izatea, beheregoetan ere zoritxarrez, bakarria baino gehiago diren bezala. Gorengo indarra edo pilakuntzaren gorengo adierazpena esan nahi dugu, indar banakoaren ala taldezkoaren esku dagoen begiratu gabe.

Oromenderrietako ondasun nagusia zurlantza da. Mundu guztiko oihan guztiak bertan daudela esan liteke, oraindik inork ez baitie neurririk hartu. Duela mende erdi zerratoki kaxkar batetik hasi zena gaur era guztietako zur eta oholen inperio bilakatu da, noraino haundituko den antzik ematen ez zaiola. Oromenderrietarrik gehienak oihan lanetik edo zur lantzatik bizi dira, ez hiltzeko lain jateari bidez deituz ba dago. Zurjaun nagusiak urtean behin oihan eta zerratoki nagusiak pertsonalki bisitatzen ditu eta urtean beste behin produkzio sailtako administratzaile nagusiak bere jauregi zentraletik pasa erazten ditu, inperioaren joanetorriaz eta zabalkundeaz hitz egiteko. Aspalditik nengoen gure administratzailearekin lagun mintzen hasia. Denbora joan ahala, sinesturik nengoen, berak ezin bazuen, ni bidaliko ninduela ordeko. Konfidantza hori lortzea gutxi kostatu zaidanik ez uste. Baina Zurjaunaren aurrera iristea zailagoa izango zela pentsaturik, aisa hartu nituen pazientzia guztiak. Orain arte Oromenderrietako Zurjaunaren aurrera bere jauregiko pertsonalak eta administratzaile nagusiek bakarrik

zeukaten sarbiderik. Beste guztiek zazpi atetan ondo arakatuta bakarrik zeukaten sartzerik, neu ere inoiz, aproba egin nahirik, sartu nintzen bezala. Gaur, administratzaile nagusiaren agiria erakutsiz batera, ate guztiak berez irekitzen zitzaizkidan.

Administratzailearen ondoeza zertatik den jakitea bakarrik falta zaizue orain. Hori haren konfidantza irabaztea baino errezagoa izan zait. Bart gauez, Zurjaunarekiko elkarrikustea prestatzen geundela, haren kafeari sukarrak haundia ematen duen pozointxo bat bota nion, berak igarri gabe. Gaur goizean, medikuari deituz batera, niri hots egin dit, ea Oromenderrietako Zurjaunarengana joango nintzen. Ondoeza zertatik izan litekeen usainik ez du hartu, eta hartuko balu ere, orain berandu da. Lortzekoa lortu dut eta hemen nauzue Oromenderrietako Zurjaun haundiaren aurrean.

— Zer proposamen dakardan? Bat eta zehatza bera. Hauxe!

Oromenderrietako Zurjauna zur eta lur gelditu da, pistola paparrean jarri diodanean. Bere aulki itzelean atzeruntz egin du, orma jo arte, baina nik, zutiturik, orma kontrara sartuta daukat.

Duela hamar mila urtetako tribu jaunaren pilakuntza nola konparatu behar duzu gaurko goren jaunaren indarrarekin? Honuntzago etorrikerik ere, duela bi edo hiru mila urtetako faraoien eta kaiserren indarra nola konpara dezakezu gaurko indarraren gailurrarekin? Azken mundu gerrateko gailurra bera ere nola konparatu gaurkoarekin, geroztik armagintzak izan duen aurrerapen izugarriaz? Hala eta guztiz ere, tribu jauntxoaren garaiko gosea, faraoien edo kaiserren garaikoa, azken mundu gerra ondokoa eta gaurko

gosea berdin berdinak dira. Gosea bera da gerra eta dena.

— Zer da hau? —galdetzen dit, esku ahurrak armiar-
ma hankak bezala zabaldurik.

— Armari bazagozkio, pistola arrunt bat. Egoeraz ari
bazara, zure azkena da hau, jauna.

— Nola sartu zara hona?

— Horixe da gutxiena. Era batera izan ez balitz, beste
era batera izango zen. Ez zeneukan niregandik eskapa-
tzerik.

— Nola irteteko ustea daukazu hemendik? —galdetzen
dit ironi tantaz, bere defentsa sistema hermetikoaz
gogoraturik.

— Inola ere ez. Ez daukat irteteko usterik. Horre-
gatik esan dizut ez zeneukala eskapatzerik. Zutik, mese-
dez! Horrela ez zaude ondo. Eskuak garondora! Horre-
laxe. Orain galdetu nahi duzuna.

— Ez dut ulertzen.

— Ez naiz harritzen. Zure zurlantzako inperioan ho-
nelako zuhaitzik apenas zen. Baina azalduko dizut. Beste
mundura joan behar dugu, zu aurretik eta ni atzetik. Zuk
ba dakizu, hontara ezkerre, nik derrigor joan beharra du-
dala, zure agenteek txikituko bainaute bestela. Horrega-
tik zu aurretik bidaltzea nahiago dut.

— Hitz ematen dizut nire agenteek ez dizutela ezer egin-
go. Utz ezazu arma hori eta ez diot inori ezertxo esango.

— Hori sinesteko, haginak aspaldi berdinduta dau-
kat, jauna. Hala ere, auzia ez da hori. Zer proposamen
dakardan galdetu didazu eta esan dizut: zu aurretik eta
ni atzetik, biok beste munduko oihanetara. Orain ulertzen
al duzu?

— Ezin dut sinestu.

— Ulertzen dut ezin sinestua. Zaila da izan ere hortxe,
ate horretaz kanpora, dozena erdi metrotara, zure inpe-
rio paregabea beti bezala zutik dagoela jakin eta bat ba-
tean hemen isolaturik aurkitzea. Orain arte zure ahalguz-
tiaren egitura izan den inperioak orain ezertxo ere ezin egin
zure alde. Ez daukazu sinestu beharrik. Ez zaitut horren-
bestearino behartuko. Pentsa ezazu honek ez daukala buel-
tarik eta aski da.

— Egizu egitekoa arin, hiltzea baino txarragoa baita
hau.

Bai une liluragarria! Ahalguztiduna naiz. Denbora gu-
txirako, baina ahalguztiduna naiz. Ahalguztia eta betiko-
tasuna ez direla gauza bera esan nahi du horrek. Oromen-
derrietako Zurjaunak ba zekien jainkorik ere ez zegoela,
berari hau egitekorik. Oromenderrietar gaiztoek gutxiago
sinestuko lukete hau. Horregatik unea luzatu egin behar
dut, neuregatik eta Oromenderrietarregatik.

— Hil aurretik munduari azken begirada botatzeari zer
deritzazu, jauna?

— Nola azken begirada?

— Ba, esate baterako, enparantza nagusian denak bil-
duta: zure pertsonala eta herria. Horrela denei azken agu-
rra egin ahal izango diezu eta neuk ere bai.

— Tristeia izango da, baina eskertuko nizuke.

*Desberdintasuna datu erlatiboa dela esan dugu. Go-
sea bat bera izan arren, goseduna oso desberdina iza-
tea ba liteke. Ez da berdin gosea animali gisan pai-
ratzea ala gizaki gisan sufritzea. Segun goseduna-
ren kontzientzia zein mailatan dagoen, gosearen sen-
timen sufrierazlea biziagoa ala motelagoa izango da.
Oso desberdina da gosea jasatea eta gainera zerga-
tik jasaten den jakitea. Alde horretatik zenbat eta*

kontzientzia haziagoa eta jakinagoa izan, sufrimendua ere hainbat eta sakonagoa izango da. Gosea erremediorik gabeko gaitza delakoan, edo jainkoaren zigorra delakoan, edo izaki txarren baten mendekua delakoan edo geroko saribidea delakoan, edo soil soilik ezer ez delakoan jasatetik, norbere mailako edo norbera baino maila kaxkarragoko gizaki baten erruz dela jakitera alde haundia dago kontzientzian eta haundiagoa sufrimenduan.

Oromenderrietako Zurjaunak pozik entzun duela dirudi. Atzeratzean, beti dago zerbait ustekaberik gertatzeko arriskua. Ba dakit Zurjaunak bere segurantza sistiman itxaropen osoa daukala. Horregatik kontuz ibili behar dut, tranpan eror ez nadin. Ez dut uste hain zaila izango denik, enparantza nagusia jauregiko balkoiaren aurrean baitago. Pistolaz papar kontrara sakatuz, agindu zehatzak eta zorrotzak eman dizkiot. Huts erdirik gerta baledi, tak eta kito. Telefonoa eskuratu diot eta hizketan ari da.

— Baina kontuz gero! Jauregi guztia hustu behar duzue. Eltxorik ere ez dadila barruan gelditu. Megafoniak martxan egon behar du, baina behetik dena. Jauregi barruan gerizarik ere ez. Esan nire agente guztiei ahalik hurbilen ikusteko gogoia dudala, hainbeste zerbitzu ederren eskerrik bihozkorrenak emateko. Herria ere bil dadila, baina denak isilik eta formal mesedez. Guztia gertu dagoeanean, egin dei telefono honetara.

Kontzientzia indibidualez sentitzen denaz gainera, gose kolektiboaren mina ere sentitzeko ahalmena duenak are gehiago sufritu behar du, bereaz gainera kolektibitate osoaren gosea jasaten baitu. Beraz, animaliek ere sentitzen dakiten gose fisikotik beste

gose guzti horietara kontzientzia indibidualaren eta kolektiboaren mailaketa guztia dago. Alde horretatik kontzientzia kolektiboa daukanak gose fisiko hutsa jasaten duenak baino sufrimendu gehiago izatea ba liteke. Idealismoetan sartzen ibili gabe, naturak berak ematen dizkigu indibiduoaz kanpoko adibide indartsuak. Umearen goseaz amak gehiago sufri lezake umeak berak baino. Hortik, bietarik batak gosea pasatu behar izatekotan, amak umeari daukana ematea. Altruismo hori ama-umeengandik urrunago ere zabaltzen da, instintuzko indar bortitza galdu ahala, kontzientziak lan egin behar duelarik. Ama-umeen adibidea aski da, gizakumeengan behintzat, gosearen sentimen bortitza ez dela indibidual hutsa jakiteko, eta ba direla kasu ageriak, gose indibiduala bera baino ere sufrimendu zorrotzagoa ematen dutenak. Horra, ba, animali gisan min objetibo berdintzat jo dugunak nolako biderketa izan lezakeen giza mailan.

Zain gauden bitartean, isiltasun trinkoa daukagu gelan. Agenteak ahalik hurbilen ikusteko gogo hori zergatik esan duen ba dakit. Giltz inprobisatuan hitz egiten ari zen, esku miragarriren baten eske. Telefonoz handikoek ulertu dioten ez dakit, baina nik bai. Gehienez ere biok batera joango gara, elkarren atzetik joateko plana daukagun moduan. Tiro traidore batek ustekabeen harrapatzen banau? Bai zera! Balkoia gelatik bertotik dago, erdian bitrina antibala ederra daukala. Honen defentsa sistimak neu ere ederki defendituko nau oraingoan. Gauzak nolnahi pentsatuta etorri naizenik ez uste. Telefonoa jotzen ari da. Zurjaunak hartzen du eta:

— Dena prest, Jaun haundia! —esaten du handiko abotsak.

— Ba goaz! —erantzuten du Oromenderrietako Zurjaunak.

Goazen orain piramidearen beste ertzero, gailurre-ra alegia. Tribu Jauntxoak, pilakuntza aldetik askoz indar gutxiago edukiz gainera, ba ditu beste alderdi batzuk, jauntasun hori oso behetik uzten diotenak. Jauntxo hura indibiduala, ezaguna eta atzemangarria zen. Ba zekiten nor zen, jainkotzat jotzen bazuten ere. Hurbil zeukaten, beren zentzuen eskurarean. Piramidearen gailurra goruntz joan ahala, nortasun indartsu hori lanbrotuz, urrunduz eta gero eta harrapagaitzago eginez joan da. Gaurko indartsuak, hain indartsuak izanez gainera, ezagutu ere ez ditugu ezagutzen. Lainoetan gora galdu zaizkigu. Inoiz baino egiazkoagoak izanik, gizakirik gehienontzat anonimoak dira. Agian ondotik pasatzen zaizkizu, zeuk ez dakizula. Gizaki konkretuak dira, baina lokalizatu ezinekoak. Indar hori ia-ia Jainkoak bera bezain eskuragaitza duzu. Ezagutzen direnak, publikuan agertzen direnak, agintariak dira, botere faktikoak esaten zaienen esanginak. Ba liteke aginpide agerian indartsuenak ez egotea. Ba liteke agintari zintzo samarrik izatea ere. Baina tirabirarik izatekotan, ba dakizu noren alde makurtuko diren. Beharko.

Balkoira irtetea, enparantza guztia txaloka hasi zaigu eta harriturik nago. Zenbat jende dagoen antzematerik ez dago. Inoiz enparantza izugarri horretan milioitik gora lagun bildu omen zen, ez dakit zein erregeren etorreran. Gaur ez da gutxiago izango, enparantzaz handik ere jendetza haundiak ageri baitira. Txalo jotze hori zergatik eta no-

rentzat izan den pentsatu ezinez nago, ez bainuen uste txaloka hasteko unea zenik.

— Arrakasta dugula dirudi —esaten diot Zurjaunari—. Hasi nahi duzuean.

— Jaun-andreok! Ene zerbitzari leialok, ene langile prestuok eta Oromenderrietako herritar maite guztiok. Une larri honetan... Mikrofono honek ez al du funtzionatzen? Orain bai? Une larri honetan etortzea zenbat eskertzen dizuedan ez dakizue. Zer esan ere ez dakit, zer sentitzen dudan ere ez baitakit, baina zuek ikustean, hitzak begietatik tantaka ari zaizkit, itotzen ez baldin banaiz. Ba dakizue bizi guztia zuen onerako oihanak lantzen eta zurlantza haunditzen eman dudala eta horri eskerrak gaur Oromenderrieta haundia dela esan liteke, baina aurreruntzean zuek gozatu beharko duzue, nire azkena heldu baita. Zain itzazue oihanak, maita itzazue zuhaitzak eta maita ezazue elkar ere. Pozik hilko naiz, zuek ikusle zaretela, baina zer esatea nahi duzue, ba? Jainkoak une hau ekarri digunean, berak jakingo du zergatik, zeren harengandik bakarrik espero baigenezake...

Lehenago edukitsuek edo pilatzaileek berek zeukaten aginpidea eta pentsalari kokoloek esaera hauxe asmatu zuten: «Agintea ustelgarri». Gaizoak! Ez duk agintea ustelgarri, ustelena baizik. Gero, pixkanaka pixkanaka, pilatzaileak, pilaketarako denbora gehiago edukitzeko, agintea ordezkariengan utziz joan dira. Horrela buruhauste bat gutxiago eta beren grina aseezinerako denbora gehiago. Eta bide batez eta batez ere gauza haundi bat lortu dute: oropresenteak izan eta inork ezagutu ez. Eta orain esaten dizute: «Inbatibleak gaituk!». Zer nahi duzu gehiago?

— Neuk ere hitz egin behar dut, jaun-andreok —hasten naiz, Zurjaunari mikrofonoa kenduta—. Honek zueri agur egitea nahi zuela esan dit, baina agurra baino gehiago urte amaierako berbaldia dirudi. Luzatzen ari da, ea Jainkoak edo norbaitek salbatzen duen, baina pentsa ezazue gu biok beste munduan gaudela. Ezagutzen ez nautenentzat, Mendebaldeko oihanetako hamaseigarren zerratokiko administratzaile ordea nauzue, zerralagunek, kargu horren atzetik hasi nintzenean, ipurmiatzakzailletzat jotzen ninduten baina. Sendatu al da gure administratzaile nagusia? Aurrean balego, egindako azpikeria barkatzeko eskatzen diot, baina nik nola edo hala trantze hauxe harri-patu behar nuen. Hona hemen zuen Zurjaun haundia. Goza itzazue, bai, Oromenderrietako oihanak eta zuhaitzak, ugazaba ahalguztidunaren bildurrik gabe. Poz ala min hartuko duzuen ez dakit, egintza honi antzik emango diozuen ere ez dakit, baina honek ez dauka bueltarik. Oromenderrietako Zurjauna oinaztuak jo duela pentsa ezazue eta ez dago beste esankizunik. Neu naiz oinaztua, oinaztu kontzientea, zein burutan erori hautatzen dakiena. Maita ezazue, bai, elkar, Zurjaunik gabe erreza izango baita hori ere. Bizi ongi eta laster arte. Pun eta pun! Oromenderrietako Zurjauna erori da eta ni ere bai gainera. Agian inork uste ez zuen bezala amaitu da bilkura. Megafoniaren darradak bakarrik entzuten ditut. Instalazio guztia izorratu dugula uste dut. Ez dut ezer entzuten. Sentitzen ere ez. Galdua dut ahalguztia. Betikotasuna da. Hila naiz.

IV

BILTZARRE LEHERGARRIA

Oromenderrietako jaunek eta jaunkiek biltzarre orokorra daukate. Orokorra eta urgentea, deiaren textuaren arabera: «Azken gertaeren aurrez neurrizko jokabidea hartzeko, etor zaitez hutsik gabe...» Eta abar.

Oromenderrietako jaunen eta jaunkien artean «hutsik gabe» hori ez da sekula erabilia izan, ohizkoa baita hainbesteren artean norbaitzuek beti huts egitea eta, noizbait klausula hori jartzen baldin bazuten, ez zuten sekula betetzen, egun berean denak batera biltzeko baino negozio haundiagoetan baitabiltza. Gaur ez. Gaur denak daude, direnak eta ez direnak. Hobeki esateko, direnak eta izatekoak. Biltzarreari publizitaterik ez diote eman nahi izan. Komunikabideetan ohiko biltzarretzat agertu da, protokolozko hutsa balitz bezala. Baina biltzarre itxia izango omen da eta horrexek kezkaerazi ditu guztiak. Muturra nonahi sartzeko grina daukatenak laster ohartu dira Oromenderrietako jaunak eta jaunkiak ez direla sekula hain masiboki biltzen, ez eta gerrarik deklaratzeko ere. Orduan

eta gutxiago, ordezkarien bitartez egiten baitute dena, han hemen batzarre fantasmalak eginez. Berri emaleak, halako mugimendu desohikoa somatzean, hor batu dira aldraka Oromenderrietako Jaunetxe nagusiaren inguruan, bestela ere horrelakoxe lekuetan ematen baitute denborarik gehiena. Baina gaur izorratu beharko dute, atarira inguratzen ere ez baitiete utzi. Arras biltzarre isila eta itxia dugu, inork ez du argitasunik eman nahi izan baina. Nola jakin ezer, galdetzeko lekura hurreratzen ere ez baitute uzten? Alertan ote gaude? Eraso ezlurtarren bat espero ote dute? Hegazti sarraskizaleak ezer ez den tokira denak batera batzea seinalerik bildurgarriena dela esaten zuen Oromenderrietako azti zaharrak.

Goizeko hamaikak jotzean, ordu orduan, Oromenderrietako Jaungoaren ordezkariak, lehendakaria erdian duela, bere mahai haundia bete du. Ez dago itxaron beharrik, ez baita inor falta. Ohiko ateak eta desohiko atezarrak ondo itxita daudela zihurtatutakoan, jaungoaren lehendakari nagusia zutitzen da:

— Ongi etorriak jaun-andreok. Gaurko biltzarre deia-
ren arrazoirik adierazi beharrik ez dago, guztion gogoan baitabil. Besterik gabe, denok etorri zaretelako denoi eskerrik beroenak emanik, biltzarre berezi hau hasitzat ematen dut.

Sarrera arrunt honi zergatik txalo jo dakioken inork ez daki, baina hala ari dira Oromenderrietako jaunak, eta nolako berotasunez! Berek ere albora begiratzen dute, halako zirti-zartaz harriturik. Jaungoaren idazkari nagusiak isiltzeko eta esertzeko eskatzen du, aldizkako irribarrez Tribuna nagusian jarririk, hasten da:

— Jaun-andreok. Lehendakari agurgarriak esan bezala, gaurko biltzarrearen zergatia ondo ulerturik dagoela uste dut, asistentziari begiratzen bazaio. Oromenderrie-

tako jaungoak, behar denean, zirkunstantzien garrantziari erantzuten ba dakiela esan nahi du horrek. Denoi ongi etorria emanik, hasteko, gure areto nagusi hau txiki gelditu zaigula eta haunditzea edo zerbait pentsatu beharko dugula esan nahi nuke, aurreruntzean beharbada honelako biltzarreak nahi baino gehiago egin beharko baititugu. Horretan denborarik gehiago ez galtzeko, zuen oniritzia eskatzen dut, aretoa lehenbaitlehen haunditzeko edo berria eraikitzeko, desohoragarria baita erdiak baino gehiago hor zutik ikustea. Ezezkorik baldin balitz, jaso eskua. (Inork zirkinik ere ez). Denok baiezkotan zaudetela esan nahi du horrek eta goazen aurrera.

Horrela pilatzaileak ez ezik, pilakuntza bera ere jendearentzat oharkabeagoa eta, beraz, kontrolagaitzagoa da. Lurralde ezagunean bizi ziren tribuko gizakiek tribuburuaren ondasun pilakuntza ikusi egiten zuten. Lurrak, aziendak, zuhaitzak eta abar han zeuden, denen bistan. Tribujaunaren ondasunak ezagunak ziren. Faraoiaren edo kaiserrenak askoz gutxiago eta gaurko jaunak batere ez. Mundu osoa tribuaren herritxo bezala bilakatu da horientzat. Ondasunak edo pilagaiak ere gero eta sofistikutuagoak eta ahaltsuagoak dira. Jaunaren artaldeak zer ziren nornahik zekien, baina artzantza atomikoa zer den oso gutxi dakite gaur, eta horra ardi atomiko batek Erdi Haroko jaun guztien artalde guztiek baino indar gehiago daukala. Beraz, pilakuntzaren ahala eta pilatzaileen kamuflaia jorik, piramide gailurra noraino urundu den asmatzen al duzu? Ilargiaren eta planeten gainetik dabilta, eta oraindik ba dira piramidearen oinaldean, duela milaka urte bezala, ilargia jainkotzat daukatena. Ertzetik ertzera tar-

te amaigabea dago, Jainkoa bera ainakoa. Betirako zuloa egina dugu.

— Bigarren aurre ohartzat esan nahi dizuet agian denok ezagun ez dituzuen lagunez osatutako ekipoa ekar erazi duela mahaiak biltzarrerara. Aurrez gure ezkerretik duzuen laguntalde hau medikuntzan diren jakintsurik ospetsuenak ditugu, mundu guztian hain ezaguna den Benedium jauna buru dela. Eta honenbestez, goazen hari nagusira eta bakarrerara. Nolako gertaera lazgarriak jasaten ari garen ba dakizue. Gertaera horiek buru burura datozkigula ere ba dakizue. Gure jaunkiderik haundienak —haientzat une honetan gure oroimenik bihozkorrena— falta ditugu hemen eta betirako falta ere. Gaitzak menderatua izateko baino indar haundiagoa hartu aurretik, neurri egokiak hartu beharrean gaude eta horretarakoxe bildu gara gaur hemen. Delinkuentzia berezia ugaritzen hasi zaigu. Guztiz zoro mota berria sortu zaigu eta inoiz ere ez «zaigu» hori hobeki esana, geure buruetara baitatuz zuzen zuzenean. Eskuan ditugun bide guztiak jarri behar ditugu eta ez ditugunak asmatu. Guzti hori gaur bertan egin behar dugu, bihar guretariko nornahirentzat berandu izateko arriskuan baikaude. Bakarkako arriskua gutxiena berriz. Jaungo osoa dugu arriskuan! Arriskurik latzenean! Eta oraintxe da unea gaur etor erazi dugun medikuntz taldeko buruzagi agurgarriak hitz egin dezaigun, ea zientziaren aldetik zer ikuspegi eta irtenbide ematen digun. Aurrera mesedez, Benedium jaun agurgarria, denok zuri entzuteko irrikatzen gaituzu eta.

Gizon buruzuri haundi bat tribunarantz doa, bere gorputz urtetsuaren astuntasun makurtzen hasia zapata pare izugarriaren gainean doi-doi eramanez eta, aretokada ezin beteagoaren txaloketa ezin beteagoa jasotzeko, bestela

egingo lukeen baino denbora gehiago eginez. Mahaipuru eta mahaikideak banan banan agurturik, noizbait tribunara heldu da. Paper batzuk zabaldu eta dio:

— Mahaipuru, mahaikide eta jaun-andre bikain guztiok. Lehenbizi eskerrik beroenak neure buruaren eta nire taldekide guztien izenean, zuen deiaz honenbestearaino ohoratu gaituzuelako. Duela zenbait denbora, azken zoro mota berri honen azterkuntza egiteko eskatu ziguten. Zorotasunaren eremuak mugagabeak eta mugagabeki askotarikoak direnez gero, zaila da zehaztasun osoko azterkuntzarik eta pronostikorik egitea. Zoro mota berri hau, ordea, hain da berezia, non bera baita eremu eta muga. Dударik ere ez gure hizkeran esaten den kasu atipikoak ez ezik, kasurik atipikoenen aurrean gaudela. Zorotasunaren sustraiak orokorrak dira. Beren burua hilko luke ten kasuak milaka ditugu zoroetxeetan, pixka bat bertan behera utziko bagenitu. Inor hilko luketenak ere ez gutxi. Horren arrazoiak sikomedikuntzan oso ezagunak dira eta sendabiderik onena besteengandik bereztea izaten da, ahalik eta ihardunik gehien emanez. Ba dira halako dosis jakinetan ematen zaizkien lasagarriak ere, segun nori halako kopuruz eta indarrez. Bere burua eta inorena era batera hiltzen dutenak ere ba dira, baina gehienez bitasun hori ez dute oso ondo koordinatzen, beren burua hiltzetik hasten baitira. Alde horretatik, bere burua hiltzen duen edozein zoro sakonengatik esan liteke beste norbait hiltzea nahi zuela, baina bere burua hurbilen duelarik, handixek hasten da, lehenbizi bestearena egin behar duela ohartu gabe. Honelako sintomarik somatzen denean, orduantxe bai behar dela isolamendurik estuena, nahiz eta gupidagabea izan. Beste biderik ez denean, dagoenari heldu behar zaio, erruririk gabe.

Orain, ertzen distantzia horretatik eta tarteko kontsiderapen guztietatik, esaidazue nolako desberdintasuna eta noraino haunditzen den. Eta batez ere esaidazue desberdintasunaren bibentzia sujetiboa den sufrimendua noraino gehitzen den. Argia itzali eta ohera? Ez! Oraindik haundiagorik entzun behar duk.

— Barka, Benedium jauna —sartzen da mahaiburua—, baina hiltzaile-buruhiltzaile horiek benetan zoroak direla uste al duzue?

— Jakina, lehendakari agurgarria. Zorotasunak mila modutakoak izanik ere, ba dira sintoma batzuk bueltagabeak. Giza zientzia guztiek, bai eta animalienek ere, garbi adierazten dute, eta hori axiomatzat daukagu, norbere buruari bizia kentzeko grinarik ez dagoela, tartean perturbazioen bat izan ezik. Inor hiltzeko ere perturbazio mentala ia axiomatzat jotzen da, baina hor ba dira beste faktore batzuk ere. Dударik ez duena da norbere burua hiltzeko kasuan. Grinak eta ahalmenak normal dituenak hori egin lezakeenik ez dago pentsatzerik ere, naturaren lege guztiak hankaz gora bota behar ez baditugu.

— Diagnostikoak zorotasuna ematen duela emanik —mahaiburuak—, zer terapeutika jartzen diozue horrelako zoroari?

— Gaitz bakoitzari bere sendagailua dagokio. Gertatzen dena gaitz hau zorotasun mota berria dela eta, bistakoa den bezala, ez daukagu praktika erabilirik. Baina bueltarik ez daukana gaiso horiek isolatu egin behar direla.

— Orain artekoak ederki isolatu ditugu, baina hilda-koan. Eta okerrena, beren azioa egin eta gero.

— Hortxe dago kasu hauen alderdirik gaiztoena. Sintomak ondotikoak dira, ez aurretikoak. Egindako autopsia zehatz guztiek perturbazio haundiak ematen dituzte, bai-

na aurretik ez da sintomarik ageri. Gure ikertaldeak kasu guztien informazioak zehazki bildu ditu, bai etxekoena, bai herrikoena eta bai zoroa ezagutzen zuten guztiena, baina inork ez du zorotzat jo zitezkeenik esaten. Gehienez jende oso normala zela esan digute eta ez gutxitan zentzuzkoenak ziren fama zeukatela. Zoroak sarritan bere egoera disimulatzeraz jotzen duela ba dakigu, baina guztiz zentzuzkoak ematerainoko disimulurik ez genuen ezagutzen. Aré gehiago oraindik, zoro hauek ezagutzen zizuten guztiak harriturik gelditzen zitzaizkigun, haien zorotasunaren haztarren posiblek eskatzen genienez.

— Nik ez dakit zer izango zen, baina zoroa ez behintzat —esaten ziguten.

Mundu guztia zorotasunari ez igartzeko bezain zoraturik dagoela eman ezik, zorotasunaren informaziorik ezin izan dugu aurretik bildu. Mundu guztia zoraturik dagoela jotzen badugu berriz, orduan ez dago irtenbiderik. Baina ez da horrenbesteraino, denek ia aho batez bukatzen baitzuten:

— Hori egiteko, zoraturik egon behar.

Beraz, informazio iturriak ere perturbaturik daudenik ezin esan, egintza baten zorotasuna hatzemateko gauza baitira. Autopsiek eta galdetutako mila jenderen informazioek horixe besterik ez digute ematen. Eri horien zorotasuna nola detektatu, horra hor gure arazo nagusia, denon artean argitzen saiatu beharrekoa.

— Hizpidea irekia! —iragartzen du mahaiburuak—. Norbaitek zerbait galdetu edo argitasunik ematen hasi nahi badu, mintza.

Piramide hori milaka eta milaka subpiramidez osatutako eraikuntza da. Piramide desberdin horien oinak lurra jotzen daude denak, kontzientziaren ha-

sieran bezala. Baina oinaldea ez da denetan berdina. Gosea aipatu dugunez gero, piramide batzuren oinaldean gosedun gehiago eta beste batzutan gutxiago izango da. Herri batetik bestera dauden hazkuntz mailak esaten zaiona. Piramide desberdin horien gailurrak ere parean daudela esan liteke, gailur orokor bakarria egiten dutelarik, hemen eta han eta mundu guztian agintzen duten goren indarrak berdinak edo berdintsuak baitira. Herri atzeratuetan nahiz aurretatuetan nagusi diren goren indarrak ia bat bera dira, edo elkarren lagunak behintzat.

— Eta blokeak esaten zaion hori?

— Esaten ari garen kasurako, horiek xehetasun azalekoak dituk, mutil.

— Nik ulertzen ez dudana da nolako zorotasuna izan litekeen inolako sintomarik aurretik erakusten ez duena —esaten du erdialdean eserita dagoen jaun batek—. Ez dira hiru edo lau bakarrik, morderoa baizik, eta denak gutzariko onenak eraman dituzte aurretik. Egintza batzuren informaziorik ez dago batere, bi gorpuak beti elkarren gainean zeudela izan ezik. Baina gehienez lekuko eta guztiz izan dira, batzutan apaizak, beste batzutan jauregiko zantzak, eta inoiz herri osoa ere bai. Hain une larrietan zoro horiek ohigabeko serenitatea erakutsi dute, errobot automatikorik perfektenak bezala.

— Hori nahiko normala da, heriotzaren bildurra galdutakoan —Benedium jaunak—. Gainera behin tranze bueltagabea sartuz gero, guztiz zentratu ez dagoen ere organismoak berak hartaraten du. Pistola paparrean ipintzen zutenetik bertatik haiek ba zekiten berentzat bueltagabea zela. Kontzientzia horrek adorea finkatu eta serenitateari era batera halako hoztasun argia ezartzen dio,

kontrastasan efektuaren eragin sobera ezagunez. Une batetik aurrera, horien portaera oso koherentea da. Gertatzen dena erremediatzeko beranduegi dela.

— Nik hemen zientziaren prebisio guztiak hausten dituen egoera ikusten dut, jaunak —dio atze aldetik oso abots sendo batek—. Denak oso gizakume normalak dira bizitzan, azken unean ere ondoen programatutako errobotik onenak baino normalkiago jokatzen dute. Non edo zertan dago orduan horien anormaltasuna, denoi larrua dardarazten digun azken une bueltagabe horretantxe izan ezik?

— Horixe da nik ere zenbat eta buelta gehiago eman gutxiago ulertzen dudana —dio beste batek—. Ez al gara ez den gauza bati zorotasuna ezartzen ari? Ez al gara besterik ezin dugulako zorotasun diagnostikoa ematen ari? Gaitzari izena ipintzeaz ez dugu ezer egiten.

— Neu ere horretantxe nago —beste batek—. Zer axola digu zorotasuna den ala ez? Zer egiten duten ba dakigu eta horixe da prebenitu beharrekoa, eta neure uste apaiez, ez dut horiek zoroak direnik uste, eta baldin badira ere, hain zorotasun desberdina da, non ez baitauka zorotasuna esaten zaion horretan lekurik.

— Argitasun apurren bat eman ahal baneza —Benedium jaunak—, erale hauengan ba da zoroiei dagokien berezitasun argietariko bat, atomizazioa alegia. Ez dago inolako erakunderik. Guztiz banaka jokatzen dute. Argi dago bakoitzak bere buruarekin bakarrik jokatzen duela, zororik estuenei gertatzen zaien bezala. Ideia finko bat daukate eta bestetasunaren ezaguera guztiz galtzen dute. Inori ez die aurretik ezer esan, inon ez dute arrastorik utzi, elte hermetikoen gisan portatzen dira, beren barne nor-tasun hutsez.

— Barka, jaun agurgarria, baina hori guztiz horrela

den ere ez dakit gero! —zutitzen da jaun gazte eder bat, hizketan hasteko, gabana alboan garboso utzirik—. Jakina duzuen bezala, tragedia horietariko bat geure aitari gertatu zitzaion eta hain zuzen lekuko izateko suertea edo zoritxarra izan nuen. Gure aitaren eraleak ba zuen, bai, bestetasunaren kontzientzia. Bana banaka bil erazi gintuen denok eta bana banaka denoi begiratu ere. Hark hitz egiten zuen bezala hitz egiteko, hark esan zizkigunak esateko, ezin eltze hermetikoa izan, edo bestela denok eltze horren barrukotzat jo dezakegu geure burua.

Subpiramide guztien oinak lurrean hasten eta gailurreraino iristen dira, beraz. Non daude diferentziak? Erdialdean. Piramide batzuek oinalde trinkoagoa daukaten moduan, beste batzuek gerraldea eta beste batzuek goialdea gizenago daukate. Desberdintasun sozial latzak desagertu direla eta mundua hobetuz doala diotenek zein piramideri eta han ere zein aldetara begiratzen ote dute? Dударik ere ez horrelako teoria baikorrak zibilizazio «aurreratuak» esaten zaienetan sortzen direla, Mendebaldeko kulturaren, adibidez, gero eta protesta gehiagoz baina. Zer gertatzen da gizarte edo herri aurreratu horietan? Gosea eta lehen premiak aseak dauzkatela. Animalien premi eremua edo gizakiok dugun animalitasuna horiturik daukate. Naturatik hona, lehen premia horiexek dira bueltarik gabeenak. Horiek ez dute barikatzen. Horrexegatik elkar hiltzen eta jaten dute animaliek, premia horiek haien nortasuna baino askoz bortitzagoak direlako. Hil-bizikoak.

— Informazio hori geuk ere bilduta daukagu —Benedium jaunak—, baina nik esan nahi nuena hortxe gelditu

tzen da, alegia, zoro horiek guztiz banaka jokatzeko dutela. Areago oraindik, oso gutxiri ikusten zaie aurretik ezertan eraturik edo soil soilki ezertan parterik hartzen zuten daturik. Zerbaitetan eraturik zebiltzanak ere ez dira ideologiek zerikusirik zeukaten ezertan ibili. Norbaitzuk kirol eta gastronomi elkarteetan sartuak zeuden, baina bazkide hutsak hantxe ere. Dozena erdiren bat bakarrik zebiltzan folklore talderen batean eta bakarra zen nabarmen samarra, astiarte guztietan txirula jotzen ekiten ziona, baina txirulak hilketa sail horrekin zerikusirik izan dezakeenik ez dugu uste, hemendik aurrera tresna joleak estukiago kontrolatzen hastea komeni izango bada ere.

— Inolako erakuntzarik ez eta erakunderik onenak baino hobeki funtzionatzen badu —mahaiburuak—, orain arteko erakunderik gaiztoenarekin topo egin dugula aitortu behar. Gainera zertarako behar dute erakunderik, bakarka ederki egiten baldin badute?

— Bakarka, baina ez dituk, ba, nornahiren burura joaten! Ez diate kalegarbitzaileengana jotzen, ez eta dendari, harakin, merkatari eta goragokoengana ere. Goren-goengana hain zuzen.

— Goitik behera datozela esan nahi du horrek eta goitik hasitakoan, normala da gorengoak harrapatzea, horiexek baitaude hurbilen.

— Beharbada hik erdi txantxaz esan duk hori, baina gauza ikaragarria bota dukala uste diat.

— Eta beste gauza bat, jaun-andreok. Ohartu al zarete orain arte ez dutela kargu politikorik inor garbitu? Ez eta zerbitzuzainik ere, polizia eta abar, orain arte normala zen bezala?

— Bere bizia uztera doana morroiak utzi eta gorengotik hastea bidezkoa ikusten diat, neuk ere berdin egingonikek eta. Ez uste hemen zaudetenetaz besterik hautatu-

ko nukeenik, hau geure artean gelditu dadila baina.

— Nola jakin zezakeagu egunen batez ez haizela heu ere zoratuko?

— Eta nik nola jakin zezakeat hi zoratuta ez hagoen?

— Marka duk hau gero!

— Iso, jaunak, denok batera hizketan hasi gabe!
—agintzen du mahaipuruak—. Egoera nahiko ondo zen-
tratua dagoela uste dut eta irtenbideak bilatzen hasteko
ordua da. Utz xehetasunak eta goazen arazoaren burura.
Benedium jauna, zer irtenbide ikusten diozue arazo honi?

*Menditik ageri den ikuspegiaren edertasunik ez sen-
titzek ez du inor hiltzen, baina goseak edo hotzak
bai. Animalia esparruko premia horiek dezente ase-
tutakoan, animaliek apenas elkar jango duten, ar-
monia ederrean bizi eta jostatu baizik. Mota bere-
ko animaliez ari naiz, motatik motara naturak bes-
te joera batzuk ezarriak baitauzka. Mota barruko
ikuspegia aski zaigu, oraindik gizakiok mota bere-
koak garela emanik hizketan ari baikara.*

— Irtenbide bakarra zoro horiek isolatzea da, baina
horretarako nortzuk diren jakiteko modurik ematen ez di-
gutenez gero, terapeutika orokorra ezarri behar. Gizate-
ria osoa txertatzea beste biderik ez dago, noiz behinka zo-
roetxeetan egiten dugun bezala. Ba dira odolari halako
ahuldura bat ezartzen dioten txertoak, organismoa lasa-
tzen eta moteltzen dutenak. Hitz batez, indarra kendu.

— Txertaketa orokor hori zeren aitzakiz agindu, ordea?

— Hori erreza da. Munduan mila eritasun daude eta
jendea lehenago ere txertoak hartzen ohitua dago. Edo-
zein eritasun klasiko horien aurkakoa dela esango dugu
eta gero gai motelgarri hura sartu.

— Denei egin behar al zaie hori? Geure haurrei ere bai?

— Hori agintariek ikusiko dute nola egin. Susmorik
izan ez dadin, txerkaketak orokorra izan behar duela us-
te dut, baina gai hori gizarte maila batzutan bakarrik sar-
tuz. Besteoi ere ur pixka batek ez digu kalterik egingo.

— Hala eta guztiz ere, jendearen protestarik nekez ebi-
tatuko dugula uste dut, luzera zaila baita zerbait ez
susmatzea.

— Horretarako medikuteria guztiak itsuan erantzun
behar du!

— Hori ez da zailena. Zailena medikua ez den norbai-
tek ez susmatzea da, kontra egiteagatik bada ere.

— Hori ere ez da zailena. Orain arte jendearen pro-
testak beti menderatu ahal izan ditugu, denbora gehiagoz
edo gutxiagoz. Gainera motelgarri hori sartuta, protesta-
tzeko ere indar gutxiago edukiko dute.

— Bai eta lanerako ere. Gizateria guztia indargabetzen
badugu, produktibitateari zer gertatuko zaion pentsatu al
duzue?

— Pentsatzekoak pentsatuta daude hemen —oihu egi-
ten du mahaiburuak—. Beste biderik ez denean, dagoenari
heldu behar zaio. Benedium jauna, txerto hori ahalik ari-
nen presta ezazue. Gaur bertan hitz egingo dut agintari
politiko eta exekutiboekin, ea datorren astean beranduen
dela, egun bat jai eman eta jendetza guztia txertatzen du-
gun. Denak batera egitea hobe izango da, protesta gehia-
gorako bidea eman lezakeen desfaserik gerta ez dadin.
Bitartean, eraleak alde aurretik isolatzerik ez dagoenez
gero, geure buruak isola ditzagun, arretarik berezienak
hartuz. Besterik ezer ere ez eta berriro dei egin arte. Bil-
tzarrea amaitua da.

V

ARRESJAUNA

Oromenderrietako hotelik ederrenean apenas inork hankarik sartzen duen, Oromenderrietako Arresjaunak eta bere segizioak izan ezik. Duela denbora gutxi arte, kostalderik hautatueneko hotelik hautatuena zena azkenean Arresjaunaren jauregizat gelditu da. Ba nenkien hotel hori sarritan zapaltzen zutela Oromenderrietako jaunik jaunek eta, nola ez, Arresjaunak ere bai. Aspaldion, ordea, segurantza pertsonala sendotu nahirik edo, Oromenderrietako jaunik ez da ikusi ere egiten, dabiltzan lekuetan inori hurreratzen ere ez baitiote uzten.

Zer egin nezakeen nik, arras desesperaturik bizitzan? Irlandegiko hotelean, hala baitu izena gutxienez dozena bat izarretako hotel honek, atea jo nuen. Irlandegiko ugazabarekin ba nuen aspalditik zerbait adiskidetasun. Ezaguna behintzat, aitaren aldetik besterik ez bazen ere. Lantxo bat eskatu nion, komunak garbitzen edo, eta Irlandegiko ugazabak noizbait baietza eman zidan, ez neuk nahi bezain arin baina. Geroztik hemen nauzue eta ia bigarren

ugazaba naizela esan liteke, konfidantza aldetik behintzat. Ez dut sekula dirurik ez ezer eskatu, bai, ordea, lanak ondo eta zehazki egin. Zertarako behar dut dirurik, desesperaturik bainago?

Herri aurreratuetan gehienek lehen premia horiek garantizaturik dauzkaten hurrengo maila zein da goruntz? Hutsa. Jo dugu goia. Kontzientziak ez dauka eskaera gehiagorik, nahiz eta dauden mailatik gailurrera oraindik desberdintasun haundiak ikusi. Animalitasuna asea da eta hortik gorako ezak edo baiak ez gaitu hilko ez hilezkor egingo. Animalitasunera itzuli gara. Hainbeste mende eta hainbeste aurrerapen, azkenean animalitasuna kontzientziaren goren eskaria zela ateratzeko. Ederra egin diagu. Horrelako herriak zerritegi trinkoak dituzu. Jan, jo eta ibili eta pixka bat dibertitu, edo ez gogaitu. Zerritegi masibo horien inguruan basurde gosetiren batzuk ibiltzeak ez du, gaiztoenak badira ere, oreka ekologikorik apurtzen. Proportzio gorabehera duzu dena. Segun gose-aseen konbinapena nolakoa den. Beste kontu bat da ea zerritegi gizen horiek nonbait zerritegi argalik gabe irauterik daukaten. Segur asko ez daukate, eta zerritegi gizen bakoitzeko, dozenaka zerritegi argal ba dira munduan. Baina hori beste kontu bat da, aseta dauden zerrien bururik nekatzen ez duena.

Duela denbora gutxi Irlandegiko pertsonal guztia aldatu zuten, Oromenderrietako Arresjaunaren segizio hutsenkoak sarturik. Ni ere bidalia izatekoa nintzen, ugazabak nire aldeko garantiak bereziki eman ez balitu. Ez usate konfidantza hori gutxi kostatu zaidanik. Ipurdia mi-

hizkatzeaz beste guztiak egin ditut eta horixe ere egingo nuen, eskatu balidate. Zer da guzti hori desesperazioaren ondoan? Egoera hau gehiegi luzatzen bada, akabatu eta kito. Hau ez da bizimodua, igogailuan gora eta behera, igogailuzain ari bainaiz. Arresjauna etortzen denean, beste batek egiten du lan hori. Oraindik ez dut behin ere Arresjauna hurretik ikusi. Nire ardura ez da, ordea, Arresjauna, bigarren solairuko pasabideko giltzaria baizik. Poliki konpontzen naiz berarekin eta nire desesperazioari leungarri bat hortixek heldu zaio.

Gaur gauean Arresjauna Irlandegin dugu. Giltzariari aspalditik agindua nion edari berezi bat eskaini diot. Lagun haundi egin gara. Zurrut bat egin du eta oso ona eritzi dio. Bigarrenearako, berak ez dakiela, hauts logarri pitin bat bota diot edalontzira. Bai edakera gozoa! Eta bai lo gozoa ere berehala, besaulki ederrean murgildua. Hemen-dik aurrera laburtu egingo dizuet, kontatzen ari garela, Arresjauna itzar ez dadin, edo giltzaria bera, eta orduantxe bai kito. Hauxe da nire azken aukera, neure deseperazioa eteteko.

Gizarte aurreratu horretan pilakuntza etengabe gehikorren egonkortasunik ederrenera iritxi gara. Egonkortasun hori, jakina, ba dakigu sumendiaren gainean eraikia dela eta noiznahi suak har dezakeela. Zerritegi eder hori gerra batek hankaz gora bota dezakeela ere ba dakigu. Baina isi! Hori orduantxe pentsatuko diagu. Bien bitartean, jana askan eta elkarri laztan. Deskalabrua gertaturik ere, hurren helburua berriro egoera egonkor horretaraxe heltzea da, eta horrela etengabeko itzulketan, baina beti lehen baino goratxoago. Horrelakoxeak dira zibilizazio haundiak esaten zaienak. Beren burua irentsi dute

eta kontzientziarekin zer egin ez dakite.

— Kaiso, Arresjauna —esaten diot tak tak bizkarrean joez. Arresjauna brast erdi esertzen da ohean eta nik, pistola paparrean jarririk, esaten diot:

— Jaikitzeke ordua da, baina isilik.

— Hi ez al haiz igogailuzaina?

— Berbera, jauna.

— Esaten nioan nik Irlandegiko ugazabari ez zegoela inor uzterik. Ordaindu beharko duk, alu horrek.

— Oraindik lotan zaude, Arresjauna. Zuk ez daukazu inori konturik eskatzerik. Paparrean zer daukazu ez al duzu ikusten?

— Nola heldu haiz honaino?

— Hori gutxiena duzu, jauna. Honela izan ez balitz bestela izango zen eta orduan ere galdera bera egingo zenidan. Hala ere jakin ezazu neuk uste baino gehiago kostatu zaidala zureganaino irixtea. Eseri zaitetz lasai eta eskuak garondora, mesedez. Horrelaxe, logalduko pentsaketak egiten bezala.

— Zer duk hori? Hil egin behar al nauk?

— Ez dakit, baina baietz esan liteke, sinestu nahi baldin baduzu.

— Hi ere zoro berri horietarikoa?

— Èz, jauna. Ni desesperatua nauzu. Ba dira bi urte neure burua hiltzea erabaki nuela.

— Eta zergatik ez huen hil?

— Aurretik zeu bidali nahi zintudalako. Horrexegatik sufritu dut hainbeste, ez baitzegoen zu harrapatzerik. Nolako filigranak egin behar izan ditudan bazenek!

— Zer zerikusi zeukak hire desesperazioak nire biziarekin?

— Hauxe! —esaten diot, armarekin paparrean saka-

tuz. Arresjaunaren bihotzak taupadak baino gehiago ostikadak ematen ditu, esanez:

— Desesperaturik baldin bahago, zer axola zaik ni hiltzea nahiz bizirik uztea?

— Desesperazio guztiz logikoa ere ez dela aitortzen di-zut, jauna. Desesperatuta zegoenari orain arte ez dio ezerk axola izan, baina ez dauka beti horrela izan beharrik. Ni oraindik bizirik nago eta bizi denak bihotza ere hantxe edukitzen du eta bihotza daukanak maitasun pixka bat ere izan lezake. Zergatik ez, hiltzekoa banaiz, mesedetxo bat eginda joan?

Eta piramide argaletan zer? Horien oinaldeak animalitasun egonkorrera ere iritxi ezin. Zibilizazio aurreratueta edozein behitegi edo zerritegiako konformitatera ere iritxi ezin. Goseak ez du huraxe kentzeaz besterik pentsatzen uzten, eta berdin beste lehen premiek ere. Batzuk animalitasunera itzultzeko, beste batzuk animalitasunera ere iritxi ezin. Miseria, munduan oraindik den jenerorik ugariena. Hauxe ere ez dakite kontzientziarekin zer egin, ez baitaukate zertarako den pentsatzeko kemenik ere. Daukaten apurra animalitasunera iristen erabilia, horixe ere lortu ezin badute, nola erabiliko dute, ba, beste ezertarako? Gizakirik gehienentzat kontzientzia lur kiskalia da, harakaiztoa arima zimelean dindiliska, sufrigailu hutsa. Zerritegi gizenetan berriz gantzagi zakua, morkordo delineatua, asperrontzia eta gainera sufrierazgailua. Eta zentzugabekeria biribiltzeko, sufrigailua ere bai, berek ere sufritzen baitute. Jauna, ken ezai-guzu ezaguera eta konpondua duzu mundua!

— Nori mesedea?

— Bizia maite izanik, zu hilko zintuen beste bati. Nik hiltzea erabaki nuenean, pentsatu nuen: Koino! Zergatik ez bide batez mesedetxo bat egin? Beren burua hiltzen duten guztiek hori egingo balute, ez litzateke ez gerrarik ez iraultzarik behar.

— Ez al zegok desesperazio horri bueltarik emateko modurik?

— Ez dut uste, pentsatzen ere ez naiz hasi baina.

— Nola zitekek biziari uko egitea, horren sasoikoa izanik?

— Alperrik zabilta, jauna. Niri bizia berriro maitatzen irakatsirik ere, ez daukazu salbamenik. Desesperazioa zureganaino heldu arte zen. Orain desesperaturik nahiz maitemindurik egotea berdin den unean gaude.

— Oker hautatu dukala uste diat. Pobrea naizenik ez diat esango, baina ni ez nauk Oromenderrietan inor, besteekin konparaturik.

— Inor izan ez eta honelako hotela zeuretzat bakarrik?

— Gaur hotelean nornahik lo egiten dik.

— Baina ez hainbeste zaintzailez inguraturik. Inor ez zinela jakinda, nola hartu dituzu, ba, horrenbesteko prekauzioak?

— Dozena bat artaldez ez zegok hik uste bezalako fortunarik egiterik.

— Dozena bat mila esan nahi izango zenuen. Nik dakidala, Oromenderrietako abelxehe guztia zure eskuetan omen da, ardi, ahuntz eta zaldi behintzat. Oromenderrietako bi mila arrantxotatik hiru laurdenak zureak omen dira, bai eta horrainoko eta hortik gorako negozioak ere.

— Zein dituk horrainokoak eta hortik gorakoak?

— Esate baterako, artzain kontratapenak, horien etxagintzak, janari kateak, dibertsioak eta abar. Hortik go-

rakoak berriz abere horien merkaturatze guztia, industri-kuntza ez esateagatik, zeren kostalde hauxe ere, esate baterako, zeure mende omen dago dena, autogintzatik hasi eta ardien pentsugintzaraino. Gezurretan ari al naiz?

— Alperrik izango dela uste diat, hik ez baituk eka-rritako bururik aldatuko.

— Hortik hasi bazina, alperreko hitzak aurreztuko genituen.

Baina, adiskidea! Zergatik da mundua honelakoa? Honelakoxea izan behar duelako ala honelaxe gertatzen delako? Ala honela izatea hain luzea izanik, ohitura bueltagabea hartuak gaudelako? Ala, ohitura harturik ez badugu ere, bueltagabea delako? Itzulerarik gabeko unetik pasatuak al gaude? Zer galdera larriak, adiskidea! Alde batetik orain arteko giza denbora guztiak honelaxe izan beharra daukala ematen du. Derrigor hala izan beharrik ez balu, nola ez da hainbeste mendetan bestelakorik gertatu? Beti honela izan bada, beste era batera izan litekeela pentsatzea ez al da ameskeria? Zenbat mende behar dira, egoera baten nagusitasuna frogatzeko? Galdera honen aurka ba da arrazoi haundi bat, alegia, kontzientzia bera ere, den bezalakoa dela, ez dela betidanikoa. Kontzientziaurrea kontzientzi haroa baino askoz luzeagoa izan zen eta, hala ere, noizbait kontzientzia sortu zen. Beste noizbait ez al liteke kontzientzia horren leherkunderik gerta? Hobeki esateko, ez al liteke antikonzientzia hori kontzientzia bihur? Horretaraxe goaz, inondik ahal bada. Eza bestela ere hor dago.

- Zer esatea nahi duk orduan?
- Ezer ere ez. Nahi baduzu, Irlandegiko ugazabari deitu eta ea ni nola hemen eduki nauen galdetu.
- Eta nire bizkartzaingoa?
- Horiek beren lekuan daude, jauna, eta ez uste lo daudenik. Oso ernai daude gaizoak, goizaldeko ordu ilunak izateko, baina soineko hauek ezagutzen badituzu, zeurre giltzariarenak dira.
- Hura ere hil al duk?
- Iso, jauna! Nik ez dut oraindik inor hil. Hura lo dago, baina ez dauka inolako errurik. Ez nago hura garbitzeko bezain desesperatuta, itzartzean susto galanta hartuko badu ere.
- Hik ez al huen txerto orokorrik hartu?
- Bai, baina berdin zen, aurretik bainengoen desperatuta.
- Zergatik?
- Ama hil nahi nuen, bizia eman zidalako. Desesperazioaren ondorio bidezkoa horixe zen, baina hura ni desperatu aurretik hil zen gaizoa.
- Aitak ere parte pixka bat izango zian, ba, hire jaiotzan.
- Bai, baina hura zeuek hil zenuten gerran eta ez dakit ehortzia ere izan zen, gaizoa. Gure amak ezin zuen burutik kendu hura hegazti sarraskizaleek jango zutela.
- Horregatik desperatu al hintzen?
- Ez, jauna. Nire desperazioak ez dauka sustrai historikorik.

Orain egundainoko pilakuntzarik haundienean gaudede. Pilakuntza horrek egundainoko desberdintasunik haundiena ekarria du eta hortik egundainoko sufri-mendurik gogorrena. Gaizki guztien sorburua pila-

kuntza da, era guztietako pilakuntzak eta pilakuntza mota guztiak jota. Pilatzea edo norbere gizakideen bizkarretik haunditzea da nagusi. Beste guztia katean dator hortik. Pilakuntza egina dago. Ba al dago desmuntatzerik? Aldez aurretik prebenitzea litekeena izanik, ba liteke aldez ondotik ezinezkoa izatea. Eta desmuntatzerik balitz, berriro ere pilakuntzara isuriak al gaude? Beste era batera esanda, pilakuntza kontzientziaren emaitz derrigorrezkoa al da?

- Gogoak eman zidalako desesperatu nintzen. Egunderrak pasatu ditut bizitzan. Ederregiak. Ez naiz zorigaitzekoa izan. Baina egunik ederrenak pasatutakoan, pentsatu nuen: Ez daukak hori ontzerik. Aurreruntzean, nahi eta ez, beheruntz egin behar duk. Horrela tristatzen hasi nintzen eta gero eta okerrago eta gero eta tristeago, azkenean amaitzea pentsatu nuen.
- Nola oroitu hintzen nitaz?
- Oraindik umore pixka bat ba nuelako.
- Umorea desperazioan?
- Edo umorearen oroimena, nahiago baduzu. Lagun artean zoriotsu genbiltzanean, zenbat bider esaten genuen: «Oromenderrietako Arresjauna ere ez gu baino hobeki». Eta begira. Egia esateko, oraintxe ere ez zaude ni baino hobeki, gerokorik ez dakit, baina.
- Nahi al duk whiskytxo bat?
- Ez, jauna. Eskerrik asko. Edanari aspalditik utzia nago eta zuk eskuak garondoan eduki behar dituzu.
- Hainbeste denbora pasatu al duk desperaturik, ni harrapatu arte?
- Ez al zuen merezi? Hainbat aldiz tentaturik aurkitu izan naiz, baina erabaki zihurra baineukan, ez zegoen

damutzeko beldurrik.

— Ni bizirik geldituko ninduan, ordea.

— Hori ez dakizu, jauna. Une absolutua heltzean, alperrik dira aieru kontingenteak. Ez eman buruari bueltarik, kasualitate hau izan ez balitz, zer izango zen pentsatuz. Mila kasualitateren artean, baten batek derrigor izan behar du bueltagabea.

— Ezin diat adar jotze hau sinestu.

Desmuntzatzeko edo muntatzen ez uzteko, piramide osoarentzat balio duen tresna behar dugu, ez piramide bat edo bi han hemen salbatzekoa. Ez pilakuntz mota eta haro jakin batzutarako bakarrik balio duena. Gizarte mota eta mende guztietarako balio duen tresna orokorrik aurkitu ezik, alper alperrik gabiltza. Piramide bat edo bi salbatzea ezinezkoa izanez gainera, salbatu eta gero zer bilakaera izango luketen ere jakin behar dugu. Hitz batez, orain arteko antikontzientziaren haro nagusi bakarra osoki irauli ezik, denborapasan ari gara. Besterik ezinean, hori ere beharrezkoa noski, baina ez aski. Tresna bakarra eta orokorra! Duela ehun mila urte nahiz gaur ezarri, eragin errozkoa eta erabatekoa izango duena. Horrexen bila gabiltza. Hainbeste mendetan tresnatxoaren bila gogaituak gaude, azkenean gauden unera heltzeko. Tresna orokorra eta behin betikoa!

Oromenderrietako Arresjaunak ametsetan dagoela ematen du. Adar jotzea? Neuk baino umore gehiago zeukak honek. Ia ia barkatzea merezi du. Hau suertea edukidudana! Desesperaturik bizi eta umorez hil behar. Ez noa gehiago hitzik egitera. Oromenderrietako Arresjaunaren azken hitz horiek beren hartan uztekoak dira benetan. Go

za dezagun biziaren adar jotzerik haundiena. Pun! Oromenderrietako Arresjauna zoriontsu hil da. Irandegiko hotela bat batean burrundaz eta joanetorritz bete da. Atea jotzen, orain irekitzen, baina ezin dute, giltza barrutik zuloan utzi baitut. Botatzen hasi dira. Karrask! Oromenderrietako Arresjaunari azken aldiz begiratzen diot. Pun! Neu ere ohean natza. Atea bota dute eta burrustan sartzen dira. Berandu zatozte, mutilak!

ABELJAUNA

Oromenderrietako Abeljaunaren bizilekua bi ibai haundik bat egiten duten lautadan dago, bilguneko angulu anguluan jauregi ikusgarria dela. Ibaiak gero eta lautada zabalagoaren bi aldeetatik datoz, haruntz eta ezker-eskuin mendikateak direla. Tartean dena abelgorria eta abeltzantz, egundoko instalaziorik gaurkoenez. Ibaiarte hau Abeljaunaren bizilekua besterik ez omen da, gehienez beste lautada eta lurralde batzutatik ibiltzen baita. Ibaiarte atse-denerako eta begien gozamenerako erosi omen zuen.

Bi ibaietan gora eta behera, begiraleak eta zerbitzariak etengabe ibiltzen dira, bai lanean, bai jolasean, munduan diren zehatzik eta hegaztirik ederrenez inguratutik. Hegaztiak batera sarritan hegazkintxoak ere ikusten dira. Abeljaunaren aireportu partikularrean sartzen eta irteten. Ibaiez kanpo aldeko hegalean ohitura zaharra da eskaleak gora eta behera ibiltzea, jauregi zerbitzuko bateletan dabilzanean eskutik noiz zerbait harrapatuko.

Nola sortu zen pilakuntz prozesu hori? Ez zeukan sortzeaz beste erremediorik. Oraindik nagusi dugun kontzientzi mota honek nahi eta ez horraxehartzen gaitu. Ez zen, beraz, prozesua kasualitatez hasi. Ez zeukan hasteaz beste biderik eta gaur eta bihar eta beti ere ez dauka halaxe jarraitzeaz besterik, leherkunderik gertatzen ez bada. Animaliekin konparazioa egin dezagun. Hauek lehen premien ildoan mugitzen dira. Horren barruan zurrinak bezain gupidagabeak dira, baina asetasuna lortutakoan, gehienak ez dira pilatzeaz arduratzen, berriro goseak eraso arte. Ba dira animalia pilatzaileak ere, bai bakartiak eta bai sozialak. Hauexek axola zaizkigu gehien, inurriak adibidez. Animalia miragarri hauen antolamendu harrigarriari esker, urterik erdia beste urte erdirako pilakuntza egiten pasatzen dute. Arraultzetik harako aitz animaliak ere umeei jana pilaturik uzte die, arraultzetik irteteen, beren kontura goberna daitezen. Horretan zoologiak gusto guztietako adibideak emango dizkizu.

Hementxe nabil ni ere, goseak nolabait bizirik ekarria. Egia esateko, ez daukagu ugaritasun haundirik, baina hiltzen ere ez digute uzten. Eskaleria aldakor hau jauregi inguruko osagai bat gehiago garelako esan liteke, aldakorra noski, gehienak laster gogaitzen baitira, beste leku batera alde eginik. Eskalearentzat ibiltzea ogia bezain behina omen da. Ni ibiltzen gogaituta nago eta gainera orain ez nago hain gaizki ere, Abeljaunak hilero errezibitzen bainau. A zer betekadak egiten ditudan!

Gabonetan Abeljaunak bi ibaiak untzirik bikainenean zeharkatzeko ohitura izaten du, hegaletako eskalei sariak banatuz. Egun horretarako Oromenderrietako eskale guz-

tiak hementxe batzen gara, jai haundia eginez. Jaialdia ere izaten da eta halako batean, urte batez, igarketa bat jarri zuten eta hain zuzen neuk irabazi. Igarkizuna hauxe zen: «Ea nork dakizkien Oromenderrietako Abeljaunaren abelgorriek ura edaten duten ibaien izenak». Neuk igarri nuen gehien, denak ez baziren ere. Ba ziren dozena eta erdi ibai gutxienez, orain ez naiz gogoratzen baina. Irabazleak nahi zuen saria eskatzea zeukan, gehiegikeria ez bazen. Zaila zen han gehiegi eskatzea, oso sari haundia izaten baitzen. Gutxienak ere etxe eta etxalde galanta eramaten zuen. Batek hegazkin bat eskatu zuen, ez dakit zertarako behar izango zuen baina. Behin entzun nuen ba zela eskale bat hegazkinez zebilena eta ipuina iruditu zitzaidan, baina huraxe izango zen.

— Nik Abeljaunarekin bazkaltzea besterik ez dut eskatzen, berak nahi duen egunean —esan nuen nik.

Gabonetan halako egun bigunak izaten baitira, Abeljauna hunkiturik gelditu zen.

— Ekar bihar bertan eskale hori nire mahaira —agindu zuen.

Halaxe joan nintzen biharamonean, zazpi atetan biluztu eta berjantzi nindutelarik eta kanpo eta barru zehazki arakaturik. Azkenengo atean hura soinekoa jantzi zidatena! Eskalea baino gehiago loreontzia ematen nuen. Abeljaunarekin jaten baino hizketan denbora gehiago egiten nuen, baina bai jan ere. Berak apenas gauza haundirik jaten zuen, baina bai galderak egin eta mila pasadizo konta erazi eta ni horretarakoxe izan, ba, iaioa. Geroztik hilean behin berarekin bazkaltzera eramaten ninduen, eskalelagunak gaizki pentsatzen hasteraino. Ibai artean bizi nahi nukkeen ere galdetu zidan, baina nik ezetz esan nion, neure betiko ibai hegala nahiago nuela. Abeljaunak ba dirudi lagun mamirik ez daukala. Ni noanetan, neurekin ba-

karrik bazkaltzen du eta, egia esateko, familiarik daukan ere ez dakit. Hainbeste gizalaba eta gizaseme hara eta hona ikusten ditut, baina ez dakit Abeljaunaren zer diren eta galdetu ere ez diot egiten. Hor konpon bakoitza bere bizimoduarekin, berak niri xehetasun guztiak ateratzen dizkit baina. Nirekin dagoenean, inork ez molestatzeko agindu zorrotza uzten du, oso zer premizkoren bat ez bada. Orain arte sekula ez da ezer premizkorik ni aurrean naitzela gertatu eta gaur ere hementxe gaude, ez dakit zenbakarrenez, Abeljauna eta biok aurrez aurre, geure hilero-ko bazkarian. Astero ere nirekin pozik bazkalduko lukeela esaten dit, gehienez kanpoetatik ibili beharrik ez balu, baina zoritxarrez hilean egun bat besterik ez du jauregi honetan egiten.

Gatozen berriro inurriengana, animali artean nekez izango baita hauena baino pilakuntz prozesu gurenagorik. Inurrien pilakuntza sofistikuak, ordea, bere goia dauka. Ez dute bi urtetarako edo gehiagorako pilatzen. Ez dute ustez behar dutena baino gehiago ere pilatzen, gehienez behar duten hori ahal duten guztia izaten bada ere. Ahal horrek eta pilatzeko grina horrek oso goi jakina dauka. Handik gora ez zaizkizu sekula pasatuko. Oso pilakuntza jakina eta mugatua, beraz. Pilakuntza horri hornikuntza deitzea ez al da hobe izango? Animaliena, gehienez ere, hornikuntza soila da eta pilakuntza hain zuzen hortik gora hasten da. Hemen datoz istiluak! Zurrut bat? Eskerrik asko, baina ahoa galdu dut. Orduan berdin gaude, niri ere zahaltoa galdu baitzait.

— Gehiago ez niri bazkaltzera deitu, jauna —esaten diot.

- Zergatik ez?
- Hau ez da nire lekua. Ni eskalea nauzu.
- Esatea ere!
- Eskerrik asko, baina egun hau hileko txarrena gertatzen hasia zait.
- Nola txarrena? Burutik sano al hago?
- Burutik bai, baina bihotzetik ez. Ez deitu gehiago, mesedez.
- Bai horixe! Nola ez, ba?
- Ez didazu deituko, mundu honetan behintzat.
- Zertan ari haiz?
- Eskuak garondora! Zutik mesedez!
- Zer txantxa dun hau, ene eskaletxo?
- Ni ez naiz eskaletxo, jauna, aktorea ospetsua izana baizik.
- Aktorea? Ez dinat sinesten.
- Zer ez duzu sinesten, aktorea naizela ala pistola hau benetakoa dela?
- Ez bata ez bestea, emakumea.
- Bigarrena sinestea komeni zaizu, ba, bestea barkatuko dizut baina.
- Nola hasi hintzen eskale?
- Filmegintzan higuindu nintzelako.
- Filmegintzan higuintzeak eskale sartzea esan nahi al din?
- Ez du hori esan nahi, baina horixe egin nuen, desesperaturik bainengoen.
- Pentsatzen ninan, bai, nola ibil zitekeen eskale horren emakume ederra.
- Baina pentsamentu horrek zeu galduko zintuenik ez zenuen uste, ez?
- Zergatik galdu behar naun?
- Esan dizut desesperaturik nagoela.

- Horretarako ba ditun hor bi ibai galant.
- Dudan egon naiz zein hautatu eta azkenean ni batetik eta zu bestetik joatea erabaki dut.
- Nola pentsa dezaken horrelakorik, maitea?
- Losintxa horrek ez du hemen ederki ematen, baina esango dizut, maitea. Bizitzeko baino desesperatuago eta hiltzeko baino bildurriago nauzu. Horregatik laguna nahi nuen eta laguntxo hori zeu zaitut, maitea.
- Hiltzeko laguna?
- Hiltzeko, maitea.

Animalien hornikuntz lana esparru mugatua da. Beren eraso-defentsen grinak hortxe erabiltzen dituzte. Esparru gogorra eta tragikoa noski, mota batzuek beste motak jatetik bizi baitira. Naturako bizi legea heriotz legean finkaturik dago. Esparru hori animalien zentzuen irixpidean dago. Zentzuen eta instintuen ahalmena norainokoa izan, haraxeinoko esparrua dute. Batzuek leku fisiko gehiago hartzen dute, beste batzuk, lur txikiagoan izan arren, bizkorragoak dira, eta horrela milioika barietate. Erasoak eta defentsak esparru horrexen barruan dira denak. Animalien lehen premiak mota bakoitzak bere esparruan jokatzeko ditu. Handik kanpora ateratzen baduzu, ez daki ez nola eraso ez nola defenditu. Instintuek eraso-defentsa horiexen konbinapenez jokatzeko dute. Animaliarik gaiztoena ere, bere esparruaz kanpotik eraso jotzen badiotzu, ez zaizu defendituko, ez baitzaitu somatu ere. Tigreak ez dauka sekula iragan ez duen ibaiak handik zer etor lekiokoen ardurarik. Tiburoiak ere ez dauka basurdearen ardurarik eta honen ere ez harenik. Horretarako kalkulatu egin behar da, pentsatu egin behar da. Animaliek ez dute pila-

tzen, ez dakitelako. Bestela erdi goserik dabilen behiak hilabeteko janaria gustora kenduko lioke ondokoari, plangintzan baleki. Animaliek ez dute pilatzeko erasotzen, ez baitaukate prebisio senik. Ez daukate kalkulamenik. Kontzientzia da horretan armarik hondagarriena.

— Zergatik desesperatu hintzen?

— Aktoresa bat desesperatzeari harrigarri erizten al diozu?

— Hi al haiz «Behitik zezenera» filmean protagonista egiten zuen Lili Belinda?

— Huraxe berbera, jauna, zure artzainen eta arrantxe-roen gozamenerako.

— Gezurra zirudin, oraindik ere edertasunik ez zain falta baina.

— Ez daukazu sinesteko obligaziorik. Kasurako berdin da Belinda nahiz Sor Joanita izan.

— Gero eta desesperazio ustekabeagoak zetozen hemen. Mundu honek nora joan behar duen ez zekinat.

— Mundurik ez da inora joango, jauna. Zu eta ni gara joan behar dugunak. Biok joan behar dugu.

Ez dakit nire barruko sentimenak orain agertzerik mezezi duen, baina filme hura eskuak garondoan dituen tipobitxi honexek finantzatua izan zen eta urteko interpretaziorik onenaren saria ere beronen eskutik jaso nuen. Filmea abeltzaintzat bereziki egina izan zen, gerrako soldaduentzat beste batzuk egiten dituzten bezala. Abere eskenak beronen abeltegietan eta giza eskenak beronen jauregietan egin behar izan ziren, gehienak jauregi honetantxe. Filme hartaz pozik nengoen galdetzen zidatenean, zer esan ere ez nuen jakiten, aberastu egin nintzela besterik. Hona gero zertara iritxi naizen. Zenbat denbora eta nahigabe kostatu

tu zaidan Abeljauna daukadan bezala edukitzen! Ez hain luzea egutegiz, baina desesperazioa amaigabea izaten da. Betikotasunak ere amaitu egiten dira, ordea, eta honen azkena ere ez dago urrun. Egia esan, duela zenbait hila-bete ere egin nezakeen, baina arrisku zirriturik ustegabeanak ere zihurtatu nahi nituen eta hemen gaude azkenik. Egitekoa zihur egingarri ikusi nuenean, denbora nekezago joaten zitzaidan, usterik gutxienean berez hiltzeko bildurrez, baina suertea izan dut eta hemen gaude azkenik.

— Egia al da —galdetzen diot— abereak gizakumeak baino maiteago izan dituzula?

— Zergatik galdetzen didazu hori?

— Oromenderrietarren artean zabal da hori.

— Abereak neure bizia izan ditut. Eskertuko ez badi-dazue ere, abelzantzak eta abere endek neuri zor didate inoiz ez bezalako ontzea.

— Eta abeltzainek?

— Abeltzainek ere zuk uste baino gehiago maite naute.

— Beharko, baina berdin zait. Nik ez dut abererik maite. Neure burua bakarrik maite nuen eta azkenean huraxe ere ez.

— Zergatik ez didazu pistola paparretik kentzen?

— Ez, jauna. Hauxe da hemengo zer funtsezko bakarra. Beste guztiak berriketak dira.

Kontzientzia da orain arte ezagutzen den tresna pilatzaille bakararra. Norberekotasun funtsezkoari, pilatzeko grina horri kalkulamena erantsiz gero, gainerakoa oso lan erreza da, bai eta ezinbestekoa ere. Nondik kalkulatzeko hasten da erasotzailea? Animalitasunaren esparrua baino haragotik hain zuzen. Zer gertatzen da orduan? Erasoa defentsaren aurrekoa

dela beti. Agresibitate grinei buruz, defentsa grinak funtsezko desfasean daude beti eta horregatik defentsarik ez da erasoari buruz izan ezik eratzen. Lehen gizakiak eraso jo zuenetik haren lagunak defentsa grinak egoera berrira egokitu arteko tartea erasotzaileen alde zegoen beti. Kolpe batean ez bada bestean, erasotzaileak bere helburua lortuko du, eta erasotzaile batek ez bada besteak, eta gaur ez bada bihar, eta aurten ez bada hurrengo urtean, eta mende batean ez bada bestean. Aski da milatatik bati eta milatatik batean ordo irtetea, prozesu pilatzailea abiatzeko. Beraz, zenbaki haundien probabilitatea, baita ia determinazioa ere, erasotzailearen alde dago. Batean batean etekin gehiegirik ikusten ez bada ere, tirabira sorturik dago eta lehentxoago edo gerotxoago tirabira hori grina pilatzailearen alde makurtuko da. Behin prozesua abiatutakoan, gehitzea errezagoa da erasotzailea pilakuntzari esker indartsuagoa baita. Elur bola martxan da. Alde paretik!

- Ezin dut hitzik egin, hau paparrean dudala.
- Orduan egon isilik. Lehenago amaituko dugu.
- Honela egotea baino hobe da lehenbaitlehen amaitzea. Ez, beno, hori ere ez. Ez dakit zer pentsatu ere.
- Pentsa ezazu edozer.
- Honela amaitu beharra ez al zaizu bihozgabekeria gehiegi iruditzen?
- Bihotza ukituko didazula uste al duzu? Zeuk zer egingo zenuke nire larruan bazina?
- Gatilu horri emateko barrurik ez nuke izango.
- Arima askok beste mundua zuri zor dizutela entzuna dut, ba.
- Esaten diren guztiak sinesturik al zatoz zu ere?

- Zu ez al zara, ba, Oromenderrietako Abeljauna?
- Bai, eta zer?
- Gutxi al da? Niretzat horrexek esaten du dena.
- Nork bidali zaitu hona?
- Ez al dakizu konpletez kanpo munduari begiratzen? Bestek bidalia izan banintz, gutxienez komandoan etorriko nintzen.

— Horrela eskertzen al didazu sekula inori agertu ez diodan estimazioa?

— Ez uste zure meritua denik. Neu etorri naiz bila eta neuk eragin dizut guztia.

— Nik ez al dut ezer egin?

— Bai horixe! Pentsa zenbat ahalegin egin duzun inork ez harrapatzeko eta begira azkenean nola erori zaren. Destinoak ez dauka bueltarik.

— Zein da orduan gure destinoa?

— Desesperatu batek begia ezartzen diona baldin bada, hauxe da gure destinoa. Pun! Pun! Baten lekuan bi badaezpada, lehenago ere, egi ala gezur, bihotzean bala bat zuela salbatua omen baita Oromenderrietako Abeljauna.

Oraingoan salbatuko denik ez dut uste. Abeljaunaren jauregian lurrikara izan dela dirudi. Ez dakit denak iheska doazen ala etorri datozen. Oromenderrietako behiak eta zezenak umezurtz daude. Konturik eskatu behar badidazu, zabilta arin, honuntz baitatoz. Astiroegi irakurtzen duzu. Ez didazu kontatzeko tarterik eman behar. Eralea naizela uste baduzu, esan oraintxe, bi orritako atetzar sekularra ireki baitute.

— Neu naiz —hots egiten diet eta neure buruari ere pun pun bi tiro emanik, betikotasun guztirako kezka gelditu zait, ea lehenengo balak ala bigarrenak hil nauen.

HEGAZTIJAUNA

Ganboletako aireportuko alarma guztiak airean dabil-tza. Gu ere airean goaz. Azpitik tiratzen hasiko zaizkigunik ez dut uste. Airepistak arrapataka garbitu dituzte, gero jendez, patruilaz eta ez dakit zerez betetzeko. Hemendik ez da ondoegi berezten eta laster batere ez, lainoa baita-go. Nahiko lan daukat sekula baino ederragoa iruditzen zaidan hegazkin honetan. Oromenderrietan gutxi izango dira honen kategorikoak, oso haundia ere ez da baina. Berrogeiren bat lagun gara gaur, tripulazio eta guzti, ehun eta hogeita hamar sartzeko lekuan. Gehiago hartzen duten hegazkinak ba dira, baina ez honen zabaltasunez eta edertasunez.

Aeroneskek beren haserako lanak beti bezala egin dituzte: agurrak, gerrikoak, jausgailuen funtzionamendua eta abar. Betiko lana beti bezala, inork jaramonik ez egiteko moduan. Ederki, beraz. Orain ingelesez, orain frantsesez, orain berriro agurrak eta bapo. Neska hauek, egiten zaien jaramonagatik bada, apenas falta haundirik egiten

duten, ikusgarriak ez balira. Beteranoek entzun ez eta nobatoak bildurtu. Jausgailuaren instrukzioak bildurgarriak dira izan ere, falta egingo dutela pentsatzen hasiz gero, gaur egingo duten bezala. Ondo al zoaz?

Zergatik ez defenditzaileak ere kontzientziaren kalkulamena berdin erabili? Bai, adiskidea, baina ez erasotzailearen neurrian. Defentsa definizioz mugagabea da, eraso posible guztietarako eraturik egon behar baitu, baina hori ezinezkoa da, izaki infinitua izan ezik, eta horrelako izakirik apenas den. Defentsa mugatua da, mugagabea izaterik ez daukalako. Eraso ere mugatua da, baina ez dauka mugagabea izan beharrik. Areago oraindik, zenbat eta mugatuagoa eta hartaratuagoa izan, hainbat hobeki, defenditzaileak ustekabeen harrapatzeko. Erasotzaileak bere eraso motak aldatzen baldin badaki, defenditzaileak ez dauka denetarako defentsarik prest edukitzerik. Zer egin? Erasotzen diotenean, orduantxe defentsa eratu, astirik ematen badiote. Erasoaren lehentasuna abantaila estrategiko funtsezkoa da eta, zenbaki haundien garantia kontuan harturik, eraso nahitaez nagusituko zaio defentsari. Panorama polita, ez?

Hemen inork ez dakiena da pilotu laguna falta zaidala. Aireportuan, nola ez, bat batean ohartu dira, bigarren pilotua ahoa bete haginez pistan utzi baitut, jakinean uzten nuela denek igartzeko moduan. Motoreak aspalditik martxan zeudela, ate zurubia itxita zegoela, aeroneskak instrukzioak ematen hasiak zirela, kanpoan neuk apropos utzitako mapa atmosferikoaren bila bidali dut. Ate zurubia ireki, hura jetxi, eta bi oinkada eman aurretik, nik zurubia itxi eta aire. Laguna orroaka hasi zait, atzetik ko-

rrika jarraituz, baina ez urrun, hegazkinak laster ihes egin baitio. Hegazkin barruan inork ez daki zer gertatu den eta gutxiago zer gertatuko den.

Laino gainera goaz. Aireportuko dorreetatik instrukzio eta agindu mota guztiak bidaltzen ari zaizkit, baina orain jaramon egitekotan, abiatzean egingo nien. Beno, utz ditzagun behekoak eta goikoei ekin dezaiegun. Goikoen artean gorengoa dator: Oromenderrietako Hegaztijauna. Oilo, oilar, oilasko, oilanda, uso, faisai, galeper, pauma eta gainerako txori eta hegazti negoziagarri guztien eta horien arraultze guztien ugazaba dela esan liteke Oromenderrietako Hegaztijauna esaten diotena, ehiza barrutirik gehienak ere berak kontrolatzen dituelarik. Nonahi dituzu haren oilategiak, usategiak, faisaitegiak, galepertegiak, zein baino zein haundiagoak eta mekanizatuagoak, milioika oromenderrietarri, merketik nahiz garestitik, «Ahorako Aukerarik Gozoena» eskainiz, haren betidaniko propagandak iragartzen digun bezala. Paseko hegaztiak ere, etortzean nahiz joatean, Hegaztijaunaren leihatilatik pasatzen direla esaten da Oromenderrietan. Urte batez kuku batek, haren leihatilatik ez pasatzeagatik, neguan hantxe gelditzea pentsatu zuen, isil isilik, hurrengo udaberrira arte, baina Oromenderrietako Hegaztijaunak erregistroetan haren falta hartu omen zuen eta bere ehiztari eta zakur aldrak kuku harexen bila bidali zituen. Ez zuten kukurik ehizatu, baina gaizoa goseak eta hotzak hil zuen, halako setioaren estuan ez baitzeukan mugitzerik ere. Azkenean ustel kiratsera topatu zuen hegazti gaizoa eta zakurrak eta ehiztariak orduantxe erretiratu ziren, badaezpada tiro bana emanik.

Berriketak utzi eta egitekoak egiten hasi beharko dugu. Denbora galtzea arriskugarria da airean. Hegazkina zuzen jar dezadan, pixka bat gora egingean, ordu laurde-

nean bera bakarrik joateko moduan. Aeroneskei deitu eta esaten diet:

— Pasaiariek jauzi egiteko prestatu beharra daukate. Zuek ere bai.

— Zergatik? Zer gertatzen da?

— Pilotukidea falta da eta neu ere ez naiz ondo aurkitzen.

— Non da pilotukidea, hasieran hementxe baitzen?

— Lasai! Pasaiariei neuk hitz egingo diet.

Pilotugelatik pasaiari aldera noala, aeroneskak uhika hasi zaizkit, ea nola hegazkina bakarrik uzten dudana. Hegazkinari bakarrik joaten ere irakatsia diodala erantzunik, mikrofonoa hartu eta hitz egitera noa. Oso lasai nago, baina jendeak nola erantzungo duen ez dakit, neuk nahi bezala erantzutea besterik ez dauka baina.

Kontuz! Ez uste batzuk erasotzaileak eta beste batzuk defenditzaileak direnik. Ale bakoitzaren golkoan bietariko grinak daude. Sorreran ez da indibidu arteko auzia, bi indarren artekoa baizik. Animaliairen baitan kontzientziak tirabira automatikoa dakar, eta tirabira horretan, gaur ez bada bihar, agresibitate indarra defentsa indarraren gainera jarriko da nahitaez. Defentsa indarrak, orekari edo berdintasunari eusteko, posibilitate guztiak prebenitu behar ditu eta alde aurretik irabazi. Agresibitate indarrari, ordea, deskuido bat aski zaio, desoreka sortzeko. Zer da deskuido bat, harrapatua izateko posibilitate amaigabeak zaindu beharraren ondoan? Pazientzia pixka baten gorabehera besterik ez. Gero, pixkana haunditzean eta koherentzia eratua hartzean, indibiduak ere alde batean edo bestean aurkitzea normala izango da. Norengandik eta non jaioa izateak

ez du horretan gutxi erabakiko. Pilatzailekumea bada, pilatzailea izango da gehiengan. Pilatukumea baldin bahaiz, izorratzea daukak.

— Jaun-andreok! Zuen hegazkineko komandante pilotua nauzue, dakizuen bezala. Jausgailuetan jauzi egin beharra daukazue. Jaus-gai-lu-e-tan jau-zi egin beharra daukazue! —esaten diet berriro ere. Orain arte hain lasa eta berritsu zetozen aurpegiek ilargiz plantxatuak dirudite. Hitz hauen aurreko eta ondoko gizakumeak berberak baldin badira, jaiotz-heriotzen artean ere ez zegok alde haundirik.

— Ezer ere ez larritzekorik, baina jauzi egin beharra dago. Bi hitzez esateko, pilotukidea falta da eta nik ez daukat hegazkina gidatzeko gogorik.

— Hori ez daiteke izan!

— Ez dakit daitekeen ala ez, baina da. Galde bestela aroneskei.

Aroneskei ez dago ezer galdetu beharrik, hauen izu koloreak sobera adierazten baitu zertan garen. Aireak errespetoa sartzetik, mutilak. Bere gisara doan hegazkinak tarteka egiten dituen zalantzadek egitasun katastrofikoak ematen dio egoerari.

— Zergatik ez duk gidatu nahi? —galdetzen didate eskoltariak, biren artean beso banatetik bortxaz oraturik.

— Adiskideak! Eskoltatzea ez da gidatzea, eta lehorrean eta airean gidatzea ere ez da berdina. Ni atxilotzen banauzue, hor daukazue pilotugela eta aurrera. Hala ere hobe duzue sinestea nirekin ez daukazuela zereginik eta ni gabe gutxiago.

— Zergatik jauzi egin behar diagu?

— Bizia maite duzuela uste dudalako. Hiltzea nahia-

go baduzue, lekuan zaudete.

— Zoratu egin al haiz?

— Ez ezazue alperreko galderarik egin.

— Zergatik egiten duk hori?

— Oromenderrietako Hegaztijaunarekin bakarrean hitz egin nahi dudalako. Denok jauzi egingo duzue, Hegaztijaunak izan ezik. Entzun al duzu, jauna?

— Denok ala inor ere ez!

— Hori ez dizuet sinesten. Hegaztijauna alperrik hiltzeraino maite duzuenik ez dut uste, horrela bera ere ez baita salbatuko. Pentsa ezazue pilotugelara noan bitartean.

Hegazkinari gorabeherak eta kirrinkadak eragitean, pasaiariak garrasika hasi dira. Ez dutela sinestu nahi? Bai horixe! Nabilen, ordea, kontuz, izuak ezertarako gauza ez direla jar ez ditzan.

— Entzun! —hots egiten diet berriro, pasaiariengana joanik—. Esaten dizuedana egiten baduzue, ez zaizue ezer gertatuko. Errez errez eta bat ere arriskurik gabe jauzi egiteko lekura eramango dut hegazkina. Jolasa izango da. Ba dakizue hegazkinlari trebea naizela. Ados?

— Agindu! —hots egiten dute aho batez. Bildurra zer den, eh!

— Begira! Oromenderrietako Hegaztijauna betor pilotugelara. Ez da ezer gertatuko. Jaun agurgarri horrekin bakarrean hitz egitea besterik ez dut nahi. Zuek tak jauzi eta kito. Garagardo bana hartzera. Zatoz, Hegaztijauna.

Oromenderrietako Hegaztijauna nora gabe doan hegazkina bezala dator. Edo hegaztia bezala, hegazkin eta hegazti, dena baita berdina hemen. Esandako lekura isilik eta mantxo doa.

Baina oraintxe dator haundiena. Defentsa grinak,

kontzientzidunengan ere, zentzuen barrutiari lotuak daude. Ere mu horretatik kanpora, zenbat eta urrunago, hainbat eta ahulagoak dira, une bat heltzen delarik (nahiko une hurbila gainera), desagertu egiten direna. Defentsa grinen indarra, beraz, zentzuen urruntasunari alderantzizko proportzioan dagokio. Zentzuen irrixi-pidetik hurbilago eta indartsuago, urrunago eta motelago. Eta harago galdu. Nondik dator lege fatidikoa hau? Gizakiaren lehen premiak animalitasunaren eremukoak izaten jarraituztik. Errozkoko premia horiek ez dute eztabaidarik onartzen. Zirt-zartekoak dira. Hortik gorakoak ez dira hilibiziko gorabeherak. Heriotza fisikoaz ari gara, hauxe baita kontzientzi haroan ere iraupen sena oinarritzen duena. Heriotza izpiritualarengatik apenas inor hiltzen den, gehienez behintzat. Lehen premien sailean naturak berak derrigortzen gaitu grina indartsuetara. Hortik gora, naturak ez gaitu behartzen. Ere mu nahizkoa da, nolabait esatearren. Baina nahizkotasanak ez du inoiz derrigortasanak bezalako grinarik sortuko, oso kontzientzia bakana eta hazia izan ezik. Hori ere ez duk, ba, kasu normala izaten.

— Orain, jaun-andreok, lasai. Hegazkinaren gidaritzan berriro hartuko dut eta ikusiko duzue zein ederki.

Pilotugelaren Hegaztijauna eta biok goaz. Ez dit hitzik egiten. Aireko arriskuak, arnasaren aurretik, adorea kentzen du. Oromenderrietako aireportu nagusiaren ipar aldean ba da bera baino lautada luze eta zabalago bat, beldardi mardulez jantzia. Haraxe goaz. Aireportu guztia alerata osoan dagoela esan beharrik ez dago. Bai gozoa ehun metrotara planeatzea! Behetik gora pozez ala bildurrez begiratzen diguten ez dakit. Hori ez da gure ardura. Beste

jiraxo bat. Zoraturik nagoela pentsatuko dute, baina hori ere ez da gure ardura eta gainera oker daude. Dударik ere ez pasaiariek lurhartzera noala uste dutela. Horiek ere oker zeudek, ba.

— Entzun, pasaiari jaun-andreok! Hor duzue zuen aireportua. Lasai. Ez da ezer gertatuko. Baina ez dugu aireportuan lurhartuko, alboko lautada eder horretan baik. Baina hor lurhartzeko, jauzi egin behar duzue. Prest?

Apenas inor mugitzen den. Ez ote didate jaramonik egin behar? Laster ikusiko duzue. Pasaiarien aurrean agertu naizenez, denek garrasi egin dute ikaraz, hegazkina ehun metrotako alturan bakarrik doala ikusirik.

— Bai ala ez? —galdetzen diet eta ez dakit bai ala aierantzun duten. Baietza dirudi—. Baietzkoa bada, ba noa pilotugelara eta agintzen dizuedana zehazki egizue, beste aukerarik ez baitizuet emango.

— Lautada berdearen gainean goaz —azaltzen diet pilotugelatik—. Oraingo bueltan begiratu bakarrik. Lur bigun biguna dago, jausgailurik gabe ere minik ez hartzeko modukoa. Askatu gerrikoak. Tiratu aurreko aulkia- ren azpian duzuen uhal pareari. Lasai! Oraingo bueltan ere ez da izango. Begira ondo aironeskei. Hauexek jauzi egingo dute azken. Prest? Lasai! Ez dago presarik. Behar diren buelta guztiak egingo ditugu. Hamabi ordutarako errekin ba dugu eta ez dago inolako presarik. Lasai, jaun-andreok. Hegaztijaunaren ardurarik ez izan, honek ez baitauka oraindik ezer egin beharrik. Prest? Aironeskek baietz esaten didate. Oraingoxe buelta izango da azkenengo gezurrezkoa. Hurrengo benetakoa. Ba goaz. Oraingoan urrunago heurt egingo dugu. Lurretik ahalik hurren, leunen eta astiroen pasatuko naiz. Heurt! Oraingoxea balekoa. Lasai! Oraindik ez. Hau jolasa da. Laster bai. Orain- txeba bai. Prest? Bat! Bi! Hiru! Lau! Ikusten al duzu nola-

ko hegazti pila? —galdetzen diot Oromenderrietako Hegaztijaunari.

— Eta orain zer? —galdetzen dit berak.

— Orain aireportukoak zer pentsatzen ari diren jakin nahi nuke. Begira nolako arineketa jausgailuetaruntz.

— Orain guk zer esan nahi nuen nik.

— Beheko mugimendurik ikusteko gogorik ez baduzu, goruntz berriro.

— Goruntz zertara?

— Gerotxoago esango dizut. Lehenbizi denak ondo lurreratu diren zihurtatu nahi dut.

Azkenengo jausgailuak lurtean zimeltzen ari dira. Jendea agurka eta besarka ari da, deskalabrutik salbatu babilira bezala. Bai arin bildurtu ere! Okerrena hartu duten sustoa kontatzeko justifikorik ez daukatela. Berek izutu dituzte beren buruak. Nori tragediatzat sentierazi jolasa besterik ez zena? Ikusiko duzue nolako historioak asmatzen dituzten orain. Kontrol dorrearekin koneksioa berriro behar dut, zihurrago gelditzeko.

Defentsa grinak errotik hain mugatuak izateak berriro ere abantaila funtsezkoa damaio eraso grinari. Egoera normalean, hots, ez defenditzen ez erasotzen ari denean, jolasean esate baterako, gizakiak pentsatzen jarri behar du, eraso nondik etor lekokeen. Erasotzaileak, ordea, aurren huraxe pentsatzen du. Defentsa grinaren mugatasunaren bibentzia bere baitan daramanez gero, ba daki nola eta nondik eraso, defentsa grinaren erantzuna neurri berekoa ez izateko moduan. Gainera, behin eta gehiagotan huts egin arren, beti dago posibilitate berriren bat, eta hain zuzen grina horien indarririk irixten ez den edo oso ahuldurik irixten den puntutik eta puntuan

joko du eraso. Zerbaiteko dauka kontzientzia edo kalkulamena.

— Entzun, kontrolekoak! Entzun! Bizkargi komandantea naiz. Ondo eta sano jetxi al dira denak?

— Baietz esan liteke, baina oraindik ez dakigu guztiz zehazki. Pista lurreratzeke prest daukazu.

— Utzizue pistari bakean eta jakin ezazue galdetu dizuedana.

— Ez al duzu lurrik hartu behar?

— Horretarako besteekin batera jauzi egingo nuen. Denen berri jakiten duzuenan, deitu.

Bai jakin beharra ere! Aireportua lehen baino izutuago dagoela dirudi. Zer nahi dute, ba? Ez dakit zenbakarren bueltan ari naizen hara eta hona. Beharbada horrek sartzen die izua. Izan ere hegazkin zoroak izugarria izan behar, norbere buru gainean itzulka, eulitzarra bezala. Ez gaude zoratuta, baina ez daukate jakiteko motiborik ere.

— Bai! Denak ondo? Bihurkadarik txikienik ere ez? Ederki. Eskerrik asko. Hegaztijauna, —diotsat albokoari— horiek itzuliak dira lasaitasunaren erreinura. Goazen.

— Nora?

— Aire hartu behar dugu, lurretik hurbilegi ibiltzea arriskugarria baita.

— Nora goaz?

— Hitz egin behar dugu. Zu goikoa zara eta goian hitz egin behar dugu.

Amen batean laino gainean gaude berriro ere. Hegazkina pixka bat gora egingean arteztu eta pasaiarien areto-ra noa.

— Nora zoaz, hegazkina bakarrik utzita?

— Aretoan lasaiago hitz egingo dugu. Hegazkin ho-

nek ba daki bakarrik hegatzten.

— Mesedez! Goazen behera!

— Nahi baduzu, etor nirekin. Pilotugela nahiago baduzu, egon hortxe.

Itzala bezala ez dut esango, baina Hegaztijauna laster etorri zait ondora. Pasaiari aretoaren erdi erdian gaude, bata erdiko pasabideaz batetik eta bestea bestetik. Hegazkina normal doa, bakarrik doanik ez baleki bezala. Oromenderrietako Hegaztijauna grabitatea baino atxikiago dago niregandik. Hauxe duk gutxien nahi lukeenaren beharrik gehien edukitzea. Ez gara gizakiak. Ezagueraren langa bestalderaturik gaude, ez dakit azpitik ala gainetik. Naturaren eremu soberanoan gaude.

— Hitz egiteko ordua iritxi da, Hegaztijauna. Hegaztijaun osoa izateko, hegoak bakarrik falta dituzu, airerako beharrezkoenak hain zuzen. Baina hegoduna bazina ere, beste zerbait izango zen eta honek ez dauka bueltarik. Nik ere ez daukat bueltarik.

Nahi al duzu adibiderik jartzea? Kontzientzia berdin berdineko ehun eta bat lagun batera gaudela eman dezagun. Bakoitzak gari zorro bana daukagu. Eguna berriketan, jolasean, lanean, jaten eta abar pasatzen dugu. Inork ez du inori garirik kentzerik pentsatu ere. Tentelkeria da, beraz, egun guztian gari zorroa zaintzen egotea. Tentelkeriaz gainera, ezinezkoa ere bai, jan, jolas, hitz eta abar egin behar baitugu. Orain zuri buruera bat heldu zaizula eman dezagun, besteoi gari apur bana kendu alegia. Zure lehenbiziko abantaila haundia da guk ez dakigula zure asmoen berririk. Prebenitzerik ez daukagu, beraz. Pentsa egun guztian zehar zenbat aukera daukazun, guri gari aletxo bana kentzeko, lotan gaudela, pasoa eta ezarian, berriketan gabiltzala eta abar

eta abar. Ale bana kendu diguzu eta gu ohartu ere ez. Zuk orain beste guztiok baino ehun gari ale gehiago daukazu. Desoreka sortua dago. Gehitzea besterik ez da falta.

— Zer esaten ari zara?

— Desesperaturik nagoela. Gogaitu naiz hegazkinean gora eta behera. Ez daukat gehiago lurreratzeko gogorik.

— Zergatik ez didazu besteekin batera jauzi egiten utzi?

— Ah, Hegaztijauna! —Hegazkinak tranbaladak eta zirtizartak egiten ditu tarteka, baina ba doa, ez dakit norra baina—. Desesperazioa bizitzeko txarra da, baina hiltzeko txarragoa, beste munduan sinesten dugunontzat. Hura betikoa dela esaten dute eta ba al dakizu zer den desesperaturik eta bakarrik hara joatea, beti betirako?

— Ni behar al ninduzun horretarako?

— Norbait haundia behar nuen. Zu Oromenderrietako gorengoa zarenez gero, han ere ez zara nornahi izango.

— Ai ama! Hegazkina beheraka ari da!

— Aire hutsune bat. Laster hartuko du goruntz, aire mendia jotzean.

— Hau beheruntz doa!

— Ezetz, gizona! Nor da hemen pilotua?

— Ni ez naiz Oromenderrietako gorengoa.

— Mundu guztia oker zegoen orduan, hori ere zaila da baina.

— Ez dut ezer ulertzen. Mundua amaitzera doa.

— Hori zailagoa oraindik. Munduak zure ondoren ere jarraituko du eta ez uste txarragoa izango denik. Ni bezalako desesperatu asko ibili da zure inguruan.

— Ai! Ezin dut! Har ezazu hegazkinaren gidaritza edo hil nazazu bertan.

— Goazen, ba. Zeuek xaxatutako aurrerapenari aurrerik emateko ere ez zarete gauza.

Pilotu aulkian eseri arren, ez dut ezer egiten, baina Hegaztijauna lasaiago dago. Ez gara ezer eta airean gutxiago.

Orain eman dezagun ehun eta bat lagunon artean lapur txikiren bat dabilen susmoa zabaldu dela. Posibilitateak gutxituko zaizkizu, baina hala ere milaka dituzu, nor zaren jakin ezik, bakoitzak ez baitauka ehun lapurtzakoren aurka defenditzerik. Gainera gari ale batengatik ez gaituk bazterrak iraultzen hasiko.

— Aizu, Hegaztijauna. Hil beharrik bazenu, aurrez jakitea ala ez jakitea zenuke nahiago?

— Ez da aukera ederra, baina jakitea nahiago nukeela uste dut.

— Uste? Zeuk jakin ezik, ez dakit, ba, nork jakin behar duen.

— Jakitea nahiago nuke, bai.

— Jakin ezazu orduan hil beharra daukazula.

— Nola?

— Ez dut pentsatu, baina apenas era asko dagoen. Hemen dago pistola bat. Nik zu edo zeuk zeure burua, esku hutsean hegazkinetik jauzi egiterik nahiago ez baduzu,

— Eta zeu hiltzen bazaitut?

— Lan bat kenduko didazu, baina orduan ea zuk zer egin behar duzun.

— Egizu egitekoa, baina ez nazazu honenbestean penatu.

— Zeuk eskatu duzu jakitea, jauna. Ez zaude bakarrik. Biok gaude. Biok goaz. Hustu ezazu oroimena orain arteko bizialdi eta huskeria guztiez. Denetik deskonektaturik gaude, naturaren ziletik izan ezik. Maitasunik indartsuenez baino batago gara.

— Ni hilda, zuk zer?

— Nik ere horixe.

— Nola jakin dezaket hori?

— Tori. Hil nazazu zeuk, horrela hegazkina ere galduko da baina.

— Ai ama! Burua galdu behar dut. Zergatik hil behar nauzu?

— Nire aldetik, desesperaturik nagoelako, eta zure aldetik, ez al dakizu?

— Nik ez dakit ezer.

— Antzik eman ere ez?

— Ez dakit.

— Zu ez al zara, ba, Hegaztijauna, Oromenderrieta-ko jaunik edukitsuena?

*Eman dezagun azkenik lapurra nor den ba dakigula. Hala ere, hainbat posibilitate dituzu, lantzean gari ale bat kentzeko. Denei ez bada erdiei, erdiei ez bada laurdenei, eta biri ez bada bakarrari, zuk beti daukazu, nahi baduzu, desoreka sortzeko modua, askorik kostatu gabe. Besteok, ordea, zure aurka osoki defenditzeko, bakoitzaren eta beste guztien zorroak zaindu beharko genituzke, zuretzat bataren nahiz bestearen deskuidoa berdin baita. Beraz, bakoitzak zuri buruz ehun deskuido posible baditugu, (gure ehun deskuidoetatik zuk edozein harrapa dezakezu) eta beste laurogeita hemeretzi lagun laurogeita hemeretzi deskuidoak ere zaindu behar baditugu, noraino goaz? $100 + (99 \times 99) = 9.801$. Bakoitzaren ehu-
nek eta beste guztien bederatzi mila eta zortzirehun eta batek bederatzi mila eta bederatzirehun eta bat ematen dute. Horrenbeste deskuido posibleetatik bat harrapatzeko gauza ez den tentelik ez dago. Batean jo eta berean harrapatua izateko zoritxarra izan duzula? Bihar ere argituko dizu eguna. Bestela egun*

batzuk itxaron, pixka bat ahaztu arte. Defentsa ginetatik urrundu. Eta okerrenean ere, gari ale bategatik zer egingo dizugu, ba?

Ez dit hitzik erantzuten. Isiltzea baietza. Eskena hau luzatzerik ez du merezi. Pun! Oromenderrietako Hegaztijauna pilotukidearen mahai gainera erori da, gerriz gora. Loak hartu duela ematen du. Orain bakarrik gelditu naiz. Errekina amaitu arte hegan jarraituko al dut? Gutxienez hamar ordutarako ba daukat. Gehiegi da hori. Noan berriro aireportura. Zer martxa ote zebilek han? Laster ikusiko diagu. Hegazkina galtzerik ez du merezi, honek ez baitauka errurik. Gainera nork jakin tragediaren bat gertatuko ez litzatekeen ere, nora ezean erortzen utzita? Ez. Oromenderrietako Hegaztijauna bakarrik behar nuen eta hura hemen dago, garbi garbi. Errugaberik tartean izan ez dadin, hegazkina ere salbatu egin behar du.

Kontrol dorrearekin koneksioa berritu eta ba goazela iragartzen diet. Pista guztiak libre daudela diote, nahi duzadana hartzeko. Zoraturik daude. Laino azpian gara. Mundua aurrera doa, Oromenderrietako Hegaztijaunik gabe ere. Ez dakite, ordea! Berdin duk. Jakiteak ezin dik hiltzeak baino eragin haundiagorik izan. Aireportu gainera pasatzen naiz, hurrengo bueltan lurreratzeko. Eguzkia dago hain suertez. Gure argizagi nagusiak ere horrenbesteko jakin mina ote du, zer gertatzen den? Oromenderrieta guztia aireportuan bildu dela dirudi. Berrogei metroko goieran goaz, beheruntz. Jendetza guztia milaka zapiz agurka ari zaigu. Hiru segundu barru pistan. Brrrrnn! Lurrean goaz, aireportuko edifizioen erdi alderuntz. Hori duk eskuaren eskua eta zapiaren zapia! Galgatu. Kontuz. Motoreak jaregin. Jendea, Oromenderrietako Hegaztijaunaren jendea, besoak altxaturik dator ki-

gu, hegada jaso nahi eta ezinean datozen hegaztitzarrak bezala. Ate zurubia irekitzean, hori txilio zaparrada. Oromenderrietako Hegaztijaun zenduari azken aldiz begiratzen diot eta pun! Ni ere neure pilotu mahaira erortzen naiz. Orain Oromenderrieta guztian mirariak kontatuko dituzte, hegazkina bera bakarrik lurreratu dela eta abar. Bihotzaren azken taupadan jendea nabari dut inguruan. Hemendik aurrerakoa herrian galdetu beharko duzu.

ARRAINJAUNA

- Medikua jauna, nik zer daukadan jakin egin nahi dut.
- Esan nizun lehengoan.
- Ez dut sinesten. Niri gauza bat eta etxekoei beste bat esan zenien.
- Nondik ateratzen duzu hori?
- Esan dizut egia jakin nahi dudala.
- Txarrena balitz ere bai?
- Orduan eta areago. Txarrena hiltzea da eta hori ere bidean dator.
- Orduan zurea ez da txarrena.
- Zer da, ba?
- Minbizia, baina ez berehalakoa.
- Zenbat denboratarako bizia daukat?
- Urtebete edo.
- Eskerrik asko. Hori gabekoak ere makina bat joango dira aurretik.
- Birikako minbizia daukazu, eta dena jakin nahi izan duzunez gero, jakin ezazu beste hau ere: ez zara gutxi bi-

zi izango, baina bai asko sufrituko.

— Eskerrik asko berriro ere. Orain pentsatzen hasteko moduan nago.

Ba dira aste batzuk medikuarenean izan nintzela. Bitartean ez dut gehiegi pentsatu, baina oraintxe hasia nago buruari bueltak ematen. Hiltzeak ez nau bildurtzen, bai ordea sufritzeak. Batez ere alperrik sufritzeak. Ba al da sufrimendu tentelagorik, heriotzara daramana baino? Min haundiak sentitzen hastean, ba dakit ez dudala berdin pentsatuko, baina sufritu ala ez sufritu, aurretik pentsatu behar dut. Bestela ez naiz agian pentsatzeko ere gauza izango eta begira nolako azkena.

Banaka defenditu beharrean, normalena denon artean defentsa eratzea izango da, zu edo zorroak zaintzeko txandak jarritz. Hitz batez, erakuntza. Erakuntza efikaz samarra izango bada, ba al dakizu nolako erakuntz sistema behar dugun, zure uste gabeko kolpetxo bat jagoteko? Ezinezkoa da, eta litekeena izanik ere, erakuntz sistimak, zu harrapatzeko, deskuidorik izango ez duela nork zihurtatu? Defenditzaileek deskuido bat izan eta zuk bera harrapatu? Normala, zu deskuido horrexen zain baitzaude. Zuk izandako buruera hori zuri bakarrik etortzetik, banaka banaka beste ehun eta baterainoko guztioi etortzera, pentsa zenbat bidertzen den nahasitasuna. Horrexenbeste bider gehiago bidertzen da desoreka. Ez dago desberdintasunik ebitatzerik.

Egunak aurreratu ahala, sufrimenduei aurrea nola hartu gero eta argiago ikusten dut: heriotza aurreratu beharra dago. Barruak batzutan hori egiterik ez dagoela esaten dit, baina ea nork daukan erremedio gabeki sufri eraz-

teko bihotzik. Heriotza aurreratzea argi dago, baina ez ote da aurreratze horrentzat irtenbide duinik? Hil beharra dudanez gero, zergatik ez merezi lukeen zerbaitegatik hil? Sekula ez dut idealismoetan sinestu, baina bide batez egin litekeenak ere ez egiteak baino gehiago balio izango du, ez?

Egunak aurrera doaz eta berririk txarrena oraintxe hartu dut. Medikuak lana guztiz debekatu dit. Jaramonik ez egitea neuregan dago, baina horrekin ere ez dut ezer aurreritzen. Ezina ezina duk. Pentsamena kendu balidate ere! Horixe duk txarrena. Denbora guztia pentsatzeko. Zer-bait berehalakoa pentsatzea besterik ez daukat, sufrimenduak hasiak direla susmatzen baitut. Lana utzi eta aste-betera, minak sentitzen hasia naiz eta hau ez da susmoa bakarrik. Ez dakit mina lanik ezak ala minaren oharmenak berak ekarri didan. Berdin da. Gero eta min haundiagoak ditut tarteka eta tarte horiek egun osora luzatzen direnean, ea zer egin behar dugun. Arin ibili behar dut, irtenbiderik asmatzeko ere adorea galdu aurretik.

Arnasa itotzen ohi zaidan une larri horietariko batean, Oromenderrietako jaun haundi batez oroitu naiz. Arrainjauna esaten diote, Oromenderrietako arrain eta arrantza guztien jaun eta jabea omen baita. Arrantzarik eta arrain lantzarik gehienak horrexen untzietatik pasatzen omen dira. Neu ere gaztetxotan bere filial batean hasi nintzen lanean. Non hasiko nintzen, ba, Oromenderrietan apenas baitago horren kresalik sartzen ez den zulorik?

Arrainjaunaz oroitu naiz, baina orain zer egin? Batez ere nola egin, hura harrapatzea tiburoia esku hutsez harrapatzea baino zailagoa baita? Aspaldion Oromenderrietako jaunak eta jaunkiak arreta haundiak hartzen ari dira. Hala ere, derrigor egon behar du moduren bat. Askida segundu laurden, nonahi, nolanahi. Ez daiteke izan bi-

zidunik, segundu laurdeneko deskuidorik ez duenik.

Orain pentsa zer egin duzun. Pilakuntza hori ezkutan egin duzu, hots, defentsa grinarik irixten ez den puntutik. Gainera bakoitzari kantitate txikia kendu diozu. Ez dute igarriko eta, igarrita ere, gari ale bategatik ez dizute larrurik kenduko. Jakinda ere, defentsa grinek erantzun drastikorik ez ekartzeko moduan moldatu duzu pilakuntza. Erasoak izanak inhi-bizioz erantzuteko moduan. Eta horra lege aundi bat aurkitu duzula, alegia, zentzuetatik hurbil samar den eremutik harantz gizakiaren erantzuna inhi-bizioa dela. Ehiztariak tiro barruaz handik doan hegaztiari jaramonik egiten ez dion bezala. Ikusita ere utzi eta haruntzago ikusi ere ez.

Zer zioek egunkari honek? Arrainjaunak atzoko eguna bere hondartza pribatuan pasatu zuela? Bat daukanak gehiago edukitzeko ere arriskua zeukak. Arrainjaunak han hemen hainbat hondartza eta kala pribatu dituela jakin dut. Uztailaren lehen astea zein lekutan pasatzeko asmoa daukan ere jakin dut. Hilabetea ez dut haren hondartzak eta kalak begiztatzeaz beste lanik egiten. Hura joateko den aurreko astebetan mugimendu haundiak izaten dira, inori ez baitiote hurreratzen ere uzten, bestela ibil liteke baina. Bi edo hiru aldiz hondartzainek handik zertan nabili galdetu didate, baina niri zer axola zaidak, ba?

Uztailaren lehen aste horretan joateko den itxas zokoa asko gustatu zait. Arrainjaunari ere horixe gustatzen zaio gehien, egunkariak diotenez. Hondartza haundia da, eguzkiaren sarreraz beste aldean zoko bildu bat duena. Mareagoran urak estaltzen du, baina mareabeheran hura barrutitxoa, haitz izugarritz hesitua. Haruntza ez dago joa-

terik, labarraren ertza itxasoan barruraino sartzen baita. Ba dira haitzak mareagoran guztiz estaltzen ez direnak eta mareabeheran guztiz desestaltzen ez direnak. Bazterrean berriz nolako bihurguneak eta zuloguneak, uhinak bate-tik sartuz eta bestetik irtenez. Gaizki behar duk, Arrainjauna, zoko hau dioten aina maite baduk.

Hilabeterako janak eta sendagarriak hartu eta ba noa. Sendagarritan janaritan baino gehiago. Ekainaren hama-bosteko gau honetan ilargi ia betea sartzen ari da. Goruntz ala beheruntz? Suerteko gaudek. Pare bat egun barru ilargi betea diagu. Haitzulo baten barruan hona bihurgune apro-posa. Gela garai bat bezalakoa da, erdian haitzezko ala-sa ederra dudalarik. Duela mila batzuk urte dudarik ere ez norbaitzuk bizi zirela hemen. Azpian uhinak haitzen kontra elkar jotzen ari dira, betikotasun guztian horrela-xe jarraitzeko asmoz. Mareagoran urak pixka bat zipriz-tintzen nau, baina mareabeheran hondartza polita gelditzen da. Hau duk gizonaren noralekua!

Ekainaren azken egunetan mugimendua somatzen dut neure zulotik, berei nire usainik hartzea kostatuko zaie bai-na. Hemen alperrik dira zakurren usnak, itxasoak egunean bi aldiz dena arrastatzen baitu. Jateko gogorik ere ez daukat eta hortik atera kontua nondik usaina hartu behar di-daten. Itxasoarekin hizketan ikasi dut eta begira ematen ez dudan denbora horretantxe pasatzen dut. Itxasoaren hizkuntza zaratasua bestelako isiltasun osoan ulerterreza da, baina hemen hamazazpi egun egiteko ere potroak be-har dituk. Eta egin beharko ditudanak beharbada. Gaur berritzen hasi den ilargia bete orduko, zerbait izango duk.

Oromenderrietako Arrainjauna hondartzan dabil be-re segizio guztiarekin, baina nik ba dakit hura ez dela jende artean ibiltzera bakarrik etortzen. Ba dakit haren ohitura kuttun baten berri. Ilunabarrean, mareabeheran, batel-

txo batean, zoko honetaraxe baztertuko da, txandako mai-talearekin. Nola dakidan? Atzo eta herenegun etorri ze-lako. Ez negok hemen alperrik. Bateltxo dotorea haitz pun-ta horrixeko lotu zion eta hondartzatxoan gozo gozo. Gaur ba dakit zer egin. Ez dudala guztiz zihur ikusten? Utzi bi-harko. Ez daukat presarik, hurrengo tren beste mundu-rakoa hartu behar baitut.

Ezagutzen ez denean, inhibizio errozkua dago. Gu-rea bezalako gizarte hain nahasian, gauzarik gehie-nak ez dakigula kentzen dizkigute. Kontzientziarik ere ez daukagun erasoan aurka inhibizio osoz eran-tzutea nahitaezkoa da. Ezagunak izanik ere, gure zentzuen harmen direktoaz handik kentzen badizki-gute, (geuk ikusi gabe, entzun gabe, lotan gaudela eta abar) ia inhibizio osoz erantzungo dugu. Gaine-ra kentzen zaiguna oso zatikatua baldin bada, inhi-bizioa gehitu egiten da. Nahasitasun hori gaurko gi-zarteari bakarrik dagokionik ez uste, gizarte hone-tako nahasitasunaren milagarrenik ere gehiengoak ez du sumatzen baina. Duela ehun mila urtetako gi-zarterik soilenean ere gizaki bakoitza ohartzeko bai-no nahasitasun askoz haundiagoa zegoen.

Minbiziak izena ere halakoa du, baina hauxe bizia be-netan. Ba dirudi honek ere ez duela Oromenderrietako Arrainjauna askorik maite, hura ikustean, biziagotu egi-ten baitzait, gaur gainera atzo eta herenegun baino gehia-go. Normala egunetik egunera hori ere gehitzea. Bateltxoa ba dator, Arrainjaun flamantea eta emaztea izateko bai-no emakume ikusgarriagoa dakartzala, biak bainujantzian, (Arrainjauna baino Otsojauna gehiago zirudik horrek), bakoitzak arraun banari poliki poliki eraginez eta itxasoak

bakarrik entzuteko hitz eginez. Ea gaurkoa azkena dugun. Ohiko haitz puntan bateltxo lotu eta ba datoz, elkarri bi eskuez heldurik. Aupa! Atzo eta herenegun baino presatsuago datozela dirudi, berehalaxe eseri baitira. Gaurko laguna berria duela ematen du eta horrexegatik izango da.

Eserita ere denbora gutxi. Biak etzan dira. Mutilak! Hauek zekartek gogoa! Deskuidatzen bahaiz, ezertan hasi aurretik joanak dituk. Ba noa. Hainbeste aldiz jetxigon naizen haitzetatik eta neuk bakarrik dakidan zirritu horretatik, zazpi metroren barruan nago eta hortik hiru jauzitan gainean naukate. Aupa, hi! Itxasoak darabilen orrore etengabez, kantatzen banindoa ere apenas entzungo luketen. Ikusi? Ikusita ere nola sinestu behar diate, ba, hemen Jainkoaz besterik izan litekeenik? Hondartzara jauzi egiteko nago. Zazpi metro? Ez nauk neurtzen hasiko. Lau jauzitan han naiz. Agur minbizia! Aupa! Bat, bi, hiru, lau! Eeeeeup! Emakumeak garrasi izugarria bota du.

— Eup! —hots egin diet berriro ere goitik behera, behetik gora nola ikusten nauten iruditzen saiatuz. Josita daude, ez elkarri, lurrari baizik, eta ez niregatik, ia bertikalki apuntatzen dien armarengatik baizik—. Hemengo garrasiak apenas gaingitzen duen itxas orroerik, emakumea.

— Nola heldu haiz hortan? —galdetzen du Arrainjaunak.

— Zer axola du horrek, hemen bainago?

Isilik eta geldia daude. Ez da harritzekoa Arrainjaunak honelakorik ezin sinestea. Emakumeak ez diot gehiegi begiratzen, baina ez da nolana hiko. Honen pentsakizun bakarra ba dakit zein den, bera nola libratuko den. Eupadabatek mundua buka eraz dezakeela ikustea itzela da. Arrainjauna hemendik ehun metrotara eta handik harunz-

ko guztian Oromenderrietako jaun ahalguztiduna da. Bazter honetan, ordea, ez da ezer eta hain zuzen hementxe egon bera. Zein da Oromenderrietako Arrainjauna? Handik harunzko jaun ahalguztiduna ala bazter honetako gizabere erdibiluzi dardartia?

— Nola heldu naizen galdetzen al didazu, nor naizen baino lehenago?

— Zertara etorri haiz?

— Galdera horrek ganora gehiago dauka, baina ni ez naiz etorri naizena. Zeuek etorri zarete, ni hor nengoela.

— Zer egiten huen hor?

— Heriotzari itxaron. Baztertxo hau hiltzeko hautatu nuen. Ez zen gehiegi eskatzea. Zuek, oharkabez, heriotzaren lurraldea zapaltzeko patua izan duzue.

— Nik ere bai? —galdetzen du emakumeak larri.

— Senarraren destinoa... —nik.

— Ni ez naiz honen senarra!

— Zer zara, ba?

— Maitalea.

— Ez dirudi, ba, gehiegi maite duzunik.

— Hori ez dut esan. Ni benetako maitalea naiz.

— Zu ez zara arraintxo bat besterik, Arrainjaunaren sare mugagabea.

— Izazu gutaz erruki!

Gizakirik gehien erantzura hogerleko bat eskue-tatik kenduta azkarragoa eta segur asko gogorragoa baietz izan hogeikoa kendu diotela hilabete geroago konturatuta baino. Eta kantitateari buruz ere milakoa batera kentzeak baino amorru gutxiago eman baietz apurka kenduta. Gainera erreakzio guzti horien konbinapen posibleak ere estudiatzekoak dira. Zerbaiterako da kontzientzia.

Hamazortzi gau-egun hemen eta minbizia oso aurrera doala, nire aurpegia ez da gozoa egongo, neuk ez dut ikusten baina. Hauei nire irudia herioa bera baino zantarra goa egin zaiela ematen dit.

— Hara, emakumea. Zeure burua salba dezakezula somatzean, ez ezazu besterenik salbatzerik intenta.

— Zer egin behar didak? —Arrainjaunak.

— Lehenbizi aukera bat eman, horretarako itxura guztiak ekarri baitituzue. Maitasuna egiten utziko dizuet, edo amaitzen, bateltxoan etortzea eta abar maitasungintzaren barrukotzat jorik. Aurrerago etetea kriminala izango zen, azkenera arte itxarotea berriz arriskutsuegia.

— Maitasuna pistolapean egin?

— Aukera esan dut, ez beharra. Horretarako gogorik ez badaukazue, eskena hau amaitua da. Zuk, emakumea, har bateltxoa eta joan, eta zu, Arrainjauna, haitzulo horretara nirekin. Zutik!

— Zer egingo dut, maitea? —galdetzen dio emakumeak Arrainjaunari.

— Esan dizut zer egin behar duzun —aurrea hartzen diot—. Horri galdetzea alperrik duzu, hemen neuk agintzen baitut.

— Zoaz —esaten dio Arrainjaunak itoki. Emakumeak matrail bakoitzean musu distante bana ematen dio eta hiruugarrena ahoan estukiago, Arrainjaunak zer hartzen duen ez dakiela. Neuri ere bihotza unkitu zait, minbizi eta guzti, baina orain damutzea pellokeria litzateke eta nobela gisa bukaera zuntzuna. Haitzuloan gorderik, itxasoa aurrez daukagu, marea pixkanaka goruntz datorrela.

— Hemen gaude, Arrainjauna, dena zurea dela esaten duten itxasoaren milaka zokoetariko batean.

— Hori ez da egia. Jendeak hatza bada besoa esaten du.

— Nola liteke hori, informabide guztiak zeuen eskue

tan egonik?

— Beste gezur bat hori ere.

— Bai dela bitxia gezur horiek beti honelakoxe trantzeetan agertzea!

— Ez dizut ulertzen.

— Norena da hondartza hori eta harako kala hura eta Oromenderrietan zehar dituzun beste horrelako guztiak?

— Egunkarietako kontuak, berri haundi bila dabilzaneanak.

— Ez dugu, ba, faltsukeria horiek inoiz gezurtatu dituzunik entzun.

— Zertarako?

— Zertarako? Zure untzi bat itxaso txarrean hondoratu eta hainbeste arrantzale ito zirenean, laster publikatu zenuen, ba, ez zela egia zuk beharturik itxasoratu zirela.

— Ez zelako egia.

— Ondo, baina zertarako gezurtatu?

— Hilak tartean direnean, ez dago isiltzerik. Nik bizkarreratu behar al ditut Oromenderrietako gaizkintza guztiak?

— Niri ez didate bat ere ezarri eta ez uste aingerua naizenik.

— Oso oker zaude, horren munstroa naizela uste baduzu.

— Azken galdera egingo dizut, galdeketarik egiteko asmorik ez neukan baina. Zure izen distiratsua daramaten arranflotek, arrandegiek eta garraio konpainiek ez al daukate zurekin zerikusirik?

Beste adibide argiagorik nahi al duzu? Gizakirik gehienek ehun herritar hiltzeko arriskuan baino gogorkiago erantzungo dute beren ume bat trantze horretan aurkitzen bada, batez ere umea haurra denean.

Zer dauka, ba, umeak? Naturak, norbere buruaz hurrengo, hurbilen jarri duena izatea. Beraz, zentzuen esparruan, autodefentsako sistiman, norbere buruarengandik hurbilen egotea. Hor erasotzea defentsa sistimaren erdi erdian erasotzea da, eta ez umea odolez norbera delako bakarrik. Gehienez horixe gertatzen da, norbere umea norberak hazten baitu. Baina hurbiltasunean beharbada gutxienez da norberak fisikoki sortua izatea. Norbera odolez dena gero norberak haztean, orduantxe finkatzen dira harremanik estuenak. Haurrarekiko harreman etengabeak, haren izate osoa zure ardurapean baitago, finkatzen ditu batez ere gurasoen harenganako grinak. Hori argi ikusten da umeordeekin.

— Zergatik hartzen nauzu horrela? Ez al duzu ikusten hemendik ihes egiterik ez daukazula?

— Asmorik ere ez daukat. Ez daukat ihes egiterik, minbizia baitaukat, oso aurrera gainera. Zure jagolegoa baino gogorragoa da hau.

— Bizi deino, beti zegok itxaropena, gizona.

— Ez dago itxaropenik. Hobe duzu zure itxaropena ere zure maitalearekin doala sinestea.

— Itxaro deritza berari! —bateltxo urruntzen ikusten dugularik.

— Orduan biak doaz batera.

— Eta gu?

— Gu ere batera, baina beste untzi batean.

Arrainjaunaren maitalearen batela nahiko bistaratzen ari da itxasoan eta amaitu beharra dago, jagolegoa ernarazi eta ustekabeen harrapatuak izan ez gaitezen. Arrainjaunak ba dakit horrexen itxaropena daukala eta ez dio kendu behar. Hobe da itxaropenez hiltzea, hain gabe bi-

zitza baino. Arrainjaunak kenka honetara nola heldu den ezin du sinestu eta nik gutxiago. Utz dezaiozun heriotzari misterio honen argikuntza. Hik ez al dakik ezer, ene pistolatxo? Pun! Pun! Oromenderrietako Arrainjaunak itxasoak bazterrera oka egindako zetazeokume hila dirudi. Bateltxoan oraindik bistan doan emakumea zerbaitez ohar-tu dela esango nuke. Oraindik denbora pixka bat ba dugu. Bide batezkoa, eta garrantzitsuena, egina dago. Bai dela ederra itxasoan, elkarrekin hiltzeko! Ez al duk uste, ene pistola maitea? Pun! Arrainjaunaren gainera erori naitzela uste dut. Itxasoaren zaratotsa infinituraino gehitua datorkit. Leher egin behar dut. Marea gora orduko aurkitzen ez bagaituzte, itxasoak eraman gaitu.

VI

BILTZARRE LEHERTUA

Oromenderrietako jaunak eta jaunkiak biltzarre orokor berehalakora datoz. Hiriburu nagusian hegazkinen ohigabeko lurreraketak eta berebil blindatuen eta segizioen etorrera etengabeak oromenderrietarren begi-belarriak erne dauzka. Jendea aspaldion nahiko berriketatsu dabil, Oromenderrietan sekula ez omen baita hainbeste hileta haundi izan. Hiriburuko Jaun Areto nagusian Jaungoaren ordezkariak mahaiburuak zutitu eta dio:

— Jaun-andreok! Ongi etorri, etortzerik izan ez dutenen izenean. Biltzarre orokor honetarako deiaren arrazoi larriak denen gogoan daudenez gero, goazen zuzenki harira. Ongi etorriak berriro ere eta idazkariak dauka hitza.

— Jaun-andreok! —hasten da Oromenderrietako jaungoaren idazkari nagusia—. Ongi etorriak nire aldetik ere, sekula baino hobekiago esana noski, gure anitz lagunek ez baitute etortzerik izan, ondoegi dakizuen bezala. Denborak inoiz urrerik balio izan badu, gaur urre eta erdi balio digu, beharreko neurri drastikorik hartu ezik, hutsa

balio izateko arriskuan baikaude. Protokoloak utzirik, goazen geure arazora, gero eta arazo larriagoa noski. Azken biltzarrean, Benedium jaunaren zuzendaritzapean, sikojakintzetako talde aditua ekarri genuen bezala, gaur, horiez gainera, medikuntza osoko jakintsu taldeak dauzagu hemen, denen argitasuna ere gutxi izango delakoan. Jaun-andreok, honelakorik ez da gizakiaren sorreratik hona sekula gertatu. Gupidagabeki mehatzen gaituzte, sekula ezagutu gabeko (lehengoan zorotasuna esaten genuen, orain ez dakigu zer esan ere) gaitz horrek. Ez naiz, ordea, ni horretaz hitz egitekoa, medikuntza osoko ordezkariarik goren horretarakoxe baitugu hemen. Maledium jaunari lekua uztera noa, beraz. Aurrera, Maledium agurgarria, zuen argitasun jakintsuaren inoiz baino zainago gauden guztion izenean.

— Jaun-andreok! —dio Maledium jaunak, tribuna nagusira igonik—. Aurreko biltzarrean, Benedium jaunak esan didanez, jendetza guztia txertatzea erabaki zenuten, orduan zorotasuntzat joa izan zen gaitz berri hura mozteko. Alde horretatik oso neurri egokia eta efikaza izan zen dudarik ez dago, ez baita zorotasuntzat jotzeko moduko beste kasurik izan. Baina, ez dakigu txertaketaren ondorioz ala gaitzaren aniztasun amaigabez, modalitate okerragoa ugaritzen ari zaigula dirudi. Oraingoak ez dira zorotasunak, desesperazioak baizik. Ez dira zoroak, desesperatuak baizik, eta besteak beste, desesperazioa zorotasuna bainoitsuagoa eta batez ere, hauxe txarrena, indartsuagoa dela ba dakizue. Gaitz honek ere, aurreko biltzarrean aztertu zenutenak bezala, jakintsuentzat gauzarik okerrera hauxe dauka, alegia, sintoma garbirik ez dakarrela. Aztertutako kasu guztietan desesperazio horiek ez dute aurretik inolako haztarrenik ematen. Bildu ditugun datu guztietatik, oso normalak ziren eta aitor dizuet

datu bilketa ezin zehatzagoa eta objetiboagoa egin dugula. Izan dira kasuak, minbizia edo beste gaitz txarren bat zeukatenak, baina horrelakorik daukaten guztiei hortik ematen badie, mundua amaitutzat eman dezakegu.

Hala ere, dakigunari tiratu beharra dago eta argi daukagu desesperatuak zirela. Bi galdera nagusi daude hemen. Alde batetik zerk eragindako desesperazioa den eta bestetik zergatik desesperazio horrek hain bukaera tragikora daraman, denetan hain berdintasun matematikoz gainera. Galderak hortxe daude eta erantzunak ez dira hain samurrak.

— Erantzunik ez bada, zertara gatoz hona? —galdetzen du jaun entzuleetariko batek—. Zein gaitz den jakin aurretik, denok garbitu behar gaituzte.

— Adiskidea! —dio Maledium jaunak—, ulertzen dut zure eta denen ezinegona. Zin egiten dizut zuk aina gogo ba dudala, erantzuna izan dadin. Erantzuna areto honetako artean ez badago, ez dago inon eta ez dagoenik ezin dizut eskaini. Baina zaude zihur ba dagoela, denon artean bilatzen baldin badugu.

— Barka nire ausarkeria, Maledium jauna —beste jaun batek—, baina zuek ez badaukazue, nik ez daukat areto honetan erantzunik topatzeko itxaropenik.

— Zer azalpen eman behar dik, ordea? —haserretzen da beste jaun bat—. Zenbat buru hainbat desesperazio dago munduan. Nola hasi desesperazio mugagabeki anizkoitz horren sustrai bila, denok zoratu ezik? Jendea ba dakigu goseak, minak, ezinak, gerrak, morrontzak, lanak, nekeak, miseriak, urritasunak, ezjakintasunak, eritasunak, hobehahiak eta abarrek eta abarrek desespera erazten duela. Zer egin behar dugu? Dena bertan behera utzi? Hor konpon eta elkar jan dezatela? Sentitzen dudana garbi esan behar badizuet, ez dut izurri hau bidaltzeko modurik ikus-

ten, berek berez alde egin ezik.

— Nik Maledium jaunari zera galdetuko nioke, ea desesperazio kontu hori kontu hutsa ez den, zeren harrigarri baitzait desesperazioak horren iharduera berdinek eta simetrikorik edukitzea. Desesperazio hori ez ote da beste gaitz ohartuagoren baten kamuflaia izango?

— Egia da —Maledium jaunak— desesperazio horrek kasu desberdin guztietan kide-tasun zehatzegiak dituela, baina hipotesis fidagarriagorik ez den bitartean, desesperazioaren diagnostikoari heldu beharra dago.

Odolez norberea izan ez arren, norbere nahiez eta ez bortxaz hartua izan den haurtxoa norberea bezain maitea edo maiteagoa izaten dela sobera ikusia dago. Batez ere haurra denean esan dugu. Zergatik? Arrazoi erreza. Haurraren izate guztia, lehen premiak batez ere, gurasoen esku dauden bitartean, gurasoenganako mendetasun osoan dago. Alderantziz berriz gurasoen harenganako ardura osoagoa da. Haurra lehen premien grina bortitzen esparruaren barru barruan dago. Ia osoki norbere zatia da. Gero bere buruaren jabetasuna hartu ahala, desmentuz eta urrunduz doa. Norbere esparru hurbiletik aldenduz doa. Istiluak sor daitezke, banakuntza osoa ere bai, bai eta etsaigoa bera ere. Etxeko arteko haserrean berri ba dakigu, bai, Euskal Herrian. Berroenak horiexek izaten direla esaten da. Zergatik? Sorrerarik hurbilenetik datozelako eta beraz pasio karga askoz haundiagoa dakartelako.

— Egia da —dio Maledium jaunak— diozuen guztia, baina egia bilatu beharra egiagoa.

— Zer egin behar dugu jenderik ez desesperatzeko? Eh? Zer?

— Onena denak isolatzea.

— Ala afusilatzea? Daukaten borondaterako!

— Nola, ordea, nortzuk diren aurrez jakiteko modurik ez bada? Denak hilda?

— Eta nork jakin bihar etzi geure artean ere desesperaturik izango ez den?

— Litekeena hori ere, ez baitakigu ez nondikoa ez nolakoa den gaitza.

— Hori nola izango duk, ba, litekeena? Gaitza geure artean ere sor daitekeela jotzen badugu, bertan ere arriskuan gaudek.

— Horixe bakarrik behar genian!

Haurra haunditzean, beste mendetasun mota bat ere sortuz joan daiteke. Lehenago umea gurasoen mende bezala, orain alderantziz gerta daiteke, gurasoak umearen beharrean alegia. Egoera berria bien alde-tik onartua bada, berriro hurbilkuntza sakonagoa dator, batez ere gurasoaren aldetik. Umeen aldetik, ordea, sekula ezin lehengoa ainakoa izan, haiek beren umeak gurasoak baino maiteago izango baitituzte beti. Hortik zaharren tristura esentziala. Haurrek aina laguntza behar eta haiek aina maitasun (laguntza, beraz) ezin sekula lortu. Eta gainera berek umezi ziotenaz gogoratu. Alde horretatik naturak ez du zaharrentzat begiramendu gehiegi izan.

— Mesedez, jaun-andreok! —mozten du mahaiburuak, zutiturik—. Utz ditzagun alperreko eztabaidak, elkar berotuta ez baitugu ezer aurreratzen, desesperazioa bera erakartzea baizik. Berriro gaian zentraturik, zein konponbide ikusten duten azaltzeko eskatuko nioke Maledium jaunari.

— Nik medikuntza osoaren izenean —dio Maledium doktoreak—, konponbide bakarra ikusten dut, sendakuntza aldetik behintzat. Gure hipotesisean, besterik frogatzen ez den bitartean, gaitz hori desesperazioa dela jotzen dugu. Desesperazioa zer den ba dakigu: hargatik edo horregatik norbere buruarekin etsitzea, sufrimenduak erremediorik ez daukala sinestea. Sufrimendu hori gehienezan sujetiboa izaten da eta objetiboa izanik ere, batzuek bizikiago sentitzen dute, tristakorrangoak edo minberagoak direlako. Gaitza beren baitan bidertu egiten dute. Jende pozkorrik eta alairik nekez desesperatuko zaizue. Hori ezinezkoa da. Ba ote dago poza eta alaitasuna xaxatzeko sendagailurik? Ba dira gai analgesikoak, lasagarriak, bizigarriak, euforiemaleak eta abar. Drogak, hitz batez eta garbi esateko. Alde batetik dauden gaitzen, fisikoen eta sikikoen, leungarriak behar dira. Sentikortasunaren hilgarriak, hobeki esanda. Bestetik dauden pozen eragileak eta bizigarriak behar dira. Eta azkenez, pozik ez dagoen lekuan, alaitasunaren eta euforiaren sorrerazleak behar dira. Gure sendagailua, beraz, sentikortasuna manipulatzera doa. Alde batetik gaitzen sentimena hil eta bestetik alaitasuna sentierazi. Zorionez medikuntzan eta handik kanpora ere, gai hauen erabilera oso aurreraturik dago. Orain gaitz berri eta oraindik berezi ezineko horri dagokion konbinapena egitea besterik ez dago. Agian ez dugu sortuta dagoen gaitzik erauziko, baina bai sortzeko bidea jan. Hona produktu berriaren izena: MINHILPOZGINFINA.

Gauza berari buelta gehiago emanik, zenbat eta ume txikiagoa hartu hainbat eta norbereagoa izango da. Haunditan hartutakoari, berdin den kasuan, inoiz ez zaio hainbesteko grinarik hainbeste finkatuko. Esan bezala, umea haunditzean, istiluak eta etsai-

goak ere sor litezke. Umea haurra den bitartean, ordea, ez da inoiz konfliktu funtsezkorrik sortuko. Ez dago desorekarik sortzeko posibilitaterik. Zer guzti hauek maitasuna deritzan sentimendu ustez izpiritual hori zenbat kondizionatzen duten proportzioak aterako bagenitu, harriturik geldituko ginatke. Maitasuna hain sentimendu garbia eta dohangoa izate horrek ez luke jipoi makala hartuko. Baina horretatik desengainurik hartzen duena deformaturik dagoelako da. Bere buruarekin desengainatu behar luke. Maitasuna hain zuzen azpiegitura bortitz horrekin da ederrena, pentsalari tentelek hainbeste zuntzunkeria asmatu ez balute.

— Sortutako gaitzak sendatzeko balio ez badu, ederki gaudek.

— Ez dut esan balio ez duenik, agian ezetz baizik. Gaitz batzuk, behin goia hartutakoan, atzeraezinak izaten dira. Oraingoa ez dakigu horrelakoa den ala ez.

— Maledium doktorea! —dio idazkari nagusiak—. Gaizki ulertu ez badut, bi gaitz mota daudela esan duzu lehén. Batzuk sujetiboak, edo objetiboak izanik ere, ez hain haundiak, eta beste batzuk objetiboak eta bueltaga-beak, minbizia esate baterako. Sendagailu berriak gaitz hauentzat ere balio al du?

— Eskerrik asko, idazkari jauna, azaltzeko falta zitzaidana aurreratu didazulako. Minbiziak eta gaitz horiek ez daukate inolako erremediorik, oraingoz behintzat, eta beste pixka batean ere ez dugu uste. Gainera gaitz sendaezin baten sendagailua aurkituz batera, hantxe agertzen da beste gaitz berriren bat, luzaroan sendaezina izatekoa. Beraz, mundua mundu den arte, beti izango da gaitz sendaezinen bat. Besterik ezean, hor gelditzen da zahartza-

roa, zerbait agian atzera litekeena, baina azkenean erremediorik gabekoa.

— Martxa honetan gaitz horretatik libratuko garela uste diat —esan zuen atzetik jaun batek.

— Zer egin gaitz horiekin? Lehen aipatutako produktu berriak horietarako ere zerbait eragin lasagarririk izan lezakeenaz aparte, ez da jakin erazi behar. Jendeari ez zaio horrelako gaitzik daukanik esan behar. Hil dadila zoriontsu, hilko denik jakin gabe.

— Eritasun batzuri, ordea, une batetik aurrera edonork igartzen die bueltagabeak direla, nahiz eta guztiz zehazki jakin ez.

— Medikuaren eginkizuna —hots egiten du Maledium jaunak— une hori ahalik gehien atzeratzea da, jendearen kontzientzian behintzat. Medikuaren esanaz kontra ere gaitza normahik igartzeko unera heltzean, egon zihur eri hura ez dela orduan inor hiltzeko gauza izango.

— Eta zaharrak zer? Zer izango da zaharrek desesperatzeari ematen badiote?

Une honetaraino heldurik, pilakuntza, hein bateraino finkatutakoan, lotsagabe garbia bihurtzen dela esan dezagun. Berdinean disimuluz egitea nahiago izango du, baina oztoporik txikienean eskuetatik eta dena batera kentzeko ere ez du lotsarik izango. Ez eta hiltzeko ere. Hemen pilakuntzaren sorrera eta abiadura aztertzen ari gara. Noiz aurkitu ote zen desberdintasuna sozialki ondo finkatua? Kontzientzia sortu eta laster segur asko. Laster hori mila urte izan zitekeen, baina zer duk hori gizateriaren historian? Guk ezagupidea dugun historià erlatiboki oso oraintsukoa da. Ordurako desberdintasunak mende luzetako finkapen sendoa zeukan. Ez uste gure Santima

miñeko asaben gizartea berdintasunezkoa zenik. Geroztiko aldakuntzak eta gizarte moten diferentziak azalekoak dira desberdintasun funtsezko horren ondoan.

— Hor dago gakoa! —hasperen egiten du Maledium doktoreak, pot eginik bezala—. Denak gazterik hiltzeko sistimaren bat asmatu ezik, horrek ez dauka erremediorik. Oraindik ez da zaharren kasurik gertatu eta ez dezagun pistarik eman, baina jende zaharrarekiko harremanetan arreta guztiak hartuta ibiltzeko eskatuko nizueke.

— Orduan Maledium jauna —dio mahaiburuak—, «Minhilpozginfina» horren emanketa nola izango da? Txertaketa orokorra, lehen bezala?

— Hasteko, txertaketa orokorra, baina gero eguneroko dosistxoia zihurtatu behar da. Horrek ez du esan nahi egunero hartu ezik arriskua dagoenik. Ba dira, bai, batez beste egunero hartzen direnak: edariak, gozokiak, txikleak, janari landuak, tabakoa bera eta abar. Horietan denetan pitin bana sartuz gero, egunero hartzea garantizaturik dago. Gero gai horren propagandarik haundiena egitea ere hor dago, lehenengotan merke samar ipinirik.

— Beste negozio baterako bide ederra zetorrek hor! —diotsa ahapetik jaun adintsu batek bere semea dirudien beste bati—.

— Oso ondo, Maledium doktorea! —dio mahaiburuak—. Hala ere erremedioa gaitza bera baino okerragoa gerta ez dadin, produktu horrek ez al du denboraz ondorio gaiztorik ekarriko?

Pilakuntzak, behin sortutakoan, abiadura uniforme-ki azeleratuz gehitzeko joera berezkoa dauka. Neurri horretan aurrera egiten ez badu, ez da gogorik

ezarengatik, joera hori ezintasun esternoek mugaturik dagoelako baizik. Hedakundearen muga materialak gainditzeko gauza ez direlako, joera hori preso dago. Mila eratako mugak izan litezke: kolektibitateen txikitasuna (dauden guztiei dena kenduta ere, gauza haundirik ezin pilatu, herri txikia bada), ibilpideen mugatasuna (ibaiak, mortuak, itxasoak ezin pasatu), adina (gaurkoaren aldean batezbeste laburra), hitz batez, naturak jarritako oztopoak gainditzeko tresneriaren (teknikaren) mugatasuna. Bai eta kontzientziaren beraren mugatasuna ere, muga horiek gainditzekoak direnik ere ez bazaio bururazten. Baina aurrerapen teknikoaren abiadura azele-ratua abiatzean, pilakuntzak ere abiadura bera eramaten du. Are gehiago oraindik, pilakuntzaren joera horrexek bultzatzen du aurrerapen etengabearen martxa. Une horretara iritxiak garela esan liteke, gizateria mende luzeetan zehar eredu eta kolektibitate erdi geldi eta hesituetan bizj izan bada ere. Urte gutxitan joera basaki hedakor horrek lurbira guztia harrapatu ez ezik, lurrean ez kabitzeraino eraman du pilakuntza. Orain ilargitik gora dabilta. Esker-rak gure inguruko planetetan gizakirik ez dagoela, bestela ai zer jipoa hartu behar zuten gaizoez.

— Hara, jaun-andreok! —dio haundikiro Maledium doktoreak—. Nik gaitz baten sendabidea eman dizuet. Bihar etzi beste gaitzik sor baledi, orduantxe hitz egingo dugu hartaz. Bitartean egunari egunekoa ematera beharturik gaude, denok hil zaitzatela nahiago ez baduzue.

— Ederki! —dio zutiturik Oromenderrietako jaungoaren mahaiburuak—. Honenbestez gaurko biltzarrea amaitzera goaz. Esan beharrik ez dago, baina ez da alperre-

koa izango, kontzientzia biziagoa hartuz joateko ere, ahalik eta a-rre-ta per-tso-na-lik zoo-rroo-tzee-naak hartzeko.

VII

BURDINJAUNA

— Bai, Burdinjauna. Ez duzu uste izango, baina hau txantxa bat duzu.

— Zergatik ez didak orduan pistola paparretik kentzen?

— Ah! Hori ez! Hau gabe txantxa honek ez luke graziarik.

— Beno. Neuk ere txantxan hartu beharko diat orduan.

— Zuk ere txantxan? Horixe ez nuen espero.

— Zer erremedio!

— Adarsaltsa bikoitza daukagu orduan. Nik neurea bakarrik jotzen nuen, baina biona baldin bada, ba al dakizu zer gauza bitxia?

— Nola bururatu zaik txantxa hau?

— Bururatzea da bat eta honaino iritxea beste bat.

— Horixe esan nahi nian, ba!

Pilakuntza azeleratuaren gehitresnak batetik eta eustresnak bestetik zeintzuk dira? Hiru batez ere: errepresioa, bildurra eta ideologia. Errepresioak eta bil-

*durra gauza beraren ikuspegizat jotzekoak badi-
rudite ere, berezita hobeki ulertuko dugu. Errepre-
sioa egintza konkretua eta positiboa den bitartean,
bildurra sentipen ez hain zehatza, baina bai atzera
erazlea da, Euskal Herriak zoritxarrez ondoegi da-
kien bezala. Noiz hasten da errepresioa? Bildurra
nahikoa ez denean. Bildurrari edo terrore funtsezko
horri bildurra galtzen zaionean, orduan errepresioa
dator. Bildurra aztartzeak merezi al du? Zeren bil-
durra? Funtsean hiltzeko bildurra. Arazoa laburki
esanda, defentsa grina guztiak hiltzetik salbatzeko
indar bortitzak baldintzen ditu. Zergatik lehen pre-
mien asekontzak hain defentsa grinaitsuak taxutzen
ditu? Bestela premia hilgarriak direlako. Heriotza
ez da azken unean gertatzen den klakada bakarrik,
bizi guztia baldintzen duen geriza baizik.*

— Hara, Burdinjauna. Nik burdin meatze txiki batean
lan egiten nuen. Ez naiz gogoratzen, baina zurea izango
zen, besterenik ez omen baitzen lurralde guzti hartan. Mea-
zulo haietan gogaitu nintzen eta neure buruari esan nion:
«Hoa munduz mundu, hemen aina beste nonahi ere izan-
go haiz eta». Burdinarik sekula gehiago ez zapaltzeko zin
eginda alde egin nuen, horrenbeste zeuk ere antzemango
diozu baina. Egun batzuk ezer jan gabe iragan nituen, zer-
tatik libratu nintzen pentsatze hutsaren pozez. Baina zuk
maiz esaten zenigun bezala, gizona ez da burdina hutsez
bizi, ez eta ogirik gabe ere. Eskean hasi nintzen, egunero-
ko gosea hiltzeko aina bakarrik ibiliz, lehen ere nahiko
alperreko lan egina nintzela pentsatuz. Noizbait atseden
ere hartu behar nian. Baina buruari ez nion atsedenik ema-
ten. Beti atze bete haur erabiltzen nuen, nire ipuin eta fan-
tasien zale, haiek ere ogia jaten lan haundirik ez baitzeu-

katzen, gaizok. Baina oroimena berehalaxe agortzen zi-
daten, eta gero asmamena ere bai, eta oraindik egunik ge-
hiena gelditzen zitzaigun eta gainera biharamona eta aste
osoa eta hurrengoa, eta hila eta urtea eta bizi guztia. Or-
duan, nekizkienak amaitzean eta asmatzekoak ere agor-
tzean, gehiago eta gehiago eskatzen zidatenean, tximino-
keriak egiten hasten nintzen. Eta halaxe, pixkanaka pix-
kanaka, neuk batere igarri gabe, pailazo haundi egin nin-
tzen. Orduan neure buruari berriro esan nion: «Zergatik
ez bizimodua txantxetan atera?». Hala herriz herri paila-
zo sartu nintzen, urtero etortzen ziren komedianteekin.
Hainbat urtetan hamaika barre egina eta eragina naiz. Bai-
na umoreak ere gizona jan egiten du, burdin negozioak
zer egiten duen ez dakit baina. Nekatu, barre egiteko go-
goa joan, eragiteko asmamena ere agortu eta, hala ere,
huraxe behar. Bizioa izan. Horrela neure buruari esan
nion: «Zerbait berezia topatu behar duk, aparteko grazia
daukana». Pentsamentu horri bueltaka beti, halako gerta-
era harrigarri batzuren berri entzuten hasi nintzen he-
rritik herrira. Urliak halako jaun hura garbitu zuela bere
buruaren aurretik eta halakoak.

*Iraun sena heriotzari buruz taxaturik dago. Premia
batzuek, zenbat eta heriotzatik hurbilago egon, hain-
bat eta defentsa grina gogorragoak behar dituzte. Az-
kenean gertatzen den jazoera horrek hain eragin guz-
tizkorik nola izan lezakeen ulertzen ez baduzu, jar
alderantziz eta orduan ebidentzia duzu. Heriotza ez
da bizirik eza besterik. Premia batzuk, biziari eus-
teko, funtsezkoak dira, bestela hain maite den gauza
hori berbertan galtzen baita. Hortik datozen grinak
bizi grinak dira. Berdin da, beraz, bizi nahia nahiz
ez hil nahia. Hitz batez, hiltzeko bildurra eta kito.*

Bildur hori ez da une bakoitzean osoki agertuko, ez baita berdin heriotza zihurra, litekeena eta proba-blea. Sarritan huts haundiak ere izaten dira, egia esan. Batzutan ustetik gabe hiltzeko arriskuan ibili eta hil ere bai eta beste batzutan arriskurik ez da- goen lekuan bildurtu. Hiltzeko bildurrak joko ho- rretantxe sartzen du sakon muturra. Errakuntzarik gehienak ez dira ausarkeriaz izaten, defentsa gehie- giz baizik. Hil-biziko gorabehera denean, hiltzeko arriskuaz baino ez hiltzekoaz huts egitea hobe da. Bildurrak bortizki zaintzen du bizia, grinarik auto- matikoenak eta indartsuenak ezarririk.

— Orduan neure buruari bat batean esan nion: «Koi- no! Burdinjauna bizirik daukak oraindik». Eta halaxe, jau- na. Zutaz gogoratu nintzen eta begira zertan garen.

— Hori sinesten diat, baina nitaz gogoratzetik honai- no iritxera ba zegok bidea. Txantxa horren hasierak no- lako jarraiera izan zuen jakin al zezakeat?

— Ah! Hortik aurrerakoa ba zenekiela uste nuen.

— Nola jakingo diat, ba?

— Zure langilea izan nauzulako.

— Oraintxe bota didak txantxarik haundiena. Nire lan- gile guztien berri jakin behar banu, kontatzen ere nahiko lan izango nitek.

— Orduan neuk esango dizut. Zure meatzerik haun- dienak mendebaldean zeudela eta handik maiz pasatzen zinela jakin nuen. Haruntz jo nuen eta haundiena nor zen galdetu nuen. Arima ere bertan oka egin nuela oroitzen naiz, hango herritar guztiek burdin aurpegia baitzeuka- ten. Gero meatzerik haundienera irixtean, hango herrita- rrek arima ere burdinazkoa zeukatela ikustean, neurea on- do irentsita edukitzea pentsatu nuen, hura ere burdindu

ez zedin. Ugazabaren berri galdetu nuen eta esan zidaten:

— Zein ugazaba? Burdinjauna?

— Berbera, haundiena baldin bada.

— Ona hago hi, harekin hitz egiteko asmorik ba- daukak.

Edozein animalia ehun mila aldiz portatuko da he- riotzari ihesi balihoa bezala, baina behin bakarrik hilko. Ehun mila horietatik hiltzeko benetako arris- kuak ehun bakarrik izan dira eta beste guztiak pre- kauzio gehigarriak. Hala ere, azkenean hil egin be- har. Horretan gizakion izaera ez da askorik aldatu, bildurraren gehiagotasunean izan ezik. Animalia, no- labait esatearren, jakinez gainera edo eraso grinak hartara zuzendurik, heriotzaren aurrez gizakia bai- no askoz sarriago jarriko da. Eraso konkretu batzu- ren aurrez, animaliak automatikoki erasoz defendi- tzen dira, horren ondorioz hil behar badute ere. Gi- zakiak, ordea, hiltzeko arriskua kalkulatzeko hobe- ki dakielako, animaliak aurrea ematen duen lekuan hark atzea emango du. Ihes.

Denek barre egiten zidaten, baina ez zekiten barre egi- ten. Haiiek barrerik ez zutela egin uste dut, zure aitaren trena deskarrilatzen ikusi zutenetik. Burdinak barré egi- tea bezala. Burdinarik barreka ikusi al duzu inoiz? Bur- din trokoak barreka nori eta hainbeste barre eragina nin- tzen honi? Hantxe ere lanbidea aurrera, neuk uste gabe baina.

— Ez da harekin hitz egiteko —esan nien—, hemén- dik ibiltzen den jakiteko baizik.

— Ibiltzen omen da, guk ez dugu ikusten baina. Be- no, urtean behin, labur eta urrundik. Gabonaldian jai bat

izaten da, meatzari guztiok joatera behartzen gaituztena. Meatzari pailazo batzuk lelokeriak egitera irteten dira eta ugazabak, hainbeste lagunek aurreko aste osoa prestatzen egindako taulatu ikusgarritik, minutu bat edo egiten du jaira begira. Ofizialki ordu eta erdiko jaialdia izaten da, dena berari eskainia hain zuzen, baina hura laster nekatzen da han, guk haren zain egoten nekatzerik ez dugu izaten baina. Inoiz eguerdi aurretik ilunabarrera arte egon izan gara zain, ez bazkaldu ez ezer egin gabe.

— Pailazoak esan al duzue?

— Pailazoak edo oskilazoak, berdin duk, inork ez baitie jaramonik egiten eta Burdinjaunak gutxien.

Eskerrik asko esan eta handik alde egin nuen, neure buruari esanez: «Pailazoak! Inork jaramonik egin ez? Niri egin beharko zidatek, ba!». Eta hala, beste gabe, zure meatze nagusian lana eskatu nuen.

— Sartu errez sartuko haiz, baina hemen irtetea duk zaila —esan zidaten.

Sartu nintzen, ordea, eta hantxe ibili naiz lanean, ez dakit zenbat denboratan, gaur arte. Pailazoa nintzela eta abar, gaurko jaialdia prestatzeko neure burua eskaini nuen eta, egia esateko, gaur aina barre sekula ez duzula egin jokatu nuke. Hortik aurrera ez daukatzut kontatu beharrik, zeuk ere nik aina ba dakizu eta.

— Ba zekiat, baina ezin diat sinestu. Txantxa bat izan ez balitz, nire segurantzazain guztiak urkatzeko aginduko nikek.

Eta hona hemen arau izugarri bat aurkitu dugula Gizakia, erlatiboki, animalia baino askoz zaurigarriagoa da, askoz koldarragoa delako. Defentsa grinak indartzea salbabidea zelakoan, galbide gertatu zaigu. Zergatik? Defentsa-erasoak korrelatiboak di-

relako. Defentsa indartzeak eraso makaltzea dakar. Erasoa lehendik defentsaren aldean abantail haundiak zituela jakinik, pentsa orain noraino goazen. Animaliarik indartsuena eta gaiztoena ere aisa menderatuko duzu, haren harmenaz kanpotik eraso jotzen badiozu: lehoia lehenbizi zulora erazirik edo tiburoiari ura kendurik eta abar. Haren defentsa sistiman zuzenki erasotzen badiozu, ordea, ez daukazu zereginik. Lehoiarekin buruz buru azken onik ez da. Hala ere, lehoia nahiz tiburoia, hilko direla jakinik ere, sarritan oldartuko zaizkizu aurrez aurre. Ez dizute ihesik egingo. Jakinik esatean, eraso grinak hartaraturik esan nahi dugu.

— Eta txantxa ez balitz?

— Esan diat, ba.

— Eta benetakoa balitz?

— Berrero ere?

— Eta txantxa hutsa balitz?

— Hauxe! Zertan ari gaituk, ba?

— Eta txantxa hau bat batean egizko bihurtuko balitz?

— Ez diat pentsatu.

— Hasi orduan pentsatzen.

— Zer pentsatzen?

— Pistola paparrean zertarako daukazulakoan zaude, ba?

— Txantxazkoa, ordea.

— Nork esan dizu hori?

— Heuk. Ez al duk esan txantxan gabiltzala?

— Txantxan bai, baina benetan. Benetako grazia horixe dago, ba, benetakoa izatean.

— Pistola hau ez al duk gezurrezkoa?

— Pistola hau, adiskidea, egizkoa da, zu Oromende-

rrietako Burdinjauna zaren bezain egizkoa. Zutik mesedez eta eskuak garondora!

— Engainatu egin nauk!

— Nik ez dut inor engainatu. Zeuk engainatu duzu zeure burua.

— Mundu guztia engainatu duk.

— Ez, jauna. Nik zutaz gogoratu nintzenetik pentsatua daukat txantxaz hiltzea. Edo hiltzea txantxaz hartzea, berdin da.

— Hiltzea?

— Bai, ba! Zuri txantxa hau eginda, hemendik bizirik irtengo naizela pentsatzeko bezain pailazoa naizela uste al duzu?

— Ez zioat txantxa honi graziarik ikusten.

— Neuk ere ez ni hiltze soilari, baina bai zu aurretik joanda. Nolako barreak egingo dituzten zure meatzariak gabonetan!

— Hori al duk txantxa guztia?

— Ez, oraindik behinena falta da.

— Zer?

— Hiltzea.

Har dezagun adibide argiago bat: aberea. Animalia hezia edo gizakiaren laguna. Areago oraindik, gizakiaren esklabua. Abere hori zeure mendetasun osoan badaukazu ere, nahi duzun guztirik ez diozu egingo. Esate baterako, bere gogoaz kontra ez diozu sekula atzetik emango. Hura derrigorrean hartartzeko mila sistima dituzula ba dakigu, baina aberearen beraren defentsa sistimarik blokeiatzen ez duzun bitartean, hari ez diozu atzetik emango. Hori baino lehen, heriotzaraino defendituko zaizu. Gizakiak, ordea, nekez arriskatuko du bizirik, atzetik hartzea ebi

tatzeagatik. Deskuidatzen bazara, huraxé erakutsiko dizu aurrenen. Ai gizaki gaizoa! Defenditzen ari zarelakoan, hondamena biltzen ari zara.

— Nola hil?

— Laster jakingo duzu.

— Bizirik txikituko haute.

— Ez. Elkarren atzean joango gara.

— Zergatik hil behar nauk?

— Nire aldetik, txantxa haundi baten beharra neukalako. Ba al dakizu nolako numeroa meatzari-eskalebermeatzari-pailazoa eta Oromenderrietako Burdinjauna batera ehortzi beharra?

— Gelditu hadi bizirik! Ez diat hire ondoan joan nahi, traidore alaena!

— Bah! Beste munduan nornahiren ondoan egoteko aina umore ba daukat. Eskuak geldi mesedez!

— Benetan ari hintzela jakinik, ai zer potroetakoa emango nian!

— Ondo esana. Borondate horrek merezi dik ordaina. Pun!

Zer galdurik daukatengan, hura galtzeko edo okerago aurkitzeko bildurrak triskantzak egiten ditu. Horregatik gizarte jakin batean erdi aldean daudenak nekez arriskatuko dira ezertara, gorago igoteko arriskua ez bada. Beherakoaren bildurrez biziki kontserbadoreak eta goikoaren gogoz biziki agresiboak dituzu. Igoteko probabilitaterik denean, ausartak eta agresiboak, jaisteko arriskurik denean berriz, kontserbadoreak eta defendakoiak.

Oromenderrietako Burdinjauna betiko meatzetara jaitsi

da. Besteek baino suerte hobea izan du, txantxetan hil baita. Hor zetozek beste mutilak. Lasai, jaunak! Astiroago ere harrapatuko gaituzue. Pun! Heriotzak ba dik, bai, bere grazia, honelakoaren gainera erortzekotan. Garaunetako bala zulotik haizea sartzen zait. Ala atekoa ote da? Herria datozen hurrengo komedianteei galdetu.

ZILARJAUNA

- Zoratuta zaude!
- Ez, jauna, hori beste haro batean zen. Txerto hura sartu zenigutenetik, zorotasun guztiak garbituak dira.
- Orduan hau zer da?
- Zein hau? Tresna honi bazagozkio, pistola bat. Egoeraz galdetzen baduzu, hau azkena da. Oraindik azkenaurrea.
- Haundieak ikusten ari gara, baina honenbesterik ez nuen espero. Zu ez al zara, ba, Gizajakintzetxe nagusiko irakaslea?
- Bai, jauna. Lehenago ikasle izana.
- Ez dut ulertzen.
- Gehienak zergatik ulertu gabe hiltzen dira.
- Zure jokaerarik ez dudala ulertzen esan nahi nuen.
- Nik ulertzen dut, ba. Ba zen garaia!
- Azalduko al zenidake zerbait, noren eskuetan na-
goen jakin dezadan gutxienez?

Miserian edo lehen premien asekuntzara heldu ezin dabilzanengan bildurak are triskantza haundiagoak egiten ditu. Premia horien asebehar obsiboak, beste gaitasun guztiak ezabatzen edo motel-tzen dituenaz gainera, bildurra ere sakonago sartzen du, hiltzoria hurbilagotik sentitzen baitute. Horixe da haien bibentzia. Miseriak neurri batetik behera izakirik esklabuena sorrerazten ditu, beren tragediaz ohartzeko ahalmena ere mozturik. Zakur galdu gosetiak bezalakoak dira, gaizoak, mokadu baten truk zenbanahi tratu txar eta makilada hartzeko arriskuan sartzen direnak. Bizitari eutsi nahiaren nahiez edo beharraren beharrez, hiltzeraino arriskatu. Baina ez hiltzeraino erasoz, defentsa sistimak agintzen duenetik kanpora arriskatuz baizik. Ez dira erasotzera sartzen, erasoak izateko lekura baizik. Defentsarik gabe eta erasotzeko asmorik gabe. Miseriak serbilismorik tristeena sorrerazteko patua darama soinean.

Oromenderrietako Zilarjaunak noren eskuetan dagoen ez daki, baina ba daki esku onetan ez dagoela. Esku bueltagabeak baldin badira, zer balio du norenak diren jakiteak? Eta esku horiek neureak izanik, zertarako nekatu ezer azaltzen? Niri hainbeste urte eta burukomin kostatu zaidana honi hain denbora gutxian uler eraztea ez da erreza izango. Zuri kontatuko dizut, hau baino lasaiago egongo zara eta. Hau baino burutsuagoa izatea ere ez litzateke harrigarri, Lezaundietako haitzulotik honaino baldin bazatoz. Gainera ulertu ez eta ere, zuk ez daukazu presarik. Zuri kontatuko dizut. Baina zuri kontatzen dizudan bitartean, honekin zer egin? Ea zurekin ari naizela, deskuidatzen naizen eta desarmatzen nauen. Hobe izango da berari kon-

tatzea. Bozgoraz kontatuko diot, zuk ere entzuteko moduan, berak ez bada, zuk behintzat ulertuko duzulakoan.

— Hara, Zilarjauna. Gure Gizajakintzetxe bikaina zure zilarrez eraikia izan omen zen, gero erretore jaunak baino gehiago agintzen duzu baina. Zure mina ulertzen dut, hots, gaitza zeure eskupeko obratik etortzea. Baina ni ikastetxe hartan horrelakorik jakin gabe sartu nintzen. Gure aitaren ilusioa bere haurra Oromenderrietako Zilarjaunaren Gizajakintzetxean ikustea zen, zer zen ez bazekien ere. Hamaika izerdi galdu zuen gaizoak, ni han sartzeagatik, baina sartu nintzen eta aurrera. Ez natzaizu gizajakintzak zer diren azaltzen hasiko. Hor daude filosofiak, erlijioak, arteak eta abar. Gizakiari dagozkionak izanik, hor genituen hiru mugarri haundi: jaiotza, bizitza eta heriotza. Jaiotzeagatik ez zuen inork bururik apurtzen, hiltzea baino misteriotsuagoa bada ere. Bizitzeagatik ere ez zen inor haserraten, ondo samar baldin baziren, eta zuk ba dakizu Jakintzetxean dabilzanak ez direla hain gaizki bizi. Buruhauste guztiak heriotzatik zetozkigun. Horrexek hondatzen zigun edertasun guzti hura. Eta inoiz bizitzaz ernegatzera eta jaiotzaz damutzeraino ere bai, horrekin ez genuen ezer aurreratzen baina. Arlo guztietan, lehentxoago edo gero-txoago, agertzen zen obsesio nagusia heriotza zela esango nuke. Horrexek behartzen gintuen heriotz ondoaz pentsatzera. Hilda gero zer?

Ba dira noski baldintza batzuk, «baldintza objektiboak» delako izen ponposoz ezagutzen direnak, defentsa grinak halako prozesu nahasian eta segur asko ez berretzekoan masiboki elkaturik, eraso grina bihurtzen direnak. Mugimendu horiek, (matxinadak, erreboltak, iraultzak) ez dira beti irabazle ateratzen,

ederki lumatuak baizik. Irabazten dutenean ere, gero berriro defentsa grinetara aldatzen dira, ez baitago beti erasoan jarraitzerik, eta urak pixkanaka lehengo ubidera datoz. Hala ere, defentsa sistimatik eraso sistimara pasatako mugimendu haundi horien dinamika oso txikia da, ia hutsa, pilakuntzaren eraso grinen ondoan. Baiezen honi muzin egiten dionak milaka urtetako prozesu osoa dauka aurka, dudatzeko salbuespenik ere nekez aurkituko duelarik.

— Horra gure obsesioa, hiltzeak bueltarik ez zeukanez gero. Zelebrea zen batzuk esaten zutena, alegia, gizaki guztiengan funtsezki nabari den bizi gogoa edo iraun nahia gero ere zerbait ba dela pentsatzeko argudioa dela.

— Koino! —esaten nien nik. Guk nahi gabe bizia etorri zaiguk, ba! Zer zerikusi zeukak nahi horrek biziaren amaieraz ala iraupenaz?

Honelakoxe berrikeretan pasatzen genuen denbora eta okerrena irakasleek ere ez zigutela nahi genuenik argitzen, honek eta horrek eta hark hau eta hori eta bestea esan zutela baizik. Batzutan tentelak zirela pentsatzen nuen, eta beste batzutan tranposoak. Azkenean ez bata ez bestea, neu ere irakasle egin bainintzen. Gai haiek ikasle haroan nahiz irakasle haroan berdin jarraitzen zuten. Bolada luze batean arteetan murgildu nintzen. Denbora galdu nuen, baina ederki. Denek galderak eskaintzen zizkidaten. Galdera oso ederki eta zoragarriro eginak, hori bai. Baina horretan, nola edo hala, neuk ere ba nenkien. Erantzunik ematen hasten zirenean, ordea, lelokeriak eta zorakeriak ziren hemen ere. Ibili eta ibili, argitasun bat pizten hasi zitzaidan buruan, isil isilki. Heriotza jaiotzaren antipoda baldin bada, ea simetrian dauden! Nahi izan gabe sor-

tzeak bizia emango badigu, ea, nahi izanda, hiltzeak zer ematen digun. Hobeki esanda, geure bururik sorrerazi gabe bizi baldin bagara, ea geure burua hilda zer gertatzen den. Antipodetako simetriak posizio berberak ematen baititu, baina alderantziz. Berez hiltzea baino gauza hilagorik ez dago. Heriotzari, esaten duten guztia baldin bada, edo izatea nahi genukeen guztia izango baldin bada, norbere zurrea eman behar zaio, jakinki eta aktiboki. Berez hiltzen dena nola piztuko duzu, ba, husturik baitoa?

Pentsakizun hauei eta hemen azaltzerik merezi ez duen beste anitzi mila buelta ematetik, gauza bat behintzat garbi atera nuen: neure burua hil behar nuela. Argitasun honek bigarrena berez ekarri zuen, alegia, sortzearekin simetria osatzeko, beste norbaitekin batera hil behar nuela eta nor egokiagorik Gizajakintzetxeko Babesle agurgarria baino? Horrelaxe oroitu nintzen Oromenderrietako Zilarjaun haundiaz.

Bildurrari nahiko ekin diogula eta nahiko ondorio bildurgarriak atera ditugula emanik, ideologiak datoz orain. Hauena arin amaituko dugu, ezagunagoa baita. Ideologiak berezko grina horiek bermoldatzera, egokitzera eta sikologiaz aldatzeraino eraman leza-ke, baina ez halabeharrez, konbentzimenduz edo fedez baizik. Gizakia bere miseria onartzeraino iritx liteke, miseria horri berez ez dituen bikaintasunak eta duintasunak ikusteraino. Hor datoz erlijioak, jainkoak, deabruak, eta gainerako izaki eta arautegi guztiak. Izaki miserablea bere jaun hustiatzaileen- gan Jainkoa ikusteraino hel liteke, edo gutxienez Jainkoaren ordezkoa edo haren nahia enkarnatzen duena ikusteraino. Gizaki miserablea, hemen azter-zerik ez dagoen ideia, sentiera eta sineskera anizkoi-

*tzen oihan mugagabetik iragan ondoren, pilakuntza-
ren aldeko sutsua izan liteke, edo gutxienez zapal-
tzaile nabariei botua emango diena. Eta ez bildurrez
bakarrik, sinesturik baizik. Horrexenbestereinoko la-
na eta burujana egiten dute ideologiek. Zorionez pi-
ramidean oso goi daudenen artean ere gertatzen da
alderantzizko fenomenorik, alegia, ondo daudenak
edo egoteko modua daukatena, beste ideologia ba-
ten eraginez, miserableen alde burrukatzea. Baina
hauek, kualitatiboki oso garrantzitsuak izan arren,
gizateria osoaren ondoan bakanak izaten dira.*

- Ez dizut ezer ulertu, baina azken hori gutxiago.
- Ez dio axolarik, pentsatzen bainuen. (Zuk ulertu al didazu?)
- Nola axolarik ez? Ez al duzu beste norbaitekin ba-
tera hil behar duzula esan?
- Bai, ba. Zurekin batera.
- Zein simetriaren eraginez? Bakarrik jaio bazinen,
hil zaitez bakarrik.
- Gauza bat da jaiotzea eta beste bat sortzea.
- Sortu ere bakarrik sortu zinen.
- Baina ez bakarretik, adiskidea. Sortzea bikotearen
emaitza da.
- Baina aitamak bizirik gelditurik.
- Jakina! Esan dizut, ba, alderantzizko simetria de-
la. Erdian bizia dago, handik nahiz hemendik berdina. Bi-
zia da erdigunea. Orduan biziengandik bizira gatozen be-
zala, ea orain heriotzan errebotatu eta berriro erdigunera
itzultzen garen. Heriotzatik haruntz ez dago ezer. Egote-
kotan honuntz egon behar du, materian ez baitago izaera
linealik.
- Orain gutxiago ulertzen dut.

— Ez da ulertze kontua, egitea baizik. Biziaren sorre-
ran ere egitea da nagusi, ez baita ulertzeko astirik izaten,
ez eta ardurarik ere, zuk ondo dakizun moduan, esaten
duten ume guztiak zureak baldin badira.

— Orduan zer egin behar dugu? Biok batera hil?

— Bat batera ez, baina bai elkarren atzean. Gatilu ba-
karreko arma bikoitza izan balitz, batera izan zitekeen,
baina pistola honekin ez dago hori egiterik. Kasu hone-
tan lineala izan behar du.

— Nor hilko da lehenbizi?

— Pistola neuk daukat, ez?

— Zergatik ez zu lehenbizi?

— Ez naizelako fidatzen. Lehen ere hamaika hildakoa
zara zu, geru zeure bururik hil gabe.

— Sortzearekiko simetriak komeni zaizunean bakarrik
aplikatzen dituzu zuk. A zer jakintza!

— Ah! Nahi baduzu, oso osoan aplikatuko ditugu.
Maitasuna eginez hilko zaitut eta berehala neure burua,
oraindik zure kolpea aurreruntz datorkidala. Bai aurki-
kunde ederra! Maitasuna egiten hil. Arteetan ez zen
honelakorik.

*Ideologia defentsa grinen indartzaile ere ba dela esan
beharra dago. Agian batez ere horixe da. Defentsa
grinek konpentsapenez sorrerazitako mekanismoa.
Miserian dagoenak, hartaz besterik ez dagoela ikusi-
rik, zeren pozean bizi behar du, gaizoak? Miseriaren
kontzientziak, hilgarria izan ez dadin, berehalaxe
defentsa leungarriak sorrerazten ditu. Bizipoza bi-
ziaren eskabiderik funtsezkoenatarikoa denez gero,
biziak berak ematen ez duena asmatu edo sortu edo
zerbait egin behar da. Kontzientzia tresna berebizi-
koa horretarako. Zerbait sinesteak zerbaiten poza*

emango du behintzat, eta horixe da behar dena, egia soila bestela ere nahiko miserablea baita. Jende apalen sineskortasuna batez ere ezjakintasunari dago kiola uste dutenek faktore sakonagoa ahaztuta utzi dute: defentsa sena. Gizakiak bakarrik daukan defentsa sena. Animaliak ez dauka ezer sinestu beharrik, bere miseriaren kontzientziarik ere ez baitauka. Gizakiak, ordea, miseria berean pozbideak eta ordainordeak sorrerazteko tresna bat dauka: Kontzientzia.

Oromenderrietako Zilarjaunak larrutari fama handia dauka. Zakila ere zilarrezkoa omen du, igarri gabe irris-tatzen dena. Oraingoan onartuko duenik ez dut uste. Baietz esango balu, zer egin? Ez ote gara deskuidatuko? Gizon bati hil aurrean hori ukatzea ere ez litzateke gizatasuna, giza jakintzetan ibilita gero.

— Zer diozu, Zilarjauna?

— Ezetz.

— Ezetz zer? Maitasunik ezetz?

— Duela urte batzuk zeuk ere ezetz esan zenidan. Orain ordainak.

— Orduan neskatxo bat besterik ez nintzen, ordea! Nola esango nizun baietz, zer zen ere apenas bainenkien? Orain berriz, neuk esateko ez da baina, ez didazu esango emakume ederra ez nagoenik.

— Bai, baina ez.

— Azken aukera duzu gero!

— Nola azken aukera?

— Zilarjauna! Ezer ulertzeko gauza ez bazara ere, ulertu ezazu behintzat deskontu denboran zaudela. Segundu batzuren gorabeheren, zu eta ni heriotzaren errebotean gaude, gelditzeko ala itzultzeko.

— Ez! Hori ez!

— Geldi mesedez, denborari aurrea hartzerik nahi ez baduzu.

Esandako hiru faktoreen ordena aldaturik, erasotzaileak (pilatzaileak) bere eraso sistema honelaxe muntaturik dauka: Lehenbizi ideologia. Hori nahiko ez denean, bildurra eta bildurra nahiko ez denean, egurra. Hirukote hau desmuntaturik, ideologiaren indarra laster ahulduko litzateke, atzetik bildurrik ez biltz. Bildurra bera ere, den eragile gogorra izanik, laster lotsagabetuko litzateke, atzetik egurrik ez biltz. Egurraren azken maila, erabatekoa, heriotza da. Hil eta kito. Fusilatuak izan direnak ez uste denek hiltzea merezi zutela pentsaturik garbitu dituztela, aurreko beste bi faktoreei garrantzia eman erazteko baizik. Hitz batez, eskarmentagarri, jendea bere sinesmenetan geldituta egon dadin, edo gutxienez bildurrera makur dadin, edo gehienez ere egurraren mugaino bakarrik ausar dadin.

— Zergatik hil behar nauzu?

— Neure burua hiltzeko adorea daukadalako. Lehenago ere pentsakizunak egiten nituen, baina azkenean atzera beti. Ausardia falta. Botika edo zer hura hartzen hasi nintzenetik, ordea, edozertarako euforian nago.

— Eta zergatik ni?

— Gelditzen direnetan haundiena zarelako. Tigreari aurrea emateko kemena edukita, ez naiz sagu bila hasiko.

— Mesedez! Ondasun guztien jabegai egingo zaitut.

— Hitz hori sinestuko banu, ate horretatik haruntz ez nintzatekeela urrun joango ba dakizu.

— Benetan diotsut. Oraintxe bertan dei egingo diet ad-

ministratzaileei eta segurantzazainei eta egina.

— Horiek etortzea nahi al duzu? Neuk dei egingo diet. Ikusiko duzu zein laster datozen. Pun! Pun! Oromenderrietako Zilarjauna nirekin maitasunik egin gabe hil da azkenean. Hator heu. Hau dun sasoia. Baina arin! Ba datoz.

Ez zegok astirik. Horiek egingo didatena neuk egitea hobe izango dinat. Pun! Oromenderrietako Zilarjauna-ren gainera. Noruntz izango ote da errebotea? Musutxo bat hiri. Minhilpozginfina.

URREJAUNA

Urre bila noa. Bizitzako zulo utziezin honetan bururaino gogaitu naiz. Bizimodu izorratu honetan heriotzaren zain egotea besterik ez daukat. Beste zulo haundiago bat. Lana eta lana, ezer ez ikusteko. Nekea eta nekea, bihar berdin izateko. Baina egun bat gutxiago eta adinean karga bat gehiago. Egun txarrak pasatzea gaitz erdi litzateke. Hemen okerrera egun txarrek nahiz onek berdin korritzen dutela. Zulo honek ez dauka erremediorik, barrurago izan ezik. Ba noa urre bila, ea egun on batzuk harrapatzen ditudan bederen.

Nork eratzen du ideologiaren, bildurraren eta egurraren lehengaiz osatutako sistema nahasi hori? Aginteak. Agintearen eginkizun nagusia hiru faktore horiek ahalik efikazkien eta emankorren konbinatzea da. Zertarako? Pilakuntz sistimak bere gisa funtziona dezan. Horregatik aginteak era berean pilakuntza bera ere eratzen du. Alde batetik pilakuntz sistema

defenditu, hiru faktore horien konbinapena antolatuz, eta bestetik pilaketa positiboki eratu. Lehena go aginteak zuzenki espoliatzeko makineriak ziren. Gehien zeukana zen agintari eta zeukanari eusteko eta gehitzeko agintzen zuen, disimuluetan ibili gabe. Aginte hori ez da ustelgarri, ustelena baizik. Beste aginte batzuk espoliatzaile direktoak baino gehiago espolioaren taxutzaileak dira. Haiek espoliatzaile ageriak eta hauek espolioaren estaltzaileak. Orduan ba liteke agintea ustelena ez izatea, baina bai ustelgarri. Aginte horretan oraindik zindo daudenak ere laster ustelduko dira, atzetik agintzen dieten indartsuagoen usteltasunaz kutsaturik. Egia esateko, aginteak bi faktoreetatik du beti zati bana, segun zein aginte motatan alderdi bata ala bestea gehiago nabarmenduz. Demokrazietan alderdi estaltzailea gehiago nabarmentzen da, diktadura gogorretan, ordea, alderdi espoliatzaile direktoa.

Ibai haundi honi jarrai, zeozer topatuko dut behar bada. Sorburura orduko zerbaitek derrigor agertu behar du. Beste batzuk ere nire antzera dabilta hemen. Ea suerteak zerbait banatzen digun. Zer duk hau? Urre pipita? Urre pipita! Nire bizitzako lehen urre pipita! Ba noa saltzera, ea egun on bat pasatzeko behintzat hartzen dudana.

— Zenbat ematen didazu urre pipita honengatik?

— Mila erreal.

— Hori bakarrik? Ez dut aste makala pasatu beronen bila.

— Inork ez dizu gehiago emango.

Neure urre pipita saldu ezinik beste astebetean txakurrarenak egin eta azkenean bostehun errealetan saldu behar izan dut. Ogi zati bat erosi eta beste pipita baten bila.

Noan lur barruruntz, ibaia utzita. Baina horretarako haitzur-palak behar ditut. Ea beste pipitarik topatzen dudan ibaian. Usterik gutxienean meatzea topatuko dut eta orduantxe dena egina.

— Zertan ari haiz hor? —alto eman didate.

— Urre bila.

— Lurralde hau Urrejaunarena duk eta ez zegok bilaketarik libre, haren morroientzat izan ezik.

Ba liteke politikariak pribatuki hain indartsuak ez izatea. Ba liteke pilakuntza gehiegiren jabeak ez izatea. Ba liteke normal samarrak izatea. Ba liteke po-break izatea ere. Ba liteke zintzoak edo zintzo samarrak izatea ere. Baina agintera irixitakoan, zintzotasun horrek, atzean diren benetako agintariak jasan lezaketan tarterik gainditzen badu, laster ikusiko ditu haginak. Zintzotasun «zibilizatu» izan behar du, blokeiatua. Hitz batez, zintzotasunik eza. Usteltzen ari gara. Zintzotasun horrek gehienez ere agintari politikoen golko pertsonalean iraungo du, kontradikzioa sortuz. Kontradikzio horrek gehienez ere agintariari sufri erazteko balio izango du, baina agintarako sufrimendu hori alperrekoa da. Agintariak, barrutik ere usteltzen ez bada, sufritu egingo du, baina besterik ezer ere ez. Diktadore zorrotzak barrutik sufritzeko motiborik ez daukan bezala, agintari demokratikoak agian gehiago sufrutuko du, baina bestela aginte berdintsua da, sistimen arteko diferentziak salbu. Demokrazietako politikaririk gehienak sail honetan sartzen dira, ez gutxi pilakuntza objektiboan ere indartsuak izanik, eskuin alderdiak esaten zaienetan batez ere. Dena jorik, ordea, benetako indartsuek agintea ordezkuen eskuetan utzi dute.

Horrela berentzat buruhauste bat gutxiago eta pilaketarako asti gehiago, agintari ordezkoei tarteka haginak erakustea nahikoa dutelarik.

Beste leku batera noa. Hemen behintzat inor ez dabil, hori ere sinale ona ez da baina. Astebete daramat haitzurka, maldatxo batean zeharretara. Honenbeste lan alperrik eginda uzterik ez dago eta aurrera jo behar dut. Topatu ala hil. Beste astebete eta maldaren beste alderaino heltzeaz nago. Beste aldetik hasi banintz, orain falta zaidana eginda edukiko nuen eta, orain topatzekoa baldin bada, aspaldi nintzen meatzejabe. Basafrutuak eta piztiak gordinik jaten zirinduta nago. Eh! Hementxe zerbait ba dela dirudi. Urre totxo bat! Ea alhora zer dagoen. Hemen urre usaina zegok. Ea barruruntz. Hau urre meatzea duk. Aupa! Irten naiz zulotik! Saltzea besterik ez daukat.

— Zenbat ematen didazu urre totxo honengatik? —galdetzen dut azokan.

— Nor zara zu? —galdetzen didate.

— Zuri zer axola dizu, ba?

Merkatariak amen batean alde egin dit. Hor konpon. Heuretzat okerrago. Noan alboko txosnara.

— Zenbat emat... Oooh!

— Non topatu duk hori? —galdetzen didate, bi morroskoren artean esku banatatik atzeruntz estuturik.

— Han, ibaiaz goiko malda bazterrean.

— Ez al dakik Urrejaunari parte eman behar zaiola?

— Hau neuk topatu dut.

— Berdin duk. Lurralde hauetako urre meatzeak, direnak eta izatekoak, Urrejaunarenak dituk denak. Haren morroi sartu nahi bauk, jateko lain izango duk.

— Ez! Nik bizitzeko lain behar dut. Horretarako lehengo zuloan nengoen ondo.

Beste leku batera. Eta beste batera eta beste anitzetara. Azkenean beti gauza bera gertatzen zait. Pipita bana-ka zorritzot batzuk izan ezik, hemen beste guztia Urrejau-narena da. Topatzen baduzu, harentzat eta topatzen ez baduzu, zakurrei ahoan daramatena kendu behar, goseak ez hiltzeko. Lehengo zuloa baino okerragoa duk hau. Jaun horrek zertarako behar ote du hainbeste urre? Oromen-derrieta guztia berea duela diote. Ez da gutxiagorako, ba-koitzak nik aina uzten badio. Hau duk alukeria!

Agintea hain arma bortitza izanik, pilakuntzarako ere tresna bikaina dela esan beharrik ez dago, batez ere goi samarreko karguetan. Benetako indartsuek pozik toleratzen dute hori, aginteak ere bere eragin-garri ederra eduki dezan. Toleratu ez ezik, bultzatu ere bai, agintea pilakuntzaren arautegira zintzo eta gogoz makur dadin. Nekez gertatuko da aberats sartu eta pobre irten denik, negozioren batean huts haundiren bat egin ez badu. Sartu zen baino aberatsago irtetea normala duzu, ordea. Zer, ba? Tontoak izan-go gaituk ala? Era honetako agintea pilakuntz sistimarako efikazagoa izan liteke. Alde batetik agintari konkretuei ez dago benetako indartsuak balira bezala erasotzerik, izan ere ez baitira benetako indartsuak. Gainera jende artean halaxe uste izaten da hori, gehiengan oso engainaturik baina. Horregatik aginte konkretu horri erasotzea gaizkiago ikusia izaten da. Beraz, eraso ere zailagoa. Beraz, defentsa hobea. Alde batetik benetako indartsuak nortzuk diren jakin ez eta bestetik haien ordezkot ageriei eraso ezin. Asmakuntza polita, ez?

Urrerik ez dut topatu, baina bai munduan ibili. Zenbat jende, hainbat fede. Urrerik ez daukanak zerbaiti ekin behar. Ez dakit nor zen, zein herritan nabilen ere ez baitakit, baina atzo iluntzean makiladun agure batek esan zidanari bueltaka ari naiz:

— Utz ezak urrea eta bila ezak arima, horixe baita urrerik ederrena.

Ba noa arima bila. Joan beharrik ez daukat, urre bila ibilitako mundu eta munduera guztiak gogoan baititut. Oroimenetik ez daukat hutsik. Batzuek arima gorputzaren euskarria dela diote, beste batzuek berriz gorputza arimaren eritasuna dela, eta bizimodu izorratu hau gorputzaren eremuan omen da. Gero arimen betikotasuna. Zer da hori? Batzuek zerua, beste batzuek nirvana, beste batzuek beste mundua eta abar esaten dute. Zer diren horiek? Hutsa eta hutsetik betetasuna. Huts mugagabetik orotasun mugagabera. Gauza horiek zer diren inork ez daki zehazki, bitartean heriotza baitago. Mundu honetako kalamitateen irtenbide bakarra heriotza dela diote denek. Zer pentsatuko dugu, ba, hortik libratzerik ez baitago? Zorionez, alde batera. Azken batez, munduaren konponbideari buruzko teoria guztiek heriotzarengan daukate segurantza bakarra. Heriotza hain zirritu amaigabeki estua omen da, non aurreko guztia hustutzen baita, ondotik betikotasuna leher erazirik. Urre bilaketan zereginik ez dudanez gero, pentsakizun hauexekin entretenitzen naiz. Ba da, ordea, zerbait, entretenigarritzat baino gehiago pentsa erazten didana. Zenbat eta heriotza kontzientea goa izan, hainbat eta betetasun garbiagoa omen da gero. Horregatik batzuek bizi guztia beren arimak purifikatzen egiten dute, gero heriotzako arragotik urrerik garbiena atera dadin. Apenas hori inork sinesten duen, gehienak konortea galdu eta gero hiltzen baitira. Zer egiten duten

ez dakitela, beraz.

Istripuz edo infartoz edo gerran bat batean hiltzen direnak ere gehienez burua beste zer batean dutela atzematen ditu heriotzak. Konorte osoz hiltzeagatik heriotzara beren buruz doazenak oso gutxi dira. Gutxi, baina ba dira bakan batzuk. Batez ere hor Ekialdeko ez dakit zein herritan egiten dutenak harriturik nauka. Binaka hiltzen omen dira, elkarri bat batera tiro bana emanik. Pentsa hain batera hiltzeko zein argi eta ernai egon behar den, eta hain zuzen horretarakoxe egiten dute: argitasunik eta ezaguerarik zorrotzena zihurtatzeko. Entrenamentuak ere ez dituzte nolana hikoak egin beharko. Elkarri begira erortzean, elkarri begira itzartzen omen dira betetasunera. Ba dira beste herri batzuk ere, berez hiltzea gorroto dutenak. Zaharrak, triburako enbarazubide direla konturatzean, bazter batera aldentzen dira eta hantxe etzaten dira zulgune batean, haizeak hondarrez estali arte. Hori duk heriotzan ohartuki etzatea.

Eta zer gertatzen da piramidearen erdi aldean, ez behere mailan dauden ez pilakuntza haundien jabe ez diren erdi jende horiengan? Hauen joera piramidearen norabide berekoa da. Aihenbelarren eta beste landare aihendunen joera berbera dute, defentsa-eraso grinen konbinapen funtsezkoaren eraginez. Arriskatuko dira, baina goruntz beti. Burukoak hartuko dituzte, baina goragoko orman beti. Ez dakitela ere goruntz. Zintzoak izanik ere goruntz. Beheruntz egiteko, joera multzo orokor guztiaz kontra egin behar dute, korronteaz kontra bezala. Zerbaitetik dira hain bakanak beren gogoz beheruntz deskuidatzen direnak. Piramidea goruntz egina dago. Goruntzko

joera horretan gehienez ere egonkortasunera eta hortik konformismora iritxiko dira, piramidea gorago eta estuagoa delarik, denek goruntz egiterik ez baitago. Piramidearen izaera asumiturik daukate. Gorunzkoa amaitutzat emanak daude, baina mailatxo bat jaisteko eskatzen badiezu, laster ikusiko dituzu hortzak hor ere, konformistak direla baina.

Niri, ordea, beste bikote horienak jotzen dit arima. Hiltzeraino maite nauenen bat baldin banu! Baina urrerik gabe apenas den maitatzailerik ere. Eta urrea non? Ah! Nork eta non ba zekiagu, baina nola? Hauxe da orain burutik kendu ezinez nabilen pentsakizuna. Bai dela makina izorrantea burutzar hau! Pentsakizun bat garbitu orduko, beste totxo bat gainera. Urrea, urre bila, urre meatzeak, Urrejauna, urrezko arima... Egina! Ba zekiat zer egin. Lezaundietara joan eta Lezajaunari eskatuko zioat.

Ai zer ganbara Lezaundietako haitzuloko areto ikaragarri hau, urrez beterik balego.

— Lezajaunaaaaa!!!

Honek ere ez ote dit, ba, jaramonik egin behar? Ez da urrun, haize boladak baitira.

— Lezajaunaaaaa!!!

— Zeeerrrrr???

— Urreagako Ganbol naaaaaiiiiizzz!!!

— Zer behar duuuuukkk???

— Urre bihurtuuuuuu!!!

— Zertarakooooo???

— Urrejaunarekin egotekoooooo!!!

— Osoriiiiiikk???

— Arima ba daukaaaaaattt!!! Gorputza baka-
rriiiiikk!!! Esku ezkerria izan eziiiiikk!!!

— Eginaaaaaa!!! Baina hori sakelean eraman geroooooo!!!

— Baaaaaaai!!! Eskerrik askooooo!!!

Oromenderrietako Urrejaunaren jauregizainek harriturik begiratzen didate. Elkarri zer esaten dioten ez dakit, baina neure urrezko lepoa jokatuko nuke hauek ez daukatela zenbat urre kendu zidaten gomutarik. Gainera morrontza eskaini jan truke. Meatze horietan goseak zenbat hiltzen dituen ez bagenki bezala.

— Jauna! Urrezko gizon batek zure galdea egiten du hor.

— Urrezkoa?

— Urre gorri gorrizkoa, jauna.

— Ez al duk estratagemaren bat izango?

— Ez, jauna. Estraterrestrea dirudi.

— Tranparen bat esan nahi nian, astaburu hori!

— Ez, jauna. Sekula ikusi ez dugun bezalako urre liluragarria dakar.

— Esan etortzeko.

Gorunzkoa amaitutzat emanik egoteak ez du utziko dutenik esan nahi, aukerarik baldin bada. Bere-ziki aukera bila ez dabilta, baina etor litekeena hartzeko beti prest. Kea bezala dira, gara. Apurtxo bada ere, goruntz beti. Keri kanpaiak, zirkuituak, hodiak eta mila trikimaina jarriko diozu, baina ziriturik txikienean tak alde egingo dizu apurren bateg, isil isilik gainera. Goitik ezin badu albotik eta ez goitik ez albotik ezin badu, azpitik ere bai, baina berehala goruntz egiteko. Hura osoki menderatu ahal izateko, gela hermetikoa behar duzu, baina orduan zuek ere ito egin behar. Hori ere ez genian, ba, nahi!

Kea zenbat eta trinkoagoa izan, hainbat eta joera indartsuagoak izango ditu. Agresiboagoa. Piramide sozialeko erdi mailetako jendea kearen eta aihenberraren sinbiosisa duzu. Gero eta gauza bitxiagoak datoz hemen. Ez dakigula ere parran gora!

Oromenderrietako Urrejaunaren bakargela nagusia dena urreztatua dago. Beronek ere urre kolorea dauka, ez dakit berez ala inguruko urretasunaren isladuraz. Begiak bete betean begiratzan dit, bere arimaren agerpena banintz bezala. Ate haundiak, urrezkoak hauek ere, itxi dituzte eta:

— Aurrera! —hots egiten dit, eskua luzatuz—. Non-dik norako izakia haugu?

— Urre erreinukoa —erantzun diot, urrezko eskuina emanaz—. Ez al zara behin ere izan han?

— Non zegok hori? Aurrera mesedez.

— Pentsatzen nuen, bai, ez zenuela jakingo. Horregatik etorri natzaizu.

— Ni hara eramatera?

— Bai, nahi baduzu.

— Nola ez, ba? Noiz joango gaituk?

— Berehalaxe.

— Berehalaxe?

— Harritu egiten al zara?

— Ez duk gutxiagorako.

— Laster gehiago harrituko zara.

— Urretu ere bai?

— Bai eta urratu ere. Harritu, urretu eta emozioz urratu.

— Goazen lehenbaitlehen.

— Baina zu aurretik.

— Nola?

— Holaxe!

Esku ezkerre saketetik atera eta pistola paparrean ipini diodanean, urre kolore guztiak joan zaizkio Urrejaunari. Gelako urreteriak ere mudatu egin direla dirudi. Usainik botatzen ere ez dira ausartzen.

Pilakuntzaren lege gupidagabea ikusirik, ondasun pilatuak zer ematen dio pilatzaileari? Zer ordain edo gozamen dakarkio ihardun bortitz horrek pilatzaileari? Ondasun pilatuen jabearen definizioari aberatsa esaten badiogu, ez dago aberatsa baino gauza absurdoagorik. Naturaren eta gizatasunaren ikuspegitik, izakirik zentzugabeena aberatsa da. Anbizio itsua eta haundikeria hutsa besterik ez da aberatsaren eragilea eta gozamena.

Gizakiak, animalia den aldetik, lehen premiak asetzeko duen grina ulertzekoa da, beste izaki batzuri kenduta bada ere. Lehen premien asekontza gozamen objetiboa da, hain objetiboa, non hil-biziko gertatzen baita. Horretarako, daukanari edo gutxiago daukanari kentzea ere ez da oraindik hain zentzugabea, bidegabea izan baliteke ere. Bakoitzak behar duena baino gehiago bildu nahi izateak ere bere arrazoia izan lezake, prebenitzeko eta premien geroko asekontza segurtatzeko. Horretarako zer egin? Pilatu, bihar eta etzi eta hil arte segurantzaz edukitzea. Segurantzaz hori doi doi baino zabalkiago hornitzea ere ulertzekoa izan liteke. Batzuk horretan segurantzaren eskabide haundiagoa izan lezakete, beste batzuk gutxiagoz ere lasai sentitzen diren bitartean. Neurri baten barruan, prekauzio naturalak hartzen ari gara.

— Hau ez da urrezkoa, burdina aurruntezkoa baizik. Gehienez ere altzeiruzkoa —esaten diot, paparrean sakatuz.

— Esku hori ere ez.

— Esku hau haragi arruntezkoa da, zuretzat hamaika urre eder ateratakoa.

— Esaten nian nik hau tranparen bat izango zela.

— Ez, jauna. Nik ez zaitut engainatu. Urreak engainatu zaitu. Zeuk maiteen duzunak. Zeure arimak.

— Zergatik egiten didak hori?

— Niretzat urrerik ez zegoela etsitzean, zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Hil arte bizitzea besterik ez neukan. Orduan, buruari bueltak emanez, zutaz gogoratu nintzen.

— Madarikatua! —zoruari ostikoka—. Zergatik beti horrelakoxe uneetan gogoratu behar dute gutaz?

— Arraioa! Beste batzuek ere gogoratu al dira, ba?

— Mundua akabatzen ari zarete, mokordo pozonduok!

— Bakarra nintzela uste nuen, baina horrela zer dagokizun jakinean zaude.

— Zergatik ez haiz haragizko etorri?

— Ahaleginak egin nituen, baina ez zegoen inola ere zuregana hurreraterik. Orduan urrezko etortzea pentsatu nuen, esku bata eta pistola izan ezik.

— Azkenean ere hauxe! Jainko bihozgabea!

— Ez al zenuen urre erreinura joan nahi?

— Adarra jotzen gainera?

— Ez, jauna. Lehen baietz esan duzu. Urre erreinu hori beste munduan dago. Nola egongo da, ba, hemen zuk topatu gabe?

— Horretan arrazoi punta bat ba duk.

— Gehiagorik ez da behar ere.

— Urre guztiak emango dizkiat.

— Zertarako dut urrerik, urrezkoa izanik? Goazen.

— Ez! Mesedez!

— Urrejauna mesede eske?

— Urrearen ez bada, Jainkoarren! Mesedez!

— Joatea duzu mesederik haundiena.

— Kakazaharra! Neuk galdu diat neure burua!

— Eskerrik asko. Horixe entzun nahi nuen. Pun eta pun!

Lehen premiez gainera, gizakiak ba ditu, gozamen hutserako besterik ez bada ere, segurtatu nahi dituen beste premia batzuk. Ez da ez hiltzea bakarrik, ondo bizitzea baizik. Ez da ondo bizitzea bakarrik ere, ahalik ondoen bizitzea baizik. Hor ondasunak pilatzeko tentazioak tarte zabalagoa izan lezake. Baina bai lehen premien sailean eta bai premia gehigarrien sailean ere, gizakiak gozatzeko ahalmen mugatua dauka. Premiak mugatuak baldin badira, hortik gorako gozamen ahalmena ere mugatua da. Gizakiak ez dauka bere gozamena amaigaberaino gehitzerik. Ahalmen mugatu hori asetzeko ondasunek ere mugatuak izan behar. Zer gertatzen da hortik gorako ondasunekin? Gizakiarentzat alperrekoak direla. Ondasun berriak ez dio gozamen gehigarririk ematen, haren gozamen ahalmenaren kupoa betea baitago. Orduan zer gertatzen da? Pilakuntz grina amaitu? Bai zera! Hortxe dago hain zuzen pilakuntzaren funtsgabetsunaren hasiera. Orduantxe da pilakuntz grina bortitzagoa eta gupidagabeagoa. Orduantxe da pilakuntza irenskorragoa. Beste grina bat sortu da, antinaturala eta desgizakorra. Munstroa sortu da.

Oromenderrietako Urrejauna urre bihurturik erori da. Betirako urre. Hasiak egina dirudi, eginak urregorria. Nondik sartu behar zioat orain tiroa neure buru urrezko honi?

— Lezajaunaaaaa!!!

— Garaunen parean daukak zulo txo baaaaaat!!!

— Ah, bai! Ba dator etxe bete jende, drinbilin drinbalan. Pun! Berandutxo aukeran. Agur, jaunak. Ongi izan eta gutxi gastatu.

VIII

HIRUGARRENA AZKENA

Esakerak dioen bezala, hirugarren azkena. Ez dakit irabaztekoa izango den, baina bai azkena, goazen martxan. Ongi etorriak, jaun-andreok, etortzea bera ere nahiko ongitasun baita. Buruzagitza eta mahai guztia berritu behar izan dugu. Idazkaria ere eraman digute. Haren ordezkorik ez daukagu, arrapataka ibili baikara. Gaurko biltzarrea, beraz, idazkaririk gabe egin beharko dugu. Nik ere, aurrekoaren ondorengo apal honek, gure buruzagi ohi haundiaren lekua nola edo hala beteko dut, beste mahai-kide bat bateko guztiek bezala. Ez dugu zuloak betetzeko hauteskunderik egiterik izan, denok sobera dakizkizuen arrazoiengatik eta hori ere hutsa litzateke zuen artean hutsunerik nabari ez balitz. Horregatik ongi etorriak, jaun-andreok, inoiz baino ongiago esana. Giza kontzientziak asma lezakeen konspiraziorik deabruzkoenaren aurrez gaudede. Dakizuen bezala, lehen biltzarrean sikomedikuntzako talde bat ekarri genuen, Benedium doktoarearen gidaritzapean, eta bigarrean oromendikuntzako, Maledium

doktorearen gidaritzapean. Dirudienez, hauek gogorik one-
nez agindutako txertaketak eta trataerak geure teilatua-
ren kontrako harrikadak gertatu dira. Oraingoan ez dira
zoroak, lehenengoan bezala, edo desesperatuak, hurren-
goan bezala. Oraingoan denetarik izan dugu: pailazoak,
mistikoak, artistak, benturazaleak, fantasijaleak, geldie-
goezinak, geldizaleak, pobreak, eta hauxe astunena, po-
break ez direnak ere bai. Beharbada lehenengoak eta on-
dorengoak ere denetarikoak izango ziren, geu sailkatzen
saiatu ez bagina. Baina zer egin behar genuen, ba, Bene-
dium eta Maledium doktore agurgarriek argi esaten ziguten
bezala, ezagutza hurbilkorrerako ere sintomarik ematen
ez bazuten?

*Demagun gizaki bat, aberats haundi bat, milaka mi-
lioitako ondasunen jabe dela. Ondasun guzti horien
gozamen subjektiborik ba al da? Gizaki hori milaka
bider zoriontsuagoa al da? Ez, alajainkoa. Ondasun
horiek alper alperrik dauzka. Zenbat daukan ere ez
daki. Zenbakiz eta kontaduri paperetan ba daki, bai-
na ez bere baitan gozamen bihurturik. Gizakiak ez
dauka ondasun guzti horiek gozatzeko ahalmenik,
aitzitik ordea, ez da deskuido haundirik behar, abe-
ratsa juxtu samar dabilen pobrea baino dohakabeago
sentitzeko. Aberatsak ondasunak alperrik galtzen di-
tu, haien gozagarritasunik probetxatu gabe. Hala ere
nekez bururatuko zaio ondasunak uzterik. Areago
oraindik pilakuntz prozesua indartzen saiatuko da
itsuan.*

— Medikuntzatik irtenbiderik ez dagoela ikusirik, gaur-
ko biltzarrerara jakintza sail guztietako buruei dei egin die-
gu: fisikariak, kimikariak, matematikariak, izarlariak, fi-

losofilariak, artelariak, ikerlariak, gerlariak, malariak eta
beste lari guztiak, biologoak, soziologoak, teologoak, geo-
logoak, katalogoak eta beste logo guztiak, bai eta zoolo-
goak eta botanikariak ere, espezie hondagarri horrek ez
baitirudi gizakien artekoa denik ere. Mineralogorik ez dugu
ekarri, mugitzen direnak baitira, meajaunen zaleak badi-
ra ere. Hona, ba, zientzia guztia berton. Hemendik zer-
bait ateratzen ez badugu, historia guztia alper alperrik egin
dugu. Hasi hizketan, nahi duenak nahi duenari nahi due-
na galdetuz, eta ahal duenak ahal duena erantzunez.

Oromenderrietako Hiriburuko areto nagusian ez da
erreza galdetzaila-erantzule nor den kontua eramatea. Gai-
nera gehienek zutik eta eskuak gora jasorik hitz egiten dute
eta oso haundia ez bada, ez dago hizketan nor ari den
ikusterik. Beltzez jantzitako alargun errezkadak bakarrik
ikusten dira han, mahaiaren bi aldeetara, eskuinean alar-
gunak eta ezkerrean alarguntsak. Alargunak ere mordoa
dira, orain arteko estadistiketatik espero zitekeen baino
gehiago noski. Gehienek oso berriki alargundutako antza
daukate.

— Nik soziologoari galdetuko nioke ea non lekutzen
dituen gizaki horiek, gizakiak baldin badira.

— Gizakiak direla dirudi, baina ez gizartekoak, azken
egintza horretan behintzat. Portaera arras banakoa dute-
nez gero, soziologiak ez dauka nondik heldurik ez non-
dik konparantzak egin, aldez atzetik izan ezik.

— Eta aldez atzetik zer ateratzen duzue?

— Esan dudana hain zuzen. Guztiz bakar jokabideak
direla, elkarrekin inolako loturarik gabekoak, agerian
behintzat.

— Azkenean denek ere ederki jotzen dute, ba, leku
berberera!

— Hori agian berek jakingo dute, baina besteok ez dau-

kagu inola ere jakiterik.

— Orduan armadak, poliziak eta inteligentzi zerbitzuak alperrik al ditugu?

Gizakiaren gozamen ahalmenari dagokion ondasun pilatik gora pilatzen jarraitzeko une horixe da absurdorik biribilena. Grina nolabait naturalak aserik gelditzen diren une horretatik gora, grinarik zitelenak sortzen eta abiatzen dira. Gizatasunaren aztarren guztiak galdurik, basatasunaren legerik absurdoenean sartzen gara. Ez da gizakia, antigizakia baizik.

— Ez guztiz alperrik, baina pentsamenaren barne iharduna detektatzeko tresnarik ez dugun bitartean, ez da erreza horiek ezertarako balio izatea.

— Zakurraren potroak! Zer esaten nizuen nik? Ilargira eta alperreko freskura horiek hartzera joan beharrean, telepatia teknifikatzera jo bagenu, beste oilar batek joko zigan gaur. Baina zer? Inbertsio gehigarri guztia horretan sartzeko eskatzen nuenean, burutik nengoela esaten zenuen. Eta orain zer? Orain buruari heldu, ez baitakigu ondoan dagoena ere halakoxea ez den. Jaun-andreok! Ez nuke neure teorien alderako hain zirkunstantzia tristeez baliatu nahi, baina telepatiarik menderatzen ez badugu, gureak egin du.

— Orduan geure pentsamentuak ere jakingo dituzte, ordea!

— Ez dio axolarik. Gauza batzutan lotsagarri geldituko gara, baina erlatiboki irabazle aterako gara, tresnen kontrola geure esku izango baita beti.

— Hemen hori planteatzea pellokeria dela uste diat. Telepatia minimoki menderatzeko, gutxienez mende osoa

behar diagu, baliakizun guztiak hartaraxe jarririk, eta hik duela hogeita bost urte hori esan huenean, hortik jotzen hasi bagina ere, oraindik ez genian gaitz horri aurrerik harzterik izango.

— Nola dakik hori, profeta zirindu horrek? Ez zekiat zenbat denbora gabe, ilargira irixterik ere ez genian ikusten eta begira gaur hara ez ezik noraino iritxiak gauden. Hala ere arrazoa ematen diat, telepatia lantzeko denbora gutxien horixe ere falta zaigula gaur, baina horrek ez dik kentzen geure burua geuk galdu dugula, horretan arrazoa edukitzea kontsolamendu tristea bada ere.

Antinaturaren aurrez gaude. Munstroen aurrez gaude. Animaliarik nazkagarrienak baino izaki zantarragoen aurrez gaude. Une horretatik aurrera, pilakuntzaren oinarriak grinarik doilorrenak dira. Baina pilatzaileak berak eta horien indarrez eraikitako sistimak grina horiei ez die beren izenez deituko. Aurrerapena, zibilizazioa, denen ona eta horrelakoak asmatuko dizkizute, beren munstro grinaren eufemismotzat. Areago oraindik, zitalak bai, baina tentelak ez baitira, berdintasuna, zuzentasuna, askatasuna eta horrelako hitz haundiak zapalduak berek baino maizago aldarrikatuko dizkizute, berek frontalki deuseztutako balioak ez balira bezala. Munstro perfektuak, txarragoak eta munstroagoak, kaka ere ustelagoa eta kakagoa den bezala. Gizatasunaren kaka.

— Autopsietatik ez al da ezer ateratzerik izan?

— Errutinazko txostenak besterik ez. Gainera autopsi saila gutxien landurik daukaguna da. Asto hilari lastoa buztanpetik.

— Historian zehar ez al da prezedenterik ageri?

— Izan dira, bai, kamikazeak eta horrelakoak, baina gerra garaian eta galzori larrietan bakarrik. Hauek horiekin zerikusirik daukatenik ez dirudi. Gainera hauek, hala izanda ere, heriotzatik libratzeko ahaleginik batere ez dute egiten.

— Ba dira obsesoak, beren buruera, sarritan norbaitentzat fatidikoa, urteetan zehar gorde gorderik eraman eta azkenean, inork nondik ez nola ez dakiela, zart betetzen dutenak.

— Bai noski. Horrelakoak gehienez pasionalak izaten dira, baina bakanak eta konbergentziarik gabeak. Hauek, ordea, hasieran eta jarraieran hain jokaera bakarria eta deslotua eraman ondoren, azkenean helmuga eta tankera kidetasun harrigarria ematen dute. Itsuan tiraturiko misilak, bideko ez dakigu zeren eragin sorginez, azkenean jopuntu berean bilduko balira bezala.

— Zer diote gure inteligentzi zerbitzuek? Horren susmagaitzak al dira? Ala jan eta lo egiten duzue?

— Zer esatea nahi duzu, ba, jauna? Une honetan horietariko bat neu banintz, nola antzeman behar zenidake? Eta zeu bazina, nola antzeman behar genizuke?

— Ni horietarikoa? Entzun al duzue lotsagabekeria hori?

— Iso! Horrek ez dik esan ba haizela, bahintz.edo baltz, antzematerik ez legokeela baizik.

— Beraz, hementxe bertan ere horietarikoak izan litezkeela? Gainera esaten ari garen guztia entzuten, aluak?

— Hemen ez zegok horrelakorik, gizona, baina darabilgun ganoraz laster izango dituk. Zergatik ez gaituk ahalegintzen irtenbidea bilatzen?

— Nik lehenbizi zabaltzen ari garen produktu berriaren emantza eten egingo nitek. Nola zuan bera?

— Minhilpozginfina.

Aurrerapenak gozatzeko ahalmen gehiago dakarrela esan liteke. Beraz, zibilizazio aurreratuetakoa aberatsek beren gozamenaren asetzeko ondasun gehiago behar dutela. Esate baterako, haundienak izanda ere, oinez edo zaldiz ibiltzeko lurraldeek oso mugatuak izan behar, jabeak haien gainetik ibiliz gozatzeko. Hegazkina agertzean, ordea, lurralde horiek ez dira ezer. Egun erdian kontinente osoari itzulia eman dakioko. Zer zoramena aberats horrentzat, ez? Hamar mila kilometro koadratutako probintzia ez da ezer, hegazkinez ikusteko eta gozatzeko. Hegazkindunak gutxienez nazio osoa behar du.

— Horixe! Gai horrek, konponbidea beharrez, okerbide gehiago ekarri digula uste diat, medikuntza agurgarriaren barkamenez.

— Orduan lehenera berriro?

— Ez zekiat nora goazen, baina «minhilfina» edo dena delako horrekin inora ez goazela bai.

— Jaun-andreok! Desesperatzen hasia nago. Zientziaburu guztiak hemen egonik, ez al da inondik hau baino argitasun gehiago? Horretarako ari al gara, hainbeste nekez eta arriskuz, sare amaigabe hori mantentzen eta bultzatzen?

— Hago lasai, zirinkume hori! Baldin badago, atariko duk eta ez badago, oraindik ez diagu jainkoak izaten ikasi.

— A zer kontsolamendua eman didaken! Azkenean minerologoak behar ote ditiagu?

— Hara, jauna, ez naiz minerologoa, baina astronomoa naiz eta zientzia horretako berri ere zerbait ba dakit, hemen ez dagoenik haiek ere ezin dutela ekarri jakiteko aina gutxienez. Zientziak bere mugak ditu eta bere des-

kuidoak ere bai, batzutan oso haundiak gainera. Gure sailetik zuenera pasaturik, eta uzten baldin badidazue, zuek ere deskuido haundia izan duzuela esango nuke. Hemen nik behintzat ezagutzen ez dudan aurpegi asko dago. Gure aldetik bidezkoa da hori, beti laborategietan sarturik, ez baitugu elkar gehiegi ezagutzen. Baina zueri galdetuko nizueke ea hemen dauden guztiak ezagunak diren.

— Zer esan nahi diguzu, Boridium doktorea? Hemen txere ere infiltratuak egon litezkeela?

— Ez dut hori esan eta gutxiago horrelakorik sinesten. Baina zientzietatik argitasunik ez egotea nahiko argitasun da zer egin jakiteko. Jaun-andreok, nire uste apailean zientziak hemen ez dauka zereginik eta zuen buruak zeuek zaindu behar dituzue. Gaizkile horiek isolatzerik ez badago, zeuek isolatu behar dituzue zeuen buruak.

— Eta zer egin? Zerraldoan sartu eta hantxe bizi?

— Horrenbesterik ere ez, baina bai ezagun ezagunak ez direnengandik guztiz begiratu.

— Etorkizun ederra diagu oraintxe!

Baina bereak dituen lurralde mugagabe horien gainean dabilen jaun hegazkindunak benetan gozaten ote ditu bere azpiko lurrak? Zer egiten du, ba, ikusi hutsa besterik ez bada? Norbere lurrak izan gabe ere berdin egin liteke hori. Bai eta inoren hegazkinean ere. Baina «norberea» izatea ez dela berdin esango dizute. Hortxe datoz munstroaren arrazoiak. Jabetasuna gauzarik absurdoena da, ondasunen gozamenarekin batera ez bada. Alde batetik ondasun horien gozamenik ezin hartu, saturaturik baitago, eta hala ere jabetasunaz gozatu. Munstroen aurrean gauden. Ondasun gastagarriak esaten zaienekin hobeki ulertuko duzu. Janariak gastatzen edo kontsumitzen

diren ondasunak dira. Behin erabili eta berean amaitu. Janda daude. Beste ondasun batzuk nekezago gastatzen dira, autoak adibidez. Eta beste batzuk ez dira sekula gastatzen, lurra bera adibidez, pixka bat aldatzen bada ere.

— Boridium jauna zuzen dabilela uste dut —dio ma-haiburutik Oromenderrietako Jaungoaren buruzagiak—. Azken biltzarreko azken hitzetan nire aurrekoak berak hain zuzen bakoitzak arreta pertsonalik zorrotzenak hartzeko esan zigun. Begira gero bera nola harrapatu zuten. Orain arteko atentatzaile guztiak ezezagunak izan dira. Honegatik, horregatik edo besteagatik fidatu eta azkenean danba. Hemendik aurrera ezagutzen ez dugun inori ez diogu aurrera etortzen utzi behar. Inori ere ez!

— Baina hori gure jagoleek, atezainek eta laguntzailerek ere betetzen ez badute, ez diagu ezer aurreratzen.

— Ez inor onartu, nor den zihur jakin gabe.

— Eta gezurra esanda engainatzen badituzte?

— Horrena ez duk hain zaila. Ezagunak nahiz ezaguntzakoak izan, kanpo eta barru ondo arakatu beti, horretarako larrua alderantzitu behar bazaie ere.

— Orduan elkar ere arakutzen hasi behar diagu.

— Zergatik ez, ba?

— Baina norbaitekin fidatu beharko diagu, ez?

— Jaun-andreok! —berriro ere astunki buruzagiak—. Ez gaitetzen puntak ateratzen hasi. Ulertu nahi duenarentzat argi dagoela uste dut.

— Horrela ere ez diagu ezer egiten. Bere burua hiltzera doanari zer axola zioke lurpean zuloa egin eta gu gaintetik pasatu arte, golko bete dinamitaz bertan egoteko ere?

— Ez dut uste. Orain arteko kasu guztietan bakarren bila joan dira. Ekintza guztiz pertsonalak eta hauta-

tuak izan dira. Alde horretatik atentaturik garbienak izan direla aitortu beharra dago. Berek erakutsi duteneren araberaren defenditzeaz beste biderik ez daukagu.

Janarien gozagarritasuna janak izatean dago. Nazio osoko janariak zeure inguruan pilatzeak zer zentzu dauka, bizi guztian eta gehien janda ere, tonelada batzuk besterik jateko gauza ez bazara? Hortik gora janari horiek alper alperrik dituzu, inguruan ikusteak bakarrik ere poz ematen dizula esaten ez baduzu. Baina janariak ez dira ikusteko, batez ere jateko baizik eta haiek ikustea zure gozamen nagusi bilakatu baldin bada, munstro izugarria bilakatu zara.

— Eta egunen batez beste era horretara erasotzen hasiko balira?

— Orduan, jaun-andreok —dio buruzagiak hunkituki— areto honexen azpian dauden ere ez dakigu eta goazen hemendik arin. Biltzarre hau amaitutzat ematekoa delakoan nago, hemendik aurrera elkarri burua berotu besterik ez diogu egingo eta. Ondo joan eta esanera denok. Hemendik aurrera ezezagunik inor ere ez, eta ezezagunik hurreratzeko arriskurik den inon ez ibili. Inor ere ez eta inon ere ez!

— Orduan dauzkan lagunak hiltzen zaizkionak bere buruarekin bakarrik bizi behar al du?

— Hor konpon! Betetzen ez duenak berak igarriko dio.

IX

ITXASJAUNA

— Zuk aina sentitzen dut hau egin beharra, jauna, baina ez ezaiozu alperreko bueltarik eman, oso denbora gutxi daukagu eta.

— Mundua aldatzen ari gara, inoiz baino hobekiago bizi izateko aukera eman dizuegu. Zergatik egiten diguzue hau?

— Nik ez dakit beste inoren berririk, jauna. Ni neure buruarekin nabil eta orain zurekin. Ez dut besterik inor ezagutzen.

Oromenderrietako Itxasjauna esaten diotenak gutxien sinesten duena da nola nire muturretara etorri den, ez bainaiz ni joan, bera etorri baizik. Pazientzia pixka bat hartu eta zain egotea besterik ez da izan. Ba nenkien etorriko zela eta etorri ez balitz, itxaron egingo nion eta, hala ere etorri ez balitz, berarentzat suertea, baina destinoa zelatan jartzen denean, oso zaila da hari ihes egitea, a-rre-ta per-tso-na-lik zo-rro-tze-nak hartuta ere.

Bihar etzi zer izango den inork ez dakiela eta etorkizuna segurtatzea ere nahiko ulergarri da, naturazko grina hutsez. Baina zenbat pilatu behar duzu, zeure bizitza, premia eta gozamen mugatu hori garantizatzeke? Oso lasai ibiltzeko moduan, kontuak oso goitik ateratzea ere ulertzekoa da. Baina zenbat hala ere? Janariekin argiago ikusten den gauza berbera gertatzen da beste ondasun guztiekin ere. Ondasun bakoitzak bere gozagarritasun objetiboa dauka, bere potentzial gozagarri jakina darama. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, batzuk premia batzutarako, beste batzuk beste batzutarako, batzuk berehala gastatzekoak, beste batzuk oso iraunkorrak. Baina, nolabait esateko, denek daukate halako baliagarritasun jakin bat, aldagarria segun zer balio ematen zaion, baina muga batetik behera beti. Baliagarritasun hori, segun non eta norentzat, erlatiboa izan arren, hutsetik hurbil maiz gerta liteke, baina inoiz ere ez da mugagabea izango.

— Geldi, jauna! Hobe duzu lasai egotea, lehenago joaterik nahi ez baduzu.

— Jakin al nezake zergatik hil behar dudan? Itxasuntziak ditudalako? Hori al da hogen?

— Zenbat eta nolakoak, ordea? Oromenderrietako untzitalderik gehiena zure esku omen dago. Ba al dakizu hori zer den? Untzirik merkeenetariko batek milaka milioi balio omen ditu eta zuk, paseatzeko bakarrik, dozena batetik gora omen daukazu. Ba al dakizu hori zer den?

— Hori al da nire hogen guztia?

— Ez, jauna. Zuk ez daukazu hogenik, zuk ordaintzeko modua daukazu eta nork ordainduko du, ba, daukanak ez bada?

— Zer da ordaindu behar dudana? Edozer ordaintzeko prest nago.

— Oromenderrietar jator guztien sufrimenduak ordaindu behar dituzu. Batzurenak ordaintzerik ez dago, hilak baitira. Mendez mendez hilak eta ahaztuak ere bai, sekula ez baitzen inor haietaz oroitu.

— Zer zerikusi daukat nik...?

— Isi eta iso! Orain neu nago hizketan!

Eman dezagun koadru eder bat, mendez mendez kontserbatzeko balio duena. Haren balio artistikoa, bai eta gozamena ere, begietatik sartzen dena da. Zertarako dituzu munduko koadru eder guztiak, begiratzeko astirik ez baduzu? Edo oso noizbehinka bakarrik begiratzetik baduzu? Koadru horien baliagarritasuna alper alperrekoa zaizu eta gainera beste begientzat ere blokeiatuak daukazu. Zein izan liteke zure gozamena? Jabetasuna bakarrik. Zer gozamen ematen dizu jabetasunak? Anbizioaren, haundikeriaren edo horrelako zitalkeriaren baten asekontza, aitortu nahi ez baduzu ere. Eta beharbada eta batez ere besteen gozamena eragotzi. Ez zeuk gozatu ez inori gozatzen utzi. Hitz batez, besteei gozamena lapurtzeaz gozatu. Hori baino gaiztakeria handiagorik asmatzerik ez dago.

— Orain neureak entzuteko garaia duzu, jauna. Oromenderrietan asko dira lana, izerdia, odola eta bizia ere ematen ari direnak. Zertarako? Zuzentasun pixka bat gehiago izateko. Askatasun pixka bat gehiago ikusteko. Zalpalkuntzari basakeria pixka bat kentzeko. Zer egiten dute jende gaizo horiek? Askok sufritu eta gutxi ikusi. Hortxe dabilta bihotzik garbienak, bururik zintzoenak, gizaku-

merik gizazkoenak. Oromenderrietak eta Oromenderrietarrek zenbat sufritzen duten ezin sufriturik, sufrimendu haundiagoetara sartu dira, bihotzik onenak direlako. Halako bihotzondo sakonekoak izanik, neurri gabeko pazientzia daukate. Azkenean sufritzea normalizat harturik dabilta, sufrituko ez balute, gizaki ezduinak liratekeela pentsatzeraino. Jaiotzen dira eta, naturaren sentikortasun apurrik baldin badakarte, han eta hemen belarrondokoak hartuz hazten dira. Ez die begiratzen ez nekeari, ez goseari, ez lanari, ez espetxeari, ez eta fusilamenduari ere. Historia ikasten hasten dira eta dena gerra zitara eta esplotazio gupidagabea dela aurkitzen dute. Urte batzuk iragandakoan, halako masakreak eta triskantza masiboak bakarrik gelditzen zaizkizu idatzita. Historiara pasatzeko, deskalabru haundiak izan behar dute eta, halaxe ere, liburuak eta liburuak betetzen dituzte. Ematen al diozu antzik? Gizatasunaren alde han eta hemen, sail batean eta bestean, saiatsen diren guztien sufrimendu guztiak batera biltzerik balitz, eguerdiko eguzki tropikalak ere atzeruntz egingo luke, izaturik. Guzti hori gutxi delarik, leku bakoitzean bertakoaz ezin aserik, hemengo sufrimenduak hara eta hangoak hona eramanez ahalegin guztiak eta aurrerapen guztiak egiten dituzte. Egiten dituzue. Horixe da zure untzien dohaia, arrain errugabeak ere erretzeraino. Ba zen noizbait sufrimendu guzti horien ordaina ikusteko garaia!

Pilakuntza zerbait ulergarri litekeen muga barruetan ere ba liteke zitalkeriak gertatzea, berdintasuna eta justizia hautsirik. Esate baterako, neure gosea normala asetzeko, neu baino askoz goseago den lagunari ogia kentzea ez da gizontasun haundia izango. Gosea kentzeko ez ezik, pixka bat jolasteko eskubidea ere

ba dugu, baina beste jostailurik ez dudalako, ogiarekin futboleko jokatzeko ez da gizalege ederra, laguna ondoan gosez baldin badago. Gizaki batek, beraz, bere gozatzeko ahalmen barruan ere bidegabekeria haundiak egin ditzake inoren bizkarretik eta besteak kontuan ez edukitzeagatik. Baina, okerrean ere, berak pertsonalki zerbait gozaten baldin bada, zerbait zoriontsuago baldin bada, zerbait naturala egitea lortzen du behintzat.

Injustiziaren hesiak ere hautsirik, munstrotasunaren izaera sorrerazten duena bestea da, alegia, utilitate pertsonaletik gora ere pilatzen jarraitzea. Eta sinestea zaila bada ere, pilakuntzaren motore nagusiak eremu absurdo horretantxe dabilta.

— Ni ere zerbait sufrimendua naiz, jauna, baina zer da bakkarraren sufrimendua, izugarriena bada ere, milaka eta milioika gizakume burrukarien sufrimenduen ondoan? Oraindik neurez gehiago sufrimendua ahal dut, baina ezin dut inguruko hainbeste sufrimendua jasan. Bihotzeko zainak bete zaizkit, arima lehertu zait eta zuregan nator. Buru nator, bien bitarteko azpijokoak eta matrakak gehiago sufri erazteko baizik balio ez dutenak, albora utzirik. Zure untziak Oromenderrietar zintzoen malko gainean dabilta iheri. Horrexegatik da itxaso hain gazia. Zergatik uste zenuen, ba? Itxasjauna gainetik kendu dutela entzutean, arrainek ere arnasa hartuko dute, gehienak azaleratzeko bildurrez itotzen baitira. Horixe da zure ordaindu behar duzuna, ez niri, Oromenderrieta guztiari baizik, eta ez gaurko Oromenderrietari, mende guztietakoari baizik. Historiak azkena jo du. Aurreruntzean liburu horriak zuri egongo dira, bakoitzak bere historia idatz dezan, gogorik baldin bada.

Inolako zurigarririk izan ez dadin, azken adibide bat jarriko dizut. Jo dezagun, asko jota, gizaki batek mila milioiren balioa osoki gozatzeko ahalmena daukala. Bakarra daukanak bakar hari gozamen gehiago atera lezaiokeela ba dakigu, mila dituenak milioi bakoitzari atera lezaiokeena baino. Jo behar diren erlatibotasun guztiak jota ari natzaizu. Horregatik gizaki baten gozamenaren goia mila milioi direla jo dezagun. Horrekin saturaturik dago. Zertarako izan lezake mila eta batgarren milioia? Kitarra eder bat erosteko, adibidez? Aurreko milioiekin ez al zeukan, ba, kitarra hori erosteko lain? Eman dezagun, hala ere, kitarra berriak gozamen berria eta egizkoa ematen diola. Baina aurreko milioiekin zeukan kitararak edo beste ondasunen batek arreta edo utilitatea galdu behar nahitaez. Azkenengo eresketa baliagarri baldin bada, aurreko zerbait alperrik galduko zen. Horra hain zuzen asko daukatenen gehiago eduki nahiaren bizio zitala. Daukatinari gozamen gehigarririk atera ezin diotelako, ondasun berrien bila dabilta eta hauek ere ez baitiete gozamenik emango, berrien bila jarraitu behar, grinarik zentzugabeenaren abiada geldiezinean.

— Hauxe da zure testamentua, Itxasjaun agurgarria, eta destinoari eskerrak emaikiozu, zure heriotzari zentzurik ederrena eman diolako. Oromenderrietak ez du gehiago sufrituko, zuregatik behintzat, niregatik pena pixka bat hartuko du baina. Zu aurretik eta ni atzetik. Goazen.

OIHALJAUNA

— Itxasjaunak ez al zian, ba, sufrimendu horiengatik ordaindu?

— Ah, Oihaljaun agurgarria, zeure lagunak animaliarik finenen larruz eta zeure burua gizakien larruz jazten duzun jaun oromundutarra! Jaunik jaunena izanik ere, bakarrak ordaintzeko baino sufrimendu gehiago eragin duzue, eta zuri ez zaizu parterik txikiena tokatzen. Burrukatzeke adorerik ez dutenen sufrimendua dagokizu zuri. Ba al dakizu zenbat diren horiek? Eta nolakoak! Bihotz onekoak, zure oihaletan sekula babesten ez direnak, mundua ondu nahiez sufritzen dutenak, baina horretarako adorerik ez daukatelako, askoz gehiago sufritzen dutenak. Hala bizitza guztia gauza haundirik egin gabe joaten zaie gaizoei, ezer ez dutela egiten jakinik, gero eta tristura sakonagoan murgilduak eta beren buruekin konplexatuak. Gizakiak, jauna, gizaki ahulak beste guztiak bezala, baina besteek baino sentikortasun finagokoak izateko zoritxarrez jaioak. Gutxiene da zu gizaki larruz jaztea, Oihaljaun hilurra.

Larrua kendu eta bildurra jarri diguzu soinekotzat. Hezurak hustu eta ikara sartu diguzu muintzat. Birikak transformatu eta airetzat izua sartu diguzu. Nola lortu duzu natura ere alderantzitzeko mirari harrigarri hori?

Planteiamendu guztiok indibidualistak direla esango dizute agian, eta hain zuzen izaki deformatu horiexen ahotik entzungo duzu errepika hori. Nola gintezke gizaki bakarrari buruz mintza, izaki elkarkoia izanik? Ez al duk ikusten senar-emazteek, seme-alabek, gurasoek eta abarrek ez diotela beren buruari bakarrrik begiratu behar? Bai, gizona! Hemen bakarrarengatik esana behar diren guztiez bider liteke. Horrek ez du teoriarik aldatzen, biderketa jakinez gero. Mila milioik bakarrarentzat ez ezik, familia osoarentzat ere ederki emango lukete. Hala ere gogoan edukitzekoa da munstro haundi horiek gehienean beren buruari begiratzen diotela, eta begiratzen ez badiote ere, beren baitako grinena eta degenerazioaren arabera jokatzeko dute, ez noski altruismoz.

— Horrela, jauna, Oromenderrietarrak beren burua arrastatu ezinik dabilta, altxatzeko adorerik ez daukate-lako, lurrean beren herkide jokatzaileen odol arrastoak eta hilen oroimenak mihizkatuz. Eta ezin ezer egin. Gai-
zoak! Arimaren lekuan bildur sorkailu bana sartu diezu zure asmoetara gogoz makurtzeko baino bihotz gehiago dutenei, eta bildur sorkailu horrexekin makur erazten dituzu, berak ere ohartzen direlarik gaizoak, eta horrek beren lehengo sufrimenduari saldukeri sentimendua ezartzen dio eta beren burua golkoan gorde ezinik joaten zaie bizia, golko horretan katetik solte dabilen zakurtzar izugarriari ihes egin ezinik. Nora ihes egin, ordea, beren golkoa

baita? Horrela zakurtzarrak haginak erakutsi hutsez bereganatzen du gizakia, izua kikilgarri baita, baina golko barruan dago eta ezin hartatik libratu, arima lehertu ezik, baina ez dago arima lehertzerik ere, izuak jana baitu, eta zakurtzarra lo dagoenean, orduan eta bildur gehiago daukate gaizoez, itzartuko ote den. Su gaintetik globoan bezala. Zenbat eutsi behar dio globo gaizoak suaren hurbiltasunari?

Hona orain azken absurdorik haundiena. Aberatsak, daukaten guztia gozatzeko ahalmenik ez dutela emanik ere, gutxienez zoriontsuenak direla pentsa genezake. Beren gozamena saturatzeko baino ondasun gehiago baldin badaukate, gozamen hori behintzat segurtaturik behar lukete, ez? Zertarako ari dira bestela hainbeste ondasun pilatzen?

Horra, ordea, aberatsak gehienean gizakirik miserableenak, erretenak, eta esnerik txarrekoenak direla. Ez dakite poza zer den eta gutxiago ilusioa. Ez dakite ez aspertzeko eta beren buruekin ez higuintzeko zer egin. Norbaitzuek esango dute gizakien zoriona ez dagoela ondasunen gorabeheran, baizik eta batez ere... eta mila teoria orain, izpiritua ehun mila bider aipatuz, zer den ganoraz sekula azaldu gabe baina. Ez dago zorionaren teorietara jo beharrik. Degenerazioak ez dauka zoriontsu izaterik eta kito. Hortxe amaitzen dira berriketak. Natur legeen barruan ere zoriontsu izaten lanak baldin badaude, esaidazue naturaz kontrako degenerazioak nondik atera behar duen zorionik.

— Burrukalariena baino askoz zabalagoa eta sakonagoa den sufrimendu horrek alderdi bat dauka tristeena,

hots, alper alperrekoa dela. Hain sufrimendu despotikoa eta ezertarako ere ez, bere buruaren ezereza nabarmenagotzeko izan ezik. Zergatik ez duzue, jauna, sentimena ere ebakitzen? Arima erauzten duzue eta zainak eta nerbioak martxan utzi bertan. Horixe da bildurra, eritasunik hilgarriena, hil gabe ere harrek jatearen mina senti erazten duena. Horixe da zure oroahaltasuna eta zure ahalguztia. Ez ezazu txistik egin, jauna, eta zaude geldi zauden lekuan, zuk orain sentitzen duzuna jaiotzatik heriotzara arte arrastatuz bizi baikara. Ez ezaidazu zer sentitzen duzun esan, neuk sentitzen nuenari buelta emanda sobera jakinean bainago. Neu ere gizaki ahul horietarikoa izan nauzu, jauna, baina ez dakit nondik eta nola, une batez neure arima berreskuratut dut eta burura nator, ene golkoan jaun eta jabe zebilen zakurtzarrarengana.

Zer gertatzen da pilakuntza basaki hori jasaten dutenen sail gehiengozkoan? Orain arte giza eboluzioaren eta giza historiaren eragile nagusiaz ahazturik gabiltzala dirudi, faktorerik garrantzitsuena bera izanik. Zer gertatzen da zapalkuntzari eta pilakuntzari aurrea eman dieten beste indarrekin? Zer gertatzen da, hitz batez, berdintasunaren aldeko burruka etengabe guzti horrekin? Berdintasuna esatean, sar itzazu bertan askatasuna, justizia eta beste hitz eder guztiak. Lehenbizi berdintasuna desberdintasunaren kontraindar bezala sortzen da. Kontzientziaren lehenengo lan automatikoa desberdintasuna da. Gero, oso gero, berdintasunaren errebindikazioa dator kontzientzia landuagoaren aldetik. Desberdintasunik izan ez baltz, inori ez zitzaion berdintasunik planteiatzerik bururatuko, gaur hankabikotasunik eskatzerik inork pentsatzen ez duen bezala. Batzuri hanka bat ken-

du eta beste batzuk hiru hankaz hasiko balira, orduan hankabikotasuna ere oinarritzko eskubideetarikoa bat izango litzateke. Beharbada gizakia lau hankatatik bi hankatara pasatzeko garai luze hartan tirabira gogorak izango ziren hori zela eta. Batzuek, aurrerazaleek, hankabitasuna errebindikatuko zuten, atzerazaleek lauhankatasunari eusten ziotelarik. Baina konflikturik sortu ezik, errebindikaziorik ere ez dago, desorekarik ez bada, orekaren beharrik planteiatzerik ez dagoen bezala.

— Zure historia ere amaitu da, jauna, orain arteko historia guztia zeuk amaierazi duzu baina. Hauxe da zure azkenena, gizaki gaiztoek zuhaitz hostoz jazten hasi zirenetik itxaroten zutena. Kostatu da, baina horrexegatik izango da azkenagoa. Martxan utziak zenituen zain eta nerbio puntak bat egin dute eta hortixek sortu da txinpartada, mendeen sorburutik eta gizakien golko hondotik zure burura datorren oinaztua. Horixe da nire arima eta horixe nauzu ni orain. Gehiago ez duzu gizakirik larrutuko. Ez ezaidazu zure hogena zein den galdetu, Oromenderrieta guztiak baitaki. Ez badakite ere, sentituko dute. Golkoa hutsik gelditu zaiela sentituko dute. Lehenbizi ito egin behar dutela pentsatuko dute, arnasarik eza delakoan. Baina ez direla itotzen ikustean, golkoa ikusmiratzen hasiko dira eta ez dute lekua besterik aurkituko. Leku zabala eta lasaia. Non da zakurtzarra? Orduan are gehiago bildurtuko dira, tranparik izugarriena delakoan. Zakurrari deika hasiko dira, mesedez itzultzeko. Zakurrari deika bildurraren bildurrez. Horixe izango da bildurrik haundiena, baina azkenengoa, Oromenderrietako Oihaljauna betiko zuloan dela entzuten dutenean. Horiek ba dakite zure hogena zein den. Galdetzen badidazu ere, ez dizut esango,

izaturik hil ez zaitez. Ez! Neure izuak hil behar zaitu, ez izu eraso soilak, mendez mende arimaturik dakardan izu etengabeak baizik. Orain, jauna, esan edo galde nahi duzuna.

Noiz hasi ote zen gizaki naturaz pilatzailea berdintasunaz ohartzen? Pilakuntza edo desberdintasuna oso ondo finkaturik zegoenean segur asko. Eta ez pilakuntza bakarrik, horren oinarri ideologikoa eta sentimentala ere finkaturik zegoenean baizik. Berdintasunaren oharmenak defenditzen hastea eta ikastea esan nahi du. Baina defentsa-erasoen tirabiran erasoaren nagusigo funtsezkoa ikusia dugunez gero, lehen gizakia berdintasunaren alde burrukan hasi ordurako, makina bat denbora joango zen. Pilakuntza egoera normalizat ikustetik hura iraultzeko aina kontzientzia hartzera, zenbat mende iragan ote ziren? Berdintasuna desberdintasunaren aurkako erantzuna baldin bada, leku onean zeudek hasierako parabisu zoriontsuak!

Oromenderrietako Oihaljaunari azken aldion Larrujauna esaten hasiak ginen, larrugintza edo larruzko soinekogintza zela bide. Larru fin samarreko animaliarik ez zuen bizirik uzten, zoologoak ere izutzeraino. Naturak larru arruntez jantzi zituenak pozik egon litezke. Larrujaunak larrutzea ere adierazten zuen eta, nola ez, larru jotzea ere bai, Oihaljaunak hain ederki zekiena. Baina oraindik ofizialki eta jendearen golkorako, Oihaljauna da bildurrik gehien sartzen duen izena, laster ez du sartuko baina.

— Ez al daukazu ezer esatekorik, jauna?

— Heuk esan dituk guztiak.

— Oraindik behinena falta zait.

— Zer?

— Ordua dela. Goazen. Zu aurretik eta ni atzetik.

— Hi ez haiz etorriko.

— Horixe nahi zenuke zuk, han ere negozioan jarraitzeko, baina ba noa, bai, nor doan jakin dezaten ere.

SENDAJAUNA

— Beste sufrimendu bat falta da, jauna. Hain haundia eta anizkoitza baita izan ere sufrimenduaren eremua! Zuk jakin behar zenuke. Zure negozioa ez al da, ba, sufrimenduak kentzea? Minak kentzea, hobeki esanda. Ba duzu zenbat min hainbat sendagai. Hauxe ere alderantziz hobeki beharbada. Zenbat sendagai hainbat min. Gure mundu izorratuan bestela ere nahiko min izanik, zuk berriak sorrerazi dituzu, zeure sendagaiak saltzeko. Sendajauna esaten dizute, sendatzetik baino jaunetik gehiago daukazula jakinik.

Berdintasunaren aldeko burruka hasi zenetik, hori ote zen historiaren eragile nagusia? Gauza bat da zapalduak sailik garrantzitsuena, bai eta duinena ere, direla esatea eta beste bat sailik indartsuena direla sinestea. Horrela balitz, ez zen zapalkuntzarik izango. Herrien burruka gogoak historia aurrera erazi duela eta horiek gauza politak dira, baina ez dago

sinesterik, historia bera lekuko dela. Zapalkuntzarik ez da inoiz inon menderatua izan. Beste gauza bat da zapalkuntzaren barruan ere, historia hobetuz ala okertuz doan. Duela ehun mila urte ala gaur ote gaude hobeki? Teknikaren aurrerakuntzak historiari aldakuntza haundiak ekarri badizkio ere, aurrerakuntza eta hobekuntza ez dira gauza bera. Gaur hobeki gaudela esateko, orduan baino gutxiago sufritzen dugula frogatu beharko litzateke, edo, sufrimendua eta zoriona korrelatiboak direnez gero, ea orduan baino gaur poz gehiago daukagun. Zer deritzazu?

— Gizakirik gehienen sufrimendua itsua da, ez nondik ez norarik gabea. Sufritzen bizi dira, jauna, zergatik ez dakitela. Gehienek Lezajaunarengandik datorrela uste dute, horrekin zerbait leungarririk balute bezala. Beste batzuek geroko balio izango ote duen itxaropentxoak daukate, horrek ere zama zerbait arintzen diela, zerbaitekin poztu behar baita. Baina egia esateko, zergatik sufritzen duten ez dakite garbi. Ez daukate astirik, edo ez daukate argirik, edo ez daukate ahalik, zergatik bizitzako eginkizun nagusia sufritzea den jakiteko. Sufritzeko jaio zirela etsita daude, naturatik harako destino bueltagabez. Ez daude, ordea, etsita ez ezer, ezin baitute pentsatu. Behera markutuegi daude, goseak, ezinak edo nondik datorkien ez dakiten zamak tiraturik. Jartzen zaien zama guztia eramaten duten zamariak. Baina ez sentitu gabe. Ez sufritu gabe. Zergatik sufritzen duten galdetzen badiezu, begiak zabal zabal irekitzen dizkizute, zergatik umeak egiten dituzten galdetuko bazenie bezala. Non daukaten min galdetzen badiezu, eskuak haztamuka bezala botatzen dizkizute, mina barruan ez, baina nonbait kanpoan balute

bezala. Mina barruan egoten dela esaten badiezu, orduan gorputz osoari begirutzen diote eta ez dute inon aurkitzen, berehalaxe min daukatela esateko. Non baina? Ah! Mina non dagoen eta sufrimendua nondik datorren galdetzea alperrik da. Ba al dakizu, Sendajaun agurgarria, minaren indeterminazio horrek nolako negozioa ekarri dizun? Zuri dagokizu min guzti horiek dituztenen sufrimenduak ordaintzea. Ez da gauza bera mina eta sufrimendua. Minak sendatzen ahalegindu zarela diozu, baina apenas gauza haundirik lortu duzun, munduan asma zitekeen negozio-rik zihurrena jarri baduzu ere. Ea orain sufrimendua bera sendatzen duzun. Sufritzen duten ere ohartu gabe sufritzen ari diren Oromenderrietarren sufrimendu betikoa. Nola ohartuko dira, ba, sekula ez baitira hortik kanpora aurkitu?

Duela ehun mila urte ere itxaropenaren kontzeptua edo gutxienez bibentzia izango zuten. Orduan itxaropena predikatzen zuenak eta hartatik bizi zenak (idealistarik gehienek bezala), handik ehun mila urtetara itxaroten zuen hura gaurko egoerara etorriko zela jakin izan balu, jarraituko ote zuen itxaropenari eusten? Ehun mila urtetako burrukak merezi zuela aterako ote zuen, hogeigarren mendeko egoerara irixteko? Edo bestela zenbat mila urte behar dira, itxaropena galtzeko? Gauzak hotzean ikusirik, beharbada gaurko zibilizaziorik aurreratuenetan baino baikortasun gutxiagorik ez da sekula izan, mundua hobetzeko benetako ahaleginak egiten dituztenengan behintzat. Zer gertatzen da, ba? Ez dagoela argi duela ehun mila urte baino egoera gizakorra goan gauden. Hain argi ez badago, askorik aurreratu ez den seinalea.

Beste alde batetik berriz gizateriaren deuseztapena ez da inoiz gaur bezain hurbil ikusi. Munduaren azkenen lehenagokoek ere sinesten zuten eta ia beti sinestua izan da, baina kanpoko faktoreek eragina: aldeko edo aurkako jainkoek. Orain, ordea, mundua desegiteko ez da kanpotarrik behar. Gizakia bera da aski eta sobera. Honelako bibentziarik ez da sekula izan eta, gauzak honela badoaz, pentsa hemendik mila urtetara zer izango den, aurretik dena akabatu ez bada. Zer dira mila urte gizateriaren historian?

— Etsita dagoenak lehenago beste zerbait uste zuela eta horretatik etsi duela esan nahi du. Baina hauek ez dade etsita, jauna, sekula ez baitute besterik sinetsi. Negar egin, negarrari eutsi, zerbait jan, umeak egin, miseria apaindu, barre egin, animaliak jainkotu, denbora pasatu eta hil, norentzat lan egiten duten ez dakitela. Horien guztien sufrimendua ordaindu behar duzu zuk, jauna, behin betirako. Berek ez dizute agian estimatuko. Zama arindu zaiela igarriko dute, baina ez dute zergatik jakingo, zergatik zeukaten ere ez zekiten bezala. Geroago beharbada zerbaitez konturatuko dira, arintasunak pentsatzeko astia eta gogoa emanik. Baina nik ba dakit, eta zuk ere bai, horien sufrimenduak ere ordaina eskatzen duela, berek eskatzen ez badute ere. Nondik jaundu zara ba, zu, ezeskatzeko ezjakite horretatixe izan ezik? Nori sartu dizkiozu zeure milaka sendagai toneladak, sufrimenduen sendabide izango zelakoan, ez zeuzkaten minentzat zerbait eskatzen zizuten horiexei izan ezik? Eta gero, benetako minik zeukate-nean, zure negozioa puztu eta bidertu egiten zen, merkatu etengabe objetiboa zeukala ikusirik. Eta horra, ez zenaz eta ba zenaz, Oromenderrietako jaunik ahaltzuena egina.

Beste alde batetik zibilizazio aurreratuek ondasunak gehitu dituzte, baina bai deferentziak ere, eta horixe zela ikusten genuen sufrimenduaren erreferentzia nagusietariko bat. Diferentziak alde batera utzirik ere, gaur dauzkagun ondasun ugariok duela ehun mila urtetakoei ondasun apur haiek ematen zieten baino zorion gehiago ematen ote digute? Gizarte aurrera-tuetan, gehien sufritzen ez bada ere, ez ote dira bertan gehien aspertzen eta ilusiorik gutxien sentitzen? Ez dizut ez baietarik ez ezetik esango, baina galde-ra hauek eta aurrekoak eta beste batzuk egiteko motiboa egotea ez da gutxi, hainbeste mende pasatu eta gero.

Pilakuntzak ere ez duela guztiz agintzen esan liteke, baina hori ez da ezeren arrazoi. Zer izango litzateke, ba, pilakuntzak guztiz agintzea? Galderak ez dauka zentzurik. Auzia ez da pilakuntzak gehiago ala gutxiago agintzea, ez esistitzea baizik. Hala ere, orain arte bera izan da giza esistentziaren faktore nagusia. Kontuak atera! Gainera pilakuntzak ezin du gutxi agindu. Definizioz asko agindu behar du ala ez da pilakuntza. Pilakuntzak nahitaez haundia eta gogorra izan behar du beti. Dinosaurioak bolumen txikiagora egokitzerik ez dauka. Hil egin behar du.

— Baina iritxi zaizu, jauna, denak batera ordaintzeko ordua. Zure azkena sufrimenduaren sorreran bertan programaturik zegoen. Luzea izan da dispositiboa, baina noizbait zart egin behar zuen eta hemen gaude, jauna. Oromenderrietan gaur eguraldiari ere arras ezberdina eritzi-ko diote, egun trumoiatsu leherkor horiek arintzean, hegaziak birunda eroetan eta animaliak ipurdiz gora jauz-

kari abiatzen diren bezala. Batzuk izarrak kontatzen hasiko dira eta harriturik geldituko dira, hainbeste izar zegoenik sekula ez baitziren ohartu. Beste batzuk eseri egingo dira, orain eserita egoteko ere astia daukatela eta. Hau duk marka! Arintzean eseri eta zamarekin ibili! Beste batzuk sendagai guztiak bildu eta entregatu egingo dituzte, orain ondo daudela esanez. Beste batzuk, beste batzuk, beste batzuk...

Gehien ezagutzen dugun historian, teoriarik eta erlijiorik ederrenak sortu diren azken mila batzuk urteotan, pilakuntzaren koalitate guzti horiek bete dira eta gaur ere betetzen ari dira. Zer zentzu dauka gehitxoago ala gutxitxoago ote den diferentzia azalez buruak apurtzen hasteak? Ez dakit zein den okerragoa, lehoia ala minbizia, eta bietatik zeinen hatzaparretan erortzea nahiago nukeen galdetuko balidate, ez dakit zer erantzungo nukeen. Nik dakidana da milaka urtetan mundua honainoxe iritxi dela eta, egia esan behar bada, ez da batere egoera bikaina, begiratzen zaion aldetik begiratzen zaiola. Zerbait gogorra huts egiten ari da edo bestela honek ez dauka konponbiderik.

— Beste batzuek zer egingo duten ez dakit, baina zuk eta nik zer egin behar dugun ba dakit. Oromenderrietako Sendajauna, hauxe da zure azkena, baina egon lasai. Ez zaude bakarrik. Neu ere hementxe nago. Zure azken gogotzat norbaiti zerbait idatzita utzi nahi badiozu, hor daukazu papera eta luma.

— Zer ipiniko diat, ba?

— Nahi al duzu neuk idaztea?

— Ipin ezak hauxe: «Maite zaituztet. Agur!».

— Baina hori inork ez dizu sinestuko.

— Ez al duk eguraldia arinduko duela esan? Joana bainaiz, sinestuko dute.

— Ah! Horrela bai sinestuko dizute. Batez ere ni atzetik joanda. Goazen!

Konponbide gradualak gehienez ere konponbide azalekoak eta azkenean hutsak baldin badira, ba al da konponbide funtsezkorik? Ba al da itxaropenari eusten jarraitzeko oinarririk, eta ez bizitza labur bat engainatzeko bakarrik? Zeren itxaropena, itxaropen izatetik pasatzen ez bada, hutsa da. Ederra, baina engainua. Hainbeste mendetan gizateriak itxaropenari alperrik eutsi baldin badio, zenbat gehiago itxaron behar dugu? Oraindik itxaroten jarraitu behar al dugu? Baietz esango dizut, baina ez hainbeste mende horietan izan diren oinarrietan. Oinarri horietatik, izan litezkeen modurik ederrenak eta errozkoe-nak jorik ere, zer datorren ikusteko aina denbora pasatu da. Itxaropen zaharra hila da. Berririk izango bada, oinarriak ere berriak behar dira. Itxaropen berriaren oinarri bakarra kontzientziaren leherkunda da, kontzientziaren sorrera bera bezain gertaera haundia, edo askoz haundiagoa. Kontzientziaren sorrera ezagutu zuten gizakiak ia oharkabez iragan ziren gizatasunera, mendeen eta mendeen eboluzio pausatuz eta sumagaitzez. Gizaki baten bizitza laburrean bakoitzak apenas ezer igarriko zuen. Gaua eguntzen egiten duen ordu erdia edo ordubetea mila urtetara luzatuko balitz bezala. Nola igarri aldutzen ari den ere, hain bizitza laburrean gainera?

AUTOJAUNA

— Zorionak, Autojauna! Zuri ederrena tokatu zaizu. Zure aurrekoek lan tristea izan dute: Oromenderrietako sufrimendua ordaindu. Zuri ez. Zuri poza tokatu zaizu. Oromenderrieta guztia poztea. Ez al da destino zoragarria?

— Noiztik izan duk hiltzea destino zoragarria?

— Ez da sekula izan, baina zeuk estrainatu behar duzu. Oromenderrietako jaunik zoritsuena izatea tokatu zaizu.

— Jakin al zezakeat zein den nire zoriaren edertasun hori?

— Ah, jauna! Oromenderrietako txanpan botilak kor-txoari eutsi ezinik daude. Txanpanik ez den etxeetan botila ardoak eta ardorik ez den etxeetan irribelarrak egosten ari dira, haien lurruna elkarri opatzeko. Pentsatzea bakarrik ere zer poztasun eutsiezinez leihoak ireki beharko dituzten, ez baitira beren inguruan kabituko!

Kontzientziaren sorrera, beraz, inkontzientea izan

zen, kontraesana badirudi ere. Kontzientziaren ohar-
men subjeto osora iritxi orduko, gizateria mendeak
egina zen lurlean hara eta hona. Pilakuntzaren oina-
rriak kontzientziaren lehen haro inkontzientean so-
bera finkatuak ziren. Berdintasuna eta horrelako
errebindikazioak kontzientzia ohartuaren garaian ha-
si ziren. Haro haundia eta ederra benetan, baina bai
lazgarria ere, ohartzeko horrek sufrimendua ere gehi-
tu baitzuen. Oharkabetasuna sufrimenduaren hilgarri
da. Bi haro horiek funtsean haro bakarria besterik
ez dira. Oraindik kontzientziaren sorreran gaude,
kontzientzia sortutik kontzientzia ohartura gehienez
ere pasatu garelarik. Orain kontzientzia ohartutik
kontzientzia lehertura pasatu beharra daukagu, inon-
dik ahal baldin bada. Bestela haro berean jarraitu
beharko sekulorun sekulotan, naturak kontzientziaz
kanpoko eskusartze errozkoren bat egiten ez badigu.

— Jende miserableak bakarrik senti zezakeate hori.

— Zaude isilik neuk amaitu arte, destinoa aurreratze-
rik nahi ez baduzu. Bai, alajaina! Miserableak bakarrik.
Ba al dakizu zenbat gizakume miserable daukazu Oromenderrietan? Denak miserian. Gehienak miseria fisikoan
eta besteak miseria moralean. Beren burua miseria horie-
tatik kanpora jotzen dutenek ere hainbeste minduko di-
renik ez uste. Zuetariko bat hiltzean, hitz haundiak eta
teatro haundiagoak izaten dira, baina inor gutxi ikusten
da negarrez, zeuen kideak maitatzeko ere ez baitaukazue
bihotzik. Hor konpon, hala ere, zure lagunak. Hildakoan
ikusiko duzu zenbat lagun zenuen. Baina beste guztiak?
Zer poza frentzetan, espetxetan, egunero larru zati bana
uzten ari diren jokatzaleen sukaldeetan, zure milioika gur-
piletariko baten bat ginetik pasatu zaien golkoetan!

Horiei poz apur bat emateagatik, lau aldiz hiltzeak ere me-
rezi du. Lehenbizi ez dute sinestuko, poz hori hemendik
mende askotarako itxaropena dela uste baitute. Izan ere,
ba al dakizu zenbat mende daramaten, beti gero, geroa-
go, beti hil arte pozik ez dela izango etsita? Batzuk hilt-
tzean, berriak jaiotzen dira eta horiek ere berdin. «Guk
ikusten ez badugu, ondorengoek ikusiko dute» esanda, hor
dabilta jaio eta bizi, bizi eta ibil, ibil eta hil, munduan
zerbait egiteko bide bakarria sufrimendua delakoan. Ho-
riek hartu behar dute poza gaur!

*Kontzientzia ohartuaren barne dinamikaz izateko-
tan, bide bakarria dago: leherkundera. Bakarria ez ba-
da ere, bat bai behintzat. Orain arte bat ere izan ez
denez gero, hel dezaiogun berari, bakarria balitz be-
zala, agian halaxe baita izan ere. Haro honetan ez
zaigu sorreran bezalakorik gertatuko, ez ohartzea ale-
gia. Osoki oharturik izango da, oharmenean baita-
go hain zuzen oinarria. Alde horretatik kontzientzia-
ren sorrera bera baino haro ederragoa eta bakarragoa
daukagu. Nola lezake belaunaldi batek beste mila-
ka belaunaldik ezagutzetik izan ez duten pribilegio-
rik goza? Norbaiti tokatu behar zitzaion, adiskidea,
eta geuri tokatu zaigu. Gehiegi!*

— Gizakiak duen gauzarik haundiena poza baldin ba-
da, pentsa zer izango den pozik haundiena. Oromende-
rrietako Autojauna, bide eta ibilpide guztien jauna, giza-
kien joanetorri beharrez jainkotua, betirako akabatua!
Autoei, garraioei eta treni dena aldesbehera irudituko
zaie, abiada erogarrian sarturik, eta bat batean esango
dute: «Nora goaz hain arin, orain ez baitaukagu inora joan
beharrik? Ez daukagu Autojaunaren dei gupidagabera

iritxi beharrik. Ez daukagu Autojaunarengandik ihes egin beharrik. Gauden geldi eta har dezagun atsedean. Eser gaitzen eta ospa dezagun. Atera dagoen gutzia!».

Zertan ari naiz, ordea, pozez lehertzeko motiboak ematen, zergatik azaldu aurretik? Goazen kontzientziaren leherkundera, hortik baitator gizakiak ametsik ere egin ez lezakeen berritasun ederra. Sorkuntza berria. Nola? Adiskidea, pilakuntzaren sorreran eta gehikuntzan emandako ikuspegi beltz eta gupidagabeaz jabetu behar duzu lehenbizi. Erasoa defentsaren gainetik dagoela beti ikusi zenuen han. Gizakiaren eraso grinak defentsa grinan aldean abantaila funtsezkoan daude kontzientzi mailan. Sakon sakonean defentsa grinak bizia salbatzera doaz. Heriotzari ihes egitera. Alde horretatik irauin sena oso kontserbadorea da. Animaliangana hala baldin bazen, gizakiengan joera hori askoz gehiago indartu da, gizakiak animaliak baino argitasun gehiago baitauka, heriotzari ihes egiteko. Alderantziz esanda, bizia eusteko modu gehiago dauka. Irain sena kontserbadorea dela esan dugu, baina ez motiborik gabe. Zeri eutsi behar diogu, ba, bizia ez bada? Baina hona gizakiaren irain sen osoago horixe dela hain zuzen bere hondamena, zenbat eta defentsa sistema gehiago indartu, hainbat eta zaurigarriago bilakatzen baita grina erasotzaileei buruz. Zer egin? Naturaren lege errozko horri buelta eman. Nola? Kontzientziaren beraren indarrez hain zuzen. Kontzientzia leherturik.

— Autoek garagarra egingo dituzte, alboz eta tripaz gora euforiaren tarratadak lainoetan gora jaurtikiz. Ka-

mioiak foka izugarriak bezala tente jarri eta korrudantzan hasiko dira, elkarri titiak eta barrabilak, denak gurrupilak, itzulikatuz. Trenak trenbideetatik jauzi egin eta alboko ibaietan murgilduko dira, bainu eder bat hartzera. Txanpanezko, ardozko eta belar urezko bainua. Zer poza Oromenderrietan, sinesteko gauza baldin badira eta sinesten dutenek eusteko indarrik baldin badute! Infartuak eta paroxismoak izango dira, baina zer gauza ederragorik pozez hiltzea baino? Zuk ez daukazu antzematerik, Autojaun agurgarri horrek, ez baitakizu zenbat sufritu duten, artistek eta pentsalariek ere izatea sufritzea dela eta giza duintasuna sufritzeko gaitasuna dela sinesterraino. Hortik atera nolako animuak zeuden, eta hortik atera zure azkenaren berri jakitean zer gerta litekeen.

Nola kontzientzia lehertu? Defentsa sistema eraso sistema bezain jotzaile eginik. Ez da gehiago behar, aski da hainbeste izatea. Erasoa sistemak bere helburua (pilakuntza) irain sena edo heriotzaren ihes errozkoa manipulatu lortzen baldin badu, faktore horiei buelta emanda bakarrik iraul liteke egoera, zeren irain senak indar berbera baitu erasotzailearengan ere, gehiago ez bada. Erasoa-defentsa grinak gizaki guztiengan daude. Defentsan bildurrik ez badu, erasora joko du, baina bere defentsa sistema zulatzen baldin bazai, harentzat ere defenditzea da nagusi. Defentsarik onena eraso dela esaten da eta pilotzaileek ederki erabiltzen dute lege hori. Baina zenbat eta gehiago erasotzen duten, hainbat eta defentsa sistema gehiago urratzen bazaie, orduan nahitaez defentsara pasatu beharra daukate. Erasotzeko moduan dagoenak bakarrik erasotzen du eta erasotzeko gutxienez bizirik egon behar da. Erasotzaileek gogorrena ere

ez da bere bizia defenditzeko legetik libratzen, eta erasoa, bizia arriskatzea ez ezik, hura automatikoki galtzea baldin bada, emango du, bai, amore. Egingo du, bai, atzera. Harria burura itzuli zaio. Erasotzeko erabiltzen zuen arma nagusia eta azken funtsean bakarra bere buruaren aurka jarri zaio.

— Hobe duzu, jauna, beste munduan ere urrun joatea, kapaz baitira zu piztu erazi eta historiari sorreratik buelta emateko. Nik ez dut horrenbesterik nahi eta horregatik zurekin joango naiz, denek utzia eta gorrotatua zoazela pentsa ez dezazun. Nik ba daramat nahiko poz, atzean zer festa uzten dugun jakinik. Oromenderrietako Autojaun ahalguztiduna, zure ibilgailu distiratsua azkenara iritxi da. Baztertu eta aparkatu, martxan goazela ere berdin zait baina.

Ba nenkien Oromenderrietako Autojaunak baztertzea hautatuko zuela. Ezin dugu autorik abiadan utzi, barruan bi gorpu dituela, deskalabrua eragiteko arriskuz. Une honetan inork ez du Oromenderrietan hil behar, Autojauna aurretik dela jakin gabe. Kotxerik ederrena bide bazterrean lau hanka kanporuntz dituela ikusten duzunean, gelditu zaitetz eta ikus egia dela. Hemen ez gaituk ipuinetan ari.

Ipuina baldin bada, goazen erlauntziaren egira. Milaka erle lanean ari dira. Animalia mailan erlauntzia dugu antolakuntzarik zehatzenetarikoa, pilatzeko sena oso zorrotza baitaukate. Ez da pilakuntza mugagabea, goi jakina duena baizik. Baina agian arrazoi nagusia bestea da, alegia, benetako pilakuntz prozesurik sortzen ez dutela uzten. Zer egiten diote erlamandoei? Habiatic bota edo hil, eta hori automatikoki. Erlamandoa erlamaren senarra da, erlaita,

beraz. Baina erlamandoak, erlama ernalduz gero, ez du batere lanik egiten, besteek egina jan baizik. Pilakuntzaren abiada hasberria. Baina ez da hortik gora pasatuko, bizia utzi beharko baitu. Ez uste gainera erlamandoa alperrekoa denik. Erlama berak ernaltzen du. Beraz, erlamandorik gabe ez legoke erlauntzirik. Naturak ez du gizajoa ondoegi tratatu, lanerako gaitasunik ez baitio eman eta hortik haren azkena. Hemen ez gara natur lege horren zuzentasunaz ala zuzengabekeriaz ari. Naturari hori galdezteak ez dauka zentzurik. Ba dakigu naturak oso alderdi ankerrak dituela, baina ez horrekin sufritu, jasan beharra badago ere, natura gure gainetik baitaigo. Hemen erle langileen portaeraz ari gara, nola haiek erlamandoaren erasoari automatikoki erantzuten dioten. Horretarako ez daukate batzarrerik egin beharrik. Bakoitzak bere barnean darama defentsa sistimaren arma hilgarri hori. Eta ez uste erlamandoa hiltzea hain erreza denik, erle langilea baino askoz haundiagoa eta indartsuagoa baita. Hala ere, erlea bat batean joaten da erlamandoa garbitzera, bizia han utziko duenik pentsatu gabe. Zer izango litzateke erlamandoekin tratatzen hasiko balira? Pixkanaka haiek erlauntziaz jabetuko lirateke eta erleen elkarlan bikaina erlamandoen mendeko esklabutza bihurtuko litzateke. Baina ez dago horrelakorik, prozesua hasieran bertan errotik desegiten baitute. Erlamandoaren kasuan gaizoak ez dauka beste aukerarik, naturak hartara behartzen baitu, baina kontzientziarik baldin bahu, bere izaterik hautatzerik baldin bahu, apenas azken hura izateko modukorik hautatuko lukeen.

AIREJAUNA

— Noizbait ere! Noizbait ere!

— Ez uste ni eliminatzeaz dena egina daukazuenik.

— Zurea bai, eta nirea ere bai. Besteena gero ikusiko dugu, edo ikusiko dute, Airejaun agurgarria.

— Zer nahi duk, ba? Narrastiak bezala tatarrez ibiltzea? Zeruaeren erraiak zeharkatu ditiagu, urte gutxiren buruan espazioa etxeko ataria bezala ezagutzen ari gaituk. Zer gehiago nahi duk? Haur guztien ametsa hegazti izatea zuan eta horra orain arranorik harroenak ere gure ondoan ez direla ezer. Ekaitzak eta oinaztuak gaintitu ditiagu. Hotsaren muga, norik esango zian, urrun utzirik, argiaren bila goazek. Giza adimenduak asma zezakeen azainarik haundienean gora gaituk. Kontinentetik kontinentera amen batean gaituk. Zer gehiago nahi duk, ba?

Pilakuntzak abiatuz batera leher egiteko halabeharrik baldin balu, ez litzateke sortu ere egingo. Kontzientziak ezin du bere burua berbertan desegiteko

biderik hautatu. Elur bolarik inoiz egin al duzu? Etengabe gehituz doazen prozesuak adierazteko, elur bolarena esaten da, baina elur bolak azkenaren eragile errozkoa bere baitan darama. Zenbat eta haundiagoa egin, hainbat eta hurbilago desegitetik. Neurri batetik gora ez dauka hazterik, lehertzea baizik. Eskuz daramazula, haundituz joango zaizu, oso haundia egingo duzu, baina horrek bere topea dauka. Halako batean gainbehera bota beharko duzu eta orduan agian pixka bat gozatuko duzu, hura haunditzen ikusiz, baina laster leher egingo du. Zergatik? Bola hori bere abiadaren zentzuan bakarrik haundituz doalako. Alboak ez zaizkio hein berean haunditzen eta puntu batetik gora batere ez, alboetatik ez baitu elurrik biltzen. Orduan elur bolak gero eta gurpil tankera gehiago hartzen du, baina zenbat eta gurpil haundiago bilakatu, hainbat eta oreka gutxiago dauka. Pixka bat alboruntz egitea aski zaio lehertzeko. Hitz batez, elurrak ez dauka sendotasunik, horrela etengabe haziz joateko. Halako pisu eta bolumen bat hartutakoan, nahitaez leher egin beharra dauka.

— Hustu al zara, Airejauna?

— Bai eta amorruez bete ere! Hiltzeak ez zidak axolarik, bestela ere hiltzekoak gaituk eta. Baina honen zentzugabeki hil beharrak amorruea ere labur uzten dik.

— Hustuko zaizu amorru hori ere. Baretzea komeni zaizu, jauna, amorruez hiltzea ez baita beharbada zeruak ondo ikusia izango.

— Zerua eta ifernua! Hobe goruntz saiatu beharrean, zulo haundi bat egin bagenu, denok ifernuan ehorzteko.

— Ez zaude handik urrun, zalea baldin bazara.

— Kakazaharra!

— Iso, jauna! Nahi duzun guztia esan, baina geldi mesede. Eskuak agindutako lekuan eta burua goi, inori begiratzeko lotsarik gabe. Orain neuri dagokit barrua hustutzea. Entzuteko obligaziorik ez daukazu eta sinesteko gutxiago, baina nik ez dut ez zerurako ez ifernurako hitz egiten, bien bitarterako baizik. Kontzientzia blokeiatuentzat hitz egiten dut eta batez ere irtenbiderik eza une honexen desafioz erabakitzen zutenentzat, kontinentez kontinente baino etxeko atarian denbora gehiago egiten dutenentzat, hegaztien baino narrastien antz gehiago daukatenentzat. Zuk ez jakitea ez da harritzekoa, Airejaun agurgarria, oso goitik ibiltzen baitzara beti, baina gehienok oraindik ekaitzen eta oinaztuen azpitik bizi gara. Horregatik daukat zuk amorru aina poz. Beti esaten zuten: «Goikorik ez dik inork harrapatzen». Beti esaten zuten: «Errugabeek ordaindu behar, goikorik ez baitute sekula harrapatzen». Beti esaten zuten: «Goikoei heldu behar zaiek, goikoei!». Beti esaten zuten: «Goikoa beti goiko». Beti esaten zuten: «Orain arte hola izan da eta aurreruntzean ere holaxe izango da».

Pilakuntza norberak norbere eskuz daraman bitartean ez da hain haundia izango. Hori hornikuntza dela esaten genuen. Hornikuntzako diferentziak ez dira hondagarriak. Puntu baterainoko barazioa lasai utz genezake. Norbaitek bola haundiagoa egiteko trebetasuna daukala? Lanerako gogo gehiago daukala? Utzizozu bakean, horrek ez baitu orekarik hautsiko. Elur bola bera bakarrik abiatzen denetik aurrera, pilakuntzaren prozesu gupidagabea hasten den unetik aurrera, hortxe dago gorabehera. Hortxe behar da prozesuaren urkamen automatikoa. Pilatzailearen heriotza. Pilakuntzak ez dauka izate per-

tsonalik, ez eta animalizkorik ere. Makina bihozgabea da. Non daude errozko zartada hori hartzeko organuak? Pilatzaileengan. Baina horretarako defentsa sistimak bere mekanismorik ezkutuen eta indartsuena utzi behar du. Hiltzera joan behar du zuenki, heriotzari ihes egiteko grina errozkoa gainturik. Eta horra jokabide horrekin heriotza guztiak ebitatzen direla, behar beharrezkoak izan ezik. Sistima bueltagabe eta selektibo horrek heriotza bakarra eragiten du, bestela milaka izan beharko lukeen lekuan. Nola? Ai, adiskidea! Piramide legea zeterrek hemen. Oraindik jakiteko al hago?

Beti esaten zuten: «Zeruan ere goikoak baietz jarri gorenge». Beti esaten zuten: «Bitartekoak utzi eta gorenge-tara jo behar lukete, barrabilarik baldin balute». Beti esaten zuten: «Horiek harrapatzerik ez zegok». Beti esaten zuten, baina gehiago ez dute esango. Hona hemen nor eta Airejauna. Hona hemen nor eta gorengea, arranoak konplexatzen zituena, ekaitzak bidea uzten ziona, oinaztuak erreberentzia egiten ziona. Hona hemen goiko gorengea. Bai erre harrapatu ere, berarekin batera hiltzea irentsi-takoan! Noizbait ere! Noizbait ere hautsi behar zuen giza narrastirik gehien kontzientzia hertsiturik zeukan fatalitateak. Batzuek Jainkoaren miraria izan dela pentsatuko dute eta beste batzuek ez dute jadanik jainkoengan sinestu beharrik izango, baina denek aitortu beharko dute beren esaera multisekularrak leher egin duela. Batzuek halako erretasuna sentituko dute, lehen hain irmoki baiezteten zutena orain ezetz aitortu beharrez, horrelakoxe gizatasun setatia loratzen baita narrastien artean. Beste batzuek beren fede hautseztatuen bila hasiko dira, hainbesterik sinesteko ahalmenik gabe. Gehienak, ordea, pozaren po-

zez lehertuko dira, beren ametsa, beteta ikusteko usterik ez zeukaten amets hura, noizbait egia dela ikustean. Goi-koa! Gorengoa! Gorago ez dago inor!

Pilakuntzak nahitaez piramide egitura dauka, hots, diren piramide guztiak jorik ere, den denek gauza bat daukate elkarrekin: Gailurra. Oinaldean zabalagoak, erdialdean mehe samarrak, gorago gizenak, edo alderantziz eta beste mila konbinapen egin ditza-kezu, baina azkenean, goian, gailurra beti. Beti izan-go da norbait goren. Norbait horrek ez dauka ba-karra izan beharrik, baina multzoa bada ere, oso gutxi beti piramide osoaren proportzioan. Gero sub-piramideak eta milaka mailaketa izango da azpian, azken batez piramide nagusia milaka piramidez eta hauen subpiramidez osaturik baitago, hurra jotzen dauden oinetaraino. Hauek, gaizok, gaineko guz-tiaren zama daramate soinean. Piramidea, beraz, oso nahasia, trabatsua eta konplexua duzu. Zu lasai. Zuk beti gailurra jo goitik eta piramidea berez berez eto-rriko da beheruntz. Gailurra kendutakoan, pirami-deak nahitaez gailur berria behar du. Zu lasai. Berak egingo lan hori, ez baitauka gailur gabe irauterik. Orduan zuk berriro ere jo gailurrean eta beheruntz etorriko da erremediorik gabe, berdintasunaren ore-kara itzuli arte.

— Ba al dakizu nolako leherkundera, Airejauna? Oromenderrietan lekua falta izango da, zure airadiak eta es-pazio mugagabeak hartarakotu ezik. Nora zindoazen, Airejauna? Lurbira honetako lotsagarrikeriak beste mun-duetara eramateko lotsarik ez al zenuen? Nora zindoazen lainoetan gora, Oromenderrietarrak betiko narrastitasu-

nera kondnaturik utzita? Garaiz harrapatu zaitut zorio-nez. Beste munduek zertatik libratu diren ez dakite, zuk topatuak izatetik libratzean. Oromenderrietan sekulorun sekulotan zure narrastiak izatera etsita geunden, baina lotsagarrikeria hori beste munduetara ere zabaltzerik ezin nuen jasan. Nora zindoazen ilargian gora, izarretan go-ra, zure pozonuntziak kargaturik? Hustu itzazu horiek lu-rrean, apur bat gehiagorengatik eutsiko diogu eta. Ez di-zut hori gure lurkideengatik eskatzen, elkartasun kosmi-koarengatik baizik.

Ikusi al duzu sasitza edo sastraka haundi horietari-korik? Gehienez zuhaitz baten inguruan izaten di-ra, baita zuhaitz askoren artean ere, denen artean sastraka orokor haundia eginez. Landare igokariak era askotakoak izan litezke: sasiak, aihenbelarrak, otaluzeak eta baita gero beste landare parasitoak ere. Sastraka izugarri horri nondik heldu ere ez dakizu zeure segatxo gizajoarekin. Sua emateko gogoia ema-ten dizu, baina horrela piramide osoak su hartuko luke eta hor gehienak erreak izaterik merezi ez du-tenak dituzu. Lasai. Eman dezagun sastraka horren eustailleak zuhaitzak izan beharrean taketak direla. Neurri guztietako taketak, gailurretik lurrerainoko altura guztietakoak. Landare igokariak taketen in-guruan ere igoten dira. Zer egin? Utz sega eta har zurmailua. Goren irixten den taketa jo goitik behe-ra bildur gabe. Har atsedena. Gero hurren goren da-goena. Har berriz atsedena. Piramidea nola berre-gokituko den ardurarik ez izan. Goruntz bere bu-rua antolatu zuen bezala, beheruntz ere bere buruz joango da egoera berrira moldatuz. Zuk goren ikus-ten duzun taketa jo beti. Denbora gutxiren buruan

ikusiko duzu nola sastrakadi guztia lurrean etzana dagoen, bakez bakez eta apal apal. Taketak lur azalaren parean daude. Berdintasunera iritxiak gara. Hortik aurrera lan erreza daukazu. Taketik berriro nabarmenduko balitz, mailukada bat eta geldi hor. Burua agertzen deskuidatuko direnak tarteka izango dira, baina deskuido bakoitzari mailukada automatikoa badagokio, laster galduko dira deskuidoak ere.

— Oromenderrietan jendea etsita dago eta beharbada etsipen horretatik ez dute irten nahi izango. Ifernurako jaio ziren eta ifernurako hilko dira. Baina ba dira beste mundu batzuk, derrigor egon behar dute, eta horiek, ezagutzen ez ditudala ere, zuri haruntz joaten uzteko baino maiteago ditut. Orain arte mendeak eta mendeak eramán dituzu, lur honetan konformatuz. Beharko. Nik ere mende mende barkatu dizut. Beharko hori ere. Baina oraingorik ezin dut barkatu. Lehengo barkamen pilatu guztiak neuri ere pozondu zaizkit eta pertz honek lehertu beharra zeukan eta hor goaz biok batera, ederki hustuak, betiko atsedena hartuz, biziei bakean uztera. Zerbait esateko gorik baldin badaukazu, oraintxe duzu azken aukera. Ezetz? Hobeki. Irakurleak gutxiago aspertuko dira. Aitarren eta Semearren eta Oromenderrietar guztien izenean. Pun!

X

DIRUJAUNA

— Zertatik sinets nezake egia esaten didazula?

— Zer egiten diat gezurretan ibilita, usterik gutxienean beste norbait etorriko baitzait?

— Ez da horixe ere arrazoi txarra, jauna. Ba dirudi ba zoaztela konturatuz. Baina ez dut zure planik ondoegi ulertu.

— Esan diat. Ken ezaidak hik pistola paparretik eta nik diru guztiak bertan behera utziko ditiat. Lurrealde honetatik beste kontinente batera aldentuko nauk eta han hutsetik hasiko, nor naizen ere ez dakitela. Jateko lain aterako diat eta biziko nauk eta hi ere biziko haiz.

— Biziak ez dit niri axolarik ematen, planak aldatu beharrak baizik. Zure bizia axola zait eta horixe ez dut hain garbi ikusten.

— Zein duk hire helburua? Bizia ala dirujauntza kentzea?

— Biak batera ziren, baina oraintxe zer pentsatua eman didazu.

— Hiri zer axola zaik ni hilda egotea nahiz munduaren azkenengo zokoan bizi izatea?

— Nola jakin nezake ez duzula hitzik jango eta hemen dik urte batzutara ez zarela beste nonbait lehen bezain jaun agertuko?

— Adiskidea, hartzen ari garen eskarmentuaz tranpan hasteko moduan gaudela uste al duk? Ba zekiat hiretzat sineste gorabehera dela, baina bizia uztera datorrenak horrenbeste adore behar lukeela uste diat.

Nor da piramidearen gailurra goitik harrapa leza keena? Heriotza jakinari zuzenki aurea ematen diena. Ez dago giza gailurrik, bere bizia han uzteko prest dagoenak ez harrapatzekorik. Horixe da mailu automatikoa, pilakuntzaren eraso grinari buelta eman eta mailukada bere burura bihurtzen duena. Pilakuntzaren eraso funtsezko suposamen honetantxe oinarriturik dago: eraso jasailea heriotzatik libratuz defendituko dela beti. Orduan bere defentsa ere hortxe finkatzen du: inori erasotzen ez utzi, heriotzari aurea eman beharrik izan gabe. Mendekoak, erasora jotzen dutenean, arriskatuko dira, bai eta bizia galduko ere sarritan, baina ez hartara zuzenki joanda. Zapalduen erasoak zapalkuntzaren makineriako norbaitzuk harrapatuko ditu tarteka, baina inoiz ere ez, oso bakanki ez bada, piramidearen gailurrik. Harrapatzen badute ere, piramidea sendotu beharraz beste ondoriorik ez dakarten salbuespenak dira. Salbuespenak baino gehiago izanik ere, gailurrak zentzagarri automatikorik ez badu, piramidetasunak berean iraungo du.

— Eman dezagun sinesten dizudala. Nola irten behar

du orain trantze honetatik?

— Hori duk galdera modua! Ez al gaituk, ba, hemen ezer ez dela gertatu hitzemanak? Esandakorik beteko badut, hiri lasai joaten utzi beharra zeukeat.

— Eta nork jakin ni garbitu eta gero joatea pentsatuko ez duzun?

— Hi garbitu eta gero, zertarako joango nindukek, ba?

— Besteren batek harrapa ez zaitzan. Zu munduaren azkenengo zokoan bizi zintezke, baina nitaz mendekaturik.

— Mendeku horren ilusioz nabilela uste al duk?

— Ez zabiltza, baina ibil zintezke, ni eskilaretan behera abiatu eta zeure burua salbo ikusiz batera.

— Aspaldion daramagun martxa ikusirik, nekez diat neure burua salbo ikusterik.

— Salbo ez, baina zu berdin joan zintezke, ni hiltzeko agindu eta gero ere.

— Horrenbeste sinesteko adorerik ez baduk, alperrik ari nauk. Egin ezak egitekoa arin.

Oromenderrietako Dirujauna benetan ari dela sinesteko motiboak ba dauzkat. Dirujaunak besteak baino argiagoak izaten dira beti ere, eta begira nolako zalantza jarri didan alu honek. Dirujaun batek deabrua engainatu omen zuen eta ez da gezurra izango. Oromenderrietako Dirujauna beste diruzain guztiak batera baino gehiago da. Bai arma bikaina asmatu zuela ondasunak errez errez pilatzeko! Garia, artoa, arroza nahiz beste edozein ale izan baltz, ea non gorde behar zuen hainbeste. Eta gainera, lehentxoago edo gerotxoago, usteldu. Dirua, ordea, hori izan duk timoa! Ona, birjintasuna bezala, baina bai errez kentzekoa ere! Edozein kutxa sendotan milioiak eta milioiak tonelada gari, arto, arroz eta edozer sar liteke. Hori duk ganbara hori! Dirujaunaren kutxan Oromenderrieta guztia dago, paper sorta batean gordea. Ez denborak, ez sa-

guk ez sitsak jaten ez dituen paperak gainera.

Iso! Urruntxo joan haiz. Dirujauna nor den eta zer behar duen argi dago. Hemen bestea dago airean. Utzi egingo al diot? Dirujaunak bere burua ezkutatu duela jakiteak besteen artean desmoralizazio gogorra ekarriko du, eta bestela gero ere denboraz gaude. Jauntzaren aurka goaz, ez jaunen aurka.

— Hara, jauna, barkatu egingo dizut. Bizi zaitetz ahal duzun lekuan ahal duzun moduan. Hori egingo duzula sinestu badizut, joaten utziko didazula ere sinestuko dizut.

— Eskerrik asko, inperioa kendu didak baina.

Defentsa sistima, heriotzaren bildurra galdu ez ezik, heriotzari zuzenki aurrea ematera badoa, zertarako da hain zuzen grina horretantxe oinarritutako makinaria? Zertarako dira armadak eta armategi nuklearrak? Haizeari botatzeko? Oinaztu kontziente horietariko normahirentzat poliziak, armadak eta gainerako asmazio guztiak alper alperrekoak dira. Menderaezina da. Gehienez ere, nahi lukeen gailurreraino irixtea pixka bat kostatuko zaio, baina presarik ere ez daukanez gero, gaur ez bada bihar, lortuko du. Eta batak ez bada, besteak. Bizia berdin uztekotan, gorengoa harrapatzera joko du noski, ez baitzuen bere burua hain grina errozkorik gainditzera behartuko, gero txoriekin konformatzeko.

Ate haundiaz kanpoan Dirujaunari eskualdi solemnea eman eta ba noa pasabide argitsu eta jendetsuetan zehar. Denek bidea zabaltzen didate, Dirujaunaren jagolegoak, eskilara harrigarrietan behera, kanpoko ateraino laguntzen didalarik. Gutxienez Dirujaunaren hurrengoa naizela uste dute. Hor gelditzen da Oromenderrietako diruetxe nagu-

sia, laster umezurtz, gaizoa. Honek zurrut bat merezi dik. Urrundu naizenean, berriro ere lehengo mundua, sekula gehiago ikusteko usterik ez neukana.

— Baso bete ardo, mesedez.

Taberna honek lehenengoz sartu nintzen tabernaren usaina bera dauka. Usain gozoa noski. Bai, ba! Lehenengoz oso txikitan zapaldu nuen taberna aitaren eskutik eta orduan gauza guztiak ziren gozoak, ardo honek ez dauka gusto ederra baina. Beharbada neu naiz gustoa galdu dena. Izan ere hi beste mundutik bueltan hator gero!

Hamaiketakoak ez dit onik egin. Gero eta kezkatuago nago. Ez dakit ondo egin dudana, edo hobeki esateko, gaizki egin dudala uste dut. Dirujauntza desegitera joan eta jauna libre utzi. Ba al da jauntzak eta jaunak berezterik? Teoriak baietz esaten dit, baina beste zerbait gertatzen da hor, ez bainago lasai. Orain arteko martxa guztia hautsi dut. Denak hori egiten hasten badira, jolasa izango da hau. Bestalde diru guztiak utz erazteak ere ez dirudi jolasa denik. Baina izan liteke, iharduera hau ugaritzen bada. Erabateko eskarmentua izan beharrean, zuzengarri hutsa besterik ez da izango. Azken batez norabait aldendu eta bizia zihur daukate. Okerrenean ere horixe gerta lekiekeela pentsaturik, inork ez du atzerarik egingo. Eta deskuidatzen bagara, errepetoa galdu.

— Zenbat da hau?

Eta azkenean, hauxe okerreana, geure kontzientzia bueltagabea galdu, hainbeste mende kostatu eta gero. Eta azkenean berriro lehenera. Ez, jauna! Horrek ez dauka horrela gelditzerik. Inor izan gabe bizitzea ez da zure ordaina. Bestela ere ez al dira gehienak horrelaxe bizi? Zure ordainak zure azkena izan behar du.

— Tori! Gorde bueltak.

Ba noa berehalaxe, odola bero daukadan bitartean.

Gero neu damutuko naizen ere ez dakit. Kontzientzia ez da beti goiunean izaten. Oraindik bertan egongo da, ez baitzen hain berehala abiatuko. Gainera atea zabal zabalik edukiko ditut, irteeran bezala. Bihar beharbada hurreraterik ere ez da izango. Eta bera damutu baldin bada? Nor naizen esaten diotenean, bertan garbitu nazatela agintzen badu? Berdin dik. Hire tentelkeriak merezia dik horrenbeste.

— Berriro ere hemen? — esanez, atea eta bideak kortesiaz eta irribarrez irekitzen dizkidate.

— Bai. Zer garrantzitsu bat gelditu zaigu airean — erantzunez, ba noa pasabide haundietan zehar, etxezainen eta jagoleen eskutik, Dirujaunaren bulego nagusiraino. Atea jo eta aurrera entzundakoan, gurkera haundiz barruratzen naute. Barruan dagoena ez da, ordea, nik lehen utzia. Tranparen bat zegok hemen!

— Dirujauna, mesedez?

— Dirujaunik ez dago.

— Nolako ez dagoela, ez baita ordubete berarekin egon naizela?

— Egon da, baina joan da.

— Nora?

— Ez dakit. Dena bertan behera utzi eta ba doala esan du. Gehiago berarekin ezertarako ez kontatzeko esan digu. Hilda balego bezala. Harriturik gaude.

Defentsa honela antolaturik, heriotza bakan batzuk aski dira, bestelako milioika heriotzen lekuan. Belaunaldi bakar bat harturik, pentsa ezazu zenbat hiltzen dituen goseak, gerrak, edo nolana hiko zapalkuntzaren aurkako milaka burrukek. Har hogeigarren mendea bakarrik eta pentsa zenbat milioi gizakik bizia utzi duten, gehienek zertarako zen ere ez zeki-

tela. Har urte bat bakarrik eta pentsa munduan zenbat heriotza diren, miseriarenak kontatu gabe. Hauek ere sarturik, gizateriaren historian apenas dagoen berez hildakorik. Gerrak, goseak, miseriak eta gainerako pilakuntzaren biolentziak jorik, zenbat dira, ba, ordu naturalean hiltzen direnak? Munduan urtebetean bakarrik gertatzen diren heriotzak piramidearen gailurrean bildurik, nahiko eta sobera litzateke historia osoa behin betirako zuzentzeko. Heriotza gutxi horiek piramidearen gailurrean gertatzeko era bakarra bizia uztera zuzenki joatea da. Eta horra bestela ere hil beharra duten baino mila bider soldadu gutxiagoz betidaniko gerra betirako irabazia.

— Hura joanda ere, berdin jarraitzen al du honek?

— Jakina! Neu gelditu nauk ordezko.

— Zu haren ordezko?

— Norbaitek haren lekua bete behar zian, ez? Ulertzen diat hire harridura, azkenengo egon baithaiz harekin, baina dirudienez, ez zeukak bueltarik. Zerbaitetan zerbitu ahal bahaut, bai pozik ere, oraindik situatzeko negok baina.

— Ez egin situatzen ahaleginik, jauna.

— Egia. Denborak berak erakusten dik hori ere. Zer nahi huen, ba?

— Ez dakit nola esan ere, baina lehen, Dirujaunarekin egon naizenean, zer garrantzitsu bat erabaki gabe utzi dugu eta horretaraxe nentorren.

— Idazkariari deituko al zioat?

— Ez, ez. Lehen ere biok biotara hitz egin dugu. Leukukorik gabe tratatzeko zera da.

— Heuk esan beharko didak zer den.

— Hauxe, jauna! Zutitu mesedez!

Dirujaun berriak linternak bezalako begiak ireki ditu,

pistola paparrean sentitzean. Aurrekoak alde egitearen harridura guztia orain izu bilakatu zaiola dirudi, bestela ere honek ikara sartzan ba daki baina.

— Zer duk hau?

— Lehengoarekin airean gelditu zaidan kontua.

— Niri hori, elkar ezagutzen ere ez dugula?

— Ez al duzu, ba, haren ordezkoa zarela esan?

— Zertarako, ordea?

— Nire zertarako bakarra hauxe zen. Hura ere ez nuen ezagutzen. Ni ez naiz ez haren ez zure bila etorri, Dirujaunaren bila baizik.

— Ez diat ulertzen.

— Zergatik alde egin duela uste duzu, ba?

— Zer zerikusi diat nik harekin?

— Ordezkoa zarela, berri samarra baina. Hura ere aurreko norbaiten ordezkoa izango zen, ez? Edo hitzak zuzen jartzeko, zu ez zara haren ordezkoa, ondorengoa baizik.

— Kasurako berdin duk.

— Ez nire kasurako. Ni lehen nahiz orain, Dirujaunaren bila etorri naiz. Hura joatearekin suerte ona izan duzun bezala, ni etortzearekin txarra izan baduzu, hori ez da nire kontua, dirujauntzarena baizik. Sentitzen dut.

Zergatik heriotza bakarrak hainbeste heriotzaren eragina izate hori? Piramide legeengatik. Gailurra beheragoko milaka gizakiren indarraren kontzentrapena da, horixe baita pilakuntza. Hor bai esan litekeela: «Ondasun batua, inoiz ez zanpatua». Beheragoko piramide txiki guztiek gailurrean bat egiten badute, hau kendurik denak datoz behera. Beste era batera esanda, gailurraren hurrupaketak edo tirakadak goruntz daukan indar bereko eragina izango du

beheruntz ere. Aspirailu izugarri bat bezala. Martxan ari dela, hura zurrumbiltoa eta irensmena aho aldean! Guzti hori gorunzko indarra da. Zenbat eragin izango ote du beheruntz? Goruntz zeukanaren alderantzizkoa juxtu juxtuan. Irensmen guztia aspirailuak sortua baldin bazen, hura gelditzean, baretasun osoa egina dago. Zenbat indar dauka goruntz pilatzaileak? Bere pilakuntzaren arabera. Beraz, gizakume bategen milioi baten edukia badu, adibidez, mila milioi dituenak mila bider indar gehiago dauka. Baina horra gehiagotasun hori ez dela aritmetikoa, geometrikoa baizik. Mila milioik batera mila milioik banaka baino mila bider indar gehiago daukate. Beraz, mila milioiren jabea bakarra daukana baino milioi bat bider indartsuagoa da.

— Zergatik ez duk hura bera garbitu lehen?

— Arrazoi batzuk jarri eta konbentzitu nauelako.

— Neuk ere alde egingo diat eta...

— Ez! Arrazoi horiek entzunak ditut lehen ere. Orain bueltan nator.

— Nik hil behar al diat haren ordeztu?

— Zu zeure buruaren ordeztu hilko zara, jauna. Lehengo hil banu eta ni harekin hil banintz ere, beste norbait etorriko zitzaizun.

— Orduan ez ninduan haren lekuan jarriko.

— Orduan berdin da, orain ere ez zara jarriko eta.

— Nola berdin bata ala bestea hiltzea?

— Dirujaun bat bera, ordea.

— Alua! Neu bistatik kentzeagatik sartu dik hark plan hori.

— Ez al duzu berak ere betirako bistatik alde egin duela esan, ba?

— Baina itzul litekek eta itzuliko duk.

— Ez da itzuliko eta itzuliko balitz ere, zuk ez duzu ikusiko.

— Oraintxe ulertzen diat dena. Neu bistatik kentzeagatik! Hau zitalkeria, ene Jainkoa!

— Aizu, zarena zarelako jaun agurgarria. Hura zuri hori egiteko eta zu hari zer bera egiteko gauza zaretela sinesten dut, horretatixe bizi baitzarete, baina oso oker zaude nitaz, haren konplotkidea naizelakoan bazaude, neuk ere zurekin joan behar baitut.

— Nora nirekin?

— Zu aurretik eta ni atzetik.

— Nora?

— Zure aurrekoak joan nahi ez zuen lekura.

— Hi ere bai?

— Ni ere bai. Zihur egon nahi dut mundu honetako dirutzak ez dituzula bestean kanbiatuko.

— Ene ama...

— Laster ikusiko duzu hura ere.

— Birjina!

— Horixe nahi zenuke zuk.

— Azkena al da hau?

— Azken aurrea. Azkena hauxe da. Pun!

Jabe hori desagertu arren, beste batek txanda hartuko duela? Bai noski piramidearen legez, baina ez dauka zentzurik, txandatze horrek azken automatikoa esan nahi baldin badu. Baten lekuan beste bat jarri eta aurrera jarraitzea sistima zaharreko kontua da, oraindik sistima horretantxe bagaude ere. Jabetasunerako txanda har liteke, baina ez heriotzarako. Denak garbitu behar al dituzu orduan? Ez hori ere, ez baita beharrik izango. Ordekotzea laster amai-

tuko da. Berehalaxe amaituko da berez berez.

Oromenderrietako Dirujaunak hartu berri zuen aulkia oraintxe estrainatu du, apenas epelduko duen baina. Jagolegoak atea brast irekitzen ditu, beste munduko aurpegiekin.

— Zer egin diozue nire Jaunari? —galdetzen diet eta klak neure buruari. Inguruan jende pila eta arma hotsa somatzen dut. Non zaude, Dirujauna? Hemen. Iritxi al zara? Amen!

ARMAJAUNA

Oromenderrietako Armajaunaren gazteluan urtero jai hunkigarria izaten da: Gerrako Erretiratuen edo Gudulari Zaharren eguna. Zaharren eguna hutsean esanda ere berdin da, Oromenderrietan ez baitago zaharrik gerran ibili gabekorik. Gerra bakarra ezagutu zutenak lehenengoan hil ziren, gazterik. Besteak hemen gaude geure azkenaren zain, ikustekoak ikusita. Zahartsariak eta urteroko jaitxo horrexek ematen digu poz apur bat. Egun horretan gutariko bat, gehienez zaharrena, ibilpiderik baldin badu, Arma Erregetzat hautatzen dute. Egun batean bera da Oromenderrietako Armajaun nagusia, gazteluan behintzat. Berak agintzen du eta bera da jaun eta nagusi. Titulu hori, jakina, inork ez du erabiltzen. Nola erabiliko du, ba? Zaharron pozgarrizat armatzen dituzten fantasiak. Baina batzuek sinestu egiten dute, bestela ere nahiko txotxindurik egoten baitira ordurako. Iazkoak sekulako berbaldia botatzeko probetxatu zuen bere agintea, sekula inork osorik entzungo ez zizkion gerra ibilera guztiak kontaturik.

Horrelakoxea da gure bizimodua.

Gizakiak, eta areago gizaki pilatzaileak, arriskatzeko joera haundia dauka. Menturazaleak gara eta batzuk oso menturazaleak gainera. Arrisku horretan bizia galtzea ere askotan gertatu da. Baina arrisku hori probabilitate haundi bilakatzen denean, beste soinua bat entzuten da barrutik, eta zer esanik ere ez, probabilitatea ez ezik, zihurtasuna denean. Orduan mila milioi horien jabetasun katea urrun joango denik ez uste. Milioiok laster geldituko dira airean eta hori ere ezinezkoa da. Lehengo jabetasun eredian ez bada, beste nolabaiteko eskuetara pasatu behar dute berehala. Nornahik nahiko hurbiletik eza gutzen duen bibentzia bat aipatzeko, nor izango litzateke gauza, autopistako tunel batean, jakinez gainera, kontrako norabidean abiatzeko? Munduan zoroak eta erdi joak asko izango dira, baina apenas dagoen horrelako balentriarik egitekorik. Zenbat milioirengatik sartuko zinateke heriotzaren ahoan?

Aurten neu hautatu naute Arma Erregetzat. Ez naiz zaharrena, baina ez nabil urrun. Titulu hori hartzeko go-go ba nuen. Egia esateko, kaparrada galantak emanda bakarrik lortu dut izendapena. Hurrengo urterako ez naizela biziko esaten nien, burua joaten hasita daukadala, gero eta gaizkiago aurkitzen naizela eta horrelakoak.

— Hemen nor zegok, ba, gero eta hobekiago? — galdetzen zidaten, baina nik oso gaizki nengoela esaten nien eta egun batez behintzat Arma Errege izan gabe ez nukeela hil nahi. Zaharrok egun guztian beste zereginik ez daukagunez, laster gogait eragin nien denei.

— Tirok, ba! Heu izango haiz aurten — esan zidaten azkenean.

Egunak joan ahala, sekula baino sasoikoago eta umoretsuago nengoen. Jendeak esaten zidan egun baterako baino gehiago izango zenik ez pentsatzeko, poztuegi ikusten nindutela eta. Nik ezetz esaten nien, egun bakarra ere aski eta gehiegi nuela. Zaharren kontuak. Hutsarekin poztu behar. Eguna gainean dago eta jai prestakuntzak eginak daude. Eguna baino gehiago eguerdia izaten da. Armajaunaren gazteluan ospakizuntxo bat eta gero bazkaria. Egun osoan zerak eutsiko zioke gure adinean! Zaharrentzat bazkaria izaten da ilusiorik gehien ematen duena, gozoa izaten baita eta eserita behintzat. Goizean, deskuidatzen bazara, zutik egon behar izaten da, aulki gutxi ipini dutelako, edo eratzailak lo egin dutelako, haiek gazteak izaki. Bazkaritan ez. Bazkaritan jan eta egon eta gogorik daukanak berriketan ekin.

Eguerdi aurreko ospakizunerako ba daukat ilusioa. Hamiak jotzean, gazteluzainak bila etorriko omen zaizkit eta errege gisa eramango naute Armajaunaren gaztelura. Jantzi ere nola jazten gaituztela baina! Gazteluan lehenengo zeregina Armajaunaren gela nagusia okupatzea izaten da. Neure zerbitzariz inguraturik, —denak zaharrak hauek ere—, ba naramate atariko maila haundietan gora, (gero ez ahal da eskilararik igon beharrik izango!), atalburu harrizko eta harrigarrietan zehar, musikaz eta txaloz bildurik. Gazteluko pertsonala eta Oromenderrietako Armajaun nagusia, beren etxeko eta guzti, hemen daude. Aurten askoz gehiago daudela ematen dit. Beharbada gehiago ikusten ahal dudalako izango da, aurreko urteetan apenas ezer ikusten bainuen. Atalburuan Oromenderrietako Armajaunak errespeto haundiz agurtzen nau eta hortik aurrera dena dut irribarrea, gurraketa eta ez gutxiren belaunikatzea ere, gazteak batez ere. Iazkoak benetako errege zela sinesteaz ez naiz batere harritzen. Goian bego gaizoa. Ez dut seku-

la honenbeste emakume eta neska ederren agurrik hartu. Gaztetan ez genuen honelako aukerarik izaten. Eta nola jantzita denak! Zorionez ez dago eskilara asko igon beharrik. Armajauna bide guztian zerbait esaten ari zait, kumplimenduak nik uste, baina hainbeste musikaz eta berbaroz, ez diot ezer ulertzen, denari baietz esaten diot baina.

Ba dira gerlariak eta gerrileroak, arrisku haundietara menturatzen direnak. Bai, horixe! Hotzean eta estadistikaz pentsatzen jarririk, heriotza zihurrera doazela sentitzeko moduan. Baina ez. Heriotz arriskua ekintzen katean dago, ez ekintza bakoitzean. Ekintza bakoitz horretan bizirik apartatzeko ustez jokatzen du beti, horretarako ahalegin guztiak eginez. Horregatik bizia etengabe arriskatzen ari diren mila gerrilerok baino indar gehiago dauka ekintza bakarrean bizia uztera doanak. Eta azkenean zer? Deskuido haundirik ez da behar, mila horietarik erdiak edo gehienak hilak gertatzeko. Heriotza ebittzera joanda, ehundaka heriotza, eta gero zer lortu den ikusi egin behar. Bestean berriz hildako bakarra eta nolako zartada, ez errugaberik ez bitarteko kaxkarrik hil gabe gainera. Piramidearen gailur gailurrera.

Armajaunaren gela nagusia ikaragarria da haundiz eta ederrez, pasabide zabalak eta luzeak haruntz eta honuntz, gaur denak jende haundiz beteak, beti ere jende txikirik ez da hemen ibiliko baina. Gela nagusian Erregetzaren koroe-makilak hartzea izaten da, gero handik benetako errege gisan areto nagusira joateko, segizio guztia atzetik dela. Urduritzen hasia nago zer izango ote den. Ba goaz barrura, neure segizio partikularra atzetik dudala. Hone-tarako atso-agurerik nonzeberrienak pilatzen dira beti. Ar-

majaunaren gela nagusian, mahaiaren erdian ipintzen nautte, eskuinetik Armajauna eta ezkerretik Armanderea ditudala. Armajaunak «Jaun-andreok: egun haundi honetan...» eta horrelako hitz batzuk esanik, koroia bururatzten eta makila eskuratzen dit, biak ere nik baino sasoi hobekoak erabiltzekoak. Oromenderrietako banda nazionalak ereserki nazionala jotzen du. Hau isiltasuna, tronpeta horiengatik ez balitz. Amaitzean, denak txaloka eta irribarre urtika hasten zaizkit. Lore zaparradak ere ba datoz nonbaitetik.

— Jaun-andreok! —hasten naiz ni ere—. Egun haundi honetan Oromenderrietaren haunditasuna ospatzen dugu, armen bidez hain bikainki irabazia. Haunditasun hori Erregetzaren hasiera hasieratik segurtatzeko eta neure aginte berriaren estreinu gisan, barka ezaidazue Oromenderrietako Armajaun agurgarriarekin pare bat hitz bakarrean egitea.

Txaloak jotzen dizkirate. Oromenderrietako Armajaunak adeitasun haundiz eta irribarre makurberaz, jendeari pasabideetara irteteko seinaleak egiten dizkio, haiek ere jendeztaturik daude baina. Ate haundiak itxi eta Armajauna eta biok bakarrik gaude, kanpoko barbaro haundia entzunez.

— Honek ere sinestu ziguk zerbait —pentsatuko dute nire lagunek.

— Pozik? —galdetzen dit Armajaunak.

— Oso pozik, jauna. Nire bizitzako egunik haundiena.

— Ez da hainbesterako izango.

— Gehiagorako ere bai, jauna. Barruari eutsi ezinik nago.

— Pozten naiz zu bezalako gudulari ohia horrela ikusteaz.

— Ohia ez, jauna, naizena baizik.

— Ah, bai! Barka. Gaur zu zaitugu Oromenderrietako gudulari nagusia.

— Sinestuko banu baino haundiagoa.

— Irtengo al gara, jendea zain ez edukitzeko?

— Itxaron pixka bat, jauna. Ez al gara pare bat hitz esateko gelditu?

— Lau ere esanak ditugu.

— Baina nik beste hitz bat esan nahi nuen. Berehalaxe amaituko dugu. Eduki hau mesedez. —Errege makila ematen diot—. Eduki hau ere pixka batean —eta koroia beste eskuan hartzen du.

— Berotasuna ematen al dizu?

— Buruan ez, baina bai odolean. Neuk ere erregalutxo bat egin behar dizut.

Pistola atera eta paparrean ipintzen diot.

Ez dago heriotzarekin kontatu gabe ezer egiterik, pilakuntza heriotzan edo heriotzaren bildurrean oinarritzen baita. Hilak nahitaezkoak direnez gero, ahalik eta heriotzarik gutxienez apartatzera goaz. Baina heriotza eraginkorrak izan daitezela, indar automatikoa eta errozkoa dutenak, denbora eta munizioak eta sarritan bizia ere txori txikiak hiltzen galdu gabe. Beharrezko heriotzen penarik ez izan. Beti gailurrean jotzen baduzu, merezi ez duenik ez duzu joko, agian merezi duten guztiak ez dituzu harrapatuko baina. Helburu nagusia ez da ordainak banatzea, piramidea desmuntuztea baizik eta desmuntaita horrexek esango du zenbat heriotza diren beharrezko. Ez askorik. Edozein gerratan urtebetean bakarrik galtzen direnak nahikoa lirateke mundu guztiari buelta emateko. Hortik gorakoei (beherakoei hobeki, beti goitik behera ari baikara) barkatzeko moduan

*gaude. Piramidea desmuntatutakoan, ez dugu inol
epaituko ez heriotzara kondenatuko, berriro goruntz
hasten ez badira. Ez dira hasiko, inork ez baitu oinaz-
tuaren deskarga zihurra den lekuan bururik jarri na-
hi. Leku hori beti goiko bertizea baldin bada, hur-
rrengoz hurrengo, piramidea laster da lurrean, abia-
dura uniformeki azeleratuan, grabitatean bezala.*

— Bai ustekabe polita ere! Pistola honekin ibili al ziren gerran?

— Nabil, jauna, nabil!

— Hauxe errege suharra gertatu zaiguna! —dio barreak Armajaunak.

— Jauna! Ba dirudi gudu hau ez duzula benetan hartzen.

— Bai, bai! Nola ez dut, ba, benetan hartuko, pistola paparrean dudala?

— Barre horiek niretzat izan badira, ez uste zeu kuriosoagoa zaudenik, esku batean koroia eta bestean makila,

— Eta pistola paparrean. Zer pena hau denek ez ikustea.

— Laster ikusiko dute. Baina lehenbizi benetan ari naitzela sinestu behar duzu.

— Beno! Sinesten dut, ba! —esaten du serioски Armajaunak, bestela ez dugula amaituko pentsaturik—.

— Zer sinesten duzu?

— Errege zelebrea daukagula aurren.

— Txantxetan nabilela uste al duzu?

— Besterik sinestu behar al dut?

— Tiratuko banu ere ez?

— Orduan ikusi egin behar.

— Pun! Pun! Ea zer ikusten duzun orain.

Oromenderrietako Armajaunak orain arteko suerterik

haundiena izan du, txantxetan hil baita, erregegailuak eskuetan dituela gainera. Pasabideko jendetza brun! sartuz batera, pun! ematen diot neure buruari, garrasi unibertsean bildurik, Armajaunaren gainera eroriz. Berehalaxe heltzen digute, baina alperrik izango dela uste dut. Mese-
dez, mahai gainean utzi dudana papera irakur ezazu, hauek ez dute argitaratuko eta.

«Adiskideok: Niretzat egun haundia da hau. Izan da, hobeki esateko, zuek hau irakurtzerako, hila izango bainaz, Oromenderrietako Armajaunaren gainean. Hiru gerra haunditan eta lau txikitari ibilia naiz. Zuek ere ibili izango zarete eta gehiago ere ibili beharko zenukete, Armajauna aurretik eraman ez banu. Nik aurreko guztiak galdu nituen, biziari eustea lortu banuen ere. Azkenengo, ordea, ederki irabazi dut, bizia utzi badut ere. Nire kontzientzia apurrak urtez kargatzeari eusten zion, baina ez hainbeste arma ikusteari. Ez dakit zenbat mila urte den gizakia sortu omen zela eta begira nora iritxi garen. Begira natura edertzeko sortu omen zen gure adimendu bikainak zer aurrerapen ekarri digun. Alperrik da horren izugarrikeria nik zueri senti erazi nahi izatea. Inmunizaturik zaudete, baina erremediorik ez dagoela usterik, heriotzaren zain zaudete, bien bitartean ahal duzuen moduan denbora emanez.

Submarino nuklear batek hiri oso baten presupostua balio duela entzun eta «zer egingo zaio, ba?» esaten duzue, hiri batek zenbat balio duen ere ez baitakizue. Edozein misil koxkorrek herri oso batek aina balio duela entzun eta gutxiago harritzen zarete, ez zenbat misil ez zenbat herri dagoen ere ez baitakizue. Oromenderrietako armagintza mende guztietako herriak baino garestiagoa dela entzun eta bizkarrak altxatzen dituzue, zuen kalkulamenetik gora dagoela eta. Munduaren etorkizuna bere txikizioaren in-

dustriatik bizi dela entzün eta solasa aldatzen duzue, bestela ere hil egin behar dela eta. Oraintxe ohartuko zarete nondik dagoen erremedioa, bakarra gainera, armagintzak ere ez baitu bururik gabe funtzionatzen.

Beste gauza haundi bat ere esan nahi dizuet. Batek baino gehiagok esango du nola agure batek hau egin zezakeen. Nork egingo zuen, ba? Nik bestela ere hiltzea zihur neukan. Zer galdu dut, ba? Egun batzuk munduan, berak gero eta tristeagoak, hemendik abandonua eta hortik mina. Baina minik gehien gazteak hiltzeak ematen zidan. Horiexek dira bizi behar dutenak! Zaharrok ez gaituzte gerrarako nahi. Gauza ere ez gara, armatzen dituzten gerritarako. Baina nik egin dudana egiteko? Horretarako ez da egun batzuk galtzeko borondatea besterik behar. Hainbeste bizi izateko suertea izan dugunoi zer ardura digu egun batzuk aurrerago joateak? Eta bai lan erreza ere! Ikusi al duzue nola txantxetan garbitu dudan Oromenderrietako Armajauna? Munduaren konponbidea zaharrok eskuan dago, edo egon behar luke. Bizi zaitetze besteok, egizue jolas, goza ezazue, egizue artea, izan zaitetze sortzaile, alda ezazue mundua, egizue maitasuna, altxa ezazue kontzientzia, poztu ezazue elkar, egizue lo, itzar zaitetze, bete itzazue ametsak, murgil zaitetze naturan, egizue gogoz lan, egizkizue gogoko lanak, begira ezaiozue munduari egunetik egunera edertzen, erabil ezazue denbora gauza guzti horietan eta utz zaharroi mundua konpontzen. Guk ez daukagu zer galdurik. Geuk egingo dugu hori. Gu zaharrok artean denok gara asko ikusiak eta gehiago sufrituak. Batzuek ez daukate adorerik, baina nork jakin, sekula pentsatzen jarri ezik? Zaharrok hiltzeko besterik ez dugula balio uste izaten da. Hiltzeko eta enbarazu egiteko. Ez al dugu beste ezertarako balio? Zenbat adore behar zen, ba, nik egin dudana egiteko? Gazterik suharrenak ere zer

gehiago egingo zuen, ba? Pentsatzen jarriz gero, zaharrok ilusioa gazteei lan txar hori kentzea da. Orduan bai ba lukeela zahartzaroak betetasun sortzailea! Gazteak haurren sortzaile eta zaharrok gazteen sortzaile. Zer gauza ederragorik? Nire lekuan hil behar zuen gazteari bizia eman diot. Gazteengandik sortuta jaio eta gazteak sortuz hil. Hone-lako poesiari ez da munduan sekula izan. Eta egia gainera! Horixe da edertasun honen ederrena. Alai zaitetze, zaharrok, eta har adorea. Hain gauza erreza eta ederra! Bizi zaitetze, gazteok! Geuk egingo dugu bestea».

TENKO

Azkenean ere hemen nago Oromenderrietako espetxe nagusian. Inork ez daki zenbat gauden, baina mila batzuk bai. Lagunartean sartuz batera, patioetako multzo zikintsu hauei lagunarteak esaterik badago, Tenko gora eta Tenko behera dabilta.

— Nor duk Tenko hori? —galdetzen diet.

— Ez al dakik?

Harriturik begiratzen didate, espetxea zapalduz batera lehenengo esamesa izaten omen baita.

— Tenko gela berezian edukitzen diate beti —kontatzen didate misterio haundiz—. Ez duk sekula patiora ateratzen. Jana ere albotik ematen ziotek, berak ez ikusteko moduan. Hil arte horrelaxe egon behar omen dik.

— Ez zegok eskubiderik. Beste presoek ez al zeukatek laguntzerik?

— Bai, baina nor ausartu?

— Zer egin dik, ba?

— Oinaztu telegidatu horietarikoa omen duk. Erdi hilik

gelditu omen zuan, jaun haundiren bat garbituta gero, eta sendatzea suertatu. Honaxe ekarri ziaten eta inork ez dik harengana hurreratzerik ere nahi.

— Ez zaituzte jango, mutilak!

— Jan ez, baina hi! Hura egin zuenari zer axola zioke beste hainbeste egiteak?

— Inork ez al dik berarekin hitzik egin?

— Hura ez dik inork ikusi ere egiten. Berarentzat bereziki prestatutako gelazuloan sartu ziaten eta hortxe hil beharko dik.

Espetxeko zuzendaria harriturik dago, Tenkori neuk jaramon egingo diodala esan diodanean. Neuk jana eramaneu, neuk berriketan lagundu, neuk patiora atera eta neuk berarekin ibili. Zuzendariak ezin du ulertu, bestela ere espetxe zuzendariak ezer ulertzen ez dutenak izaten dira baina.

— Zer egin du, ba, txarrik? Norbait hil zuela? Bi eta hiru eta gehiago hildakoak ere makina bat dabilta hemen lasai.

— Horrek hildakoa norbait baino gehiago zuan, baina ez duk horregatik.

— Inork nahi ez duelako baldin bada, hemendik aurrera neu arduratuko naiz horretaz, baimenik ematen badidazu.

— Baimena bai, baina hor konpon gero.

— Neure kontu, zuzendari jauna. Lehengoa norbait baino gehiago baldin bazen, orain ere ez da ni bezalako nornahirekin hasiko.

Gelaz kanpoko atetzarra ireki eta bazkaria eskuan dudala, bundintsare aurrean jarri natzaionean, Tenko zurtz eginda gelditu zait.

— Kaixo!

— Kaixo!

— Bazkaria hemen.
— Eskerrik asko.
— Ekarri besterik ez diat egin nik.
— Ez duk horregatik. Espetxe honetan ikusten dudan lehenengo laguna haiz.

— Etxekorik ere ez al duk ikusten?
— Ez etxekorik, ez abokaturik, ez deabrurik.
— Zuzendariarekin egon nauk eta bazkal ondoan patiora elkarrekin irteteko baimena eman zidak.

— Hi nirekin?
— Zergatik ez? Ezin diat gizonik horrela ikusi.
— Ez dakik zenbat estimatzen dudan, jendea nire bildur izatea ulertzen diat baina.

— Nik ba zekiat ez didakela ezer egingo.
— Nola ezer egingo zioat, ba, horrela datorrenari?
— Bazkal ezak eta laster etorriko nauk giltzekin.
— Eskerrik asko berriro ere.
— Ez hadi horren kunplitua izan, mutil.

Patioan hara eta hona gabiltzala, leiho guztiak buruz beterik daude. Ez da espetxeetan ohi bezalako zaratarik ez eskandalurik, gehienez ere leihotik leihorako marmarioria baizik. Tenko famatua begien bistan daukate, atzera eta aurrera. Hala ere, nirekin harrituago daudela dirudi. Tenkorekin hasi nintzela jakinez batera, errespeto izugarria hartu zidaten. Gaizkilerik ospetsuenek ere ezlurtarret bezala begiratzen digute.

— Begi guztiak gainean zeuzkagu.
— Gogaituko dituk. Hemen berriak laster zahartzen dituk.

— Nola izan zuan hirea?
— Ez zekiat, mutil, neuk ere ez zekiat. Neure buruan tiroa eman nioan —lokian balazulua erakusten dit— eta kalabozo horretantxe itzartu ninduan.

— Zer itzela sentituko duk orain, ez?
— Sentimenduei ez zieat jaramonik egiten, hil arte hor egotekotan, zerbaitetan denbora eman beharko diagu baina.

— Eta bestea?
— Zein beste?
— Norbait ez al huen, ba...?
— Hil? Bai, mutil! Esan ezak bildur gabe, nik ez diat horren lotsarik eta. Petroljauna zuan. Mundua berea zuela zebilean, baina punpun horrek deabruak zeuzkak.

— Hilda utzi al huen?
— Beste munduan ere urrun gainera. Eta hi nola hemendik, galdera goiztarregia ez bada?

— Ez, mutil. Etortzeko motiboak egitea kostatu zitzaidan, baina azkenean lortu nian. Apropos etorri nauk.

— Apropos espetxera?
— Heure bila etorri nauk.
— Nire bila?

— Heure bila, bai, heure bila. Egunkarietan eta abar hire berriak eta argazkiak luze etorri zituan, bizirik apartatu hintzen lehenengo kasua hintzela eta horrela. Gero hire azkenaren berri jakitean, nola espetxeratu eta gela beltzean guztiz isolaturik haukaten, pentsatu nian: «Hori ez duk bizimodua. Joan eta akabatu egin behar diat».

— Ni akabatzena etorri al haiz?
— Besterik gabe. Erabaki hauek bueltagabeak direla heure burutik jakin dezakek. Jar hadi bestela Petroljau-naren larruan.

— Hauxe gauza zelebrea!
— Horrela hartzen baduk, biontzat hobe.
— Nola hartuko diat, ba? Ez nian honelakorik uste.
— Kontzientzia lehertua guztiz ezustekoa duk.
— Bai gero! Noiz egitea pentsatzen duk?

— Horretarako ba diagu denbora. Guregana ez duk inor behingoan hurreratuko. Zer deritzok?

— Zer eritziko zioat, ba? Buruan hori sartu bazaik, ba zekiat tematzea alperrik dela, Petroljauna nirekin alperrik ibili zen bezala.

— Lan erreza diat orduan.

— Nola bururatu zaik hori?

— Mesede bat egiteagatik, hori ez baita gizakiaren biziera.

— Alde horretatik, niri baino mesede haundiagoa egingo diek espetxeko zuzendariari eta presozainei. A zer la-saitasuna hartuko duten!

— Horiei mesederik egiteko gogorik ez diat, ba, ekarri.

— Niregatik bakarrik baldin bada, ez daukak heure bururik hil beharrik. Hemen ez hau horregatik inork garbituko gero, planta juridikoren batzuk egingo ditiare baina.

— Benetan esan al duk hori?

— Txantxetan ere bai, nahiago baduk, baina horrela beste jaun bat aurretik eramateko moduan geldituko haiz.

— Hi halabeharrez salbatu, nik neure burua beste jaun batentzat gorde, hurrengoak egitekoak egin eta ihes eta azkenean berriro ere lehenera. Adiskidea, kalkulu politikoetara itzultzea hondamena duk. Oraintxe sinesten diat hi akabatzena etortzeak merezi zuela, bat batean esaten ez nauk ausartu baina. Heure bila etorri nauk, hik hila behar baituk. Gaizki lehertutako kontzientzia haiz bestela.

— Gaizki ala ongi, nik neurea egin nian eta neure buruari ere ez nioan nolanahikoa eman. Ekintza garbi gelditu zuan. Gero hemen, bakarrean naizela, ez zaidak horrelakorik bururatu.

— Niri bururatu zaidak, ba.

— Hiri bururatu bazaik, horixe izango duk nagusi, oraindik hik zergatik hil behar dukan ez diat garbiegi ikus-

ten baina. Egia esan, burutik ere ez nauk ondoegi gelditu eta beharbada horrexegatik izango duk.

— Gure arrazoa bururik gabe ere ulertzekoa duk eta hortxe zegok indarra. Oinastu telegidatuena jokadak bapatekoa izan behar dik, inolako zirriturik ez dudabiderik gabea. Konorteratzean heure burua hil bahu, ekintza horrek aurrekoak berak baino zirrara haundiagoa sartuko zian, bai eta bildurra ere behar den lekuetan. Orduan kontzientzia lehertua bueltagabea dela pentsatuko ziaten, ez une hartan bakarrik, hil arte baizik. Oinastua ez duk gelditzen bere burua desegin arte. Bizirik gelditu hintzela ikustean, espektazio guztia zuan ea gero zer egiten huen. Ba zekiat oraintxe ere bildurgarria haizela, baina Oromenderrietako jaunak pentsatzen ari dituk apur bat amore ematen hasi ote garen. Hurrengoan beste apur bat eta azkenean berriro ere itxaropena sortuko zaiek.

— Itxaropen horrekin ez dituk urrun joango.

— Bai, ordea, iraun, edo irauteko indarra hartu. Pentsa ezak guk alderantziz zenbat menderi eutsi diogun itxaropen gutxiagoz. Eta beste gauza bat ere ba zegok. Hi, nola edo hala, beren esku hago orain. Nolabait menderatu haute, bildurra badiate ere, eta nolabait mendekatu dituk. Hire gain ba zeukatek botere bat eta, sikologikoki bada ere, zerbait irabazi diate. Ez dituk hik guztiz derrotatu eta hori ez zegok uzterik. Kontzientzia lehertuaren ginetik ez dik inork egon behar eta horiei ez zaiek zerbait irabazi duten engainu sikologikorik ere utzi behar. Leherkunde osoa duk hau.

— Sinesten diat, gehiegi ulertzeko gauza ez banauk ere. Esan diat burutik ez naizela guztiz sano gelditu. Hala izan balitz, beharbada neuk ere horixe pentsatuko nian. Dena dela, oraindik ere garaiz negok. Neuk hilko diat neure bu-

rua. Penagarria duk oinaztu bat honetarako alperrik galtzea.

— Hori niregatik esan baduk, hago lasai. Oinaztu hau ez duk alperrik eroriko. Ba al dakik nolako itzala eta markurtasuna sartuko duen ekintza honek Oromenderrietan? Honek esan nahi dik kontzientzia lehertua atzeraezina dela, norbaitek azkeneraino ez jotzeko tentaziorik balu ere, beste batek errematatuko duelako. Hastea ez duk hemen derri-gorra, baina hasitakoa amaitzea bai. Hortik aterako diate ez daukatela zereginik, ez eta edukitzeko itzaropen ziriturik ere.

— Gehiegi luzatzen ari gaituk. Nobela bat egiten ari garela zirudik. Egin dezagun egitekoa, nola pentsaturik baldin badaukak.

— Hemen diat pistola ederra.

— Nola sartu duk hori?

— Hemen edozer sartzen duk, denboraz eta setaz hartuz gero.

— Espektakulu ederra ikusi behar diate.

— Nortzuek?

— Hor goiko leihoetatik begira daudenek.

— A! Ahazturik niengoan.

Patioan dozenaren bat untze egiten ditugu, isil isilik, leihoetako buru multzoei tarteka begiratuz. Patioaren erdi erdian gelditu eta Tenkok diosta:

— Nahi dukanean. Kalabozora itzultzeko gogorik ez diat.

Ni ere gelditu eta, «Irabazi dugu!» hots eginez, bi tiro ematen dizkiot. Leihoetako buruak itzala eguzkiarekin bezala desagertzen dira. Presozainik ikusten den zain nagoa baina hemen ez da inor ageri, leihoren batean edo bestean lantzean burutxoren bat izan ezik.

— Irten lasai! —orroe egiten dut espetxeko galeria

guztietaruntz—. Guk ez diagu behar ez denik hiltzen!

Apurka apurka, buruak agertuz doaz eta azkenean, patioaren alderik aldera elkar ikusteaz animaturik edo, denak leihoetan daude berriro, bakoitzean lau, bost, sei eta gehiagoko multzoak, barrote artetik sudurrak eta belarriak erakutsiz.

— Irten, mutilak! Norbait hil behar duzuenean, ikas nola hil, gero espetxean usteltzen egon gabe.

Pistola lokian dudala, galeria guztietaruntz astiro astiro jiraturik, ba dakizu zer datorren. Lurrean natza, bigarrena tiratzeko astirik gabe. Tenko eta biok hemen gaude Oromenderrietako preso guztien azpian eta jaun guztien gainean.

XI

OROJAUNA

Oromenderrietako Orojaunarengana hurreratzen ez dago errez. Batean ogidun, bestean esnedun, bestean iturgin, bestean elektrikari, haren gaztelura sartzeko lanbide guztiak probaturik, denbora galdu besterik ez dut egin. Azkenean gazteluko jagolegoan sartzea erabaki nuen. Behar diren pazientzia eta saldukeria guztiak harturik, gazteluzaingoan sartzea lortua dut noizbait. Hurrengo pausoa haren jagolego pertsonalera iristea daukat. Behin gaztelu barrura sartuz gero, hori ere denboraren gorabehera izango da.

Orain arte ez zaizkit gauzak hain gaizki atera. Gazteluko buruzagien konfidantza poliki irabazten ari naiz, egunero horretarako merituak eginez. Ez da erreza, baina litekeena, tarteka haren jagolegoa hornitu beharra izaten baita, bajaren bat edo beste bide dela. Dakidanez, errelebo bakoitzean dozenaka daude, zein baino zein begi zorrotzagoz hautatuak. Horietariko batzurekin lagun egitea lortu dut eta ez da gutxi. Posibilitateak batez ere jagole-

goa gehizetik datoz. Azken aldiko gertaerak bide direla, Orojauna ez da gaztelutik irten ere egiten eta haren jagolego pertsonala egunean baino egunean ugariagotzen ari da. Hurrengo sailean sartzeko posibilitate haundi samarrak ikusten ditut.

Piramidearen beherakuntzak hasi eta berehalaxe hartuko du abiadura uniformeki azeleratua, grabitatean bezala, eta laster izango da unea piramide osoa plast desegingo dena, desmuntatua lurreraino irixteko zain egon gabe. Gailurrak bere gailurtasunagatik bakarrik oinaztu zihurra buruan espero badu, etxearen hondamena berehalakoa da. Ez da oinaztu askorik behar, hurrengoentzat erabateko eskarmentua gerta dadin. Inork ez du bururik jarriko oinaztuaren deskarga zihurra den lekuan. Leku hori bertzea bada, hurrenez hurren, piramidea laster da lurtean.

Orojaunaren jagolego buruak bila ari nintzen proposamena egin berri dit. Neure erreparatzeak eta bildur plantak eginez, pentsatuko dudala esan diot.

— Pentsatu al duk? — galdetzen dit bi egun geroago.

— Ez daukat gogo haundirik, baina hemen egin beharrekoa egiteko gaude — erantzuten diot.

— Ba dakik egun batzutan instrukzio zorrotzak egin beharko ditukala.

— Agintzen zaiguna egiteko prest gaude, jauna.

Neure helburua lortu dut. Orojaunaren jagolego pertsonalekoa naiz. Egunak aurrera doazela, ordea, Orojaunik ez dugu ikusi ere egiten. Nolako jagoleak ote gaituk, ba, gu? Nire amets guztiak desegiten dituen berria entzuten dut. Oromenderrietako Orojaunak bere jagolego pertsonaletik isolatzeko erabakia hartu omen du. Beste nonbait

jaunen bat bere jagole pertsonaletariko batek eraitsia izan omen da eta gure Orojaunak bere idazkariaren eta etxe-koen harremana bakarrik onartzen du. Hainbeste ahalegin eta saldukeria alperrik, orain beste gauza bat pentsatzen hasi behar izateko.

Zaila bada ere, Orojaunaren idazkari pertsonala izatera heltzeaz beste biderik ez daukat. Horretarako bai meritu haundiak egin beharko ditudala. Gainera idazkaria oraindik sasoiko dago eta hura gauza den bitartean, apenas ordezkorik onartuko duen. Nola edo hala, idazkaria eliminatu behar dut. Baina horretarako aurretik merituk eta bideak eginak eduki behar, bestela alperrik izango baita. Orduan ere, Jainkoak jakin Orojaunak, dagoen egoeran, nor hautatzeari emango dion. Lana poliki egiten ari naizela aitortu behar. Idazkariarekin lagun egitea lorturik, hara non diostan Orojaunak nire galdea egin duela. Ea nolako mutila naizen eta abar. Idazkariak oso ondo hitz egin omen dio nitaz. Denbora aurrera doa eta, idazkari berririk behar balu, neu hautatuko nindukeela ematen dit barruak. Orain idazkaria bistatik kentzea besterik ez daukak.

— Zer moduz Orojauna? — galdetzen diot gaineko egun batean.

— Neuk ere ez zekiat, mutil. Aspaldion ez diat ikusten.

— Norabait alde egin al da?

— Alde egin? Bai zera! Gero eta isolatuago zegoak. Hor nonbait beste jaunen bat bere idazkariak garbitua izan duk eta niri ere orain hurreratzen ez uzteko agindu dik. Emaztearekin eta seme-alabekin bakarrik zeukak harremanik.

— Madarikatua! Hau egoera! Oraintxe ez dakit zer ikusi behar dugun.

Buru batzuk nahitaez jo beharra al dago? Heriotza nahitaez beharrezkoa al da? Ah, adiskidea! Posibilitatearen bildur hutsa nahikoa balitz, lan bat gutxiago eta denontzat hobe. Lortzekoa lortzeko darrabilen tresnaren zihurtasun osoa daukana ez doa mendeku bila. Mendekua ezinaren eskapea edo baskeriaren jariadura da. Prozesu bueltagabe horren mehatxua nahiko disuasio bide balitz, zer nahiago? Egina dena. Baina mendez mende heriotzaren gainean muntaturik datorren pilakuntzarik apenas disolbituko den, alderantzizko prozesurik martxan jarri gabe. Hortik aurrera, hor konpon bakoitza.

— *Hi, eta sistema horrek norako edo zenbat lekutarako balio izango dik?*

— *Mundu osorako balio duenak mundu zati baterako ere balio izango dik, ez?*

Eta nik gutxiago dakit orain zer egin behar dudan. Bide bakarra Orojaunaren familian sartzea dut. Horretarako modu bakarra berriz haren alaba bakarrarekin ezkontzea da. Bai tentela ere! Nola ez zitzaidan lehenagotik horixe gogoratu? Horrela inor eliminatu beharrik ere ez. Lan erreza ez da, Orojaunaren alaba bera ere oso bakarti eta sumoti bizi baita aspaldion, baina horrexegatik beragatik hain zuzen laztan premia gehiago izango du sarritan. Unea eta era egokia asmatzen jakin behar.

Lan berrian ez nabil hain gaizki ere. Orojaunaren alaba pasatzen ikusten dudan bakoitzean, oraindik ez baitaukat hitz egiterik, ahalik eta irribarrerik tristeena egiten diot, haren barrukide naizela adieraziz. Irribarre alai alperrekoa zela ikusteak aldatu nau taktika berrira. Bere eragina daukala dirudi, Orojaunaren alabak gero eta arreta gehiagoz begiratzen baitit. Hitz erdi egiterik lor baneza,

agian dena egina, horrelako gauzetan hasieran sartzen baita amaiera.

— Zeri egiten diozu horren irribarre tristea? — galdetzen dit.

— Zure barruko tristurari.

Nonbait gustatu egin zaio. Bitxia da, baina «zure barruko tristura» esanda, inor ez da haserraten, gezurra izanik ere. «Zure barruko poza» esanda, ordea, gehienak mizindu egiten zaizkizu, «kanpoko eta barruko ez dira bat gero!» edo «ez dakizu asko nire barruko berri» eta horrelakoak esanez. Tristura zerbait ohoragarria da nonbait. Horregatik gauza hunkigarriak esateko balio izaten du. Ederki. Orojaunaren alabak orain beti esaten dit zerbait pasoa. Egunen batez pixka bat jarraitu eta esango diot:

— Noiz geldituko zara apur batean?

Oromenderrietako Orojaunaren alaba nire taktikak suposatzen duena baino ere tristeago dagoela uste dut. Horregatik biharamonean bertan gelditu zait, gazteluko harrizko zutabe haundiaren ondoan. Bihar gehiago hitz egitekotan gelditu gara. Eguneko orduak ez doaz hain errez eta gauekoak gutxiago. Neu ere ia benetako zera sentitzen hasia nago. Hobeki. Zenbat eta benetakoagoa izan, hainbat eta hobeki eta baterago egingo ditugu gauza guztiak.

— Gaur inoiz baino tristeago zatoz — esaten diot, gaztelu osteko zuhaitzi nagusian.

— Gureak ez dauka erremediorik — esaten dit, burua nire paparrean ezkutatu.

— Denak dauka erremedioa, neska, (ausartuko ote naiz?) neu ere hemen nago eta.

— Ez daukat aita gehiago ikusterik.

— Zerbait gertatu al da?

— Gurean ez, baina gure osabarenean bai. Bere alabak hil du.

Nire planak, orain gainera benetako itxura hartzen hasirik zeudenak, berriro ere haizeak daramatza. Orojauna ia guztiz bakartu da. Emaztearekin bakarrik hitz egiten du eta horixe ere oso noiz behinka.

Eragozpen haundiagoa bestetik dago, oinaztuen aldetik alegia. Nor egon heriotza zihurrerako prest? Nor izan naturaren legerik bortitzenari, iraun senari, hain irauli errozkoa emateko gauza? Hortxe dago gorabehera guztia. Boluntario kontua. Hain zaila al da hori? Ez dirudi hainbestekoa denik. Kontzientzia guztiak leherkunde horretara iritxi beharra baltz, orduan zaila ez ezik, ezinezkoa litzateke, baina esaera da munduan denetik dagoela eta hortik ere izango da. Aski da zerbaiten posibilitate hutsa, haren aldekoak agertzeko. Gauza azalekoan denak ados jartzea zailagoa da zerbait funtsezkoan norbaitzuk agertzea baino. Askoren artean hantxe izaten dira edozertarako kemena eta gogoa daukatenak. Hiltzeko ere bai? Horren lege orokorra eta bueltagabea ote da hori?

— Hik hori niri? —esan zuen Lurjaunak.

— Bai, aita! Kontzientzia lehertua naiz.

— Heure aitari hori?

— Bai, aita! Neure aitari.

— Baina nik naizen guztia eta daukadan guztia hiretzat edukita! Neure hazitik sortua! Neuk... Baina nik... Ba al dakin nolako krimena egin behar dunan?

— Horiek kontzientzia zaharreko kontuak dira, aita. Lehertu naiz eta orain ongi-gaizkiak oso beste era batekoak dira.

— Alabatxoa! Heure aita naun gero! Ez al naun eza-gutzen?

— Ezagutzen zaitut, bai, baina zuk ur irabiatuen barruan bezala ikusten nauzu. Nik ere ur barruan ikusita ezagutzen zintudan. Orain urez kanpotik ikusten zaitut eta lehengo irudi guztiak munstroak dira honen ondoan. Munstroa zara, aita!

— Zer egin behar dinat munstrotasuna uzteko?

— Ito ala urpetik irten.

— Nola irten?

— Hilda. Beste erremediorik ez daukazu, aita.

Orojaunak aurkitu dik, ba, erremedioa! Alabarekin ezkondu, ez dut ezer aurreratzeko, hura ikusi nahi ez badi, suhia gutxiago onartuko baitu. Emaztea konkistatzea beste biderik ez zegoen. Nola, ordea, Orojauna bera baita senarra? Emaztea kenduko banio, orduantxe bai garbituko nauela berak. Oroandereari burua jan behar diot. Jaunengan emazteek berek baino gehiago agintzen omen dute. Zenbat eta senarra bakarrago egon, orduan eta gehiago ebazten omen du emazteak. Orojaunaren emaztea neureganatzen badut, bestea egingo dago. Aurreko mailetan hartutako esperientzia ederrari ukitu batzuk eginez, lan berrian ez nabil gaizki. Zuzen zuzenean Orojaunarengana jotzea erabakiko banu, agian horretarakoxe ere bideren bat ireki. Baina, hi! Ez al habil, ba, horretantxe? Alabarik ez dut utzi behar. Beharbada ezkontzea ere ez legoke gaizki, nola bukatuko dugun ere ez dakigu eta. Alabarengandik amarengana eta honengandik Orojaunaren bizkarrera. Oroanderearekin hitz batzuk egin ditut eta ez nau batere gaizki ikusten. Hurrengoan alabarekin ezkontzekoa aipatuko diot. Handik aurrera lasai. Neska baitezcan dago. Nor ezkonduko da, ba, Orojaunaren alabarekin bestela? Oroandereak alabari eta biori dei egin eta esan digu:

— Umetxoak! Gureak egin dik. Aitak ez nik gehiago

ikusi nahi. Oromenderrietako Lanjauna bere emazteak akabatu dik. Zuen aitari hori esaten deskuidatu nauk eta orain guztiz bakartu duk. Leku jakin batean papertxoak utziz eta hartuz bakarrik elkar zertzen diagu. Inork eramandako janik ere ez dik onartzen. Ezertxo ere ez. Berak lantzen eta hartzen duenetik bizi duk. Gero eta paper guxtiago uzten zidak. Bizi dela zekiat doi doi, baina hilda balego ere, ez nikek jakingo. Hau duk azken modua!

Oraintxe bai ez daukadala inolako zereginik. Burua eta denbora alperrik galdu besterik ez diat egin. Tira, ba! Bizirik nago behintzat. Ez duk ahalegin faltaz izan. Oromenderrietako Orojauna hila da. Bizirik ala hilik dagoen jakiterik ez badago, hilik bezala duk hori. Jokotik kanpora dago eta horixe da balio duena, irteera bitxia aurkitu badu ere. Noan gaztelu honetatik berriro neure lehengo bizimodura.

Hamaika gizakumek bere burua hiltzen dik, ba! Desesperazio kontua dela esaten baduzu ere, kasurako berdin da. Hemen ez gara zergatik aztertzen ari, ea gizakiak heriotza jakinera jotzeko adorerik duen baizik. Beren burua hiltzen dutenek burua galdurik daukatela esateak ez du ezer aldatzen. Dakiguna da bizirik daudela eta beren burua akabatzen dutela. Desesperazioa al da hori egin lezakeen bakarra? Hala dela emanik ere, zer da desesperazioa deritzogun hori? Heriotzari aurrea eman nahi eta ezinean aurkitzen bazara eta horretarako indar bakarra desesperazioa bada, desespera gaitezen eta kito.

Bidean ezin dut Orojaunak gehiago egin didala burutik kendu. Hura hilda bezala egotea hilda egotea bezala dela pentsatzea ezinaren zurigarria besterik ez da. Zer jar

nezake, ordea, neure gogo guztia baino gehiago? Kontzientziak ez dit gehiagorako argitasunik ematen. Leherkundeak nonbait indarra gehiago dauka argitasuna baino. Zergatik ez haiz Lezajaunarengana joaten? Bai, gizon! Nola ez zaidak lehenago gogoratu? Lezaundietako haitzulo aretoan hoska ari naiz.

— Lezajaunaaaaaa! Orojaunarekin hauxe eta hauxe gertatu zaaaaait!

— Egiok hauxe eta hauxeeeee! —erantzuten dit abots durunditsuak.

Gaztelu ondoko ibai bazterrean oinetakoak erantzi, soinekoak ere bai, larrua utzi, gorputza ere bai, eta ba noa arima hutsean. Oromenderrietako Orojaunaren gaztelu inguruak isiltasunak janak daude. Haizea ere behatz puntetan pasatzen da hemen. Noizbait Orojaunaren ondoan naiz. Oraindik bizi da. Haitzur aho zabal batekin haitzurka ari da. Izerdia dario, eguzkiak jotzen baitu. Lurrezko pitxarretik ur zurrut luzeak egin eta berriro haitzurren has-tera doala:

— Zuloa egiten? —galdetzen diot.

— Nor da hemen? —orroe egiten du, alde guztietara haitzurrarekin jotzekoa eginez.

— Haitzurrarekin alperrik ari zara. Horrekin jotzekoak ibaj bazterrean utzi ditut.

— Nor zara zu? —arrubioak bezalako begiekin.

— Beti zurekin eta ez nauzu ezagutzen?

— Nor zara zuuuu!! —olagarro gorria bezalako aurgigiz.

— Jar zaitetz eguzkiari atzea emada. Horrelaxe! Begira ezazu lurrera, oinetatik aurreruntz. Zer ikusten duzu?

— Neure itzala.

— Horixe nauzu, ba.

— Zer behar dun?

- Zeu akabatu.
- Nola ni akabatu?
- Lehenago akabatu behar zintudan bezala.
- Ez al haiz, ba, neure itzala?
- Nintzen. Orain zure itzal lehertua nauzu.
- Hirea laster egingo dinat nik —itzalpera ihes eta handik barre eginez.

— Ederki. Ikusiko dugu zenbat denboraratan zauden hor.

Orojauna gautu arte egon da itzalpean. Bere bakar-bordara sartzean, argia piztu du eta nik:

- Jar zaitetz argiari atzez.
- Hemen al haiz berriro ere? —argia itzali eta barreak eginez.
- Gau guztian horrela egon behar al duzu?

Munduari begiraturik, motiborik ez zaizu faltako. Euskal Herrian bakarrik, honen herri txiki honetanxe bakarrik, honen herri apal, fededun eta zoriontsu honetantxe bakarrik, beren burua hil dutenek aurretik bide batez beste norbait eraman izan balute, gure leherkundera egina zegoen. Ez nornahi eramanda, nornahi gailurrekoa baizik. Hautaketaren zehaztasuna eta erreztasuna lehenago aztertua dugu. Hemen heriotza zihurrera joateko gogoaz eta adoreaz ari gara eta posibilidadate horren lekuko hor daude egunero munduan zehar beren burua hiltzen dutenak.

Hemen dabil tresna hotsa eta eskandalua! Orojaunak dena aurrean darabil, ostikoka. Biraoak botatzen ere hasita dago. Gauerdian kriseilu ahula piztu du eta berriro ere nik:

- Jar zaitetz kriseiluari atzea emanda.

- Hori ez dun itzala!
- Zer naiz, ba? Itzala motelagoa eta bilduagoa da.
- Ba, lotara joango naun! —kriseiluari putz eginda.
- Ez egunik ez argirik ikusi gabe bizi behar al duzu?
- Izorra hadi!

Hor konpon. Nik ez daukat presarik. Niri ihes egiten laster gogait egingo du. Egun bat eta bi iragan dira, baina gero eta zantarkeria eta birao gehiago entzuten zaio. Laster gosea ere bai. Gau ilun hutsean zer hartu behar du, ba, baratzean? Okerrena burutik egiten hasita dagoela.

— Honela jarraitzerik ez zegon! Zer behar dun? —hots egiten dit eguzkitara biluzik irtenda.

- Esan nizun zer.
- Zer?
- Akabatu.
- Zergatik?
- Orojauna zarelako.
- Eta zer?

— Gutxi al da? Nik dakidala, Orojauna bakarra da Oromenderrietan.

— Zer gaitz egin zionat nik Oromenderrietari?

— Zerbaiten bekatua ba zenuen, zeure burua horrela ezkutatzeko.

— Gaizkile horiek ezer berezten ez dutelako, baina ni ez naun Oromenderrietako beste jaunak bezalakoa.

— Zer duzu, ba, desberdinik?

— Ez al ninan esaten? Ez duzue ezer berezten.

— Argitzen ez badiguzu, nola bereziko dugu, ba? Guk dakiguna Oromenderrietarik gehiena, besteek bezala, zeuregandurik daukazula.

— Nik ez zeukanat neurerik ezer. Dena dun Oromenderrietarena.

— Baina zeuk agintzen duzu.

— Norbaitek agindu gabe, nola nahi dun, ba, munda ibiltzea?

— Nola? Mundukoek nahi duten bezala.

— Nik nola agintzen dinat, ba, denen artean hautatua izan bainaun?

— Hara, Orojauna. Orain ez gara agintearen teoria zaharrak eztabaidatzen hasiko. Horiek kontzientzia zaharreko kontuak dituzu. Beste jaunek ondasunak zeuzkaten eta zuk ondasunen agintea daukazu. Aurrez nahiz atzez, zerria beti zerri.

Ez dago, ordea, desesperatzeraino iritxi beharrik heriotza lasai hartzeko. Berez hiltzen direnetan, baina baino gehiago hiltzen dira lasai lasai, une batzuren buruan zer datorkien jabetasun osoz, agian pixka bat tristerik, baina desesperatu gabe. Hilezkorrak izatea balitz ere! Heriotza bestela ere bueltagabea izanik, horren zaila ote da berezko une hori apur bat norberak aurreratzea? Alde horretatik, zorionez hilkorrak gara eta naturak hain orozgain defenditzeko grina jarri digun bizi hori bestela ere laster galdin beharreak dela diosku kontzientziak. Ez da, beraz, hain absolutua, denbora kontua baizik, eta oso denbora laburra gainera. Eskerrak hilkorrek garelak.

— Nola esan dezaken hori, gauden alturan egonik?

— Orojaun maitea! Zeure itzala nauzu eta ondo eza gutzen zaitut. Zu besteak baino argiagoa izan zara. Haien beren ondasun pilaketan adarrak apurtzen zituzten bitartean, zuk denak Oromenderrietarenak deklaritzen zentuen. Horraino denak pozik. Gero haien erabilpenaren aginpidea zeuregandu eta biribil. Zertarako ibili bazterrak harrapatu ezinez? Eman denak estatuari. Gero estatuaz

jabetu eta aupa, mutilak! Zerbaitegatik esaten dizute Orojauna eta zerbaitegatik kostatu zait hainbeste zu harrapatzea. Orain niri iheska ibiltzeaz lan txarra daukazu, saiatu zara baina.

— Hemen naun, ba! Nahiago dinat argitan sufritu ilu-netan zoratu baino. Egin ezan nahi dunana.

— Nahi dudana ez. Behar dudana.

— Zer behar dun?

— Hasiera hasieran esan dizudana: zu akabatu. Pun, pun!

Hilek ez daukate itzalik eta oraingoan ez daukat neure burua hil beharrik. Bala bat geratzen zaizu.

ELKARJANA

— Adiskidea! Azkena jotzen ari gaituk —esaten du Oromenderrietan bizirik edo ezkutatu gabe gelditzen diren jaunen buruzagiak.

— Adiskidea! Azkenik ez duk sekula, ohartzeko gauza garen bitartean —erantzuten dio jaunkide buruzagiak.

— Zertaz ohartu?

— Egoeraz. Eguzkia zaharra duk eta honelako egoerak lehenago ere izan dituk eguzkipean.

— Hik uste? Historia guztian zehar noiz ikusi duk jaungoaren honelako hondakuntzarik?

— Ez nauk pentsatzen jarri, baina historia hain zaharra izanik, orain arte irauin badugu, aurreruntzean ere iraugo diagu. Eguzkia lehengo martxan zebilek orain ere.

— Ilargia ere bai eta zer?

— Horiek horrela dabilzan bitartean, ez zegok aldakuntza funtsezkorik, gorabeherak izango dituk baina.

— Horiek ba zebiltzaan kontzientzia sortu aurretik ere eta begira nolako leherkundera gertatu zuan.

— Eta zer? Behin lehertzen duk, ez bi aldiz.

— Adiskidea! Bigarren leherkundera gaudela uste diat.

— Joango zaik uste hori, loaldi on bat egindakoan.

— Nik ez nitek orain lorik egingo, badaezpada ere.

— Horrexek hondatzen gaitik. Lehenbizi geure buruen konfidantza galdu eta gero loa ere bai. Egin dezagun lo lasai, oinaztua bera aspertuko duk eta.

Eskerrak hilkorrek garella! Bestela heriotzatik harako eragingailu erabateko hori ezin izango genieke pilotzaileei ere ezarri, orduan beste zerbait izango litzateke baina. Orduan berek ere gure hiltzeko bildurrarekin ezin izango lukete jokatu. Eskerrak denok hilkorrek garella!

Ba dira herriak beren burua berek ehorzteko ohitura dutenak. Adin batera irixitakoan, agureak edo atsoak, kolektibitaterako oztopo besterik ez direla ikustean eta beren buruentzat ere gozamina baino gehiago sufrimendua izango dutela sentitzean, herriitik urrundu eta heriotzara abiatzen dira zuzen zuzen. Inork ez ditu bidaltzen. Berak joaten dira. Urtia non da?, eta hura joana dela betirako. Zulogune batean etzan eta hantxe egoten dira, haizeak dakarren hondarrak bizi bizirik estali arte. Pentsa nolako adorea eta serenitatea. Ba dirudi ez dela hain zaila, herri horietan nornahik egiten baitu hori. Han bai «heriotza, hire laguna». Txikitatik halaxe ikasia eta ikusia dute eta mentalizaturik daude. Zer den pentsakera, eh!

— Adiskidea! Lo lasaiegia egiten ari gaituk. Betiko loa.

— Jaioko dituk berriak.

— Jaiotza bera ere zartatu zigutek.

- Sortuko dituk hala ere.
- Zertarako sortu, jaiotzeko ez bada?
- Adiskidea! Ez haut ezagutzen. Gezurra zirudik Jaunburua haizela.
- Adiskidea! Nik ezagutzen haut, ba! Hil beharra daukak, heure historia eta guzti.
- Ez hadi oiloa izan. Denok ez gaitiate hilko.
- Denok ez zekiat, baina hi bai.
- Ez zegok amaren umerik, ni hilko nauenik.
- Aitarenik ere ez?
- Ez eta aita-amenik ere.
- Orduan nik ez diat ez aitarik ez amarik.
- Zer diok?
- Hauxe! Honexek hilko hau, ez aitarik ez amarik ez duen honexek.
- Jauna! Zer duk hori?
- Ez al diate inoiz erakutsi?
- Hik hil ni?
- Nik hil hi!
- Zergatik?
- Hil beharra dugulako.
- Gorde ezak pistola hori, mesedez.
- Bai heure paparrean.
- Jauna!
- Ez zegok jaunik. Geu gaituk azkenak.
- Nola pentsatzen duk hori?
- Neu ere lehertu nauk.
- Adiskidea! Izan ezak animua!
- Hi niri animuak ematen? Arma neuk zeukeat gerola!
- Ez hago burutik ondo.
- Horrexegatik ibili behar duk kontuz.
- Nola pentsa dezakek...?
- Pentsatua zegok! Ez eman bueltarik ez daukanari.

- Hau duk adar jotzea!
- Hau azkena duk!

Ez al duzu kamikazeen berririk entzun? Gerra galdu-rik ikustean, ia desesperaldian, soldadu artean suizida boluntarioak eskatzen zituzten eta bai agertu ere. Lehergailu submarinoa soinean zeramatela, etsaien untzia jotzen zuten, berek ere erremediorik gabe bizia galdurik. Gerrako kontuak, gerra madarikatuetako izugarrikeriak. Gerran onen onena lehenengoan etsitzea izango litzateke, eta han hain errukarriro hilko diren milatatik batek bakarrik behar den bizia utzi. Gerran inork ez dauka arrazoirik, gauzarik arrazoigabeena eta antinaturalena baita. Dauden arrazoiak ere ez daude alderdi batean ala bestean, piramidearen oinetan baizik. Kamikaze suhar haiek beren antzeko soldaduak zeuden untzietara jo beharrean, bai etsaien alderdiko eta bai beren alderdiko gailurretara jo balute, orduan bai amaiera baketsua izango zela. Benetako arrazoia daukatela uste dutenek bide hori hartzen badute, mila bider lan, gastu eta odol gutxiagoz mila bider bake ederragoa eta zihurragoa lortuko dute. Gerra zuzenik ez dago bat ere. Bai tristeza gizateriaren historia gerratik bizi izan dela, bizi dela eta biziko dela irentsi beharra! Ez al dago boluntariorik, izugarrikeria absurdu hori behin betiko iraul eraztekorik?

- Zergatik azkena?
- Neuk nahi dudalako.
- Elkar hiltzen hasten bagaituk, orduantxe bai azkena.
- Hobe duk elkar hiltzea, horiek hil gaitzate baina.
- Euts dezaiogun azkenera arte.

— Ez zegok eusterik, azkena iritxia baita. Ez al duk pistola paparrean sentitzen?

— Tiratu egingo al huke?

— Ez zekiat egingo nukeen, baina egingo diat.

— Heure burkidearen aurka?

— Eta neure buruaren aurka gero.

— Ezin diat sinestu.

— Ez duk astirik izango, aurretik joan beharko baituk.

— Joan aurretik ez al diat zerbait jakiterik?

— Oraindik jakiteko al hago? Jagoleengan fidatzerik ez diagu. Seme-alabengan ere ez. Emaztearengan ere ez. Geure itzalarengan ere ez. Zer geratzen zaiguk?

Zailena hastea da hemen. Nortzuk izan lehenengoak? Nola eragin kontzientziari, hartara gogoz eta pozez oldar dadin? Herritxo batean heriotzara bere buruz mentalizatzeko nornahi gauza baldin bazen, nola ez leherkunde harrigarri honetara? Zein izan liteke idealismoarentzat motibo ederragorik, mundu basati eta kriminal honen lekuan gizarte gordina eta sortzaila uzteko zihurtasun hutsezina baino? Ez dago desesperaziorik ere, gogoeta hori bezain indargarri izan litekeenik. Gero, behin abiada hartutakoan, prozesua liluragarri bilakatzen da, piramidearen desmuntatua azeleratua ikusi eta sentitu egiten baita. Hortik aurrera adorea eta behar diren gogokari guztiak hartzea ez da zaila, mendeetako itxaropen guztiek batera amets egiten ere ausartu ez zirena muturren aurrean ikusten baita. Ez dela prozesurik abiatzen? Eza lehen ere hor dago. Ehundaka mendetan egon bagara, beste apur bategatik eutsiko diogu. Baina eutsiago eta bide hori utzezinagoa izango da. Ohar-kabea ba liteke denbora luzez eustea, bai eta beti

kotasun guztian ere. Baina ohartutakoan, fisio nuklearra oldartzen da. Kontzientzia leherkundera doa nahitaez.

— Geure burua geratzen zaiguk.

— Horrek ez dik bakarrean balio.

— Bai, ordea, elkarrekin. Geu elkarrekin.

— Gu ez gaituk elkarrengandik bizi, beste guztiengandik baizik.

— Baina biziko gaituk. Otsoak ez dik otsokirik jaten.

— Bai, ordea, hiltzen. Azkenean tiratu egin beharko diat.

— Tiratzekotan, azkenean izan beharko dik, bai.

— Zorionsua hi, itxaropenez hilko haizena.

— Hik hiltzen banauk, hila duk itxaropena ere.

— Ez hiretzat.

— Denontzat. Hik hiltzen banauk, azkena duk, ezin izango diat arrazoirik azaldu baina.

— Hilko haut, ba, arrazoirik azaldu nahi ez baduk ere.

— Hilko naukala emanik, zer arrazoi jarriko niake, ba?

— Hilko haizela. Azkena dela.

Pilatzaileek ere, prozesu hori ikustean, berdin egin lezaketela? Ez, arraioa! Noren aurka egin behar dute, ba? Gailurra hautabide zihurra eta jakina da. Gailurrak gailurren aurka hasiko balira, hainbat hobeki. Lan bat gutxiago. Hori ezin dute inola ere egin. Elkarren aurka ez bada, noren aurka hil behar dute, ba? Gizaki guztiak garbitu? Ez daukate hautaketa efikazerako modurik. Desesperazioan horretara jo lezaketela? Alperrik baina. Pilatzaileak ez direnak munduan gehienak izateaz aparte, horiei erasoa jota, ez lukete pilakuntzarik defenditzen ahal. Mer-

tzenariak eta hiltzaile soldatadunak ondo ordainduz? Sistima zaharrear egiten dutena ez al da, ba, horixe bera? Ez al dute beren indarra hortxe oinarritzen? Ez, adiskidea! Sistima zaharreko jokaera horrek ez dauka berrian zereginik.

- Zergatik azkena?
- Oooh! Berriro ere lehenera? Tiratzea hain erreza izanik!
- Tira ezak, ba!
- Ez duk hiregatik, neure bizia luzatzeagatik baizik.
- Heure burua ere hil behar al duk?
- Orain galdetzen al didak hori?
- Hi ere horiengana pasatu al haiz?
- Ez pasatzeagatik hain zuzen.
- Horregatik bakarrik?
- Bestela berek hilko gaituztelako.
- Eta hik aurea hartu. Hori duk inbertsio sena!
- Hik hil nazaala nahiago diat beste horiek hil naza-
tela baino.
- Oraindik ez didak eskatu.
- Konbentziturik ez hagoelako.
- Hainbat hobeki, hik ni hiltzea baino nik hi hiltzea nahiago izateko.
- Hil nazak orduan.

Efikaziagatik ez bada, krimen hutsarengatik izan litekeela? Hori gutxiago. Ba liteke jaunen batek desesperazio aldian bere emaztea edo hurbilen daukanen bat garbitzea, baina ez krimengintza eratuz. Hori ere sistima zaharreko saltsa duzu. Zenbat eta gizarte ustelagoa eta izorratuagoa izan, hainbat eta gorago doa kriminalitate, zikinean arratoiak ugaritzen diren

bezala. Egoera garbitu ahala kriminalak gehituz joatea ez dago pentsatzerik ere, kontraesan nabarmena baita. Lasai, beraz. Jokaera hau ez da inola ere etsaiek erabiltzekoa, hain zuzen etsaien hondabide orokorra baizik.

- Utz ezaidak pistola.
- Ez nauk fidatzen.
- Zeren bildur? Hiltzea ez al duk, ba, nahi?
- Ez nauk fidatzen hilko naukanik eta gero ez hik ni ez nik hi.
- Orduan nola egitea nahi duk? Ukabilka?
- Atera ezak heure pistola.
- Hemen duk.
- Jar ezaidak paparrean.
- Hor duk.
- Tira ezak orain.
- Eta gero neure burua?
- Hire burua heuk.
- Ez nitek neure burua hiltzeko aina etsipen.
- Eta ni hiltzeko bai?
- Beharko, bestela heuk hilko nauk eta.
- Adiskidea! Hau azkena duk. Hil dezagun elkar. Historiak ez dezala menderatu egin gintuztela esan, geure gogoz utzi genuela baizik.

*Eta gero zer? Eman dezagun piramidea lurreratu dela. Berdindua da dena. Orain zer? Nola antolatu behar dugu mundua aurreruntzean? Ah, adiskidea! Hori beste kontu bat duzu, orduantxe bakarrik ikus-
tekoa. Desorekarik ez den lekuan, oreka berez hazten da. Ibaian behera doan untzia berez berez joango da, uren edo beste faktore lokagarri batzuren al-*

detik okerrik ez bada. Eta gainera zer dakigu, ba, nora joan behar izango den? Agian ez da inora joan beharrik izango. Agian oreka zihur hura era batera joatea eta egotea izango da. Egote lasaia eta joate zorabiagarria era batera. Antolaketarik izango ote den? Utz ezazu hori ordurako. Antolaketa zer da, ba, faktore desantolatzaileak eta antagonismoak zuzendu nahi izatea besterik?

— Historiak nahi duena esango dik, baina elkar hiltzeko, batera tiratzen ere jakin behar duk.

— Egin ditzagun entrenamentuak. Bat, bi, hiru, lau!

— Bat, bi, hiru, lau!

— Bat, bi, hiru, lau!

— Bat, bi, hiru, pun!

— Bat, bi, hiru, pun!

— Bat, bi, hiru, pun! Bat, bi, hiru, pun! Bat, bi, hiru, pun!

Ezetz igarri zenbatgarrenean elkar hil genuen.

Pilakuntzarik ez bada, antolakuntza egina da eta antagonismoak deseginak. Izango dira matrakak, eztabaidak eta haserre txikiak agian, baina ez etsaigo funtsezkorik. Zergatik eta norekin etsaituko zara, ba, inoren azpian egoterik ez inor azpian edukitzarik ez baduzu? Utz antolamendu ardurak geroko, antolamendurik izango baldin bada. Oraingoa bezalakorik ez dela izango jakitea aski zaizu. Alderdiek ez dute zentzurik izango, ez aldekoek ez kontrakoek. Horrexegatik bakarrik merezi luke aproba egitea. Ez da gerrarik paratu beharrik ez bakerik defenditu beharrik izango. Ez da inflaziorik ez krisisik izango. Ez da pilakuntzatik harako gaitzik bat

ere izango. Hortik gora zer antolatu behar duzu, ba? Behar balitz, orduantxe pentsatuko dugu, gaur baino sanoago egongo gara eta. Orain, gogorik baldin badaukazu, zatoz Lezaundietako haitzulora, Lezaunak guzti honi zer deritzon jakitera.

XII

LEZAJAUNA

Lezaundietako haitzulo izugarriaren golkoan inoiz baino argiago dagoela iruditzen zait, geriza haundi horren bultua ez balitz. Hementxe egin genuen lehen biltzarrea eta bidezko da azkena ere bertan ematea. Haur haurretatik neukan haitzulo honen sabelean zerbait izateko gogoia. Munduko grinan eta pasioen ugazaba hementxe bizi zela esaten ziguten. Nork pentsatu behar zuen ugazaba horrekin lagun egingo nintzela? Nork pentsatu behar zuen gaizkiaren buruzagitzat jotzen zuten hura honen maite izan behar nuela? Hau poza azkenean ere! Argitasun ohigabe hau aurreko mende guztietako gizaki guztien hezurren zuritasuna dela uste dut. Zutik al zaudete? Nola baina zutik hezur hutsak? Non dituzue mamiak? Bai tristea izan behar duela hezur hutsez piztea!

— Gure mamia kontzientzia da! Hezur kontzientzidunak gara!

Ah! Horrexegatik iruditu zait zuritasuna baino gehiago. Argitasuna da hau. Argitasuna haitzuloaren erdian eta

gauerdian. Baina hezur maiteok! Nola ausartu zarete hainbeste sufri erazi zizuen mundura pizten? Nola fidatu zarete nitaz? Zatozte bildur gabe. Mamirik behar ez baduzue, ez nauzue jarngo. Nik ere ez dizuet ezer egingo. Hemen zaudetenez gero, lagun nazazue Lezajaunarekin hitz egiten. Bila ezazue non den, deika ari bainaiz eta ez baita agertzen. Hura ere zuen artean al dator? Ez. Hura bizirik dago oraindik. Haren hezurak zuenak baino askoz haundiagoak dira. Bizirik egon behar du nahitaez.

— Lezajaunaaa! Lezajaunaaaa! Egizue, mesedez, denok batera dei. Denok batera neurekin. Kontzientzidunak baldin bazarete, abotsa ere izan behar duzue. Denok batera! Mende guztietako hezur guztiok batera. Bat, bi, hiru, lau! Lezajaunaaa! Lezajaunaaa!!!

— Zeeeer?

— Etortzekoooo!

— Zer behar duuuuk?

— Aurrez aurre hitz egin behar duguuuu!

— Berdin duk hemendik ereeee!

— Hezur guztiak hemen daudeeee!

— Nongo hezurraaak?

— Oromenderrietakoaaaaak! Mende eta herri guztietakooaaaaak!

— Zer behar diateeee?

— Hauek ezer ere eeee! Neuk behar zaituuuu!

— Nor haaaaz?

— Azkenengoaaaa!

— Ez al nauk aurrean ikusten, tenteltzar horrek?

— Ah! Barka, jauna. Haitzuloko oihartzunak mendeen hasieran zeundela ematen zidan.

— Hasieran eta amaieran. Hori ba henkien lehendik ere. Zer berri Oromenderrietan?

— Harrigarriak, Lezajaun maitea. Ez dago sinesterik ere.

— Zenbat falta dituk?

— Bat bakarra.

— Ez al duk oinazturik geratzen?

— Bai, Lezajauna. Neu naiz oinaztua.

— Nor duk, ba, falta den hori?

— Lezajauna.

— Ni?

— Zeu, jauna, zeu. Oromenderrietako Lezaundieta-ko Lezajauna.

— Leherkudearen bultzatzaile nagusia neu izan eta orain hori egin behar al didak?

— Jauna, zuk ez daukazu izaten jarraitzeko arrazoirik. Ez al zinen, ba, Oromenderrietako jaunen doblea? Ez al zintuzten, ba, haiek sorrerazi?

— Baina orain neu nauk ni.

— Oromenderrietako jaunak amaituak dira. Zer egi-ten duzu zuk haiek gabe?

— Azkenean bizia maite izatera iritxi nauk.

— Zu gaizkiaren sinboloa zara, ordea. Gaizkilerik ez bada, zertan da zure izatea?

— Ez diat hil nahi.

— Zuk ere hori orain? Ez ahal didazu esango, zeuk irautearren, gaizkiak jarraitzea nahiago duzula!

— Gaizkirik ez baldin bada, zer axola dik horrek?

— Gaizkirik ez bada, ez da irudirik ere behar. Nola nahi dezakezu gaizkiaren irudiari eusterik? Lehengoa baino zentzugabeagoa litzateke hori.

— Gorde nazazue gaizkia zer izan zen oroigarritzat.

— Horretarako oroimena daukagu, bai eta oroimen genetikoa ere. Ez dago gaizkiaren irudirik gelditzerik, berriro alderantziz hondamendi bera gerta ez dadin.

- Nola hondamendia? Ni ez nauk haitzulotik irtengo.
- Lehen gaizkiaren errealitatetik irudira sortu bazinen, nork jakin irudiak gaizkia sorreraziko ez duen?
- Ez al diat erremediorik?
- Inolakorik ere ez.
- Nola nahi duk ni hiltzea, ni ez bainauk beste jaun horiek bezalakoa?
- Lezajauna, oker zaude. Zu eta ni hilak gara. Neu naiz zure heriotzaren kontzientzia, zu nire heriotzaren arrazoia zaren bezala.
- Hitz politikak dituk horiek. Nola dakik horrela dela?
- Ez al dituzu hezur guzti hauek inguruan ikusten? Heriotzaz inguraturik gaude. Heriotzaren golkoan gaude.
- Horiek ez dituk nire etsaiak.
- Horrexegatik hain zuzen, lagunak direlako. Heriotzaren lagunak gara. Hilda gaude.
- Ez al nindukan, ba, heuk hil behar?
- Ez. Mendeetako hezurterria kontzientzidunak hiltzen zaitu.
- Zergatik etorri haiz orduan? Hauek hil behar banninduten, hi salba hintekeen.
- Ni salba nintekeen, baina zu ez zinen hila zarenik ohartuko. Horrexegatik etorri natzaizu.
- Egunsentia zirudik!
- Ez, Lezajauna. Hezurren zuritasuna da.
- Argitasuna ematen dik, ba.
- Heriotzaren argitasuna. Hemen ez dago bestelako argitasunik. Etsi ezazu behingoz. Lezaundietako lau ahoak itxita daude. Hil hezurrez hermetikoki itxita daude. Ez dago irteerarik.
- Nork esan ziek hauei etortzeko?
- Inork ere ez. Berenez etorri dira. Zure hiletetan partaide izan nahi zuten.

— Eskerrik asko! —hots egin die Lezajaunak hezur tente guztiei—. Ez dakizue zenbat estimatzen dizuedan. Ba dakizue ahal nuen gaizkirik gutxien egiten saiatu nintzaizuela, baina batzutan egin beharra neukan, ez baitzegoen disimulatzerik. Beste batzutan gaitz ere egiten nizuen, munduaz kanpoko gaitza zela usterik, gutxiago sufri zenezaten. Orain Oromenderrietarrak pozik bizitzen ikustez, neuri ere bizitzeko gogoia sartu zait, baina hil behar bada, hil gaitezten.

Egia esateko, Lezajaunak pena haundia ematen dit. Gizateriaren historia triste guztiaren lekuko izan eta orain hil egin behar. Horrexegatik etorri dira hezur guzti hauek ere, pozik hiltzen laguntzera. Horienean tristeagoa izan zen, itxaropiderik zenik ere jakin gabe hil baitziren. Gu behintzat, Lezajauna, azkenengo sufrizailleak garela jakinik hiltzen gara. Hiltzea derrigorra zenez gero, ba al zen heriotza ederragorik?

XIII

AGUR JAUNAK

— Aitona! Konta ezaidazu Oromenderrieta nolakoa zen lehen.

— Berriro ere? Beti habil hi galdera bera egiten. Zer esatea nahi duk, ba, mila bider entzuna besterik?

— Baina niri entzutea gustatzen zait, aitona.

— Ez zeukeat oroimenik nekatzeko gogorik.

— Bai, aitona! Neuk lagunduko dizut galderak eginez. Horrela bide batez praktikak egingo ditut.

— Amaitu al duk karrera?

— Amaierako lana bakarrik falta zait. Ondo ateratzen bazaigu, elkarrizketa hauxe aurkeztuko dut.

— Horretarako bada, kontatuko diat, baina azkena gero!

— Bai, aitona. Gehiago ez dizut galdetuko.

— Ez zekiat nondik hasi ere. Amaitu zuan behintzat eta horixe duk nagusi. Hasi hadi galdetzen. Nire burua ez zegok diskurtsoetarako.

— Oinaztu kontu hura, aitona.

— Ah, bai! Oinaztua zer den ba dakik, ez? Ba, Oromenderrietako jaunen buruetara oinaztu kontzienteak erortzen hasi zituan eta berehalaxe akabatu edo aldendu zituan denak.

— Nora joaten ziren oinaztuak?

— Lurpera. Oinaztuak erortzen diren lekuan bertan ehorzten dituk.

— Hori ba dakit, baina ez al zuten oinaztuen aurka ezer egiten, prebenitzeko besterik ez bazen ere?

— Ona hago hi! Oinaztuen aurka zer egin behar duk, ba?

— Ez dakit, ba. Ezkutatu edo.

— Non ezkutatu, ordea, oinaztu telekontzienteak baitziren? Gainera haundiena bestea zuan, baretasunik haundianean erortzen zirela. Pentsa eguraldi ezin ederragoa eta argiagoa, hondartzan edo mendian edo ibai ertzeko itzalpean. Bat batean oinaztuak erortzen hasten dituk. Nondik? Nola? Oinaztuak ortzirik garbientetik. Ez zegok horrelako alarmerik. Denborale gogorrean, zeruek lurraren gainera leher egin behar dutela dirudienean, edozer hartzeko gertu hago, heriotza ere bai. Bildurgarriena bada ere, naturaren joko barruan habil. Baina beste hori? Hireak egin dik. Nola ibili behar duk inon lasai? Halaxe zuan hura, bareago eta bildurgarriago. Gerretan edo matxindetan edo atentatuetan hiltzera mentalizaturik zeudean, baina eguzkirik argienean oinaztuak buruan jotzea, hori gehiegi zuan.

— Baina ez ziren oinaztuak, aitona. Gizakiak ziren. Ez al zuten kanpainarik edo zerbait antolatzen, haiengandik defenditzeko?

— Biltzarre batzuk egiten hasi zituan, baina garrantziarik ez ematen eta ezkutuan pasatzen saiatu zituan, prozesua berek azeleratzeko bildurrez. Haiek ba zekiaten,

sortzen baldin bazen, hura bueltagabea izango zela eta hortik haien ahaleginak oharkabez pasa zedin, baina leherkunderik ez dik isiltasunak leuntzen.

— Orain ez al zara inoiz tristerik egoten, aitona?

— Bai noizbait. Triste egoteko motiboak orain ere ba zeudek. Gainera lehengo tristuren gomuta ere odolean zeramagu eta gauza horiek ez dituk berehala ahaztekoak. Baina oraingo tristurak beste era batekoak dituk. Oso beste era batekoak. Haiek tristurak baldin bazinen, hauei beste izen bat jarri beharra zegok.

— Zein da zure penarik haundiena, aitona?

— Hil egin behar dudala. Horrek hortxe jarraitzen dik. Gainera orain, elkarri sufri erazten ez diogula, zaharron bizi ere ederra duk. Natura gu baino gogorragoa duk, baina horregatik ez diagu hainbeste sufritzen, jasan eta aurrera baizik. Beste hura zuan tristea, gizakien menpean larruturik, zapalduarik eta bazterturik hil beharra, aurretik hiltzen ez bagintuzten. Oraingo gaitzek ez ziruditek gaitzak ere. Sufrimendurik ez denean, minak ere bere mintasunik gehiena galtzen dik. Zaharrak minez baino abandonuz gehiago sufritzen dik. Hura ezagutu ez zuenak ez zeukak oraingo armoniarik estimatzerik.

— Oraintxe ere haserreak eta burrukak izaten dira, ba.

— Haserre azalak dituk horiek, tenperamentalak gehienak. Kontuan eduki grina zaharrak oraindik soinean dauzkagula eta antinatura ez dela natura bera baino aisago aldatzen. Oraingo haserreak jolasak dituk, mutil, bi-ziari gatza eta airea ematen diotenak.

— Zertan ari zarete orain? Nola antolatzen duzue gizartea?

— Ni martxari jarraitzeko zaharregia nauk eta ez nauk gehiegi enteratzen ere, beste inor ere askorik ez dela enteratzen uste diat baina. Orain ba zekiagu inork tranpa haun-

dirik ezin duela egin. Zitalkeria txikiek ez diate mundurik hondatzen eta, haundietatik libre garela jakitean, jendeak lasai eta gogoz lan egiten dik. Zertan? Sortzen. Ba al dakik sortzea zer den? Horrek ez dik mugarik, ez araurik, ez programaketarik, beti berria eta amaigabea baita. Naturari jarraitzea edo tiratzea bezala. Noiz amaitzen den? Natura ez duk sekula amaitzen, goruntz, aurreruntz, sakoneruntz nahiz alboetaruntz mugagabea baita.

— Orain ere norbaitek agindu beharko du, ez?

— Erleen edo inurrien artean nork agintzen dik? Hemen ere antzera. Gauzak egiten dituk, baina ez zegok arrapataka ibili beharrik. Esplotazioak ez zeukak pazientziarik ez lasai ibiltzeko moralik. Ahalik eta denborarik laburrenean, goia nahi dik, inoiz hatzeman ezineko goia. Horren aurkako defentsak ere ezin dik pazientziarik izan, hein berean defenditzerik nahi baldin badu behintzat. Orduan dena zuan itsumustua. Mugituago eta irentsiago. Orain inorako presarik ez zegok. Betikotasun guztia eta natura amaigabea diagu aurretik.

— Aurrerapena ez al da orain pixka bat moteldu, aitona?

— Zer moteldu eta zer arraio! Zeri esaten diok aurrerapena? Ilargia zapaltzea Anboton pascatzea baino aurrerapen gehiago dela uste al duk? Horixe behar genian! Orain jendeak lehen baino askoz gauza ederragoak eta haundiagoak egiten ditik. Orain mundu guztia ari duk sortzen. Lehen sortzea artistena eta horrelako pellokume batzuren zela uste genian. Besteok piezak egin eta piezaka maitatu, ezertarako aukerarik zeukanak. Beste modutan zabiltzate oraingo gazteok. Lehen premiak asetzetik gorakoa dena duk sortzea, bai eta hortik beherakoa ere, traumarik gabe lasai egiten denak nahitaez artea izan behar baitu.

— Azken aldion ba al dakizu zerk harritzen nauen,

aitona? Hasieran mundu zaharra aldatzen eta berritzen gogoz ari omen zineten, orain ordea oso astiro zabiltzate-la ikusten dut.

— Bai, alajaina! Lehenengotan mundu zaharrak higuina ematen ziguan, bai eta mendekuz hura begien bistatik kentzeko amorrua ere. Pentsa ezak hiritzar horiek nola eginda dauden, multzoketarik itxusien eta zapalgarrienean. Baina itxuskeria hori berezkoa baino gehiago zapalkuntzarena zuan. Sufrimendua kendutakoan, ia ederrak iruditzen zaizkiguk. Nork pentsatu behar zian honelakorik? Pixka bat pentsatzen jarrita, alderantziz ere berdin gertatzen zuan. Edertasunak eta edertasunik ezak zorion-sufrimenduei uste baino lotuago zeudean. Itxasoa orduan ere ederra zuan, baina han asko sufriturik zegoenak nekez ikusiko zioan edertasun haundirik. Mendiak eta lurrak orduan ere ederrak zituan, baina leku batean deseperaturik bizi zenak inguruari edertasun gutxi aurkituko zioan. Orduan amorrua eta higuina ematen ziguten gauzek orain ia maitagarri zaizkiguk eta maitagarri denak ederra izan behar. Ez zekiat, mutil. Sufrimendua kentzean, zentzuek eta sentimenak ere arras beste objetibitate bat hartzen diate, oraingo ikasketetan horrelako gauzarik ikasten duzuen ez zekiat baina. Gaitz naturalek berek ere min gutxiago ematen diate orain. Autoz bazterra jo eta bizia erdi galtzea edo elbarri geratzea ba zekiagu oraintxe ere mingarria eta tristea dela, baina gero, gaitz horietatik sendatzeko antolamendu sozialak ahalegin guztiak zintzotasun osoz egiten dituela ikustean, ia hiltzeko penarik ere ez duk izaten. Okerrengatik lehen erdi hilik dagoena gero esplotazioz osorik hiltzea duk. Lehen ere zer gertatzen zuan elkarrekin oso ondo konpontzen ziren anai-arreba artean elkarri deskuido minen bat egiten ziotenean? Esate baterako, batak besteari begia galdu. Mingarria noski, bai

eta tristea ere halako suerte txarra, baina biek hartzen zia-
ten min eta begia galdutakoak ez zian bestearentzat erre-
suminik ez gorrotorik gordeko. Lan esplotagarrian ari zela
begia galtzen zuenak, ordea, bizi guztirako behazuna eta
sufrikarioa zeramaan soinean.

— Hala ere, pixkanaka munduaren itxura osoa alda-
tzen ari zaretela dirudi, ez?

— Zirudik ala iruditu egiten zaik? Aldatzen ari garela
egia duk eta ez uste gozamenik txikiena denik. Itxuske-
riak eta munstrokeriak pixkanaka oinarritik berrituz joatea
bakarrik ere ez duk sorkuntza makala. Esan bezala, grina
zaharrak oraindik ere soinean zeramatzagu eta alde horre-
tatik gauza onak sortzeak baino txarrak kentzeak atsegin
haundiagoa ematen dik. Orduko zoriona ere zoriona be-
ra baino gehiago sufrimenduak kentzea izaten zuan, bai-
na kentze horrek sekula azkenik ez zuenez gero, zorionik
ere ez zuan sekula izaten, tentelak edo bihozgabeak izan
ezik. Pentsa hain deseginik zegoen natura egokitasunez eta
edertasunez bertaxutzea nolako zoriona den besterik gabe.

— Eta gero berriro natura menderatzera?

— Natura menderatu? Hori duk harrokeria kriminala!
Natura menderatu! Ba zekiat horixe esaten zela eta gauza
haundizat esan ere. Behar dena duk natura apalki ulertu
edo ulertuz joan, ez baita sekula amaituko, eta ulertu aha-
la, lantzen eta sortzen saiatu. Sortzea ez duk hutsetik ate-
ratzea, naturari jarraitzea edo tiratzea baizik. Natura men-
deratu! Ba al dakik nolako kirtenkeria den hori?

— Ez haserretu, aitona.

— Haserratuko ez nauk, ba? Lehen jaunen mendetik
askatu ginen moduan askatu eta orain geu hasi natura
menderatzen?

— Baina oraintxe ere nolabait natura bortxatzen ari
gara, ez? Hor egiten ditugun lanak eta edertasunak ez zi-

tuen naturak berez ekarriko.

— Eta kontzientzia nork ekarria dela uste duk, ba?
Gizaki menderatzaileak asmatua dela uste al duk hori?
Sortzen ari gaituk, bai, baina naturari tiratuz, ez apur-
tuz. Garbiago nahi baduk, natura bera ari duk guregan
sortzen eta sorkuntza horrexen kontzientzia duk ederta-
sunik haundiena, bai eta era batera sortzaileena ere. Bes-
te erremediorik ez denean, elkar joez aurreratu beharra
zegok, lehenago gertatzen zuan bezala, hori aurrerapena
dela pentsatzea gehiegi ez bada. Aurrerapen dialektikoa
edo kontrako indarren txokez aurreratze hura errealitate
errukarriaren dinamika tristea zuan, gogoratze hutsak ere
haginetako mina ematen duena. Indarrrik gehienak eta ede-
rrenak horretantxe galtzen zituan: batzuek zapaltzen eta
beste guztiak defenditzen eta ezin hala ere bururik atera.
Orain ez zegok kontrako indarrrik. Bakoitzak nahi duen
alderuntz tiratu eta hala ere konbergentzia ederra.

— Batzuek aurreruntz eta beste batzuek atzeruntz ti-
ratzen badute, ez da, ba, konbergentzia haundirik ger-
tatuko.

— Bai, mutil! Horiek lehengo kontu zaharrak dituk.
Elkar arrastatu nahi ez den bitartean, konbergentzia egi-
na zegok. Naturan norabide guztiak dituk konbergenteak.
Kontzientzidun izakien txokea duk dena hausten duena.
Hik liburu zaharren batzuk irakurriak dituk eta hortik ari
haiz nonbait. Ez al duk ikusten Oromenderrietako jendea
nola dabilen?

— Denak ez dabilta. Batzuek egoten denbora gehia-
go egiten dute eta ez zure adinekoek bakarrik.

— Eta zer? Egotea ere sortzea duk. Alperrak eta na-
giak, bakoizka direnean, naturaren loreak dituk. Horiek,
egonean ere, beti ari dituk zerbait asmatzen.

— Bai eta inorena jaten ere.

— Eta zer? Mila alperrek ez dik herririk hondatzen, besteei haientzat baino gehiago sobratzen zaienean. Pilatzailea duk hondamendia, emanari ez, baina beti kentzeari begira dagoena eta sekula ezer sobratzen ez zaiona. Beste guztiak bariazioaren jolasak dituk.

— Zaharrok zer moduz aurkitzen duzue orain zeuen burua, aitona? Batzutan burumakur ikusten zaitut eta tristura ematen dit.

— Ai, mutikoa! Urteek orain ere ez diate bakartzen, askoz gehiago hartzen baititugu hartu ere. Ba al dakik zenbat urte daukadan? Oromenderrietako leherkundera izan zenean, laurogeitik gora ninduan eta hortik atera, hire ama garai hartantxe jaio baitzen. Hiretzat guzti hura historiaurrea duk eta ni orduan ere zaharra ninduan. Gertatzen dena, gero bizi gogoia bidertu zaigula eta urteak gehien horrexek luzatzen dituela uste diat. Lehen zaharrak abandonuz eta tristuraz gehiago hiltzen zituan naturaren adinez baino. Orain norbait gaituk. Zaharrak bai, baina ez hondakinak. Gauza bat duk naturak bere mugetara baztertzea eta beste bat gizakiek bazterturik sentitzea. Orain inor ez zegok sobra, inork ez duelako faltarik egiten. Konpetentzi jokoan hartarako beharrezkoenak bakarrik falta egiten diate eta besteak hor konpon. Orain inork ez dik aparteko faltarik egiten. Zertarako, behar duguna baino askoz gehiago zihur baitaukagu? Inork faltarik egin ezik, sobra ere ezin inor egon. Hala ere inoiz burumakur ibiltzen nauk, bai, baina ez uste tristurarena denik, adinarena baizik. Eta batzutan lurak tiratzen didalako ere bai. Orduan ez nauk tristerik, naturaren kontzentrapena sentitzen baizik.

— Horiek oso ondo daude, aitona, baina indarrak eta sasoiak oraintxe ere beren zera daukatela ikusten da.

— Jakina, hi! Hori ez duk gizakiok asmatua, naturak baizik eta natura onartzen ikasiak gaudek. Zer nahi duk,

ba? Neu ere gaztea izan ninduan eta hik ez dakik zahartuko haizen. Indarra eta sasoi gauza ederrak dituk, abusorako ez direnean. Goza itzazue ahalik gehien. Ez uste lehen ere horiek agintzen zutenik. Pilatzaileak nekez izango zituan gazteak eta indartsuak, bai ordea edukitsuak eta hortxe menderatzen gintuztean denok, indar, sasoi eta natura. Orain neure zaharrea edonor bezain indartsua nauk. Neure egitekoa burutua diat. Bizi izan nauk aski, hiltzeak ez zidak axolarik, nor ni baino indartsuagorik?

— Aitona, sarritan entzun dizut heriotzaren gainditza-pen horixe dela gizarte lehertuaren iraupidea, baina orain ez dago jaunik, gertutasun hori aproban jartzeko.

— Nork esan dik hori? Ez al haiz hilaren lehen guztietan Lezaundietako zelaian zer jai izaten den enteratu?

...

Lezaundietako zelaikada amaigabean, haitzulo haundiaren ekialdearen aurrez, Oromenderrieta guztia baturik dago, hilaren lehen guztietan egin ohi den erromeria unibertsalean. Nik bezala lehenengoz ikusten duenarentzat, ikuskizun harrigarria honenbesteko jendetza era batera leku berean sentitzea. Ibiltzen nekaturik, oinez ez baitago jai honi neuririk hartzerik, haitzuloaren alboko harkaitzik haundienaren gainera igon naiz eta begiz ere ba daukat nahiko lan bazterrak kalkulaten. Zer duk hau! Nola zitekek mundu osoak batera jai hartu eta mundurik ez erortzea? Oromenderrietako ibai garbiek eta tximinia itzaliekin elkarrekin solasean dihardute, joateaz eta lanaz ahazturik. Mundu guztia ari da zerbaitetan, haruntz eta honuntz, berriketan, kantatzen, jolasean, musika jotzen, hurrei begira, zaharrekin barreka eta ni haitz puntan, ortziak eta zelaiak bat egiten duten marrak gerritik ebatkitzen nauela.

Eguerdian taulatu izugarriaren tankerako haitz bizkar zapalaren gainean, Oromenderrietar batek oihu egitean, zelaikada guztia isil isilik geratu da.

— Anai-arrebok! —hots egiten du trumoiaren bozgo-railutik—. Gezurra badirudi ere, hainbeste mila menderen eta milioi herriren ondoren gezurra badirudi ere, kontzientzia eskuan dugu. Orain eustea bakarrik dagokigu eta ez dago bildurrik. Lortzea baino errezagoa izango da hori. Berbaldi luzeak lehengo mende izorratuetako liburu zaharretako kontuak direnez gero, ez dezagun denborarik gal. Gauden honetara jorik, ondo dago defenditu nahi izatea, baina ez zegoen horrenbesteren beharrik. Gutxiagorekin ere eutsiko zioagu, mutilak! Mila eta ez dakit zenbat boluntario ditugun gaurko jaialdirako. Horietatik seik bakarrik izango dute suerterik. Beraz, zotz egin beharra daukagu. Igon, Oromenderrietar prestuak!

Denetariko jendea igoten ikusten dut, zaharrak gutxien ez direla. Jende heldu samarra gaztea baino ugariago ageri da. Gizonezkoak, andrezkoak, atsoak, agureak, denetik haurrak izan ezik. Haurrik ez da batere ikusten, txapeletik zenbakiak ateratzeko izan ezik.

— Lagunak! —berriz ere bozeramaleak—. Hemen dituzue Oromenderrieta berriari eusteko boluntarioak. Bakoitzak zenbaki bana dauka eskuan. Sei haurtxo hauek zenbaki bana aterako dute eta horiexek izango dira euspenaren alde bizia jokatu dutenak. Beste guztiok bizi-rik gelditu beharko duzue, zuen borondatea eskertzekoa da baina. Ea! Hauxe da lehen zenbakia: Bostehun eta hirurogeita hamazazpi. Bost, zazpi, zazpi.

Agurea da. Ene ama! Geure aitona! Taulatuaren erdian hartarako bereziki egina dagoen lastozko mamutzarraren aurrez jarririk, aitonak hots egiten dio:

— Pizteko ez ezik, sortzeko ere tentaziorik izan ez de-

zaan, Oromenderrietar guztien aurrean pun, pun! (Mamutzarra sutan erortzen da, jendetzaren txaloz eta oihuz) Eta heure buruaz fidatzen ez bahaiz, neuk lagun egingo diat betirako. Pun!

Gure aitona mamutzar sutuaren gainera erortzean, isiltasun lehegarria egiten da. Irrintzi bat eta txaloaldi kosmikoa.

— Bigarren zenbakia: Bat, lau. Hamalau.

Beste agure bat aurrera. Bigarren mamutzarraren aurrez jarririk, hots egiten dio:

— Hire gomuta hutsa ere zama gehiegi zaiguk eta tori. Pun, pun! (Suak harturik lurrera. Bai txaloak eta irrintziak!) Neu nauk hire gomuta, betirako hila. Pun!

Agurea mamutzar sutuaren gainera erortzean, isiltasun lehegarria berriro ere. Nolako txaloaldia ondoren! Hirugarren leherkundera ote da hau?

— Hirugarren zenbakia: Bat, zero, zazpi, lau. Mila eta hirurogeita hamalau.

Emakume bat aurrera oraingoan. Hirugarren mamutzarraren aurrean jarririk, hots egiten dio:

— Ikusten al dituk Oromenderrietar guztiok? Ez dituk, ba, sekula gehiago ikusiko. Pun, pun! (Mamutzarra behera eta deihadarrak gora) Neu nauk hire itsutasuna betirako. Pun!

— Laugarren zenbakia: Bi, bost, bat. Berrehun eta berrogeita hamaika.

Neska gazte bat aurrera. Laugarren mamujaunaren aurrez, hots egiten dio:

— Gehiegi sufri erazi duk, kontzientzi zati ustel horrek. Ez hadi bizi hilen oroimenean ere. Pun, pun! Neu nauk hire ustelaren inmunitatea. Pun!

— Bosgarren zenbakia: Bederatzi, zero, bat. Bederatzi-ehun eta bat.

Beste emakume bat aurrera. Ozta ozta doa bera, adinekoa baita. Bosgarren mamujaunaren aurrean belaunikaturik, hots egiten dio:

— Iritxi zaik hiri ere azkena. Zergatik ez badakik, lasaiago hilko haiz. Pun, pun! Neu nauk hire lasaitasuna sekulorun sekulako. Pun! (Leherkundera benetan. Isiltasuna hain hustutzen da, non ondoko txaloaldiak trumoi zaparrada gainditzen baitu).

— Seigarren zenbakia eta azkena: Bat, hiru, bat, bi. Mila eta hirurehun eta hamabi.

Mutil bat aurrera. Oso gaztea dirudi. Azkenengo mamutzarraren aurrean aureskuko hanka jasoaldi batzuk eginik, hots egiten du:

— Aski gizendu haiz Oromenderrietarren zoritxarretik. Hil hadi leher aurretik. Pun, pun! (Mamutzarra suak harturik erortzen da, Lezaundietako haitzuloa airatzerainoko txaloz eta garrasiz bildua). Neu nauk hire leherkundera, orain eta betirako. Pun!

Oraingoan ez dago isiltasunik. Lehertu da. Lehertu naiz. Lehertu gara.

— Agur eta hurrengo hilaren batera arte.

Lehertu da, lehertu naiz, lehertu gara. Oromenderrieta lehertua da behin betirako. Honek ez dauka bueltarik. Hizlari egin duenarengana hurbildu eta galdetzen diot:

— Zergatik heriotza alperreko hauek?

— Ez dituk alperrekoak, grinak erauzi gabe dauden bitartean.

— Noiz arte honela?

— Pilakuntzaren grina oroimenetik ere ezabatu arte.

— Eskarmentua beharrekoak galduak dira, ordea! Orain ez dago jaunik.

— Ez zegok, baina egon litekek. Lehen ere geure izaeratik sortu zuan gaitza. Hobe duk gero egin beharrekoa

aurretik egitea.

— Izaera ere aldatzeko asmoa al daukazue?

— Zergatik ez, ba? Lehenago hankalaukoitzak gintuan eta orain ez gaituk gogoratu ere egiten. Lauhankatasuna utzi eta gero ere, haren grinak mende luzeetan zehar iraun zian eta oraintxe ere gelditzen zaizkiguk haztarrenak, baina grina hura gaindituzat diagu, hankarik mozten hasi gabe. Beste honetan ere berdintsu gertatuko duk, baina ez berehala. Ez duk aski jaunak akabatzea. Grina sorrerazleak akabatu behar dituk eta horien eskarmentua luzea izaten duk, batez ere hain mende luzeetako finkapenetik datozenean. Ez al duk kirol ederra? Noiz ikusi duk hik honelako estadiorik?

— Zu al zara Oromenderrietako lehendakaria orain?

— Ez, mutil! Ni ez nauk inor, egun eder bat pasatzera etorri naizena besterik.

Eta nik nor naizen jakin nahi nuke, norbait baldin bainaiz. Baina hauek eta horiek eta besteak zibilizazio usteleko kontuak baitira, goazen egunpasa ederrera. Oronen mendeen herrien egunpasa betikoa. Oromenderrieta.

AURKIBIDEA

I. DENA EGINA	7
II. AZKEN BILTZARREA	19
III. ALEJAUNA	39
ARDOJAUNA	51
KOTONJAUNA	65
ZURJAUNA	77
IV. BILTZARRE LEHERGARRIA	87
V. ARRESJAUNA	103
ABELJAUNA	116
HEGAZTIJAUNA	126
ARRAINJAUNA	142
VI. BILTZARRE LEHERTUA	155
VII. BURDINJAUNA	169
ZILARJAUNA	181
URREJAUNA	191
VIII. HIRUGARRENA AZKENA	205
IX. ITXASJAUNA	217
OIHALJAUNA	225
SENDAJAUNA	232
AUTOJAUNA	239
AIREJAUNA	246
X. DIRUJAUNA	253
ARMAJAUNA	266
TENKO	276
XI. OROJAUNA	285
ELKARJANA	300
XII. LEZAJAUNA	311
XIII. AGUR JAUNAK	319

ARGITARATUTAKO LIBURUAK

1. Joseba Sarrionandia
NARRAZIOAK
2. Xabier Amuriza
HIL ALA BIZI
elaberria
3. Gotzon Garate
HADES-EN
ERRESUMARANTZ
elaberria
4. Txillardegi
LETURIAREN
EGUNKARI EZKUTUA
elaberria
5. Mercè Rodoreda
IPUIN HAUTATUAK
ipuinak
Maite Gonzalez itzultzaile
6. Patri Urkizu
NOLA KURSAAL
BERRIA SUNTSITU ZEN
ipuinak
7. Jon Mirande
GAUAZ PARKE BATEAN
ipuinak
8. Cesare Pavese
BURKIDEA
elaberria
Xabier Mendiguren
itzultzaile
9. Pio Berasategi
HAMABOST ISTORIO
AIZKORPEKO
ipuinak
10. Guy de Maupassant
OILAGORRAREN
IPUINAK
Felipe Juaristi itzultzaile
11. Jon Mirande
ENE JAINKO-EIDOL
ZAHAR, LUR!
olerkiak
12. Yon Etxaide
GORROTOA LEGE
elaberria
13. Patri Urkizu
ETSIPENEZ
elaberria
14. Joxemari Iturralde
NAFARROAKO
ARTIZARRA
elaberria
15. Jose Antonio Mujika
ITZALAK
ipuinak
16. Xabier Amuriza
OROMENDERRIETA
elaberria

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 7349/85

Gaia.

Tokia.

IDAZLEAREN BESTE ZENBAIT OBRA

Hitzaren kirol nazionala

Hiztegi errimatua

Zu ere bertsolari

Menditik mundura

Laurehun herri mila bertso berri

Herri eta irri

Oinak

Euskal aurrizkiak

Hil ala bizi

eta abar.

Dozena erdiren bat itzulpen ere bai.

Diskoak ere GOGOR izeneko hura,

MENDITIK MUNDURA eta oraintxe atera
berria, HERRIKO PLAZAN.